



# 2020ko Euskaraldiaren ikerketa

2021eko urria

Siadeco<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)



# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>4.</b>
<b>2. Bigarren Euskaraldia: "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan"</b> .....	<b>5.</b>
<b>3. Ikerketaren aurkezpena</b> .....	<b>7.</b>
<b>4. Parte-hartzaileen azterketa</b> .....	<b>16.</b>
<b>4.1. Euskararen eremu osoa</b> .....	<b>17.</b>
A ATALA. Norbanakoen unibertsoaz.....	18.
A.1. 2020ko Euskaraldia zenbakitan .....	18.
A.2. 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen euskara-ezagutza eta erabilera .....	39.
A.3. 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko.....	43.
B ATALA. Entitateen unibertsoaz.....	48.
B.1. Euskaraldian izena eman duten egoitzak .....	48.
B.2. Entitateek sortutako ariguneak .....	56.
<b>4.2. Euskal Autonomia Erkidegoa</b> .....	<b>66.</b>
A ATALA. Euskaraldia norbanakoen ikuspegitik .....	67.
A.1 Norbanakoen unibertsoaz .....	67.
A.1.1 2020ko Euskaraldia zenbakitan .....	67.
A.1.2 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko.....	84.
A.2 Norbanakoen parte-hartzeaz.....	87.
A.2.1 Karakterizazioa.....	87.
A.2.2 Euskaraldian parte-hartzeko arrazoiak.....	104.
A.2.3 Euskaraldia ariketako jarduna.....	113.
A.2.4 Euskaraldiaren eragina .....	120.
A.2.5 Ariguneetako jarduna.....	138.
A.2.6. Aurrera begira.....	141.
A.2.7. COVID-19aren eragina .....	153.
A.2.8 Norbanakoen joerak.....	155.
B ATALA. Euskaraldia entitateen ikuspegitik.....	162.
B.1 Entitateen unibertsoaz.....	162.
B.1.1 Euskaraldian izena eman duten egoitzak .....	162.
B.1.2 Entitateek sortutako ariguneak .....	168.
B.2 Entitateen parte-hartzeaz.....	179.
B.2.1 Karakterizazioa .....	179.
B.2.2 Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak .....	189.
B.2.3 Izena emateko prozesua.....	195.
B.2.4 Euskaraldiko jarduna.....	212.
B.2.5 Euskaraldiaren eragina.....	227.
B.2.6 Aurrera begira .....	240.
B.2.7. COVID-19aren eragina.....	244.
B.2.8 Entitateen joerak.....	247.

<b>4.3. Nafarroa .....</b>	<b>260.</b>
A ATALA. Euskaraldia norbanakoen ikuspegitik .....	261.
A.1 Norbanakoen unibertsoaz .....	261.
A.1.1 2020ko Euskaraldia zenbakitan .....	261.
A.1.2 2020KO Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko .....	272.
A.2 Norbanakoen parte-hartzeaz.....	274.
A.2.1 Karakterizazioa.....	274.
A.2.2 Euskaraldian parte-hartzeko arrazoiak.....	289.
A.2.3 Euskaraldia ariketako jarduna.....	298.
A.2.4 Euskaraldiaren eragina .....	304.
A.2.5 Ariguneetako jarduna.....	320.
A.2.6. Aurrera begira.....	323.
A.2.7. COVID-19aren eragina.....	335.
A.2.8 Norbanakoen joerak.....	337.
B ATALA. Euskaraldia entitateen ikuspegitik.....	345.
B.1 Entitateen unibertsoaz.....	345.
B.1.1 Euskaraldian izena eman duten egoitzak .....	345.
B.1.2 Entitateek sortutako ariguneak .....	349.
B.2 Entitateen parte-hartzeaz.....	358.
B.2.1 Karakterizazioa .....	358.
B.2.2 Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak .....	366.
B.2.3 Izena emateko prozesua.....	371.
B.2.4 Euskaraldiko jarduna.....	386.
B.2.5 Euskaraldiaren eragina.....	398.
B.2.6 Aurrera begira .....	410.
B.2.7. COVID-19aren eragina.....	415.
B.2.8 Entitateen joerak.....	417.
<b>5. Herri-batzordeen eta prozesuen azterketa .....</b>	<b>429.</b>
5.1. Azterketa kuantitatiboa .....	432.
5.2. 25 herri-batzorde arrakastatsuak hautatzeko prozedura .....	464.
5.3. Herri-batzorde arrakastatsuen ezaugarri bereizgarriak .....	465.
5.4. Herri-batzorde arrakastatsuen faktore baldintzatzaileak.....	468.
5.5. Euskaraldia antolatzeko herri-batzorde osasuntsuak sortzeko eta epe luzera mantentzeko dekalogo.....	477.
<b>6. Euskaraldia ariketa sozialaz .....</b>	<b>479.</b>
6.1. Aritu eta informatzaile kualifikatuen iritzia .....	480.
<b>7. Ondorioak .....</b>	<b>512</b>
7.1. Norbanakoak .....	513.
7.2. Entitateak .....	517.
7.3. Herri-batzordeak.....	522.
7.4. Euskaraldia ariketa sozialaz .....	524.

# 1. Sarrera.

Euskararen erabileran arreta jartzea euskararen bueltako eragile sozialek eta erakunde publikoek partekatutako jomuga izan da. Horretarako, modu kolektiboan euskararen erabileran eragiteko proposamena aurkeztu zen 2017ko Udaltop topaketan<sup>1</sup>; gerora, Euskaraldia izango zena. Euskal Herriko hainbat herritan, eta bereziki Lasarte-Orian, izandako esperientziari tiraka, Euskal Herri osorako ariketa planteatu zen, betiere tokian tokiko errealitatea ahaztu gabe. Ordutik bi edizio egin dira: 2018koa eta 2020koa.

Hain zuzen, bigarren edizio hau du aztergai ikerketa honek. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak eskatuta egin da, Euskaltzaleen Topagunearekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin elkarlanean.

---

<sup>1</sup> <https://www.udaltop.eus/documents/374239/468901/Proposamen+berria+hizkuntza-ohiturak+eta+gizarte+aktibazioa+lantzeko.pdf/829d36d4-32a3-9e1b-a7e6-dad27a79700e>



## 2.

**Bigarren Euskaraldia: ‘Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan’.**

Euskaraldia euskara gutxienez ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, euskal gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Hau da, Euskaraldiak herritar euskaldunen hizkuntza-ohituretan eragin nahi du, gizarte harremanetan euskararen erabilera areagotzeko asmoz. Herritarren aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintzak bi dira: 16 urtetik gora izatea eta euskara gutxienez ulertzea.

2018an egin zen ariketa soziala lehen aldiz, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* izenburupean, eta 2020an egin da bigarrena, hamabost egunekoa, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarte. *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* leloarekin.

Erakunde publikoen eta gizarte eragileen arteko elkarlanetik sortua, Euskaltzaleen Topagunearekin sustatzaile moduan dihardute Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. Nahiz eta Euskal Herri mailako ariketa izan, tokian toki antolatzeko ardura dute herri-batzordeek, bertako euskaltzaleek, eragile sozialek, tokiko erakundeek... osatutako lantaldeen bidez.


Hasiera-hasieratik ariketa praktikoa proposatu du Euskaraldiak: lehenengoan, norbanakoen urratsak izan zituen helburu; eta bigarrenean, horiekin batera, mota guztietako entitateetan babes neurriak ezartzea bultzatu zen. Hori horrela, ikerketa honek aztergai izango duen 2020ko bigarren Euskaraldian bi parte-hartzaile mota izan dira:

### **1. Norbanakoak:**

Lehen edizioan bezalaxe, *ahobizi* edo *belarriprest* rolen bitartez parte hartu ahal izan dute, betiere gutxieneko bi baldintza betez gero: 16 urte baino gehiago izatea eta gutxienez euskara ulertzeko gai izatea. Euskaraldian zehar hartu nahi zuten jokabideagatik hautatu behar izan dute rola: *ahobiziek* euskaraz egiten dute uneoro solaskideak euskara ulertzen duela dakitenean; eta *belarriprestek* gaitasunaren eta aukeren arabera erabakitzen dute nola egin une bakoitzean, baina modu esplizituan adierazten diote solaskideari euskaraz egin diezaioten nahi dutela. Izena ematerakoan zehaztu da hartutako rola. Bakarka egin zuten ariketa lehen edizioan; oraingoan, taldean, modu kolektiboan egiteko aukera izan dute, kide diren entitateen bidez.

### **2. Entitateak:**

Bakarkako ariketa izatetik, taldean ere egiteko aukera izan da bigarren edizioan, entitateen bidez. Entitate gisa Euskaraldian parte hartzeko, babes-gune bereziak sortu dira: *ariguneak* edo euskaraz lasai aritzeko guneak. Horietan, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen da uneoro, eta bi motatakoak izan daitezke: *barne-ariguneak*, entitate barruan sortutako taldeak dira, ohiko dinamika dute eta kide guztiek euskara ulertzen dute, gutxienez; edo *kanpo-ariguneak*, herritarrekiko harreman-guneetan dauden pertsonen osatzen dute, eta uneoro bermatu behar da gutxienez euskara ulertzen duen pertsona bat egongo dela. Ariguneetako kideak, halaber, *ahobizi* edo *belarriprest* izan dira.



# 3.

Ikerketaren aurkezpena.

2020ko Euskaraldia dinamika aztertzea du helburu ikerketa honek, eta horretarako hiru ikerketa-ildo zehaztu dituzte Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako departamentuak.

Illo bakoitzaren helburuak bete eta azterketa osatzeko, teknika eta metodologia ezberdinak erabili dira:

**1. IKERKETA-ILDOA:** Euskaraldian parte hartu dutenei buruzko azterketa, norbanakoena eta entitateena.

**Helburua:** Euskal Herri mailan, Euskaraldian izena eman dutenen eta parte hartu dutenen zenbatekoak (norbanako zein entitate) eta haien ezaugarriak ezagutzea.

**Informazio-iturriak:**

- **2020ko Euskaraldiko izen-emateen datu-baseak, norbanakoena eta entitateena.**  
Euskaraldiaren bigarren edizioan izena eman duten norbanakoen eta entitateen datu-oinarria erabili da unibertsoaren azterketa egiteko. Denera, 178.184 erregistroko datu-basea aztertu da norbanakoen kasuan, eta 8.309koa entitateenean.
- **Euskaraldiaren aurretik ikerketarako unibertsoa osatu nahi zutenek betetako galdetegia.**  
Izen-emateen datu-baseekin batera, ikerketaren unibertsoa osatu nahi zuten norbanakoek Euskaraldiaren aurretik betetako galdetegia ere aztertu da, bereziki, Euskal Herri mailako norbanakoen hizkuntza-ezagutzari eta -erabilerari buruzko azterketa egiteko. Denera, 59.557 erantzun jaso dira.

**2. IKERKETA-ILDOA:** Parte-hartzaileen, norbanakoen zein entitateen, jardunari eta jardun horren eraginari buruzko azterketa.

**Helburua:** Euskaraldiko EAEko eta Nafarroako parte-hartzaileen, norbanakoen zein entitateen, jarduna nolakoa izan den eta jardun horrek parte-hartzaileen harreman-sarean zer-nolako eragina izan duen aztertzea.

**Teknikak:**

Teknika kuantitatiboak zein kualitatiboak erabili dira parte-hartzaileen jardunari eta eraginari buruzko azterketa egiteko.



— **Parte-hartzaileei inkesta.**

**NORBANAKOAK**

2020ko Euskaraldian ahobizi eta belarriprest izan direnei egin zaie inkesta, lagin adierazgarria erabilita. Denera, 2.800 inkesta egin dira: 2.000 Euskal Autonomia Erkidegoan; eta 800, aldiz, Nafarroan. Datuak lurraldearen arabera eta rolaren arabera aztertu dira. Dena den, generoaren arabera aldeak antzeman direnean, horiek ere modu berezitan adierazi dira.

**ENTITATEAK**

Ariguneak sortu dituzten entitateei ere egin zaie inkesta, denera, 600: 400 EAEn; eta 200 Nafarroan. Lurraldearen eta entitate-motaren arabera aztertu dira datuak.

— **Eztabaida-taldeak**

**NORBANAKOAK**

Inkestaren bidez jasotako datu kuantitatiboak teknika kualitatiboekin uztartu dira. Horretarako, 11 eztabaida-talde egin dira: zortzi Euskal Autonomia Erkidegoan, eta hiru Nafarroan.

Hainbat aldagai gurutzatuta osatu dira: lurralde historikoa, rola, adin-tartea, gune soziolinguistikoa, eta kasu batzuetan, baita herriaren tamaina ere.

**EAEn:**

	LURRALDEA	ROLA	ADIN-TARTEA	GUNE SOZIOLOGIKOA	HERRI-MOTA
1. Eztabaida-taldea	Araba	Ahobizi	16-29 eta 30-40	2.gune soziolinguistikoa	Gasteiz
2. Eztabaida-taldea	Araba	Belarriprest	45etik gora	1 eta 2 gune soziolinguistikoa	Arabako Lautada
3. Eztabaida-taldea	Bizkaia	Ahobizi	45etik gora	3.gune soziolinguistikoa	Herri ertainak
4. Eztabaida-taldea	Bizkaia	Belarriprest	16-29	2.gune soziolinguistikoa	Bilbo Handia
5. Eztabaida-taldea	Bizkaia	Ahobizi eta belarriprest euskaldun osoak	30-44	3 eta 4 gune soziolinguistikoa	Herri txiki-ertainak
6. Eztabaida-taldea	Gipuzkoa	Ahobizi	16-29	3 eta 4 gune soziolinguistikoa	Herri txikiak
7. Eztabaida-taldea	Gipuzkoa	Ahobizi	45etik gora	2.gune soziolinguistikoa	Herri ertain-handiak
8. Eztabaida-taldea	Gipuzkoa	Belarriprest	30-44 eta 45-60	3.gune soziolinguistikoa	Herri ertainak

### **Nafarroan:**

	LURRALDEA	ROLA	ADIN-TARTEA	HERRI-MOTA
1. Eztabaida-taldea	Nafarroa	Ahobizi	30-44	Iruñea-Iruñerria
2. Eztabaida-taldea	Nafarroa	Ahobizi	45etik gora	
3. Eztabaida-taldea	Nafarroa	Belarriprest	16-29	

### **ENTITATEAK**

Entitateekin ere egin dira eztabaida-taldeak. Denera, sei: lau EAEn, eta Nafarroan, bi. Kasu honetan, taldeak osatzerakoan bereziki erreparatu zaio entitate-motari. EAEn, beste hainbat aldagai kontuan hartzeko aukera izan da:

### **EAEn:**

	ENTITATE-MOTA	ARIGUNE-MOTA	GUNE SOZIOLINGUISTIKOA
1. Eztabaida-taldea	Industria-enpresak	Barne-ariguneak	3 eta 4 gune soziolinguistikoa
2. Eztabaida-taldea	Zerbitzuei loturikoak: enpresa txikiak, establezimenduak...	Kanpo-ariguneak	2.gune soziolinguistikoa
3. Eztabaida-taldea	Elkarteak, gizarte mugimenduak, eragileak...		3 eta 4 gune soziolinguistikoa
4. Eztabaida-taldea	Administrazio publikoa eta hezkuntza		

### **Nafarroan:**

	ENTITATE-MOTA
1. Eztabaida-taldea	Administrazio publikoa eta hezkuntza
2. Eztabaida-taldea	Zerbitzuei loturikoak: enpresa txikiak, establezimenduak...

## — **Elkarrizketak**

### **NORBANAKOAK**

2020ko Euskaraldian parte hartu duten norbanakoekin egindako eztabaida-taldeetan jasotako informazioan sakontzea izan dute helburu. Ahobizi zein belarriprestekin, denera, 45 elkarrizketa egin dira: 30 EAeko parte-hartzaileekin; eta beste 15, Nafarroakoekin.

### **ENTITATEAK**

Entitateengana ere modu berean jo da. Bertako solaskideekin, beste 45 elkarrizketa egin dira: 30 EAEn eta 15 Nafarroan.

### 3. IKERKETA-ILDOA: Batzordeen eta prozesuen azterketa

**Helburua:** Batzordeen eta prozesuen azterketa egitea, arrakastatsuak izateko baldintzak bete dituzten prozesuen faktore baldintzatzaileak (aldekoak eta kontrakoak) identifikatu eta faktore horiek gainerako prozesuetara zabaltzeko bideak zehaztu ahal izateko.

#### **Teknikak:**

##### — **Inkesta.**

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herri-batzorde guztiei eskaini zitzaizen aukera galdetegia betetzeko. Denera, 225 informazio-unitate ditugu. Hainbat kasutan eskualdeko datuak eskaini dira horietan, beraz, herri gehiago ordezkatzeko direla esan daiteke. Herri-batzorde guztien azterketa bateratua egin bada ere, EAEko eta Nafarroako batzordeen artean alde nabarmenik identifikatu bada, hala adierazi da.

##### — **Elkarrizketa sakonak.**

Galdetegietan emandako informazioarekin 25 herri-batzorde hautatu dira, elkarrizketa bidez baldintzatzaileak izan daitezkeen faktoreetan sakontzeko. Hainbat aldagai hartu dira kontuan, horretarako: baldintzatzaileak izan daitezkeen faktoreei buruz inkestan emandako erantzunak, lurraldea, herriaren tamaina edota errealitate soziolinguistikoa.

#### **EAE**

##### ARABA

- Arabako Lautada
- Laudio
- Oion
- Salburua (Gasteiz)

##### BIZKAIA

- Algorta (Getxo)
- Basauri
- Elorrio
- Gernika-Lumo
- Larrabetzu
- Markina-Xemein

## GIPUZKOA

- Aduna
- Andoain
- Donostia
- Elgoibar
- Orio

## **Nafarroan**

- Andosilla
- Arrosadia (Iruña)
- Arrotxapea (Iruña)
- Burlada/Burlata
- Estellerria
- Etxarri Aranatz
- Lakuntza
- Leitza
- Lizarraga
- Zizur Nagusia

Teknika horiek guztiak baliatu dira Euskaraldiari buruzko informazioa jasotzeko, eta ondoren, gaiari buruz ezagutza izan dezaketen aditu eta informatzaile kualifikatuekin kontrastatu da. Denera, 20 informatzailek osatu dute panela:

- **Ane Olabbarri.** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko euskara teknikaria
- **Arrate Illaro.** Euskaraldiako Koordinatzailea
- **Beñat Garaio.** Ikerlaria eta Gasteizko euskaltzaileen mugimenduko kidea, Soziolinguistika Klusterreko kidea.
- **Edurne Ramon.** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Euskara sustatzeko zuzendaritza.
- **Garikoitz Goikoetxea.** Galtzaundi elkarteko zuzendaritza-kidea eta UEMAko kidea gaur egun. Lehenago, Berriako euskara saileko arduradun; Euskaraldiko jarraipena egin izan du beti.
- **Idoia Trenor.** Donostiako Euskaraldiko koordinatzaile ohia, gaur egun Bertsozale Elkarteko koordinatzaile nagusia. Mugimendu feministako kidea.
- **Imanol Miner.** Kutxabankeko hizkuntza normalkuntzako teknikaria eta Errenteriako batzordeko kidea
- **Iraiti Martin.** Zaldibarko dinamizatzailea (Topaguneak kontratatua)
- **Jokin Larrañaga.** Arabako Foru Aldundiaren euskara zerbitzuburua
- **Jon Bujanda.** Euskarabideako teknikaria eta Karrikiri elkarteko batzordekidea.
- **Kike Amonariz.** Euskaltzaileen Topaguneko presidentea.
- **Leire Errandonea.** Euskaraldiko Bortzirietako dinamizatzailea izandakoa.

- **Leire Zuazo.** Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen saileko euskara teknikaria.
- **Maddi Etxebarria Bilbao.** Elhuyarko kidea eta Euskaraldiko bigarren edizioko sorrera taldeko kidea (ariguneeen sorrera). Euskaraldiko lan mundua batzordeko kidea.
- **Maitane Junguitu.** Game Erauntsia, bideojokoen euskal komunitateko kidea.
- **Manex Agirre.** Arabako Gorbeialdeko Kuadrillako euskara teknikaria.
- **Mertxe Mujika.** AEK-ko irakaslea eta koordinatzaile nagusi ohia.
- **Mikel Irizar.** Soziolinguistika Klusterreko presidentea, Elorriko batzordeko kidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko hizkuntza Berdintasunerako zuzendari ohia, Topaguneko presidente ohia...
- **Nekane Jauregi.** Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zerbitziburua.
- **Pablo Suberbiola.** Soziolinguistika Klusterra, tokian tokiko aktibaziorako gakoak.
- **Txerra Rodriguez.** Derioko Tximintx elkarteko kidea eta EMUNeko kidea. Euskara elkarteei buruzko doktoretza tesia egin du.

Ikerketaren egiturari dagokionez, sarrera honen ondoren, azterlana bitan zatitzen da: lehenengoak hasierako bi ikerketa-ildoekin dauka zerikusia, parte-hartzaileak, norbanakoak zein entitateak, aztertzen baitira; eta bigarrenak, aldiz, 3. Ikerketa-ildoarekin dago lotuta, herri-batzordeen azterlanarekin, hain zuzen. Horren ondoren, aditu eta informatzaile kualifikatuekin kontrastatutakoa laburbiltzen da. Ikerlana ondorioen atalak borobiltzen du.

## Oinarrizko hiztegia

Ikerketan erabili diren zenbait terminoren ulermena errazte aldera, zenbait definizio bildu dira segidan.

**Ahobizi:** ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira.  
(Euskaraldia, 2018)

**Belarriprest:** gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.  
(Euskaraldia, 2018)

**Arigunea:** Euskaraz lasai aritzeko guneak dira eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan (barne ariguneak) edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean (kanpo ariguneak).  
(Euskaraldia, 2020)

**Herri-batzordeak:** Euskaraldiaren herri-batzordea herrian, auzoan edota eskualdean Euskaraldia antolatzekeo ardurak hartzen duen taldea da.  
(Euskaraldia, 2018)

**Koordinazio orokorra:** koordinazio orokorreko eragileek ariketaren oinarriak eta ekimen masiboaren kronograma zein komunikazio orokorra prestatzen dituzte.  
(Euskaraldia, 2018)

**Entitateak:** Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), ariguneren bat badute. Entitate batek, era berean, egoitza edo establezimendu bat baino gehiago izan ditzakete.  
(Euskaraldia, 2020)

**Degurba sailkapena:** DEGURBA edo urbanizazio-maila eremu baten izaera adierazten duen sailkapena da. Hiri multzoetan eta hiriguneetan bizi den tokiko biztanleriaren arabera oinarrituta, Tokiko Administrazio Unitateak hiru eremu motatan sailkatzen ditu:

- **Hiriguneak:** Biztanleria dentsitate handiko eremuak. Ziega jarraituan (baita diagonalean ere), gutxienez 1.500 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 50.000 biztanle baino gehiago denera.
- **Bitarteko hirigunea:** Tarteko dentsitate eremuak. Ziega jarraituan, gutxienez 300 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 5.000 biztanle baino gehiago denera.
- **Landa-eremua:** biztanle gutxiko eremuak.

(Eurostat, 2011)

**Gune soziolinguistikoa:** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau gune soziolinguistiko ezarri zituen biztanleriaren euskaldunen ehunekoaren arabera. Honako hau da banaketa:

- **Lehen gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna.
- **Bigarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %20-50 bitartean da euskalduna.
- **Hirugarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %50-80 bitartean da euskalduna.
- **Laugarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.

(VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016)

**Etxeo hizkuntza:** etxean maizen hitz egiten den hizkuntza  
(*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:43*)

**Lehen hizkuntza:** Hautzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena.  
(*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:35*)

**Hizkuntza-gaitasuna:** Hitzun batek hizkuntzaz duen ezagutza-maila. Gaitasun horren bidez, perpausak sortzeko eta ulertzeko gai da hiztuna, baita perpaus bat gramatikala den edo ez den ebazteko ere.  
(*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:49*)

**Hizkuntza-jokabidea:** hizkuntza-hautua.  
(*Euskaraldia, 2018*)

**Hizkuntza gaitasun erlatiboa:** Elebidunak hiru multzotan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

- Euskal elebidunak, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnak.
- Elebidun orekatuak, berdin moldatzen direnak euskaraz zein erdaraz.
- Erdal elebidunak, erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino. 11.

(*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013:25*).

**Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.  
(*VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016*).

**Euskaldun hartzailea edo ia-euskalduna:** ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:

- Euskaraz "zertxobait" ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- Euskaraz "ondo" edo "nahiko ondo" ulertzeko gai da.

(*IV. Inkesta soziolinguistikoa, 2016*).



# 4.

## Parte-hartzaileen azterketa.





## 4.1. Euskararen eremu osoa

# A atala


## Norbanakoen unibertsoaz

### A.1. 2020KO EUSKARALDIA ZENBAKITAN

2020ko Euskaraldian bigarren ez gonbita egin zaie euskara gutxienez ulertzen dutenei ahobizi edo belarriprest rola hartu eta ariketa sozialean parte har dezaten. Euskal Herri osoan, denera, 178.184 norbanakok parte hartu dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Horietatik, ahobizi rola hartu dute 137.348 parte-hartzailek (% 77,1), eta 40.836 izan dira belarriprest (% 22,9).

1. grafikoa

**2020ko parte-hartzaileak (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2018ko edizioarekin alderatuta (225.154), kopuru absolututan 46.970 parte-hartzaile gutxiago izan dira, % 20,9 jaitsi da, hain zuzen. Orduan ere ahobizi rola hartu zutenak gehiago izan ziren (163.927; % 72,8) belarriprest-ak baino (61.227; % 27,2). 2020ko Euskaraldian alde hori handitu egin da termino erlatibotan: ahobiziak % 72,8 izatetik % 77,1 izatera igaro dira; eta belarriprestak % 27,2 izatetik % 22,9 izatera. Datu absolutuetan, aldiz, 26.579 ahobizi eta 20.391 belarriprest gutxiago izan dira.

2. grafikoa

**2020ko eta 2018ko parte-hartzaileak rolaeren arabera (kop.)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

1. taula

**2020ko eta 2018ko parte-hartzaileak rolaeren arabera**


	2018		2020		2018-2020 aldea	
	Kop	%	Kop	%	Kop.	%
Ahobizi	163.927	72,8	137.348	77,1	-26.579	-16,2
Belarriprest	61.227	27,2	40.836	22,9	-20.391	-33,3
<b>Guztira</b>	<b>225.154</b>	<b>100,0</b>	<b>178.184</b>	<b>100,0</b>	<b>-46.970</b>	<b>-20,9</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Lurraldearen** arabera, Gipuzkoak eta Bizkaiak egin dute ekarpen kuantitatibo handiena; hamarretik ia zortzi dira bertakoak: gipuzkoarra da parte-hartzaileen % 43,8 (78.100 lagun), eta bizkaitarra, aldiz, % 34,4 (61.227). Kontran, Diasporak eta Zuberoak dute pisu gutxien, % 0,3 eta % 0,1, hurrenez hurren.

1. mapa

**Euskaraldian izena eman duten norbanakoen kopurua lurraldeka**




*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Dena den, lurralde bakoitzak ahobizi eta belarriprest rol bakoitzean daukan pisuan badaude aldeak:

- Arabak eta Bizkaiak belarriprest rolean duten pisua handiagoa da ahobizi rolean dutena baino: Arabaren kasuan lau puntu portzentualeko aldea dago (% 11,7 eta % 7,5); eta Bizkaiaren kasuan, aldiz, zazpi puntukoa da aldea (% 40,1 eta % 32,6).
- Aldiz, Gipuzkoak ekarpen handiagoa egiten du ahobizi rolean, belarriprest rolean baino (% 40,1 eta % 32,6).
- Nafarroak rol batean eta bestean duen pisua, aldiz, nahiko parekatuta dago. Gauza bera gertatzen da Iparraldeko lurraldeen eta Diasporaren kasuan ere.

### 3. grafikoa

#### 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldearen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Bigarren edizioiko datuak 2018ko datuekin alderatzen badira, denera, 46.970 lagun gutxiagok eman dute izena (-% 20,9). Gainera, izen-emate kopuruetan jaitsiera orokortua izan da lurralde guztietan:

- Ipar Euskal Herriko lurraldeetan jaitsi da gehien izen-emate ehunekoa: Nafarroa Behereak izan du beherakadarik nabarmenena (-% 42,7); % 36 jaitsi da izen-ematea Lapurdin, eta % 26,9, Zuberoan.
- EA Eren kasuan, Araban gutxitu da gehien parte-hartzaileen ehunekoa (-% 25,8). Bizkaian % 23,5 egin du behera, eta Gipuzkoan, aldiz, % 19,1.
- Nafarroa da parte-hartzaile gutxien galdu duen lurraldea (2.795 parte-hartzaile gutxiago 2018an baino, -% 12,5).

2. taula

**2018ko eta 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak, lurraldearen eta rolaren arabera alderatuta**

		Ahobizi		Belarriprest		Guztira		Aldea 2018-2020
		2018	2020	2018	2020	2018	2020	
Araba	Kop.	12.896	10.264	7.383	4.793	<b>20.279</b>	<b>15.057</b>	<b>-5.222</b>
	%	7,9%	7,5%	12,1%	11,7%	<b>9,0</b>	<b>8,5</b>	<b>-25,8</b>
Gipuzkoa	Kop.	75.716	64.214	20.806	13.886	<b>96.522</b>	<b>78.100</b>	<b>-18.422</b>
	%	46,2%	46,8%	34,0%	34,0%	<b>42,9</b>	<b>43,8</b>	<b>-19,1</b>
Nafarroa	Kop.	16.007	14.948	6.327	4.591	<b>22.334</b>	<b>19.539</b>	<b>-2.795</b>
	%	9,8%	10,9%	10,3%	11,2%	<b>9,9</b>	<b>11,0</b>	<b>-12,5</b>
Bizkaia	Kop.	55.025	44.842	25.011	16.385	<b>80.036</b>	<b>61.227</b>	<b>-18.809</b>
	%	33,6%	32,6%	40,8%	40,1%	<b>35,5</b>	<b>34,4</b>	<b>-23,5</b>
Lapurdi	Kop.	3.030	2.064	1.357	742	<b>4.387</b>	<b>2.806</b>	<b>-1.581</b>
	%	1,8%	1,5%	2,2%	1,8%	<b>1,9</b>	<b>1,6</b>	<b>-36,0</b>
Nafarroa Beherea	Kop.	1.065	633	286	141	<b>1.351</b>	<b>774</b>	<b>-577</b>
	%	0,6%	0,5%	0,5%	0,3%	<b>0,6</b>	<b>0,4</b>	<b>-42,7</b>
Zuberoa	Kop.	188	137	57	42	<b>245</b>	<b>179</b>	<b>-66</b>
	%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	<b>0,1</b>	<b>0,1</b>	<b>-26,9</b>
Diaspora	Kop.	0	246	0	256	<b>0</b>	<b>502</b>	<b>502</b>
	%	0,0%	0,2%	0,0%	0,6%	<b>0,0</b>	<b>0,3</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>Kop.</b>	<b>163.927</b>	<b>137.348</b>	<b>61.227</b>	<b>40.836</b>	<b>225.154</b>	<b>178.184</b>	<b>-46.970</b>
	<b>%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100</b>	<b>100,0</b>	<b>-20,9</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nahiz eta eremu gehienetan – Diaspora da salbuespen bakarra – ahobizi rola hartu dutenak gehiengoak izan, lurralde bakoitzean ere badaude aldeak bertako parte-hartzaileek rol bata edo bestea hartzerakoan:

- Joera orokorretik gertuen dauden lurraldeak Nafarroa eta Zuberoa dira; bietan % 76,5 izan da ahobizi eta % 23,5 belarriprest.
- Araba da joera horretatik gehien urruntzen den lurraldea, bederatzi puntuko aldearekin: ahobiziak % 68,2 izan dira, eta belarriprestak % 31,8. Gipuzkoa dago jarraian, bost puntuko aldearekin: bertan, % 82,2k ahobizi rola hartu du, eta % 17,8k, belarriprest rola.


4. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldeka, rol bakoitzaren proportzioaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Rol bakoitzaren pisua norbanakoen izen-ematearekiko, lurraldearen arabera**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



Euskal Herri osoan ahobizien proportzioa 4,6 puntu igo da 2018ko datuekin alderatuta: 2018an parte-hartzaileen % 72,8k ahobizi rola hartu zuen, eta 2020an, aldiz, % 77,1ek. Hain zuzen, Araban eta Nafarroan igo da gehien ahobizien pisua, 4,8 puntu, hain zuzen. Kontran, Zuberoan igo da gutxien, 0,2 puntu portzental.

### 3. taula

#### 2018ko eta 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldeka, rol bakoitzaren proportzioaren arabera

	2018		2020	
	Ahobizi	Belarriprest	Ahobizi	Belarriprest
Araba	63,6	36,4	68,2	31,8
Gipuzkoa	78,4	21,6	82,2	17,8
Nafarroa	71,7	28,3	76,5	23,5
Bizkaia	68,8	31,2	73,2	26,8
Lapurdi	69,1	30,9	73,6	26,4
Nafarroa Beherea	78,8	21,2	81,8	18,2
Zuberoa	76,7	23,3	76,5	23,5
Diaspora	0,00	0,00	49,0	51,0
<b>Guztira</b>	<b>72,8</b>	<b>27,2</b>	<b>77,1</b>	<b>22,9</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Izena eman duten herritarren **habitatari**<sup>2</sup> erreparatzen badiogu, bitarteko hirigunean dauden herrietan eman dute izena parte-hartzaileen % 45,1ek (80.303). Rolaren arabera, aldiz, joerak ezberdinak dira: hirigunea da belarriprest kopuru handiena sortu duena (18.572; % 45,5), eta bitarteko hirigunean sortu dira ahobizi gehien (65.154, % 47,4).

<sup>2</sup> DEGURBA sailkapena erabili da Euskal Herriko herrien urbanizazio-maila definitzeko.

5. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Bi edizioetako datuak kalkulatzeko badiugu, hirigunea da 2020ko Euskaraldian pisua galdu duen bakarra; hain zuzen, bi puntuko galera izan du bai ahobizien kasuan, baita belarriprestenean ere. Hiriguneak galdutako pisua, modu orekatuan banatu da bitarteko hirigunearen, landa eremuaren eta diasporaren artean.

Dena den, hiru urbanizazio-mailek galdu dituzte parte-hartzaileak: hiriguneak 22.376 izen-emate gutxiago izan ditu (-% 9,9); bitarteko hiriguneak 18.478 (-% 8,2), eta landa-eremuak 7.163 (-% 3,2).

4. taula

**2018ko eta 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak urbanizazio-mailaren arabera eta rolaen arabera alderatuta**

		2018		2020		Parte-hartzaileak guztira		2018 eta 2020 aldea		
		Ahobizi	Belarriprest	Ahobizi	Belarriprest	2.018	2.020	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Hirigunea	Kop.	55.147	29.241	43.440	18.572	84.388	62.012	-11.707	-10.669	<b>-22.376</b>
	%	33,6	47,8	31,6	45,5	37,5	34,8	-7,1	-17,4	<b>-9,9</b>
Bitarteko hirigunea	Kop.	76.457	22.324	65.154	15.149	98.781	80.303	-11.303	-7.175	<b>-18.478</b>
	%	46,6	36,5	47,4	37,1	43,9	45,1	-6,9	-11,7	<b>-8,2</b>
Landa eremua	Kop.	32.323	9.662	28.084	6.738	41.985	34.822	-4.239	-2.924	<b>-7.163</b>
	%	19,7	15,8	20,4	16,5	18,6	19,5	-2,6	-4,8	<b>-3,2</b>
Zehaztu gabe (Diaspora eta beste)	Kop.	0	0	670	377	0	1.047	670	377	<b>1.047</b>
	%	0,0	0,0	0,5	0,9	0,0	0,6	0,4	0,6	<b>0,5</b>
<b>Guztira</b>	Kop.	<b>163.927</b>	<b>61.227</b>	<b>137.348</b>	<b>40.836</b>	<b>225.154</b>	<b>178.184</b>	<b>-26.579</b>	<b>-20.391</b>	<b>-46.970</b>
	%	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>-16,2</b>	<b>-33,3</b>	<b>-20,9</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2020ko parte-hartzaileak **eskualdeka** banatzen baditugu, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuen inguruan eman da parte-hartze kopuru handiena; hain zuzen, Bilbo Handian eta Donostialdean izan dira izen-emate gehien, 33.490 eta 28.197, hurrenez hurren. 2018ko edizioko zerrendarekin alderatzen badugu, aldaketa txiki bat dago: Arratia-Nerbioi zerrendatik atera da eta Baztan-Bidasoa sartu da.

5. taula


**2020ko Euskaraldian parte-hartze handiena izan duten 15 eskualdeak**

Eskualdea	Parte-hartzaileak guztira
Bilbo Handia	33.490
Donostialdea	28.197
Urola-Kostaldea	11.742
Arabako Lautada	10.828
Debagoiena	10.656
Iruñerria	9.983
Goierri	9.673
Durangaldea	8.777
Tolosaldea	7.590
Debarrena	6.311
Plentzia-Mungia	5.319
Gernika-Bermeo	5.235
Lea Artibai	4.370
Bidasoa Beherea	3.703
Baztan-Bidasoa	3.017

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

### 3. mapa

#### Euskaraldian izena eman duten norbanakoen kopurua eskualdeka



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Bi rolen proportzioak eskualdeka aztertzen baditugu, Lea Artibai da ahobizien eta belarripresten artean desoreka handiena duen eskualdea; % 90,3 ahobizi izan da bertan. 2018an ere, bertan izan zen ahobizien proportzio altuena; 2020an, ordea, ia bi puntu igo da ahobizien pisua.

### 6. taula


#### 2020ko Euskaraldiko ahobizi proportzio handieneko 15 eskualdeak

	Ahobiziak
Lea Artibai	90,3
Urola-Kostaldea	89,9
Larraun-Leitzaldea	89,2
Baztan-Bidasoa	89,1
Gernika-Bermeo	86,5
Tolosaldea	86,2
Iholdi-Oztibarre	85,7
Garazi-Baigorri	84,9
Goierri	84,9
Debagoiena	82,2
Arrati Nerbioi	81,6
Sakana	81,0
Bidasoa Beherea	80,2
Durantaldea	79,8
Donostialdea	78,4

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

#### 4. mapa

#### Ahobizien proportzioa eskualdeka (%)




Iturria: Euskalaldia, 2020. Siadecok landua.

2020ko Euskalaldiko parte-hartzaileen **adina** hartutako rolaekin gurutzatuz gero, joera orokorrari jarraiki (% 77,1), adin-tarte guztietan hamarretik zazpik baino gehiagok hartu du ahobizi rola.

Bereziki esanguratsua da adinean gora egin ahala, belarriprest rola hautatu dutenen ehunekoak ere gora egiten duela: 16-29 adin-tartean % 14,9 da belarriprest, eta 60 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 29,2. Hortaz, ahobizien eta belarripresten arteko aldea orekatuagoa da adinean gora egin ahala, nahiz eta aldea, oraindik ere, nabarmena izan.

6. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko ahobizi eta belarriprestaren proportzioak adin-tarteka (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

7. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak adinaren eta hautatutako rolaren arabera**

		16-29 urte	30-44 urte	45-60 urte	>60 urte	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	Kop.	35.410	49.351	38.510	13.938	139	<b>137.348</b>
	%	85,1	78,8	71,3	70,8	71,3	<b>77,1</b>
Belarriprest	Kop.	6.187	13.313	15.537	5.743	56	<b>40.836</b>
	%	14,9	21,2	28,7	29,2	28,7	<b>22,9</b>
<b>Guztira</b>	<b>Kop.</b>	<b>41.597</b>	<b>62.664</b>	<b>54.047</b>	<b>19.681</b>	<b>195</b>	<b>178.184</b>
	<b>%</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


Adin-tarte horiek berak lurraldeen arabera banatzen baditugu, berriz, 30 eta 44 urte bitartekoek dute pisu handiena Euskal Herri osoan. Hurrengo adin-tartean, ordea, aldeak daude:

- Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin, Zuberoan eta Diasporan 45 eta 60 urte bitartekoak daude jarraian.
- Nafarroan eta Nafarroa Beherean, aldiz, gazteenak daude, 16 eta 29 urte bitartekoak, alegia.

Nabarmentzekoa da, baita ere, 60 urtetik gorakoek pisu erlatibo esanguratsuena Iparraldeko lurraldeetan dutela, baita Gipuzkoan ere.

7. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Ahobizi edo belarriprest rola hartu duten kontuan hartzen badugu, ahobizien kasuan joera orokorrak mantentzen dira. Belarripresten kasuan, aldiz, 45-50 urte bitartekoek dute pisu gehien Hegoaldean, eta 30-44 urte bitartekoek Iparraldean zein Diasporan.

## 8. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen lurralde-banaketa adinaren eta rolaen arabera (%)**

		Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Diaspora	Guztira
Ahobizi	16-29 urte	26,3	24,6	31,4	25,5	23,5	29,2	19,0	29,3	25,8
	30-44 urte	40,0	34,7	36,9	36,3	40,2	36,0	35,8	35,4	35,9
	45-60 urte	28,1	29,2	23,1	28,3	24,4	20,1	31,4	27,6	28,0
	>60 urte	5,6	11,5	8,5	9,7	11,9	14,4	13,1	6,9	10,1
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0	0,3	0,7	0,8	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Belarriprest	16-29 urte	18,4	11,9	14,8	17,2	11,5	10,6	11,9	20,7	15,2
	30-44 urte	35,7	28,7	32,9	34,0	49,2	48,2	38,1	35,9	32,6
	45-60 urte	37,6	41,5	35,1	36,9	25,6	29,8	31,0	28,5	38,0
	>60 urte	8,2	17,9	17,2	11,7	13,7	10,6	19,0	14,5	14,1
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,1	0,2	0,0	0,7	0,0	0,4	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Guztira	16-29 urte	23,8	22,3	27,5	23,3	20,3	25,8	17,3	24,9	23,3
	30-44 urte	38,7	33,6	36,0	35,7	42,6	38,2	36,3	35,7	35,2
	45-60 urte	31,1	31,3	25,9	30,6	24,7	21,8	31,3	28,1	30,3
	>60 urte	6,4	12,6	10,6	10,2	12,4	13,7	14,5	10,8	11,0
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0	0,4	0,6	0,6	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Adin-tarte bakoitzak lurralde bakoitzean 2018an izandako pisua 2020an izan duenarekin konparatuta, oro har, esan daiteke 45 eta 60 urte bitartekoen pisu erlatiboa hazi dela gehien. Lapurdi eta Nafarroa Beherea dira salbuespena; bertan, 30-44 adin-tarteak jasan du hazkunde hori. Gainontzeko lurraldeetan, aldiz, adin-tarte hori izan da pisu gehien galdu duena.

Nabarmentzekoa da, halaber, Gipuzkoak eta Nafarroak eusten jakin diotela gazteenen jaitsiera erlatibo txikiari.



9. taula

**2018ko eta 2020ko parte-hartzaileen banaketa adinaren eta lurraldearen arabera (%)**

	Araba		Gipuzkoa		Nafarroa		Bizkaia		Lapuri		Nafarroa Beherea		Zuberoa		Diaspora	Guztira	
	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2020	2018	2020
16-29 urte	24,5	23,8	22,1	22,3	27,5	27,5	24,4	23,3	20,9	20,3	29,2	25,8	21,6	17,3	24,9	23,7	23,3
30-44 urte	41,4	38,7	35,2	33,6	37,7	36,0	37,4	35,7	38,7	42,6	35,8	38,2	44,9	36,3	35,7	36,9	35,2
45-60 urte	27,6	31,1	28,5	31,3	24,4	25,9	27,8	30,6	25,0	24,7	20,8	21,8	20,0	31,3	28,1	27,6	30,3
>60 urte	6,5	6,4	14,2	12,6	10,4	10,6	10,4	10,2	15,4	12,4	14,2	13,7	13,5	14,5	10,8	11,8	11,0
Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,4	0,0	0,6	0,6	0,0	0,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Gazteen presentzia bereziki nabarmena izan da Iparraldeko, Nafarroako eta Arabako eskualdeetan. Lau eskualdetan hamar parte-hartzailetik zazpi, gutxienez, 16 eta 44 urte bitartekoa da: Hazparneko Lurraldean (% 74,7), Izarbeibar-Noveneran (% 74,4), Iholdi-Oztibarren (% 70,5); eta Errioxa Arabarrean (% 70,2).

10. taula

**16-44 urtekoen presentzia handieneko 15 eskualdeak (%)**

	16-44 urte
Hazparneko Lurraldea	74,7%
Izarbeibar-Novenera	74,4%
Iholdi-Oztibarre	70,5%
Errioxa Arabarra	70,2%
Errobi	66,4%
Kantauri Arabarra	66,1%
Estellerria	66,0%
Pirinioaurrea	66,0%
Zangozeria	65,9%
Euskal Kostaldea-Aturi	65,3%
Enkartzioak	65,1%
Iruñerria	65,0%
Erribera	63,8%
Garazi-Baigorri	63,7%
Baztan-Bidasoa	62,9%

11. taula

**45-60 urtekoen presentzia handieneko 15 eskualdeak (%)**

	45-60 urte
Gorbeia Inguruak	34,9%
Bidasoa Beherea	33,7%
Trebiñoko Konderría	33,3%
Donostialdea	32,6%
Lea Artibai	32,4%
Debagoiena	32,1%
Xiberoa	32,0%
Zehaztu gabe	31,9%
Arabako Lautada	31,8%
Debabarrena	31,5%
Plentzia-Mungia	31,4%
Durangaldea	31,0%
Arrafi Nerbioi	30,9%
Arabako Mendialdea	30,8%
Bilbo Handia	30,4%

12. taula


**60 urtetik gorakoen presentzia handieneko 15 eskualdeak (%)**

	>60 urte
Bidaxuneko lurraldea	21,6%
Gernika-Bermeo	18,5%
Amikuze	18,0%
Lea Artibai	15,6%
Larraun-Leitzaldea	15,0%
Debabarrena	14,8%
Garazi-Baigorri	14,6%
Pirinioak	13,9%
Hego Lapurdi	13,9%
Euskal Kostaldea-Aturi	13,5%
Sakana	13,2%
Debagoiena	13,2%
Goierri	13,1%
Xiberoa	13,0%
Tolosaldea	12,4%

Parte-hartzaileen **adina eta generoa** gurutzatzen baditugu, emakumezkoen nagusitasuna nabarmena da, oro har, adin guztietan, baina, bereziki, 60 urtetik beherakoen artean.

8. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak adinaren eta generoaren arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Generoen proportzioetan erreparatzen badugu, joera orokorra da emakumezkoak nagusitzea: parte-hartzaile guztien % 62,4 dira emakumeak (111.134), % 36,6 gizonezkoa da (65.334), eta % 1 ez-binarioa (1.713). Proportzio hauek ez dira asko aldatzen, ez rolaeren arabera, ezta lurraldeen arabera ere.

9. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

13. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak generoaren eta rolaen arabera**

		Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	Kop.	86.582	48.472	1.292	2	<b>137.348</b>
	%	63,0	35,3	0,9	0,0	<b>100,0</b>
Belarriprest	Kop.	24.552	15.862	421	1	<b>40.836</b>
	%	60,1	38,8	1,0	0,0	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>Kop.</b>	<b>111.134</b>	<b>65.334</b>	<b>1.713</b>	<b>3</b>	<b>178.184</b>
	<b>%</b>	<b>62,4</b>	<b>36,7</b>	<b>1,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

14. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak generoaren eta rolaren arabera (%)**

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Zehaztu gabe	Guztira
Araba	63,5	35,1	1,4	0,0	100,0%
Gipuzkoa	61,4	37,7	0,9	0,0	100,0%
Nafarroa	61,1	38,0	0,8	0,0	100,0%
Bizkaia	63,8	35,2	1,0	0,0	100,0%
Lapurdi	60,8	38,4	0,7	0,0	100,0%
Nafarroa Beherea	63,0	35,9	1,0	0,0	100,0%
Zuberoa	63,1	35,8	1,1	0,0	100,0%
Diaspora	54,2	43,0	2,8	0,0	100,0%
<b>Guztira</b>	<b>62,4</b>	<b>36,7</b>	<b>1,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0%</b>
	<b>111.134</b>	<b>65.334</b>	<b>1.713</b>	<b>3</b>	<b>178.184</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Generoaren banaketan sakonduz, hegoaldeko lau lurraldeetan emakumezkoek ahobizi rola hartu dute gehiago, belarriprest rola baino. Bizkaian da txikiena alde hori, bi puntu pasatxoko aldea dago: ahobizi rola hartu du bizkaitar emakumezkoen % 64,5ek, eta belarriprest rola, aldiz, % 62,1ek. Iparraldean zein Diasporan, aldiz, joera kontrakoa da: emakumezkoen proportzioa handiagoa da belarripresten artean, ahobizien artean baino. Alde handiena Zuberoan eta Diasporan dago.

Dena den, aldeak oso-oso txikiak dira, eta joerak oso antzekoak generoen artean. Hortaz, Euskaraldiko parte-hartzaileei generoak ez die baldintzatzen bestelako aldagai batzuk baldintzatu dezaketen moduan, besteak beste: rolak, lurraldeak, gune soziolinguistikoak edota adinak.

10. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldeka, rolaen eta generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

15. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldeka, rolaen eta generoaren arabera (%)**

		Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Diaspora	Guztira
Ahobizi	Emakumezkoa	65,1	62,1	62,2	64,5	60,4	62,9	62,0	51,6	63,0
	Gizonezkoa	33,6	37,1	36,9	34,6	38,9	36,0	36,5	44,7	36,0
	Ez binarioa	1,3	0,8	0,9	1,0	0,7	1,1	1,5	3,7	0,9
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Belarriprest	Emakumezkoa	60,0	58,5	57,6	62,1	62,0	63,8	66,7	56,6	60,1
	Gizonezkoa	38,4	40,5	41,6	36,9	37,1	35,5	33,3	41,4	38,8
	Ez binarioa	1,6	1,0	0,7	1,0	0,9	0,7	0,0	2,0	1,0
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>65,1</b>	<b>62,1</b>	<b>62,2</b>	<b>64,5</b>	<b>60,4</b>	<b>62,9</b>	<b>62,0</b>	<b>51,6</b>	<b>63,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## A.2. 2020KO EUSKARALDIKO PARTE-HARTZAILEEN EUSKARA-EZAGUTZA ETA ERABILERA


2020ko Euskaraldian parte hartu duten norbanakoen euskararen ezagutza eta erabilera aztertzeko izena ematerakoan betetzeko aukera izan zen galdeategia hartu da kontuan. Euskal Herri osoko 59.557 lagunek bete dute. Bertan eskatzen diren datu batzuk 2018ko datuekin alderatu dira; horretarako, 2018ko edizioan parte-hartzaileei bidalitako lehen galdeategiko erantzunak baliatu dira (45.563).

### Euskara-ezagutza

2020ko Euskaraldian parte hartu dutenen % 96,1ek euskara ongi edo nahiko ongi ulertzen du; eta % 89,5 ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai da. 2018ko datuekin alderatuta, zertxobait jaitsi dira bi gaitasunak: % 98,3k ongi edo nahiko ongi ulertzeko gai zen 2018an, eta hitz egiteko gai % 94,3.

11. grafikoa

**Euskara ongi edo nahiko ongi ulertzen eta hitz egiten duten 2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

16. taula

**Euskara ongi edo nahiko ongi ulertzen eta hitz egiten duten 2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak (%)**


		Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Guztira
ULERTU	2018	88,9	9,4	1,4	0,2	0	100,0
	2020	84,3	11,9	3,4	0,4	0	100,0
HITZ EGIN	2018	80,8	13,5	4,8	0,7	0,2	100,0
	2020	71,7	17,8	8,8	1,4	0,2	100,0

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2020ko edizioan, ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai diren % 89,5ari galdetu zaio ea zein hizkuntzatan egiten duen errazago. Bostetik ia bik adierazi dute euskaraz zein erdaraz, bietan berdin egiten dutela (% 39,2); eta oso gertu dago erdaraz errazago egiten dutenen kopurua (% 34,8).

12. grafikoa

**Ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileek zein hizkuntzatan egiten duten errazago (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

17. taula

**Ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileek zein hizkuntzatan egiten duten errazago (%)**

	%
Euskaraz	26,0
Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	39,2
Erdaraz	34,8
Guztira	100,0

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.




## Euskararen erabilera

Euskararen erabilerari dagokionez, 2020ko Euskaraldiako parte-hartzaileen lehen hizkuntzari – haurtzaroan etxean nagusiki erabiltzen zen hizkuntza – ere erreparatu zaio. Parte-hartzaileen % 44,3k euskara du lehen hizkuntza, eta % 36,1ek gaztelania edo frantsesa. Ahobizien kasuan, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa altuagoa da: erdiak baino gehiagok erabiltzen zuen euskara etxean haurtzaroan (% 51,5). Dena den, belarriprestetan erdara dutenen pisuaren hazkundea da esanguratsuen: % 70,7k gaztelania edo frantsesa du lehen hizkuntzatzat.

13. grafikoa

### 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen lehen hizkuntza, rolaen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

18. taula

### 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen lehen hizkuntza, rolaen arabera (%)


	Euskara	Euskara eta erdara	Gaztelania/Frantsesa	Beste bat	Guztira
Ahobizi	51,5	19,7	28,2	0,6	100,0
Belarriprest	13,0	12,9	70,7	3,4	100,0
<b>Guztira</b>	<b>44,3</b>	<b>18,5</b>	<b>36,1</b>	<b>1,1</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen euskararen erabilera zein den aztertzeko, ingurukoen euskara-ezagutza eta haiekiko erabilera gurutzatu dira. Ezagutza-maila nolabait ziurtatua dagoenean, hau da, erdiek baino gehiagok euskaraz dakitenean, lankideekin edo ikaskideekin egiten da euskara gehien: denek edo ia denek dakitenean, lankideekin edo ikaskideekin % 81,2k euskaraz egiten du beti edo erdaraz baino gehiago; etxean % 73,7k, eta lagunekin, aldiz, % 65,6k.

14. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen euskararen erabilera, ezagutzaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

### A.3. 2020KO EUSKARALDIKO PARTE-HARTZAILEAK UNIBERTSO POTENTZIALAREKIKO

2020ko Euskaraldiak parte-hartzaile posibleen artean izan duen arrakasta-maila neurtzeko, izen-emate datuak unibertso potentzialarekin alderatu dira, hau da, Euskal Herri osoan dagoen euskaldunen eta ia euskaldunen kopuruarekin.

Parte hartzeko baldintzak gutxienez 16 urte edukitzea eta euskara ulertzeko gai izatea zirela kontuan hartuta, Euskal Herrian izena emateko aukera zeukatenen % 15,1ek egin zuen. Izan ere, 2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, 1.175.931 ziren 16 urtetik gorako euskaldunak eta ia euskaldunak Euskal Herrian (euskara ulertzeko, behintzat, gai zirenak).

19. taula

**2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko**

Euskaraldiaren urtea	Unibertso potentziala (euskaldunak + ia euskaldunak)	Izen-emate kopurua (Diaspora kenduta)	Izen-ematea unibertso potentzialarekiko (%)
2020	1.175.931	177.575	15,1
2018	1.175.931	225.154	19,1


*Iturria: Inkesta soziolinguistikoa, 2016, eta Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Lurraldearen arabera, unibertso potentzialarekiko hedadura ez da uniforme izan:

- Gipuzkoan izan du hedadura gehien: parte-hartzaile izan zitezkeen euskaldun eta ia euskaldunen % 18,9k eman du izena. Kontrari, Iparraldean izan da txikiena: Lapurdin % 5,3k besterik ez du parte hartu 2020ko Euskaraldian, eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan % 5,8k.
- Nafarroa eta Araba dira joera orokorretik gertuen daudenak: Arabako euskaldun eta ia-euskaldunen %14,6k hartu du parte, eta Nafarroako % 15,7k.

15. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Bi edizioak alderatuz, EAEko hiru lurraldeek izan dute jaitsierarik nabarmenena, 4 puntu baino gehiagokoa izan da galera lurralde guztietan: Araban jaitsi da gehien, 5,1 puntu; Gipuzkoan 4,5 puntu; eta 4,1 Bizkaian. Iparraldean hiru puntu inguru jaitsi da hiru lurraldeetan; eta Nafarroak eutsi dio gehien parte-hartzeari: euskaldunen eta ia-euskaldunen % 18,1ek parte hartu zuen aurreko Euskaraldian, eta % 15,9k, aldiz, 2020koan.

20. taula

**2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko (%)<sup>3</sup>**

Lurraldea	2020ko izen-ematea unibertso potentzialarekiko (%)	2018ko izen-ematea unibertso potentzialarekiko (%)
Araba	14,7	19,8
Bizkaia	13,0	17,1
Gipuzkoa	19,1	23,7
Nafarroa	15,9	18,1
Lapurdi	5,4	8,4
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	5,9	9,8

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


<sup>3</sup> 2018 eta 2020 arteko alderaketa egiteko 2016ko Inkesta soziolinguistikoko datuak erabili dira oinarri moduan.

**Adinaren** arabera, Euskal Herri mailan 35 eta 49 (% 18,4) eta 50 eta 64 urte bitartekoen artean (% 18,1) izan du arrakasta gehien 2020ko Euskaraldiak, bereziki, EAeko hiru lurraldeetan. Dena den, Gipuzkoan, Nafarroan eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan 25-34 adin-tartean izan duen hedapena gainontzeko probientzietan baino esanguratsuagoa da.

Aipagarria da Gipuzkoako eta Nafarroako gazteenen artean (16-24 urte) Euskaraldiak izan duen hedapena (% 20,1 eta % 15, hurrenez hurren) Euskal Herrian izandakoa gainditzen duela (% 14).

16. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

21. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)**


	16-24 urte	25-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	>=65 edo gehiago
Araba	10,6	10,8	17,1	22,9	7,0
Bizkaia	11,5	11,3	15,5	16,3	5,8
Gipuzkoa	20,1	19,3	23,0	22,9	7,5
Nafarroa	15,0	19,1	19,0	15,3	6,2
Lapurdi	4,9	7,4	11,5	4,6	1,3
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	8,4	13,3	10,3	4,7	1,2
<b>Guztira</b>	<b>14,0</b>	<b>14,3</b>	<b>18,4</b>	<b>18,1</b>	<b>6,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Azkenik, **generoari** dagokionez, izan Euskal Herri osoan zein lurralde guztietan, euskal hiztun komunitateko emakumezkoen artean izan du hedapen gehien 2020ko Euskaraldiak. Bereziki altua da Gipuzkoako (% 22,5), Nafarroako (% 18,7) eta Arabako (% 18,5) emakumezko euskaldunengan eta ia-euskaldunengan izan duen arrakasta.

17. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

22. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Araba	18,5	10,5
Bizkaia	15,2	10,2
Gipuzkoa	22,5	15,1
Nafarroa	18,7	12,5
Lapurdi	6,0	4,5
Nafarroa Beherea eta Zuberua	6,9	4,5
<b>Guztira</b>	<b>17,7</b>	<b>11,9</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

### **Euskara-ezagutza unibertso potentzialarekiko**

2020ko Euskaraldian izena eman dutenen euskara-ezagutza unibertso potentzialarekin –hau da, 16 urtetik gorako euskaldun eta euskaldun hartzaileekin– alderatuta, Euskaraldiako parte-hartzaileak euskaldunagoak dira unibertso potentziala baino. Hau da, Euskaraldian izena eman dutenen artean euskaldun osoek duten pisua unibertso potentzian dutenaren gainetik dago; eta alderantziz, euskaldun hartzaileek duten pisua baxuagoa da: euskaldun osoak % 63,4 dira unibertso potentzian eta % 89,5 Euskaraldian; eta euskaldun hartzaileak % 36,6 unibertso potentzian, eta % 9,1 Euskaraldian.

23. taula

**2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen euskara-ezagutza unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**

	Unibertso potentziala	Euskaraldian izena eman dutenak
Euskaldunak	63,4	89,5
Euskaldun hartzaileak	36,6	9,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Inkesta soziolinguistikoa, 2016, eta Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

# B atala

## Entitateen unibertsoaz

### B.1. ENTITATEEN UNIBERTSOAZ


Bakarkako ariketa bakarrik ez, ariketa kolektiborako gonbita egin dute 2020ko Euskaraldian ekimenaren antolatzaileek. Horretarako, *arigune* kontzeptua sortu dute, eta *ariguneak* sortu dituzten entitateek eman dute izena ariketan. Euskal Herri osoan, denera, 8.309 egoitzek – entitate batzuk herri batean baino gehiagotan dute egoitza – eman dute izena, eta haiek 24.363 arigune sortu dituzte: 12.288 kanpo-arigune (% 50,4) eta 12.075 barne-arigune (% 49,6). 8.309 egoitza horiek osatuko dute, beraz, Euskaraldia ariketari buruzko ikerketa honen unibertsoa.

#### Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua

Unibertsoa **lurraldeka** aztertzen bada, Gipuzkoa da egoitza kopuru altuena duena (3.798 egoitza, % 46), eta jarraian dago Bizkaia, 2.854 egoitzarekin (% 34,3). Gainontzeko lurraldeekin, aldiz, alde nabarmena da: Nafarroakoak dira egoitzen % 8,4 (696 egoitza); Arabakoak, % 6,3 (526); eta 435 dira Ipar Euskal Herrikoak (% 3,1 Nafarroa Beherekoak, % 2 Lapurdikoak eta % 0,1 Zuberoakoak).

18. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua, lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



24. taula


**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua, lurraldearen arabera**

Lurraldea	Egoitza kop.	%
Gipuzkoa	3.798	45,7
Bizkaia	2.853	34,3
Nafarroa	696	8,4
Araba	527	6,3
Nafarroa Beherea	260	3,1
Lapurdí	165	2,0
Zuberoa	10	0,1
<b>Guztira</b>	<b>8.309</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

5. mapa

**Euskaraldian izena eman duten egoitzen kopurua lurraldeka**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

lido beretik, egoitza kopurua **eskualdeka** banatzen badugu, Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualdeak dira egoitza kopuru handiena hartzen dutenak. Hain zuzen, Bilbo Handiak eta Donostialdeak egiten dute ekarpen kuantitatibo handiena; bien artean izena eman duten egoitzen herena eskualde hauetan dago errolatuta (% 18,5 eta % 12, hurrenez hurren).

25. taula


**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopuru handieneko 15 eskualdeak.**

Eskualdea	Egoitza kop.	%
Bilbo Handia	1.538	18,5
Donostialdea	999	12,0
Urola-Kostaldea	755	9,1
Goierri	642	7,7
Debagoiena	584	7,0
Durungaldea	441	5,3
Debarrena	367	4,4
Tolosaldea	297	3,6
Arabako Lautada	261	3,1
Gernika-Bermeo	225	2,7
Iruñerria	216	2,6
Arrati Nerbioi	210	2,5
Baztan-Bidasoa	176	2,1
Kantauri Arabarra	171	2,1
Plentzia-Mungia	171	2,1

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

6. mapa

Euskaraldian izena eman duten egoitzen kopurua eskualdeka




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Era berean, izena eman duten egoitzak kokatuta dauden herrien **habitatari** erreparatzen badiogu, aipagarria da bitarteko hirigunean kokatutako egoitzak Euskal Herrian izena emandakoen ia erdia izan direla (% 49,4). Dena den, haien artean bereziki nabarmena da Gipuzkoan bitarteko hirigunean dauden egoitzen pisua (% 71,4). Nabarmentzekoa da, baita ere, Nafarroan eta Iparraldean landa eremuak duen pisua: Nafarroako egoitzen % 62,6 bertan kokatzen da; Lapurdikoen % 55,4, eta Nafarroa Behereko eta Zuberoako % 100.

19. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitzak, lurraldearen eta urbanizazio-mailaren arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Izena ematerakoan, **entitate-mota** ere zehaztu dute unibertsoa osatzen duten egoitzek. Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak nagusitzen dira, hau da, saltokiak, ostalaritza-establezimenduak, ile-apaindegiak, etab. (2.842 egoitza, % 34,2), eta ondoren, elkarteena da egoitza kopuru gehien duen entitate-mota (1.366 egoitza, % 16,4). Kontran, egoitza kopuru gutxien dituztenak industria-enpresak eta hedabideak izan dira (139 eta 52, hurrenez hurren).

20. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitzak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

26. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua, entitate-motaren arabera**

Entitate-mota	Egoitza kop.	%
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	2.842	34,2
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	1.366	16,4
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	985	11,9
Zerbitzu-enpresak	955	11,5
Administrazio publikoa	853	10,3
Bestelakoak	504	6,1
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	332	4,0
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	281	3,4
Industria-enpresak	139	1,7
Hedabideak	52	0,6
<b>Guztira</b>	<b>8.309</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Entitate-moten lurraldekako banaketan ezberdintasun nabarmenak daude:

- Zuberoan izan ezik, gainontzeko sei lurraldeetan – egoitza guztien % 99,9 daude haietan – establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak dute pisu gehien.
- Era berean, establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak Gipuzkoan dute pisu gehien; izena eman duten egoitzen hamarretik lau merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu-establezimenduak dira (% 40,7).
- Administrazio publikoaren egoitzek Araban (% 20,3), Nafarroan (% 15,9) eta Iparraldeko hiru lurraldeetan (Zuberoan % 70, Nafarroa Beherean % 20 eta Lapurdin % 15,8) dute pisua gainontzeko lurraldeetan baino handiagoa da.
- Elkarteen pisua antzekoa da EAEko hiru lurralde historikoetan, nahiz eta Araban eta Bizkaian dute pisua handiagoa izan (% 17,7 eta % 20,5, hurrenez hurren).

21. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitzak, entitate-motaren eta lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

27. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua, lurraldearen eta entitate-motaren arabera.**

Entitate-mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Guztira
Administrazio publikoa	20,3	10,6	6,6	15,9	15,8	20,0	70,0	<b>10,3</b>
Bestelakoak	4,6	6,2	5,6	6,2	3,8	22,4	0,0	<b>6,1</b>
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	17,6	20,6	14,2	10,6	22,3	10,3	0,0	<b>16,5</b>
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	2,3	3,4	3,4	3,3	3,1	7,9	0,0	<b>3,4</b>
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegia...)	23,3	29,1	40,7	33,3	25,4	26,7	0,0	<b>34,2</b>
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	5,1	4,1	3,9	5,2	1,2	0,0	0,0	<b>4,0</b>
Hedabideak	0,6	0,4	0,6	1,3	1,9	1,2	10,0	<b>0,6</b>
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	16,9	12,5	9,6	13,8	22,7	10,9	20,0	<b>11,9</b>
Industria-enpresak	0,9	0,8	2,8	0,6	0,4	0,0	0,0	<b>1,7</b>
Zerbitzu-enpresak	8,3	12,4	12,7	9,8	3,5	0,6	0,0	<b>11,5</b>
<b>Guztira</b>	<b>527</b>	<b>2.853</b>	<b>3798</b>	<b>696</b>	<b>260</b>	<b>165</b>	<b>10</b>	<b>8.309</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## B.2. ENTITATEEK SORTUTAKO ARIGUNEAK

2020ko Euskaraldian izena eman duten entitateek, denera, 24.363 arigune sortu dituzte; horietatik, 12.288 kanpo-ariguneak izan dira (% 50,4), eta 12.075, aldiz, barne-ariguneak (% 49,6).

22. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, motaren arabera (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Sortutako ariguneen **lurralde-banaketa** orekatuta dago egoitzen banaketarekin: Gipuzkoan sortu dira ariguneen ia erdia (% 49), eta Bizkaia dago jarraian (% 33,2), gainontzeko lurraldeekin alde nabarmenarekin. Gainera, banaketa hori hein handi batean mantendu egiten da bai barne-ariguneen kasuan, baita kanpo-ariguneen kasuan ere.

23. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, motaren eta lurraldearen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



28. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako arigune kopurua, motaren eta lurraldearen arabera.**


	Barne- ariguneak	Kanpo- ariguneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Araba	6,2	5,8	1.466	6
Bizkaia	32,2	34,2	8.087	33,2
Gipuzkoa	50	48,1	11.942	49
Nafarroa	7,7	8,5	1.974	8,1
Lapurdi	2,7	2	570	2,3
Nafarroa Beherea	1,2	1,4	312	1,3
Zuberoa	0,03	0,1	12	0,1
<b>Guztira</b>	<b>12.075</b> <b>100,0</b>	<b>12.288</b> <b>100,0</b>	<b>24.363</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Kopurua nahiko parekatuta badago ere, Euskaraldian izena eman duten Euskal Herriko entitateek, oro har, kanpo-arigune gehiago sortu dituzte (12.288, % 50,4), barne-ariguneak baino (12.075, % 49,6). Lurraldeari erreparatuz gero, aldiz, hiru lurralde dira joera horrekin bat egiten ez dutenak: Araba, Gipuzkoa eta Lapurdi. Araban, % 51,4 barne-ariguneak izan dira eta % 48,6, kanpo-ariguneak; Gipuzkoan, % 50,5 barne-ariguneak izan dira, eta % 49,5, kanpo-ariguneak; eta Lapurdin, aldiz, % 56,8 barne-ariguneak eta % 43,2 kanpo-ariguneak.

24. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako arigune-motak, lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

29. taula



**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako arigune-motak, lurraldearen arabera (%).**

	Barne- ariguneak	Kanpo- ariguneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Araba	51,4	48,6	1.466	100,0
Bizkaia	48,0	52,0	8.087	100,0
Gipuzkoa	50,5	49,5	11.942	100,0
Nafarroa	47,2	52,8	1.974	100,0
Lapurdi	56,8	43,2	570	100,0
Nafarroa Beherea	46,2	53,8	312	100,0
Zuberoa	33,3	66,7	12	100,0
<b>Guztira</b>	<b>12.075</b> <b>49,6</b>	<b>12.288</b> <b>50,4</b>	<b>24.363</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

7. mapa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza kopurua lurraldeka eta arigune-motaren arabera**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Egoitza kopuruaren antzera, entitateek sortutako arigune kopurua **eskualdeka** banatzen badugu, oraingo honetan ere Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualdeak dira gehien nabarmentzen direnak. Egoitza kopuruarekin bat eginda, entitateek Bilbo Handian eta Donostialdean sortu dituzte arigune gehien. EAetik kanpo, Iruñerria (714 arigune, % 2,9) eta Baztan-Bidasoa (503, % 2,1) daude arigune gehien sortu dituzten hamabost eskualdeen artean.

30. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortu dituzten arigune kopuru handieneko 15 eskualdeak.**


Eskualdeak	Kop.	%
Bilbo Handia	4.524	18,6
Donostialdea	3.533	14,5
Urola-Kostaldea	2.228	9,1
Goierri	1.876	7,7
Debagoiena	1.645	6,8
Durungaldea	1.051	4,3
Debarrena	1.107	4,5
Tolosaldea	1.192	4,9
Arabako Lautada	849	3,5
Gernika-Bermeo	687	2,8
Iruñerria	714	2,9
Arrati Nerbioi	507	2,1
Baztan-Bidasoa	503	2,1
Kantauri Arabarra	508	2,1
Plentzia-Mungia	449	1,8

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

**Habitatari** dagokionez, bitarteko hiriguneko herrietan sortu dira ariguneen erdia pasatxo, izan barne-ariguneak zein kanpo-ariguneak.

25. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitzak, lurraldearen eta urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

31. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortu dituzten ariguneak, urbanizazio-mailaren arabera (%)**

	Barne-origuneak	Kanpo-origuneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Hirigunea	28,1	28,0	6.835	28,0
Bitarteko hirigunea	50,5	50,8	12.342	50,7
Landa eremua	21,4	21,2	5.186	21,3
<b>Guztira</b>	<b>12.075</b>	<b>12.288</b>	<b>24.363</b>	<b>100,0</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Habitata lurraldearekin gurutzatzen badugu, badaude aldeak:

- Araban eta Bizkaian hiriguneetako herrietan sortu dituzte arigune gehien, % 45,3 eta % 43,6, hurrenez hurren.
- Gipuzkoan, bitarteko hirigunetako herrietan sortu dira hamar arigunetik zazpi (% 70,8).
- Nafarroan eta Iparraldeko hiru lurraldetan, aldiz, landa eremuetako herriek dute pisu gehien arigune kopurutan: Behe Nafarroan eta Zuberoan % 100 sortu da bertan; Nafarroan % 57,6; eta Lapurdin, aldiz, % 48,6.

26. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortu dituzten ariguneak lurraldeka, urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

32. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortu dituzten ariguneak lurraldeka, urbanizazio-mailaren arabera (%)**


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapuri	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Guztira
Hirigunea	45,3	43,6	15,5	33,8	20,9	0,0	0,0	28,4
Bitarteko hirigunea	25,8	39,2	70,8	8,6	30,5	0,0	0,0	51,3
Landa eremua	28,9	17,2	13,7	57,6	48,6	100,0	100,0	21,6
<b>Guztira</b>	<b>1.466</b>	<b>8.087</b>	<b>11.942</b>	<b>1.974</b>	<b>570</b>	<b>312</b>	<b>12</b>	<b>24.039</b>
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Egoitza kopuruen joerari jarraituz, establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiena da arigune gehien sortu dituen **entitate-mota**: sortutako 24.363 arigunetik % 19,7 establezimendu eta zerbitzu-emaile txikietan sortuak izan dira. Dena den, ia ez dago alderik hezkuntzako entitateekin edo elkarteekin: ariguneeen % 19,4 sortu dira hezkuntza arloan, eta %17,7 sortu dituzte elkarteek.

27. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitate-motak, arigune-moten arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Euskaraldian izena eman duten entitate-motak, arigune-moten arabera (%).**

Entitate-mota	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Guztira
Administrazio publikoa	14,3	13,7	14
Bestelakoak	5,7	5,3	5,5
Elkartek (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	22,0	13,4	17,7
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	2,1	2,5	2,3
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak	14,5	24,9	19,7
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	4,4	2,9	3,6
Hedabideak	0,7	0,7	0,7
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	24,6	14,3	19,4
Industria-enpresak	2,8	1,6	2,2
Zerbitzu-enpresak	8,9	20,8	14,9
<b>Guztira</b>	<b>12.075</b>	<b>12.288</b>	<b>24.363</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Entitate-moten artean, aldiz, izan dira aldeak barne- edo kanpo-ariguneak sortzerakoan. Esan daiteke entitate-mota bakoitzak joera argi bat izan duela, eta lurraldeen arabera aldaketak oso txikiak izan direla:

- **Administrazio publikoak**, oro har, kanpo-ariguneak sortzeko joera du Euskal Herri osoko lurralde guztietan, Gipuzkoan izan ezik.
- **Elkartek** lurralde guztietan barne-ariguneak sortzeko joera dute.
- **Enpresa txikiek** lurralde guztietan kanpo-ariguneak sortzeko joera dute.
- **Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiek** kanpo-ariguneak sortzeko joera dute zazpi lurraldeetan.
- **Gizarte mugimenduek, gizarte eragileek eta sindikatuek** barne-ariguneak sortzeko joera dute.
- **Hedabideen** kasuan nahiko parekoa da lurralde guztietan sortutako arigune-moten kopurua.
- **Hezkuntzako** eragileek barne-ariguneak sortzeko joera dute.
- **Zerbitzu-enpresek** kanpo-ariguneak sortzeko joera dute.
- **Industriaren** sektorea da alde nabarmenenak dituen lurraldeen arabera: EAEn eta Ipar Euskal Herrian barne-ariguneak sortzeko joera izan da; Nafarroan, aldiz, kanpo-ariguneak sortzekoa.

28. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.




34. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitate-motak, arigune-moten arabera (%).**

Entitate-mota	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa		Lapurdi		Nafarroa Beherea		Zuberoa		Guztira			
	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	Kop	%	Kop	%
Administrazio publikoa	44,4	55,6	45,6	54,4	59,0	41,0	42,4	57,6	48,9	51,1	42,3	57,7	30,0	70,0	1728	50,7	1682	49,3
Bestelakoak	42,3	57,7	53,6	46,4	54,8	45,2	38,2	61,8	47,8	52,2	42,4	57,6	0,0	0,0	691	51,5	652	48,5
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	69,8	30,2	57,3	42,7	64,9	35,1	59,1	40,9	61,2	38,8	64,9	35,1	0,0	0,0	2660	61,8	1.642	38,2
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	27,8	72,2	39,0	61,0	49,7	50,3	44,7	55,3	50,0	50,0	38,9	61,1	0,0	0,0	256	45,6	305	54,4
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	27,3	72,7	36,1	63,9	36,9	63,1	38,6	61,4	30,7	69,3	33,9	66,1	0,0	0,0	1749	36,4	3.058	63,6
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	58,8	41,2	61,1	38,9	57,0	43,0	62,3	37,7	80,0	20,0	0,0	0,0	0,0	0,0	526	59,4	359	40,6
Hedabideak	40	60	50,0	50,0	49,3	50,7	50,0	50,0	50,0	50,0	25,0	75,0	0,0	0,0	80	48,8	84	51,2
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	67,8	32,2	63,3	36,7	62,1	37,9	56,6	43,4	69,8	30,2	65,1	34,9	50,0	50,0	2972	62,8	1761	37,2
Industria-enpresak	37,5	62,5	60,3	39,7	67,0	33,0	16,7	83,3	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	337	63,5	194	36,5
Zerbitzu-enpresak	21,2	78,8	24,9	75,1	31,3	68,7	44,1	55,9	39,1	60,9	0,0	0,0	0,0	0,0	1076	29,7	2551	70,3
<b>Guztira</b>	<b>753</b>	<b>713</b>	<b>3.884</b>	<b>4.203</b>	<b>6.035</b>	<b>5907</b>	<b>931</b>	<b>1043</b>	<b>472</b>	<b>246</b>	<b>144</b>	<b>168</b>	<b>4</b>	<b>8</b>	<b>12.075</b>		<b>12.288</b>	
	<b>51,4</b>	<b>48,6</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>50,5</b>	<b>49,5</b>	<b>47,2</b>	<b>52,8</b>	<b>65,7</b>	<b>34,3</b>	<b>46,2</b>	<b>53,8</b>	<b>33,3</b>	<b>66,7</b>	<b>49,6</b>		<b>50,4</b>	

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



## **4.2. Euskal Autonomia Erkidegoa.**

# A atala

## Euskaraldia norbanakoen ikuspegitik


### A.1. NORBANAKOEN UNIBERTSOAZ

#### A.1.1. 2020ko Euskaraldia zenbakitan

Euskal Autonomia Erkidegoan, denera, 154.384 norbanakok parte hartu dute 2020ko Euskaraldian. Horietatik, 119.320 parte-hartzailek ahobizi rola hartu dute (% 77,3), eta 35.064 belarriprest izan dira (% 22,7).

29. grafikoa

2020ko EAeko parte-hartzaileak (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2018ko edizioarekin alderatuta (196.837 parte-hartzaile), kopuru absolututan 42.453 parte-hartzaile gutxiagok eman dute izena, % 21,6 jaitsi da, hain zuzen, datu orokorra (% 20,9) baino zertxobait gehiago.

Aurreko edizioan ere, ahobizi rola hartu zutenak gehiago izan ziren (143.637; % 73) belarriprestak baino (53.200; % 27,0). 2020ko Euskaraldian alde hori handitu egin da termino erlatibotan, baina datu absolututan bi rolek galdu dituzte parte-hartzaileak: ahobiziak % 73 izatetik % 77,3 izatera pasa dira, baina 27.317 parte-hartzaile galdu dituzte; eta belarriprestak, aldiz, % 27 izatetik % 22,7 izatera, 18.136 norbanakoren galerarekin.

30. grafikoa

**2020ko eta 2018ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak rolaeren arabera (kop)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

35. taula

**2020ko eta 2018ko EAEko parte-hartzaileen alderaketa rolaeren arabera**

	2018		2020		2018-2020 aldea	
	Kop	%	Kop	%	Kop.	%
Ahobizi	143.637	73,0	119.320	77,3	-27.317	-19,0
Belarriprest	53.200	27,0	35.064	22,7	-18.136	-34,1
<b>Guztira</b>	<b>196.837</b>	<b>100,0</b>	<b>154.384</b>	<b>100,0</b>	<b>-42.453</b>	<b>-21,6</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Lurralde historikoaren** arabera, Gipuzkoak egin du ekarpen kuantitatibo handiena, Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartzaileen erdia bertakoa baita (78.100 norbanako; % 50,6).

Dena den, lurralde bakoitzak ahobizi eta belarriprest rol bakoitzean daukan pisuan badaude aldeak:

- Gipuzkoak ekarpen handiagoa egiten dio ahobizi rolari, belarriprest rolari baino (% 53,8 eta % 39,6, hurrenez hurren).
- Aldiz, Arabak eta Bizkaiak belarriprest rolean duten pisua handiagoa da ahobizi rolean dutena baino: Arabaren kasuan bost puntuko aldea dago (% 13,7, belarriprestetan, eta % 8,6, ahobizietan); eta Bizkaiaren kasuan, aldiz, bederatzita puntukoa da aldea (% 46,7 eta % 37,6).

31. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak lurraldearen arabera (%)**

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Bigarren edizioako datuak 2018ko datuekin alderatzen badira, denera, 43.453 lagun gutxiagok eman dute izena (-% 21,6). Jaitsiera orokortua izan da hiru lurralde historikoetan, baina bereziki Arabari eragin dio: termino absolututan 5.222 parte-hartzaile galdu baditu ere (EAEn galdutako parte-hartzaileen % 12,3), 2018ko parte-hartzaileekiko % 25,8 izen-emate gutxiago izan dira bertan. Era berean gertatu da Bizkaian, aurreko edizioarekin alderatuta, % 23,5 izen-emate gutxiago izan ditu. Bi lurraldeak dira, hain zuzen, belarriprest gehien erakartzen dituztenak.

36. taula

**2018ko eta 2020ko EAEko parte-hartzaileak, lurraldearen eta rolaren arabera alderatuta**

		Ahobizi		Belarriprest		Guztira		Aldea 2018-2020
		2018	2020	2018	2020	2018	2020	
Araba	Kop.	12.896	10.264	7.383	4.793	20.279	15.057	<b>-5.222</b>
	%	9,0	8,6	13,9	13,7	10,3	9,8	<b>-25,8</b>
Gipuzkoa	Kop.	75.716	64.214	20.806	13.886	96.522	78.100	<b>-18.422</b>
	%	52,7	53,8	39,1	39,6	49,0	50,6	<b>-19,1</b>
Bizkaia	Kop.	55.025	44.842	25.011	16.385	80.036	61.227	<b>-18.809</b>
	%	38,3	37,6	47,0	46,7	40,7	39,7	<b>-23,5</b>
<b>Guztira</b>	<b>Kop.</b>	<b>143.637</b>	<b>119.320</b>	<b>53.200</b>	<b>35.064</b>	<b>196.837</b>	<b>154.384</b>	<b>-42.453</b>
	<b>%</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>-21,6</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


Nahiz eta hiru eremuetan ahobizi rola hartu dutenak gehiengoa izan, lurralde bakoitzean ere badaude aldeak bertako parte-hartzaileek rol bata edo bestea hartzerakoan:

- Bizkaia da EAEko joera orokorrera gehien hurbiltzen den lurraldea: parte-hartzaileen % 73,2 ahobizi izan da, eta % 26,8, aldiz, belarriprest.
- Araba da joera horretatik gehien urruntzen den lurraldea, bederatzi puntuko aldearekin: ahobiziak % 68,2 izan dira, eta belarriprestak % 31,8.
- Eta Gipuzkoa dago jarraian, bost puntuko aldearekin: bertan, % 82,2ak ahobizi rola hartu du, eta % 17,8ak, belarriprest rola.

Hortaz, lurraldea zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta ahobiziagoa da.

32. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak lurraldeka, rol bakoitzaren proportzioaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoan ahobizien proportzioa 4,3 puntu igo da 2018ko datuekin alderatuta: 2018an parte-hartzaileen % 73ak ahobizi rola hartu zuen, eta 2020an, aldiz, % 77,3ak. Hiru lurralde historikoetatik, Araban igo da gehien ahobizien pisua, 4,8 puntu, hain zuzen.

37. taula

**2018ko eta 2020ko Euskaraldiko EAEko lurraldeetako rol bakoitzaren proportzioa**


	2018		2020	
	Ahobizi	Belarriprest	Ahobizi	Belarriprest
Araba	63,6	36,4	68,2	31,8
Gipuzkoa	78,4	21,6	82,2	17,8
Bizkaia	68,8	31,2	73,2	26,8
<b>Guztira</b>	<b>73,0</b>	<b>27,0</b>	<b>77,3</b>	<b>22,7</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Izena eman duten herritarren **habitatari** erreparatzen badiogu, bitarteko hirigunean dauden herrietan eman du izena parte-hartzaileen erdiak (% 50,3). Rolaren arabera, aldiz, joerak ezberdinak dira: kopuru erlatibotan, hirigunea da belarriprest kopuru handiena sortu duena (% 45,9), eta bitarteko hirigunean sortu dira ahobizi gehien (% 53).

33. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartzaileak **eskualdeka** banatzen baditugu, eskualde parte-hartzaileen zerrendak bat egiten du, hein handi batean, Euskal Herri osoko zerrendarekin. Hori horrela, EAEn ere Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuen inguruan eman da parte-hartze kopuru handiena; hain zuzen, Bilbo Handian eta Donostialdean izan da izen-emate gehien, 33.490 eta 28.197, hurrenez hurren.

38. taula

**2020ko Euskaraldian parte-hartze handiena izan duten EAEko hamabost eskualdeak**

Eskualdea	Parte-hartzaileak guztira
Bilbo Handia	33.490
Donostialdea	28.197
Urola-Kostaldea	11.742
Arabako Lautada	10.828
Debagoiena	10.656
Goierrri	9.673
Durungaldea	8.777
Tolosaldea	7.590
Debabarrena	6.311
Plentzia-Mungia	5.319
Gernika-Bermeo	5.235
Lea Artibai	4.370
Bidasoa Beherea	3.703
Arrati Nerbioi	2.513
Kantauri Arabarra	2.241

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Oro har, ahobizien proportzioa handiagoa izan da belarriprestena baino. Kasu batzuetan, gainera, desoreka oso handia izan da. Proportzio horiek eskualdeka aztertzen badira, Bizkaiko Lea Artibai eskualdean eman da ahobizi proportziorik altuena (% 90,3). % 85etik gora daude, baita ere, Urola-Kostaldea (% 89,9), Gernika-Bermeo (% 86,5) eta Tolosaldea (% 86,2).



**2020ko Euskaraldiko ahobizi proportzio handieneko EAEko 15 eskualdeak**

Eskualdea	Ahobizirik
Lea Artibai	90,3
Urola-Kostaldea	89,9
Gernika-Bermeo	86,5
Tolosaldea	86,2
Goierri	84,9
Debagoiena	82,2
Arrati Nerbioi	81,6
Bidasoa Beherea	80,2
Durungaldea	79,8
Donostialdea	78,4
Debarrena	77,1
Arabako Mendialdea	76,2
Plentzia-Mungia	75,4
Gorbeia Inguruak	70,4
Errioxa Arabarra	70,0


*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Norbanakoek izena eman duten EAEko herriaren **gune soziolinguistikoari** dagokionez, 2. edo 3. gune soziolinguistikoetako parte-hartzaileak dira hamarretik bederatzik. Gainera, bien pisua nahiko parekatuta dago: % 46,9ak 2. gune soziolinguistikoko herri batean eman du izena, eta % 45,3ak, aldiz, 3. gune soziolinguistikoan.

Rolen artean, aldiz, nabarmena da belarripresten artean 2. gune soziolinguistikoak duen pisua: bostetik hiru dira bertakoak.

34. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak hautatutako rola eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

40. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak hautatutako rola eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**


	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
1. gune soziolinguistikoa	0,1	0,2	<b>0,2</b>
2. gune soziolinguistikoa	42,2	62,8	<b>46,9</b>
3. gune soziolinguistikoa	48,7	33,7	<b>45,3</b>
4. gune soziolinguistikoa	8,6	3,0	<b>7,3</b>
Zehaztu gabe	0,3	0,3	<b>0,3</b>
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Ahobizi edo belarriprest rola hartzerakoan, EAEko herrietako joera argia da: euskaldunen ehunekoa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta altuagoa da ahobizi rola hautatu dutenen portzentajea.

35. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko ahobizi eta belarripresten proportzioak gune soziolinguistikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

41. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak hautatutako rolaen eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**


	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
1. gune soziolinguistikoa	68,5	31,5	100,0
2. gune soziolinguistikoa	69,6	30,4	100,0
3. gune soziolinguistikoa	83,1	16,9	100,0
4. gune soziolinguistikoa	90,6	9,3	100,0
Zehaztu gabe	77,3	22,7	100,0
<b>Guztira</b>	<b>77,3</b>	<b>22,7</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileen **adina** hartutako rolaekin gurutzatuz gero, joera orokorrari jarraiki (% 77,3), adin-tarte guztietan hamarretik zazpik baino gehiagok hartu du ahobizi rola. Dena den, adin-tartearen arabera alde txikiak daude: 60 urtetik beherakoenen artean, gero eta gazteagoa orduan eta ahobiziagoa da joera. 45 eta 60 urte bitartekoekin zein 60 urtetik gorakoekin artean, aldiz, ez dago alde nabarmenik.

36. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko ahobizi eta belarripresten proportzioak adin-tarteka (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

42. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak adinaren eta hautatutako rolaren arabera (%)**

	16-29 urte	30-44 urte	45-60 urte	>60 urte	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	84,8	79,1	71,6	71,9	72,4	77,3
Belarriprest	15,2	20,9	28,4	28,1	27,6	22,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Lurraldeetako parte-hartzaileak adin-tarteen arabera banatzen badira, 30 eta 44 urte bitartekoek dute pisu handiena Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan; bereziki nabarmena da Arabaren kasuan (% 38,7). Jarraian daude 45 eta 60 urte bitartekoak.

Halaber, nabarmentzekoa da gazteen pisua nahiko antzekoa dela hiru lurraldeetan, ez dira parte-hartzaileen laurdenera ere iristen. Bestalde, 60 urtetik gorakoek pisu erlatiborik esanguratsuena Gipuzkoan dute (% 12,6).

37. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

43. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera (%)**

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
16-29 urte	23,8	22,3	23,3	22,9
30-44 urte	38,7	33,6	35,7	34,9
45-60 urte	31,1	31,3	30,6	31,0
>60 urte	6,4	12,6	10,2	11,1
Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,2	0,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan joera berberak antzematen dira ahobizi eta belarriprest roletan: 30-44 urte bitartekoek pisu handiagoa dute ahobizietan, eta 45-60 urtekoek, aldiz, belarriprestetan.

44. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileen lurralde-banaketa adinaren eta rolaren arabera (%)**

		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Ahobizi	16-29 urte	26,3	24,6	25,5	25,1
	30-44 urte	40,0	34,7	36,3	35,7
	45-60 urte	28,1	29,2	28,3	28,8
	>60 urte	5,6	11,5	9,7	10,3
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,2	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Belarriprest	16-29 urte	18,4	11,9	17,2	15,3
	30-44 urte	35,7	28,7	34,0	32,1
	45-60 urte	37,6	41,5	36,9	38,8
	>60 urte	8,2	17,9	11,7	13,7
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,2	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Guztira	16-29 urte	23,8	22,3	23,3	22,9
	30-44 urte	38,7	33,6	35,7	34,9
	45-60 urte	31,1	31,3	30,6	31,0
	>60 urte	6,4	12,6	10,2	11,1
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	0,2	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

EAEko lurraldeetan adin-tarte bakoitzak 2018an izandako pisua 2020an izan duenarekin konparatuta, oro har, esan daiteke 45 eta 60 urte bitartekoaren pisu erlatiboa hazi dela gehien. Kontran, 30-44 urte bitartekoaren pisua galdu dute. Gipuzkoa da gazteenen (16-29 urte) pisuari eutsi dion lurralde bakarra; Araban eta Bizkaian oso-oso gutxi jaitsi da.

45. taula

**2018ko eta 2020ko EAEko parte-hartzaileen banaketa adinaren eta lurraldearen arabera (%)**

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	2018	2020	2018	2020	2018	2020
16-29 urte	24,5	23,8	22,1	22,3	24,4	23,3
30-44 urte	41,4	38,7	35,2	33,6	37,4	35,7
45-60 urte	27,6	31,1	28,5	31,3	27,8	30,6
>60 urte	6,5	6,4	14,2	12,6	10,4	10,2
Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Gazteen presentzia bereziki nabarmena izan da Arabako eskualdeetan; Errioxa Arabarrean hamar parte-hartzailetik zazpi 16 eta 44 urte bitartekoa izan da. Kontran, 60 urtetik gorakoen presentzia handieneko eskualdeak bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira, bereziki; Gernika-Bermeo (% 18,5), Lea Artibai (% 15,6) eta Debabarrena nabarmentzen dira (% 14,8).

46. taula

**16-44 urtekoen presentzia handieneko EAEko 15 eskualdeak (%)**

	16-44 urte
Errioxa Arabarra	70,2
Kantauri Arabarra	66,1
Enkartzazioak	65,1
Trebiñoko Konderrria	62,3
Arabako Lautada	62,2
Bilbo Handia	61,8
Arabako Ibarrek	61,8
Tolosaldea	58,7
Urola-Kostaldea	58,3
Arabako Mendialdea	57,7
Durungaldea	57,5
Arrati Nerbioi	56,9
Goierri	56,9
Zehaztu gabe	56,3
Donostialdea	55,1

47. taula

**45-60 urtekoen presentzia handieneko EAEko 15 eskualdeak (%)**

	45-60 urte
Gorbeia Inguruak	34,9%
Bidasoa Beherea	33,7%
Trebiñoko Konderrria	33,3%
Donostialdea	32,6%
Lea Artibai	32,4%
Debagoiena	32,1%
Zehaztu gabe	31,9%
Arabako Lautada	31,8%
Debabarrena	31,5%
Plentzia-Mungia	31,4%
Durungaldea	31,0%
Arrati Nerbioi	30,9%
Arabako Mendialdea	30,8%
Bilbo Handia	30,4%
Goierri	30,0%

48. taula


**60 urtetik gorakoen presentzia handieneko EAEko 15 eskualdeak (%)**

	>60 urte
Gernika-Bermeo	18,5%
Lea Artibai	15,6%
Debabarrena	14,8%
Debagoiena	13,2%
Goierri	13,1%
Tolosaldea	12,4%
Donostialdea	12,2%
Arrati Nerbioi	12,2%
Urola-Kostaldea	12,1%
Plentzia-Mungia	12,1%
Zehaztu gabe	11,5%
Durangaldea	11,4%
Bidasoa Beherea	11,3%
Arabako Mendialdea	11,2%
Gorbeia Inguruak	11,1%

Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartzaileak adinaren eta generoaren arabera aztertuta, emakumezkoen nagusitasuna begien bistakoa da, oro har, adin guztietan, baina, bereziki, 36 eta 45 urte bitartekoen artean.

38. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak adinaren eta generoaren arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



Hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan generoa lurralde historikoaren zein rolaren arabera aztertu, joera orokorra da emakumezkoak nagusitzea: parte-hartzaile guztien % 62,6 dira emakumeak (96.613), % 36,4 gizonezkoa da (56.267), eta % 1 ez-binarioa (1.503). Esanguratsua da belarripresten zein Gipuzkoaren kasuan zertxobait igotzen dela gizonezkoen pisua.

39. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

49. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak generoaren eta rolaren arabera**

		Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	Kop	75.430	42.762	1.128	1	<b>119.321</b>
	%	63,2	35,8	0,9	0,0	<b>100,0</b>
Belarriprest	Kop	21.183	13.505	375	1	<b>35.064</b>
	%	60,4	38,5	1,1	0,0	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>Kop</b>	<b>96.613</b>	<b>56.267</b>	<b>1.503</b>	<b>2</b>	<b>154.385</b>
	<b>%</b>	<b>62,6</b>	<b>36,4</b>	<b>1,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

50. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak generoaren eta lurraldearen arabera (%)**


	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Zehaztu gabe	Guztira
Araba	63,5	35,1	1,4	0,0	<b>100,0</b>
Gipuzkoa	61,4	37,7	0,9	0,0	<b>100,0</b>
Bizkaia	63,8	35,2	1,0	0,0	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>62,6</b>	<b>36,4</b>	<b>1,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>
	<b>96.613</b>	<b>56.267</b>	<b>1.503</b>	<b>2</b>	<b>154.385</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Generoaren banaketan sakonduz, EAEko hiru lurraldeetan emakumezkoek dute pisu gehien ahobizi nahiz belarripresten artean; izan rol batean edo bestean, hirutik bi emakumezkoak dira. Dena den, ahobizi rolean duten pisua handiagoa da, belarriprest rolean dutena baino; pisu hori bereziki altua da Araban (% 65,1). Era berean, belarriprestetan gizonezkoek duten pisua bereziki altua da Gipuzkoan (% 40,5).

40. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak lurraldeka, rolaen eta generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

51. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak lurraldeka, rolaen eta generoaren arabera (%)**

		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Ahobizi	Emakumezkoa	65,1	62,1	64,5	<b>63,2</b>
	Gizonezkoa	33,6	37,1	34,6	<b>35,8</b>
	Ez binarioa	1,3	0,8	1,0	<b>0,9</b>
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Belarriprest	Emakumezkoa	60,0	58,5	62,1	<b>60,4</b>
	Gizonezkoa	38,4	40,5	36,9	<b>38,5</b>
	Ez binarioa	1,6	1,0	1,0	<b>1,1</b>
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Guztira	100,0	100,0	100,0	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>65,1</b>	<b>62,1</b>	<b>64,5</b>	<b>63,2</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

### A.1.2. 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertso potentzialarekiko Euskaraldiak izan duen arrakasta-maila kalkulatu da, hau da, EAEko 16 urtetik gorako euskaldunen eta ia-euskaldunen zein portzentajek hartu duen parte Euskaraldian.

16 urtetik gorako 978.985 euskaldun eta ia euskaldun daude Euskal Autonomia Erkidegoan, eta % 15,8ak hartu du parte ariketa sozialaren bigarren edizioan. Lehen edizioarekin alderatuta, izena eman zezaketenekiko, ia bost puntu jaitsi da parte-hartzea (% 20,1).

52. taula

**2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak EAEko unibertso potentzialarekiko**

Euskaraldiaren urtea	EAEko unibertso potentziala (euskaldunak + ia euskaldunak)	EAEko izen-emate kopurua	Izen-ematea unibertso potentzialarekiko (%)
2020	978.985	154.384	15,8
2018	978.985	196.837	20,1

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Lurralde historikoei erreparatuz gero, Euskaraldiak Gipuzkoako unibertso potentzialarekiko izan du arrakasta gehien (% 19,1).

41. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, lurralde historikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2018an ere Gipuzkoako euskaldun eta ia-euskaldunen artean izan zuen hedadura gehien (% 23,7); hala ere, izen-emate kopuruarekin batera, jaitsi egin da, baita ere, arrakasta-maila hori. Jaitsiera handiena, aldiz, Araban eman da: unibertso potentzialarekiko % 19,8ak hartu zuen parte 2018an, eta 2020an, aldiz, % 14,7ak eman du izena.

53. taula

**2020ko eta 2018ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, lurralde historikoaren arabera (%)<sup>4</sup>**

Lurraldea	2020	2018
Araba	14,7	19,8
Bizkaia	13,0	17,1
Gipuzkoa	19,1	23,7

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Adinaren** arabera, EAE mailan 35 eta 64 urte bitarteko euskaldun eta ia-euskaldunen artean izan du arrakasta gehien 2020ko Euskaraldiak.

42. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Hiru lurraldeek egiten dute bat joera orokorarekin, hau da, 35 eta 64 urte bitartekoengan izan du eragin handiena.

Dena den, aipatzekoa da Gipuzkoan gazteenen adin-tartean, 16-29, izan den hedapena unibertso potentzialarekiko (% 20,1), baita Araban eta Gipuzkoan 50-64 adin-tartean izandako arrakasta ere: baldintzak betetzen zituzten % 22,9ek parte hartu dute Araban eta Gipuzkoan. Bizkaia, aldiz, unibertso potentzialarekiko adin-tarte guztietan izan duen arrakasta EAEko joera orokorretik behera dago, hau da, oraindik ere eragiteko tarte handia dago.

<sup>4</sup> 2018 eta 2020 arteko alderaketa egiteko 2016ko Inkesta soziolinguistikoko datuak erabili dira oinarri moduan.

54. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)**


Lurraldea	16-24 urte	25-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	>=65 edo gehiago
Araba	10,6	10,8	17,1	22,9	7,0
Bizkaia	11,5	11,3	15,5	16,3	5,8
Gipuzkoa	20,1	19,3	23,0	22,9	7,5
<b>Guztira</b>	<b>16,0</b>	<b>14,1</b>	<b>18,7</b>	<b>19,8</b>	<b>6,7</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Azkenik, **generoari** dagokionez, hiru lurralde historikoetan euskal hiztun komunitateko emakumezkoen artean izan du hedapen gehien 2020ko Euskaraldiak. Gipuzkoak besterik ez ditu gainditzen EAEko arrakasta-mailak: izen-emateko aukera zuten emakumezkoen % 22,5ek egin dute Gipuzkoan - %18,5 EAEn -, eta gizonezkoen % 15,1ek - %12,3, EAEn -. Honetan ere, Bizkaiko datuak (% 15,2 emakumezkoetan eta % 10,2 gizonezkoetan) EAEko datuen azpitik daude, baita Arabako gizonezkoen datua ere (% 10,5)

43. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

55. taula

**2020ko Euskaraldiko EAEko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**

Lurraldea	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Araba	18,5	10,5
Bizkaia	15,2	10,2
Gipuzkoa	22,5	15,1
<b>Guztira</b>	<b>18,5</b>	<b>12,3</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## **A.2. NORBANAKOEN PARTE-HARTZEAZ**

Euskaraldiaren bigarren edizioan ahobizi eta belarriprest moduan izena eman dutenen ezaugarrietan eta parte-hartze horrek haien egunerokoan izan duen eraginean sakontzeko, 2.000 inkesta egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Datuok, bereziki, rolaren arabera aztertu dira, eta beharrezkoa ikusi denean bakarrik gehitu da lurraldearen edota gune soziolinguistikoaren araberrako irakurketa. Bestalde, generoaren araberrako aldeak antzeman badira, horiek espreski aipatu dira, eta datuak modu berezitan aurkeztu ere, koadro hori batean. Alde horiek emakumezkoen eta gizonen artekoak dira; ez-binarioen daturik ez da gehitu ez direlako estatistikoki adierazgarriak.

Azkenik, inkestaren azterketa kuantitatiboa teknika kualitatiboen – eztabaida-taldeak eta elkarrizketak – bitartez jasotako informazioarekin uztartu da.

### **A.2.1 Karakterizazioa**

#### Hizkuntza-profilaren arabera

Euskaraldiko parte-hartzaileen % 97k ongi edo nahiko ongi ulertzen dute euskara, eta hamarretik bederatzik ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute.

Ahobizi rola hautatu dutenen % 99k, ia, ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute euskaraz. Belarriprest izan direnen artean, aldiz, % 60k. Nabarmentzekoa da belarripresten % 14k zertxobait edo hitz batzuk besterik ez dituela ulertzen.

56. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, hautatutako rolaen arabera (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Ulertu	Ongi	92,6	55,1	<b>84,4</b>
	Nahiko ongi	7,1	30,8	<b>12,3</b>
	Zertxobait	0,3	12,6	<b>3,0</b>
	Hitz batzuk	0,0	1,4	<b>0,3</b>
	Ezer ez	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	83,5	34,3	<b>72,7</b>
	Nahiko ongi	15,2	25,4	<b>17,5</b>
	Zertxobait	1,3	35,6	<b>8,8</b>
	Hitz batzuk	0,0	4,1	<b>0,9</b>
	Ezer ez	0,0	0,5	<b>0,1</b>
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.



Emakumezkoen eta gizonezkoen ezagutza-maila oso antzekoa da; bai ulermenari dagokionean, —ia denak gai dira euskara ongi edo nahiko ongi ulertzeko—, baita euskaraz hitz egiteko gaitasunean ere —% 90ek ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute—.

57. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ulertu	Ongi	92,4	54,2	84,3	92,9	56,4	84,4
	Nahiko ongi	7,3	33,2	12,8	6,8	27,1	11,5
	Zertxobait	0,3	11,5	2,7	0,3	14,3	3,5
	Hitz batzuk	0,0	1,0	0,2	0,0	1,9	0,5
	Ezer ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	83,9	32,6	73,0	82,7	36,8	72,1
	Nahiko ongi	14,8	27,5	17,5	16,0	22,2	17,4
	Zertxobait	1,4	35,6	8,6	1,2	35,7	9,2
	Hitz batzuk	0,0	3,7	0,8	0,0	4,8	1,1
	Ezer ez	0,0	0,6	0,1	0,1	0,3	0,2
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoaren araberako xehetasunei erreparatuz, oro har, Gipuzkoan bizi diren parte-hartzaileek dute gaitasunik handiena, Bizkaian ondoren eta Araban azkenik. Gune soziolinguistikoaren arabera, 4.a dago buruan, 3.a ondoren eta bigarrena azkenik (lehenengoa eta bigarrena batuta daude). Badaude nabarmentzeko moduko aldeak, hala ere:

- Araban, belarripresten % 18k zertxobait edo hitz batzuk ulertzen ditu euskaraz. Bizkaian % 15 dira, eta Gipuzkoan, % 10.
- Gipuzkoan belarripresten erdiek, ia, euskaraz ongi hitz egiten dute. Bizkaian % 26 dira eta Araban % 23.
- Eta 3. gune soziolinguistikoetan ahobizien % 90ek baino gehiagok ongi egiten dute euskaraz. 2.ean hamarretik zazpi dira.

58. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, hautatutako rolaen arabera (LURRALDE HISTORIKOA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		LURRALDE HISTORIKOA									GUNE SOZIOLINGUISTIKOA								
		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			<%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ulertu	Ongi	87,3	47,3	<b>74,3</b>	88,6	52,5	<b>79,1</b>	96,1	61,3	<b>90,4</b>	87,2	48,8	<b>76,1</b>	96,4	62,9	<b>91,1</b>	98,5	83,2	<b>96,5</b>
	Nahiko ongi	12,7	34,6	<b>19,8</b>	11,0	32,5	<b>16,7</b>	3,6	27,3	<b>7,5</b>	12,2	35,7	<b>19,0</b>	3,5	24,8	<b>6,9</b>	1,5	7,7	<b>2,3</b>
	Zertxobait	0,0	17,8	<b>5,8</b>	0,4	13,8	<b>3,9</b>	0,3	9,1	<b>1,7</b>	0,5	14,4	<b>4,5</b>	0,1	10,4	<b>1,8</b>	0,0	3,6	<b>0,5</b>
	Hitz batzuk	0,0	0,2	<b>0,1</b>	0,0	1,2	<b>0,3</b>	0,0	2,0	<b>0,3</b>	0,0	0,9	<b>,3</b>	0,0	1,8	<b>0,3</b>	0,0	5,4	<b>0,7</b>
	Ezer ez	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ed/Ee	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,3	<b>0,0</b>	0,0	0,2	<b>,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	72,9	22,7	<b>56,6</b>	75,4	26,4	<b>62,4</b>	90,7	48,8	<b>83,8</b>	70,9	25,0	<b>57,6</b>	92,2	47,0	<b>85,0</b>	98,5	73,0	<b>95,2</b>
	Nahiko ongi	25,1	33,1	<b>27,7</b>	22,2	29,6	<b>24,2</b>	8,8	17,1	<b>10,2</b>	26,7	30,2	<b>27,7</b>	7,3	17,4	<b>8,9</b>	1,5	15,5	<b>3,3</b>
	Zertxobait	2,0	38,7	<b>13,9</b>	2,4	40,3	<b>12,4</b>	0,4	28,5	<b>5,0</b>	2,4	41,2	<b>13,6</b>	0,5	29,2	<b>5,1</b>	0,0	2,4	<b>0,3</b>
	Hitz batzuk	0,0	5,5	<b>1,8</b>	0,0	2,8	<b>0,7</b>	0,0	5,3	<b>0,9</b>	0,0	2,8	<b>0,8</b>	0,0	5,9	<b>0,9</b>	0,0	9,1	<b>1,2</b>
	Ezer ez	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	1,0	<b>0,3</b>	0,1	0,0	<b>0,1</b>	0,0	0,6	<b>0,2</b>	0,1	0,4	<b>0,1</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ed/Ee	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,3	<b>0,0</b>	0,0	0,2	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euskaraldiko parte-hartzaileen hiru laurdenek euskaraz errazago edo euskaraz erdaraz bezain erraz hitz egiten dute. Bi herenek euskara edo euskara eta erdara izan dituzte lehen hizkuntza.

Euskal elebidunek eta euskara lehen hizkuntza izan dutenek ahobizi rola hautatzeko joera handiagoa dute. Belarripresten % 63k gaitasuna izan dute lehen hizkuntza, eta %54k erdaraz errazago hitz egiten dute.

59. taula

**EAEko parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, hautatutako rolaen arabera (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Zeinetan errazago?	Euskaraz	32,9	12,9	<b>30,0</b>
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	46,5	32,6	<b>44,4</b>
	Erdaraz	20,7	54,5	<b>25,6</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lehen hizkuntza	Euskara	55,5	20,9	48,0
	Euskara eta gazt/frant, biak	18,5	10,7	16,8
	Gaztelania/Frantsesa	25,5	63,5	<b>33,8</b>
	Beste bat	0,4	4,8	<b>1,4</b>
	Zehaztu gabe	0,0	0,1	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean gehiago dira euskaraz errazago moldatzen direnak (% 32); aldiz, gizonezkoetan, bietan berdin moldatzen direnak (% 47).

60. taula

**EAEko parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Zeinetan errazago?	Euskaraz	35,0	11,7	31,7	29,1	14,8	26,9
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	45,1	30,9	43,1	48,9	35,2	46,8
	Erdaraz	19,9	57,4	25,2	22,0	50,0	26,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lehen hizkuntza	Euskara	56,0	20,4	48,5	54,7	21,7	47,1
	Euskara eta gazt/frant. biak	18,9	8,8	16,7	17,9	13,6	16,9
	Gaztelania/Frantsesa	24,5	65,4	33,2	27,4	60,4	35,0
	Beste bat	0,7	5,4	1,7	0,0	4,0	0,9
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Ezagutzan baino diferentzia handiagoa antzematen da, lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoaren arabera, gaitasun erlatiboan eta lehen hizkuntzan. Gipuzkoan eta 3. eta 4.gune soziolinguistikoetan gehiago dira lehen hizkuntza euskara dutenak eta euskaraz errazago hitz egiten dutenak.

- Araban, ahobizien % 60k, ia, erdaraz dute lehen hizkuntza; % 40k erdaraz errazago hitz egiten dute.
- 4.gune soziolinguistikoan, belarripresten % 65ek euskara dute lehen hizkuntza; eta % 40k euskaraz hitz egiten dute errazago.

61. taula

**EAEko parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, hautatutako rolaen arabera (LURRALDE HISTORIKOA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		LURRALDE HISTORIKOA									GUNE SOZIOLINGUISTIKOA								
		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			<%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Zeinetan errazago?	Euskaraz	9,7	5,4	<b>8,8</b>	24,3	2,7	<b>20,6</b>	42,2	26,4	<b>40,4</b>	10,3	4,9	<b>9,3</b>	45,6	22,2	<b>43,0</b>	77,4	30,4	<b>72,0</b>
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	45,1	18,6	<b>39,4</b>	44,2	30,5	<b>41,9</b>	48,2	39,3	<b>47,2</b>	50,9	23,3	<b>45,7</b>	47,4	46,3	<b>47,2</b>	17,3	43,9	<b>20,4</b>
	Erdaraz	45,2	76,0	<b>51,9</b>	31,5	66,8	<b>37,6</b>	9,5	34,3	<b>12,4</b>	38,9	71,8	<b>45,0</b>	7,1	31,5	<b>9,7</b>	5,3	25,7	<b>7,7</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lehen hizkuntza	Euskara	21,7	5,3	<b>16,4</b>	41,6	15,0	<b>34,6</b>	70,5	34,5	<b>64,6</b>	27,3	9,8	<b>22,2</b>	75,7	36,5	<b>69,5</b>	89,1	64,7	<b>86,0</b>
	Euskara eta gazt/frant, biak	18,7	8,4	<b>15,3</b>	22,5	9,5	<b>19,0</b>	15,7	13,1	<b>15,3</b>	23,7	9,6	<b>19,6</b>	15,3	12,0	<b>14,8</b>	8,4	17,1	<b>9,5</b>
	Gaztelania/Frantsesa	58,8	81,6	<b>66,2</b>	35,0	72,0	<b>44,8</b>	13,8	45,6	<b>19,0</b>	48,1	75,0	<b>55,9</b>	9,0	47,5	<b>15,1</b>	2,5	14,5	<b>4,1</b>
	Beste bat	0,8	4,7	<b>2,1</b>	0,9	3,5	<b>1,6</b>	0,0	6,6	<b>1,1</b>	1,0	5,4	<b>2,2</b>	0,0	4,1	<b>0,6</b>	0,0	3,6	<b>0,5</b>
	Ed/Ee	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,3	<b>0,0</b>	0,0	0,2	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euskaraldiko parte-hartzaileen artean ohikoagoa da etxean (% 54k beti edo euskaraz erdaraz baino gehiago) edo lankideekin/ikaskideekin (% 53) gehien bat euskaraz egitea, lagunekin baino (% 44). Beti erdaraz edo euskaraz erdaraz baino gutxiago egiteko ohiturari erreparatuta, zabalduago dago etxean (% 33) lankideekin/ikaskideekin baino (% 29) —lagunekin % 38—.

Ahobizien artean ere, laurdenek beti erdaraz edo euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dute etxean, eta % 30ek lagunekin. Belarripresten % 36k beti erdaraz egiten dute etxean, % 38k lagunekin eta % 30ek lankideekin/ikaskideekin.

62. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera, hautatutako rolaen arabera (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Etxean	Beti euskaraz	39,9	13,9	34,2
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	22,5	11,2	20,0
	Euskaraz erdaraz beste	13,3	9,9	12,6
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	14,8	28,4	17,8
	Beti erdaraz	9,3	35,8	15,1
	Ez dagokio	0,2	0,7	0,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunekin	Beti euskaraz	24,9	7,2	21,0
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	26,6	10,4	23,0
	Euskaraz erdaraz beste	17,8	13,7	16,9
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	23,6	30,4	25,1
	Beti erdaraz	7,0	38,0	13,8
	Ez dagokio	0,1	0,5	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin	Beti euskaraz	35,3	13,0	30,4
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	25,0	12,4	22,2
	Euskaraz erdaraz beste	12,7	12,9	12,7
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	16,3	26,5	18,6
	Beti erdaraz	5,4	30,2	10,8
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	5,3	5,0	5,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Etxean eta lagunekin euskaraz beti edo nagusiki hitz egiten duten gizonezkoak zertxobait gehiago dira emakumezkoak baino; aldiz, lankideekin/ikaskideekin euskaraz egiten duten emakumezkoak (% 54), gehiago dira gizonezkoak baino (% 50).

63. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Etxean	Beti euskaraz	39,2	12,5	33,5	41,2	16,1	35,4
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	22,6	10,8	20,1	22,3	11,9	19,9
	Euskaraz erdaraz beste	13,9	8,7	12,8	12,3	11,8	12,2
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	16,2	27,3	18,6	12,4	30,1	16,5
	Beti erdaraz	8,0	39,7	14,7	11,5	29,7	15,8
	Ez dagokio	0,1	1,1	0,3	0,4	,30	0,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunekin	Beti euskaraz	24,7	5,4	20,6	25,3	9,9	21,7
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	25,6	10,9	22,5	28,4	9,6	24,0
	Euskaraz erdaraz beste	18,3	12,4	17,0	16,9	15,7	16,6
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	23,6	28,7	24,7	23,7	32,9	25,8
	Beti erdaraz	7,8	42,0	15,1	5,6	31,8	11,6
	Ez dagokio	0,0	0,6	0,1	0,2	0,3	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin	Beti euskaraz	38,0	12,7	32,6	30,6	13,4	26,6
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	24,5	11,5	21,8	25,9	13,6	23,0
	Euskaraz erdaraz beste	12,6	13,2	12,8	12,8	12,5	12,7
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	14,2	25,3	16,6	20,0	28,5	22,0
	Beti erdaraz	5,4	31,9	11,0	5,3	27,7	10,5
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	5,3	5,3	5,3	5,4	4,4	5,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen ezagutzarekin, lehen hizkuntzarekin eta gaitasun erlatiboarekin lotuta, erabilera-ohituretan ere alde nabarmenak daude testuinguru soziolinguistikoaren arabera. Etxeko eta lagunarteko ohituretan ematen dira alderik handienak. Lankideekin/ikaskideekin, berriz, aldeak murriztu egiten dira.

64. taula

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera, hautatutako rolarren arabera (LURRALDE HISTORIKOA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		LURRALDE HISTORIKOA									GUNE SOZIOLINGUISTIKOA									
		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			<%49			%50-%79			>=%80			
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Etxean	Beti euskaraz	17,9	3,6	13,2	27,4	6,5	21,9	52,0	27,3	47,9	17,4	6,2	14,1	54,5	23,6	49,6	75,2	50,7	72,1	
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	12,4	3,9	9,7	20,8	10,5	18,0	25,2	15,1	23,6	18,2	7,4	15,1	27,1	18,6	25,7	19,1	13,0	18,3	
	Euskaraz erdaraz beste	16,2	6,5	13,0	15,4	9,3	13,8	11,4	11,9	11,5	19,3	7,5	15,9	9,8	13,6	10,4	1,3	18,1	3,4	
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	30,2	36,8	32,3	20,8	33,1	24,1	8,3	19,2	10,1	25,8	32,7	27,8	6,9	22,3	9,3	2,0	13,1	3,4	
	Beti erdaraz	23,1	48,1	31,2	15,3	40,7	22,0	3,0	25,0	6,6	19,2	45,5	26,8	1,6	21,0	4,7	1,5	5,0	2,0	
	Ez dagokio	0,2	1,2	0,5	0,3	0,0	0,2	0,2	1,5	0,4	0,1	0,7	0,3	0,2	0,9	0,3	0,9	0,0	0,8	
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
	Lagunekin	Beti euskaraz	6,0	2,8	4,9	14,2	2,1	11,0	35,3	15,3	32,0	6,5	1,6	5,1	35,5	15,3	32,3	62,5	23,7	57,5
Euskaraz erdaraz baino gehiago		17,3	1,8	12,3	22,9	6,7	18,6	30,6	18,4	28,6	19,5	4,2	15,1	32,7	19,4	30,6	28,5	33,9	29,2	
Euskaraz erdaraz beste		19,2	8,1	15,6	16,5	13,2	15,6	18,4	16,4	18,1	17,8	12,1	16,2	19,7	15,7	19,1	5,7	22,1	7,8	
Euskaraz erdaraz baino gutxiago		44,8	44,2	44,6	32,9	30,5	32,2	14,0	24,9	15,7	42,5	33,8	40,0	9,9	27,2	12,7	1,7	5,9	2,3	
Beti erdaraz		12,6	41,7	22,1	13,6	47,5	22,6	1,6	24,4	5,3	13,7	47,8	23,5	2,0	21,9	5,1	1,5	14,4	3,2	
Ez dagokio		0,0	1,4	0,5	0,0	0,0	0,0	0,2	0,7	0,2	0,0	0,5	0,1	0,2	0,5	0,2	0,0	0,0	0,0	
<b>Guztira</b>		<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin		Beti euskaraz	30,9	7,5	23,3	30,2	8,1	24,4	39,5	21,3	36,5	29,8	8,8	23,7	38,9	18,6	35,7	44,9	27,5	42,6
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	24,8	6,9	19,0	20,1	11,7	17,9	28,4	15,3	26,3	19,6	8,9	16,5	30,8	15,7	28,4	17,6	37,2	20,1	
	Euskaraz erdaraz beste	10,8	12,6	11,4	13,3	13,0	13,2	12,6	13,0	12,6	11,2	13,1	11,7	12,9	13,2	13,0	18,9	7,3	17,4	
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	20,8	35,0	25,4	20,7	26,8	22,3	12,6	22,9	14,3	23,5	29,3	25,2	10,7	24,1	12,8	12,2	7,1	11,5	
	Beti erdaraz	8,5	32,8	16,4	9,6	37,9	17,1	1,9	19,5	4,8	10,0	35,3	17,3	1,7	23,6	5,2	1,9	7,7	2,7	
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	4,2	5,2	4,5	6,1	2,5	5,2	5,0	8,1	5,5	5,9	4,6	5,5	4,9	4,7	4,9	4,5	13,2	5,6	
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021

### Hautatutako rolaen arabera

Hizkuntza-jokabideak baino gehiago eragin du hizkuntza-gaitasunak rolaen hautaketan. Hautaketa horretan eragin duten arrazoiez galdetuta, parte-hartzaileen bi herenek hizkuntza-gaitasuna hautatu dute, eta % 45ek hizkuntza-jokabideak. Hizkuntza-gaitasunaren eta hizkuntza-jokabideen arteko aldea handiagoa da ahobizien artean belarripresten artean baino.

44. grafikoa

#### **EAEko parte-hartzaileek rola hautatzeko arrazoiak (%)**




Iturria: Siadeco, 2021

2020ko Euskaraldian norbanako gisa, ahobizi edo belarriprest rolaekin, parte hartu dutenen % 70ek rol berdina hautatu zuten 2018ko edizioan ere. Hamarretik batek 2018an bete ez zuen beste rola aukeratu du oraingoan, eta hamarretik bik, ia, lehen aldiz eman dute izena.

2020ko belarripresten artean askoz gehiago dira rola aldatu dutenak (% 27). Hortaz, ahobizi roletik belarriprest rolera aldatzea ohikoagoa izan da alderantzizko bidea baino.

45. grafikoa

#### **EAEko parte-hartzaileek aurreko edizioko rol bera hartu zuten ala ez (%)**



Iturria: Siadeco, 2021



Batzuek gaitasunarekin lotu dute rola, zuzen-zuzenean: euskaraz hitz egiteko gai direnak, ahobizi; zailtasun handiagoak dituztenak, belarriprest. Beste batzuek rolaekin identifikatuta sentitu dute euren burua, ahobizi rolaekin bereziki, euren egunerokoan betetzen dutelakoan. Rol bakoitzak transmititzen duen irudiarekin edo ideiarekin lotu dute beste batzuek: belarriprest txapa daramana ez da guztiz euskalduna.

*Ahobizi izan naiz nahiko maila daukadalako elkarrizketa bat euskaraz izateko.*

(23.elkarrizketatua; Gipuzkoa, Ahobizi, 30-44 urte, 2. GSL)

*Ahobizi izatea hautatu dut euskaraz hitz egiten badakidalako, ondo sentitzen naizelako euskaraz hitz egiten, seguru ikusten dut nire burua, eta baita ulermen mailan ere. Nire burua belarriprest moduan ikusiko nuke, baina hitz egiteko gai naizenez ez nuke horrela izena emango*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

*Egunero euskaraz bizi naizelako eta ahobizi naizelako. Ahobizi naiz urteko egun guztietan, 365 egunetan, ahal dudan neurrian euskaraz. Orduan iruditzen zait nire rola horixe dela*

(2.eztabaida taldea\_Bizkaia, 45+, Ahobizi, 3GSL)

*Meñakan bizi naiz 700 biztanle inguruko herri bat da. Hemen suposatzen da ehuneko handi bat euskalduna dela, baina jende guztiak gazteleraz egiten du, euskaldunenak baita ere. Gehienek txapan ahobizi noski, zeren ahobizi ez bazara ez zara guztiz euskalduna*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

Euskaraz hitz egiteko gaitasun osoa eduki arren belarriprest rola hautatu dutenak ere badaude, ez zeudelako ahobizien rola eskatzen duen konpromisoa betetzeko prest, edo zailtasun handiak aurreikusten zituztelako.

*Ez daukat arazorik euskaraz egiteko, baina ahobizi hartu izan banu denbora guztian euskaraz egin beharko nuke eta ez nuen behartuta euskaraz hitz egin nahi*

(6.elkarrizketatua; Araba, Belarriprest, 16-29, Gasteizkoa)

*Normalean euskaraz egiten dut, baina ikusi nuen kuadrilako lagunekin ezingo nuela euskaraz egin, orduan belarriprest aukeratu nuen ez nuelako lortuko %100 ahobizi izatea. Lantokian bai indarra egin nuela ahobizi moduan aritzeko*

(19.elkarrizketatua; Bizkaia, Belarriprest, 16-29 urte, 3. GSL)

Aurreko edizioarekiko rola aldatu dutenak ere badaude. Batzuek euren jokabidearekiko koherentziagatik —aurrekoan ez zutelako bete, edo orduan sentitutako presioa arindu nahian—. Beste batzuek rolaren beste irakurketa bat egin dutelako, edo helburu ezberdinen bila.

*Hasiera baten ahobizi hartu nuen, aurreko ekitaldian. Baina ez nuen asko hitz egin, ez nuen zorrotz egin. Belarriprest izateak konfiantza gehiago eman dit*

(28.elkarizketatua; Gipuzkoa, Belarriprest, 30-44 urte, 2. GSL)

*Aurrekoan ahobizi izan nintzen eta oraingoan belarriprest, nik ere ikerketa soziologiko bat egiteko eta ikusteko ea belarriprest jarrita jende gehiago aurkezten zen nirekin euskaraz. Asmoa ahobizi izatea zen, baina nik eta beste lagun batek geure buruari planteatu genion belarriprest izatea jendeari esateko “niri mesedez euskaraz egin”*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Aurreko euskaraldian ni ere ahobizi izan nintzen eta oraingoan belarriprest. Nik ahobizi papera betetzen dut bestela ere, euskaraz egiten dut lehenengo hitza, baina iruditzen zitzaidan oraingoan jendeak zurekin hitz egiteko (nik badut inguruan jendea euskaraz horren ondo egiten ez duena) ahobiziek hitz egiteko beldur pixka bat dutela. Belarriprest txaparekin ikusi nahi nuen ea jendea gehiago hurbiltzen zen. Egia esan ez dut nabaritu aldaketa handirik*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3.GSL)

Aurrera begira rola aldatzea planteatzen duenik ere badago. Besteak beste, belarriprest rolean autoexigentzia-maila jaitsi egin dutelako.

*Beste edizio bat egingo balitz berriro ahobizi izango nintzateke, zeren ikusi dut nire autoexigentzia txikitu egin dela*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Euskara nire eguneko ia ordu guztietan erabiltzen dut. Eta niretzako zentzuzkoena zen ahobizi papera hartzea. Gero ikusi dut, nire modukoak, batzuk belarriprest txaparekin eta beste ikuspuntu batetik parte hartzeko aukera ematen dizu. Hasiera batean ez nuen zalantzarik izan, baina beste euskaraldi bat egongo balitz, ez dut baztertzen belarriprest izatea*

(2.eztabaida taldea\_Bizkaia, 45+, Ahobizi, 3GSL)

Batzuek inguruarekin lotu dute erabakia, ingurune erdaldunarekin, gainera, baina bi zentzutari: inguruneko zailtasunen ondorioz ahobizi rolaren konpromisoa handiegia iruditu zaio bati; zailtasun horien aurrean, ahobizi rolaren bidez modu aktiboan eragiteko hautua egin du beste batek.

*Ni bilbotarra naiz eta Bilbon agerikoa da euskararen erabilera maila oso txikia dela, oso gutxi egiten dela orokorrean euskaraz. Horrek ez du esan nahi ezin denik egin, tira daiteke, baina nire ustez ahobizi izateak daukan konpromezua oso potoloa da. Nik aurreko edizioan ez nuenez bete, erosoago ibili naiz belarriprest bezala. Gero, egia esan, leku askotan ahobizi bezala ibili naiz (leku askotan lehenengo hitza euskaraz,...). Ikusten nuen belarriprest txaparekin jende gehiago hurbilduko zitzaidala euskaraz egitera. Momentuz pozik. Hurrengorako pentsatu beharko dut zer rol edo hartzen dudan*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

*Nire eskualdea ez da euskalduna, Bizkaiko Meatzaldea ez da euskalduna. Hemen beharrezkoagoa da ahobizi rola.*


(13.elkarrizketatua; Bizkaia, Ahobizi, 16-44 urte, Bilbo Handia)

Batzordeetako parte-hartzearen arabera

Euskaraldiko parte-hartzaileen % 6k tokian tokiko batzordeetan parte hartu dute, modu aktiboan. Beste % 12k bileraren batean parte hartu dute, baina ez dira modu aktiboan batzordeetan aritu. Rolaren arabera ez dago ia alderik.

46. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileek tokian tokiko batzordean parte hartu duten edo ez (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Bestelako elkarteetako parte-hartzearen arabera

Euskaraldiko parte-hartzaileen erdia baino gehiago dira elkarteren batean aritzen direnak — ahobizien artean altuagoa da horien pisua —. Nabarmentzeko modukoa da ahobizi rola hautatu dutenen ia laurdenak euskara edo kultur elkarteren batean parte hartzen dutela.

47. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen bestelako elkarteetako parte-hartzea rolaen arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskara edo kultur elkarte batean edo bestelako gizarte eragileetan parte hartzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeak ez dago alderik.

Baina bai gainerako elkarte motatan: kirol elkarteetan eta elkarte gastronomikoetan gizonezkoen presentzia nabarmen altuagoa da emakumezkoena baino; emakumezkoen artean, aldiz, gehiago dira inongo elkartetan parte hartzen ez dutenak; eta zertxobait gehiago guraso elkarteetan parte hartzen dutenak.

65. taula

**EAEko parte-hartzaileen bestelako elkarteetako parte-hartzea, sexuaren eta hartutako rolaen arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskara edo kultur elkarte batean	23,6	17,8	22,4	25,5	16,9	23,5
Bestelako gizarte eragileetan	18,0	12,4	16,8	17,2	14,6	16,6
Kirol elkarte batean	10,2	12,8	10,8	27,4	16,9	25,0
Guraso elkarteetan	14,6	10,3	13,7	10,2	9,6	10,1
Elkarte gastronomikoan	4,4	4,2	4,4	17,6	12,6	16,4
Ez, ez dut parte hartu	48,8	57,1	50,5	35,9	50,8	39,4


Iturria: Siadeco, 2021.

Ikasketa-mailaren arabera

Ahobizi rola hautatu dutenen artean, ia bi herenek goi-mailako ikasketak dituzte. Belarriprest rola hautatu dutenen artean, aldiz, erdiek baino gutxiagok dituzte goi-mailako ikasketak.

48. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen ikasketa-maila, hartutako rolaen arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean gehiago dira goi-mailako ikasketak dituztenak; gizonezkoen artean, aldiz, batxilergoa dutenak (goi-mailako batxilergoa eta oinarrizkoa).

66. taula

**EAEko parte-hartzaileen ikasketa-maila, sexuaren eta hartutako rolaen arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Bat ere ez	0,5	0,2	0,4	0,8	0,8	0,8
Oinarrizkoak / OHO	3,1	4,9	3,5	3,5	6,2	4,1
Oinarrizko Batxilergoa /DBH/ LH1	5,8	10,4	6,8	7,3	11,7	8,3
Goi mailako Batxilergoa/BBB/UBI/LH2	11,3	16,3	12,3	19,2	21,9	19,8
Erdi goi-mailako ikasketak	10,9	15,6	11,9	10,2	13,4	11,0
Goi mailako ikasketak	68,4	50,8	64,7	58,3	44,9	55,2
Ez dakit	0,0	1,8	0,4	0,7	1,1	0,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## A.2.2. Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak

### Arrazoiak

Euskararen erabilera handitzea da Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia, parte-hartzaileek adierazi dutenez (% 91). Rolaren arabera, belarriprestentzat ahobizientzat baino garrantzi handiagoa hartzen dute beste arrazoiak: euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak (% 22) eta inguruko euskaldunak zein diren jakiteak (%11).

49. grafikoa

**Zein izan den Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia EAEko parte-hartzaileentzat (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoen arabera aztertuz gero, euskararen erabilera handitzeaz aparte, inguruko euskaldunak zein diren jakiteak garrantzia hartzen du Bizkaiko eta 2.gune soziolinguistikoko belarripresten artean. Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak, Arabako ahobizien eta 4.gune soziolinguistikoko belarripresten artean. Arrazoiak zein izan den ez dakitela erantzun dutenen pisua oso altua da, era berean, 4.gune soziolinguistikoko belarripresten artean (% 28).



**Zein izan den Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia EAEko parte-hartzailleentzat (LURRALDE HISTORIKOA ETA GUNE SOZIOINGUISTIKOA) (%)**

		LURRALDE HISTORIKOA									GUNE SOZIOINGUISTIKOA								
		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			<%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskararen erabilera handitzea	Bai	94,1	86,4	91,6	90,9	84,3	89,2	94,4	86,8	93,2	92,5	85,0	90,3	93,8	88,7	93,0	91,7	69,2	88,8
	Ez	5,9	13,6	8,4	9,1	15,7	10,8	5,6	13,2	6,8	7,5	15,0	9,7	6,2	11,3	7,0	8,3	30,8	11,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea	Bai	13,0	10,1	12,0	12,3	16,5	13,4	6,9	5,6	6,7	13,3	14,0	13,5	6,7	7,3	6,8	4,5	7,3	4,9
	Ez	87,0	89,9	88,0	87,7	83,5	86,6	93,1	94,4	93,3	86,7	86,0	86,5	93,3	92,7	93,2	95,5	92,7	95,1
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Bai	26,6	20,7	24,7	22,5	25,9	23,4	16,1	19,0	16,6	22,5	25,3	23,3	16,5	15,5	16,4	17,4	29,9	19,0
	Ez	73,4	79,3	75,3	77,5	74,1	76,6	83,9	81,0	83,4	77,5	74,7	76,7	83,5	84,5	83,6	82,6	70,1	81,0
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Ez dakit/ Erantzunik ez	Bai	2,0	1,6	1,9	2,2	5,5	3,1	2,0	2,1	2,0	1,5	3,1	2,0	2,1	1,8	2,1	4,8	27,5	7,8
	Ez	98,0	98,4	98,1	97,8	94,5	96,9	98,0	97,9	98,0	98,5	96,9	98,0	97,9	98,2	97,9	95,2	72,5	92,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2021

Batzuek euren hizkuntza-ohiturekin lotu dituzte Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak, eta helburu zehatzak jarri dituzte.

*Euskara gehiago erabiltzeko asmoarekin apuntatu nintzen. Etxean umeekin egiten dut baino emaztearekin ez, bera belarriprest apuntatu da. Saiakera handiagoa egiteko asmoarekin*

(2.elkarrizketatua; Araba, Ahobizi, 30-44 urte, Gasteizkoa ez dena)

*Nere emaztea euskalduna da eta ni euskaldun berria, seme-alabak ere baditugu eta hizkuntza bezala euskara erakutsi nahi diegu. Kuadrilan ere gaztekeraz egiten dugu nahiz eta euskaraz jakin, orduan ohitura horiek aldatzeko izena eman dut*

(23.elkarrizketatua; Gipuzkoa, Ahobizi, 30-44 urte, 2. GSL)

*Euskaraldian bi urteetan ahobizi bezala parte hartu dut. Batez ere alabak ikus dezan euskaraz egin daitekeela lehen hitza. Irunen euskara gutxi hitz egiten da kalean eta nire alabak, nahiz eta nirekin etxean euskara hutsean egiten duen, parkera ateratzen denean edo lagunekin dagoenean gaztekerara jotzen du ia konturatu gabe. Pixka bat nire alabari erakusteko hori egin daitekeela eta egin beharra dagoela*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

Beste batzuek, euren buruari baino, gehiago begiratzen diote inguruari, eta inguru horretan euskararen erabilera areagotzea aipatzen dute arrazoi gisa.

*Euskalduna naiz, nere egunerokoan euskaraz egiten dut baino ondo ikusten nuen herrian ere dendetan, etab euskaraz egiteko Euskaraldian parte hartzea*

(13.elkarizketatua; Bizkaia, Ahobizi, 16-44 urte, Bilbo Handia)

*Gure hizkuntza erabiltzea eta gure kultura zabaltzea, galdu ez dadin. Orain dena erdaraz egiten da, nahiz eta euskaraz jakin lehen hitza erdaraz egiten da. Hori aldatu beharra dago*

(28.elkarizketatua; Gipuzkoa, Belarriprest, 30-44 urte, 2. GSL)

Beste multzo batean, euskararen aldeko gainerako ekimenei bezala, Euskaraldiari ere babes emateko arazoia azpimarratu dutenak daude.

*Orokorrean euskararen aldeko edozein ekintza, ekitaldian parte hartzea gustatzen zait eta euskaraldian dudarik gabe. Hemendik bi urtera egiten bada hor izango naiz. Aurten gainera guraso elkartean lehendakari nago eta guraso elkartea ere sartu dut euskaraldiaren alde. Antolakuntzan egon naiz*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)


*Me gusta el euskera y estoy a favor de que se hable. Me apunte para dar un poco más de apoyo a la iniciativa.*

(17.elkarizketatua; Bizkaia, Belarriprest, 45 urtetik gora, Bilbo Handia)

2020an Euskaraldian izena eman dutenen % 3k ez zuten aurrez ekimena ezagutzen. Belarripresten artean altuagoa da Euskaraldia ezagutzen ez zutenen pisua: %7.

50. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileek noiztik ezagutzen duten Euskaraldia (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

### Helburuak

Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten arrazoen inguruan galdetuta, parte-hartzaileen % 96k kalean euskara gehiago entzun nahi dutela adierazi dute, eta % 76k euskaraz bizi nahi dutela. Helburu zehatzagoei dagokienez:

- Hamarretik seik diote lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dutela —% 59k ahobizien artean eta % 60k belarripresten artean—.
- Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dutela diote erdia pasatxok —% 50ek ahobizien artean eta % 57k belarripresten artean—.
- Erdiek lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzte —bai ahobizien artean, baita belarripresten artean ere—.
- 2018ko edizioak euren hizkuntza-ohiturak aldarazi zituela baieztatu dute %41ek —% 40k ahobizien artean eta %43k belarripresten artean—.

## 68. taula

**EAEko parte-hartzaileentzat Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten faktoreak (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
2018ko edizioan parte hartu izanak aurretik nituen hizkuntza-ohiturak aldarazi ditu	Bai	40,5	43,0	41,1
	Ez	42,2	38,4	41,3
	Ez dagokit	17,3	18,5	17,6
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bulfzatu nau aurten parte hartzera	Bai	23,2	32,8	25,3
	Ez	37,8	36,7	37,5
	Ez dagokit	39,1	30,5	37,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut	Bai	49,6	56,5	51,1
	Ez	17,7	17,9	17,8
	Ez dagokit	32,7	25,6	31,1
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Bai	76,6	68,6	74,8
	Ez	16,4	19,4	17,0
	Ez dagokit	7,1	11,9	8,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditut	Bai	50,3	50,8	50,4
	Ez	23,7	24,9	24,0
	Ez dagokit	26,0	24,3	25,6
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, edota arigunea sortu dugu	Bai	46,4	35,5	44,0
	Ez	34,6	42,6	36,4
	Ez dagokit	19,0	21,9	19,7
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Euskaltegian nabil euskara ikasten	Bai	4,2	22,3	8,2
	Ez	70,5	63,6	69,0
	Ez dagokit	25,3	14,0	22,8
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	Bai	59,0	60,0	59,2
	Ez	26,5	28,0	26,8
	Ez dagokit	14,5	12,0	14,0
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu	Bai	45,1	47,9	45,7
	Ez	26,0	26,5	26,1
	Ez dagokit	28,9	25,6	28,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Kalean euskara gehiago entzun nahi dut	Bai	97,4	93,8	96,6
	Ez	1,5	2,9	1,8
	Ez dagokit	1,1	3,3	1,6
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0
Besterik	Bai	3,5	4,2	3,6
	Ez	71,7	64,7	70,2
	Ez dagokit	24,8	31,1	26,2
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen kasuan eragin handiagoa izan du guraso moduan seme-alaben eredu izan nahi izateak. Honetaz gain, aldea hain nabarmena ez den arren, eragin handiagoa izan du, baita ere, lantokian denek edo gehiengoak parte hartu izanak eta 2018ko edizioan parte hartu izanak.

Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi izateak, emakumezko ahobizien artean eragiten badu ere, nagusiki emakumezko belarripresten artean eragiten du.

69. taula

**EAEko parte-hartzaileentzat Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten faktoreak, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
2018ko edizioan parte hartu izanak aurretik nituen hizkuntza-ohiturak aldarazi ditu	42,5	43,4	42,7	37,1	42,5	38,3
2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera	23,3	33,4	25,4	23,0	32,0	25,1
Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut	51,4	61,8	53,6	46,6	48,1	46,9
Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	76,2	69,2	74,7	77,2	67,7	75,0
Lantokiko hizkuntza ohiturak aldatu nahi ditut	50,4	51,8	50,7	50,3	49,1	50,0
Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, edota arigunea sortu dugu	47,8	37,0	45,5	43,8	33,1	41,3
Euskaltegian nabil euskara ikasten	4,8	24,5	8,9	3,2	18,9	6,9
Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	59,0	59,7	59,1	59,0	60,4	59,3
Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu	43,8	48,3	44,7	47,6	47,3	47,5
Kalean euskara gehiago entzun nahi dut	97,4	93,2	96,5	97,2	94,9	96,7
Besterik	3,8	4,9	4,0	2,9	3,1	3,0

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko rolen inguruko usteei dagokienez, sarritan egiten da hizkuntza-gaitasunaren eta rolaren arteko lotura. Hamarretik hiruri iruditzen zaie euskaraz hitz egiteko gai denak ezin duela belarriprest rola hartu —erabat ados edo nahikoa ados—. Gutxiago dira, aldiz, uste dutenak euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak ez lukeela ahobizi rola hartu behar (% 15,5). Parte-hartzaileen herenak baino gehiagok uste dute ahobizi izatea belarriprest izatea baino zailagoa dela.

Gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino gehiago dira diotenak euskaraz hitz egiteko gai denak ez lukeela belarriprest rola hartu behar (% 34 eta % 29 hurrenez hurren); eta baita euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak ez lukeela ahobizi rola hartu behar (% 19 eta % 14 hurrenez hurren).

70. taula

**EAEko parte-hartzaileen baieztapenekiko adostasun-maila (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Euskaraz hitz egiteko gai denak ezin du belarriprest rola hartu	Erabat ados	14,0	7,6	12,6
	Nahikoa ados	19,3	15,4	18,4
	Ez ados/ Ez desados	24,9	24,9	24,9
	Nahikoa desados	14,8	12,7	14,3
	Guztiz desados	22,7	35,0	25,4
	Ez dakit	4,4	4,4	4,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak ezin du ahobizi rola hartu	Erabat ados	4,1	8,1	5,0
	Nahikoa ados	9,7	13,8	10,6
	Ez ados/ Ez desados	22,9	23,9	23,2
	Nahikoa desados	23,0	13,2	20,8
	Guztiz desados	37,4	36,1	37,1
	Ez dakit	2,9	4,9	3,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ahobizi izatea belarriprest izatea baino zailagoa da	Erabat ados	11,7	25,8	14,8
	Nahikoa ados	17,8	26,4	19,7
	Ez ados/ Ez desados	29,4	21,1	27,6
	Nahikoa desados	11,1	6,6	10,1
	Guztiz desados	24,1	14,7	22,1
	Ez dakit	5,9	5,4	5,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren berri izateko modua

Kaleko komunikazioa izan da Euskaraldiaren inguruko informazioa zabaltzeko modurik eraginkorrena: parte-hartzaileen % 83k hautatu dute, informazioa jasotzeko moduen artean. Komunikabideak daude ondoren: telebista (% 79), irratia (% 71) eta herriko egunkari edo aldizkariak (% 65). Sare sozialak (% 73) eta emaila ere (%67) maila horretan daude.

71. taula

<b>EAEko parte-hartzaileei zein modutara iritsi zaien Euskaraldiaren inguruko informazioa (%)</b>				
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Herriko lantalde antolatzailearen bidez	Bai	54,7	47,0	53,0
	Ez	38,7	43,5	39,8
	Ez dakit	6,6	9,5	7,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Sare sozialen bidez	Bai	75,4	64,7	73,1
	Ez	22,7	31,4	24,6
	Ez dakit	1,8	3,9	2,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Emailaz	Bai	69,3	59,9	67,2
	Ez	26,6	35,3	28,5
	Ez dakit	4,2	4,8	4,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Kaleko komunikazioaren bidez	Bai	84,3	80,0	83,4
	Ez	12,7	16,2	13,5
	Ez dakit	3,0	3,8	3,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez	Bai	45,6	48,0	46,2
	Ez	47,3	44,8	46,8
	Ez dakit	7,0	7,1	7,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Izena eman duen entitate baten bidez	Bai	46,8	44,1	46,2
	Ez	48,1	48,7	48,2
	Ez dakit	5,1	7,2	5,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Telebistan ikusi dut	Bai	79,8	75,9	78,9
	Ez	18,1	20,8	18,7
	Ez dakit	2,1	3,3	2,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Irratian entzun dut	Bai	72,3	68,9	71,6
	Ez	24,8	27,4	25,3
	Ez dakit	2,9	3,7	3,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herriko egunkari edo aldizkarian irakurri dut	Bai	66,0	61,4	65,0
	Ez	29,9	33,0	30,5
	Ez dakit	4,2	5,6	4,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Beste komunikabide baten bidez	Bai	34,6	32,9	34,2
	Ez	43,8	46,0	44,3
	Ez dakit	21,6	21,1	21,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besterik	Bai	3,9	7,9	4,8
	Ez	66,5	59,9	65,0
	Ez dakit	29,7	32,2	30,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean nabarmen gehiago izan dira Euskaraldiaren inguruko informazioa ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez jaso dutenak; gizonezkoen artean, aldiz, gehiago komunikabideen bidez jaso dutenak; irratian entzunda edo telebistan ikusita.

72. taula

**EAEko parte-hartzaileei zein modutara iritsi zaien Euskaraldiaren inguruko informazioa, sexuaren eta hartutako rolaen arabera (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Herriko lantalde antolatzailearen bidez	54,1	48,3	52,9	55,8	45,0	53,3
Sare sozialen bidez	75,5	65,3	73,3	75,4	63,7	72,7
Emáilez	68,2	59,8	66,4	71,2	60,0	68,6
Kaleko komunikazioaren bidez	84,7	78,6	83,4	83,7	82,1	83,3
Ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez	49,6	51,8	50,1	38,7	42,1	39,5
Izena eman duen entitate baten bidez	46,6	45,5	46,3	47,3	41,9	46,1
Telebistan ikusi dut	78,5	74,0	77,5	82,0	78,9	81,3
Irratian entzun dut	70,1	67,3	69,5	76,3	71,5	75,2
Herriko egunkari edo aldizkarian irakurri dut	65,2	61,3	64,4	67,3	61,5	66,0
Beste komunikabide baten bidez	33,9	30,0	33,0	35,9	37,3	36,2
Besterik	4,3	9,1	5,3	3,1	6,0	3,8

Iturria: Siadeco, 2021.



## A.2.3 Euskaraldia ariketako jarduna

### Rolaren betetze-maila eta zailtasunak

0tik 10erako eskalan rola zein neurritan bete duten galdetuta, 7,38ko batez bestekoa eman dute erantzunek, orokorrean. Ahobizien artean batez besteko betetze-maila altuagoa da (7,58) belarripresten artean baino (6,67).

73. taula

---

#### **EAEko parte-hartzaileek zein neurritan bete duten rola (batez bestekoa)**

Ahobizi	7,58
Belarriprest	6,67
GUZTIRA	7,38

*Iturria: Siadeco, 2021*

Euskaraldiak planteatutako ariketa betetzeak hainbat zailtasun-maila eragiten dizkie parte-hartzaileei, egoera ezberdinen arabera. Datu orokorrei erreparatuz, bi rolentzat seme-alabekiko harremanean izan da errazena rola betetzea —parte-hartzaileen % 94,3rentzat erraza edo oso erraza—. Zailena, aldiz, kaleko eremuan: zerbitzu pribatuetan (% 38,6 oso zaila edo zaila) edo ezezagunekin edo kalean (% 35,8 oso zaila edo zaila).

## 74. taula

**EAEko parte-hartzaileei zenbateraino izan zaien zaila edo erraza ahobizi edo belarriprest izatea (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Bikotekidearekin	Oso erraza	60,5	28,7	53,7
	Erraza	21,5	34,6	24,3
	Zaila	11,8	23,6	14,3
	Oso zaila	6,2	13,1	7,7
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Seme-alabekin	Oso erraza	81,5	43	71,8
	Erraza	16,1	41,3	22,5
	Zaila	1,8	12,6	4,6
	Oso zaila	0,5	3,1	1,1
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Lagunekin	Oso erraza	45,2	19,4	39,7
	Erraza	36,8	42,4	38
	Zaila	15,4	30,2	18,5
	Oso zaila	2,6	7,9	3,7
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Lankideekin	Oso erraza	50,9	27,9	46
	Erraza	30,2	38,1	31,9
	Zaila	15,2	23,6	17
	Oso zaila	3,7	10,4	5,1
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Seme-alaben ikastetxeko gainontzeko gurasoekin	Oso erraza	40,8	18,7	35,4
	Erraza	41,8	39,9	41,3
	Zaila	15,3	31,5	19,3
	Oso zaila	2,1	9,9	4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Ikastetxe edo euskaltegiko kideekin	Oso erraza	68,3	44,2	62,3
	Erraza	25,9	42,7	30,1
	Zaila	4,8	10,6	6,2
	Oso zaila	1,0	2,5	1,4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Nire aisialdiko taldeko kideekin	Oso erraza	41,6	20,4	36,9
	Erraza	41,1	42,7	41,5
	Zaila	14,5	29,7	17,9
	Oso zaila	2,8	7,2	3,8
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Zerbitzu publikoetan (osasun zentroetan, udalean...)	Oso erraza	27,9	15,1	25,2
	Erraza	54,9	56,6	55,2
	Zaila	15,2	24,4	17,2
	Oso zaila	2,0	3,9	2,4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Zerbitzu pribatuetan (dendetan, zerbitzu pertsonaletan...)	Oso erraza	17,2	9,4	15,5
	Erraza	49,1	46,9	48,5
	Zaila	30,3	37,3	31,8
	Oso zaila	3,4	3,4	4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Ezezagunekin edo kalean	Oso erraza	14,8	7,4	13,3
	Erraza	49,7	43,1	48,3
	Zaila	31,2	38,8	32,8
	Oso zaila	4,2	10,7	5,6
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

Txaparen erabilera eta erabilgarritasuna

Parte-hartzaileen erdiek adierazi dute, Euskaraldiko hamabost egunetan zehar, beti edo ia beti txapa jarrita eraman dutela. Rolaren arabera, belarripresten artean baxuagoa da beti edo ia beti eraman dutenen pisua, eta altuagoa batzuetan, gutxitan edo inoiz eraman ez dutenena.

51. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileek 15 egunetan zenbatetan eraman duten txapa jarrita (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean, gehiago dira txapa beti edo ia beti jarrita eraman dutela adierazi dutenak (% 53), gizonetzkoen artean baino (% 43).

Gizonetzkoen artean, gehiago dira askotan eraman dutela diotenak, baina baita gutxitan edo (ia) inoiz eraman ez dutela esan dutenak ere.

75. taula

**EAEko parte-hartzaileek 15 egunetan zenbatetan eraman duten txapa jarrita, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonetzkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Beti edo ia beti	54,7	47,9	53,3	44,1	38,1	42,7
Askotan	21,8	21,3	21,7	26,3	25,9	26,2
Batzuetan	11,7	15,7	12,5	12,8	15,0	13,3
Gutxitan	5,5	6,9	5,8	8,9	9,5	9,1
Inoiz ez edo ia inoiz ez	5,7	7,4	6,1	7,6	10,3	8,3
Ez dakit	0,6	0,7	0,6	0,2	1,1	0,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko hamabost egunetan zehar txapa eramateak zertarako balio izan dien galdetuta, bi herenek diote ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko balio izan diela. Hamarretik seik, Euskaraldian parte hartzen ari zirela erakusteko. Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko balio izan diela, aldiz, laurdenek baino gutxiagok aipatu dute.

76. taula

**EAEko parte-hartzaileei txapa eramateak zertarako balio izan dien (beti edo askotan txapa eraman dutenei) (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Euskaraldian parte hartzen ari naizela erakusteko	Bai	59,9	52,5	58,4
	Ez	40,1	47,5	41,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hizkuntza-ohiturak aldatzeko	Bai	36,0	43,3	37,5
	Ez	64,0	56,7	62,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskararen alde zaudela adierazteko	Bai	50,8	48,2	50,3
	Ez	49,2	51,8	49,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko	Bai	23,6	26,1	24,1
	Ez	76,4	73,9	75,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ingurukoek nirekin euskaraz egin dezaketela adierazteko	Bai	65,8	65,7	65,8
	Ez	34,2	34,3	34,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean, bai ahobizi zein belarripresten artean, gehiago dira txapa eramateak euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko aukera eman dietela adierazi dutenak.

77. taula

**EAEko parte-hartzaileei txapa eramateak zertarako balio izan dien (beti edo askotan txapa eraman dutenei) (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraldian parte hartzen ari naizela erakusteko	58,9	55,5	58,2	61,9	47,4	58,8
Hizkuntza ohiturak aldatzeko	37,2	44,4	38,6	33,8	41,5	35,5
Euskararen alde zaudela adierazteko	48,8	50,4	49,1	54,8	44,5	52,5
Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko	25,4	29,0	26,1	20,3	21,3	20,5
Ingurukoek nirekin euskaraz egin dezaketela adierazteko	67,1	65,7	66,9	63,1	65,9	63,7

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko hamabost egunetan zehar txapa zeraman jendearen artean sortu den hizkuntza-dinamikari dagokionez, erabilera handiena ahobizien artean eman da. Belarriprestekiko harremanari dagokionez, ahobizien % 87k adierazi dute belarripresei euskaraz egin dietela. Aldiz, belarripresten % 67k diote ahobiziek euskaraz egin dietela.

78. taula

**Txapa zeramatenekin nagusiki euskara izan da erabilitako hizkuntza EAEn (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraldian zehar ahobizi txapa zutenei euskaraz egin diezu beti/ia beti edo askotan	94,7	63,1	87,8
Belarriprest txapa zutenei euskaraz egin diezu beti/ia beti edo askotan	87,2	58,4	80,9
Euskaraldiko 15 egunetan zehar, ahobizi txapa zutenek euskaraz egin dizute beti/ia beti edo askotan	89,2	67,3	84,4
Euskaraldiko 15 egunetan zehar, belarriprest txapa zutenek euskaraz egin dizute beti/ia beti edo askotan	52,7	50,1	52,1

Iturria: Siadeco, 2021.

Txaparen eragin positiboa zentzu orokorrean sentitu dute batzuek. Beste batzuek bizipen zehatzak azpimarratu dituzte.

*Egun batean osasun zentrora joan nintzen eta txapa ikustean euskaraz egin zidan atezainak. Okindegian ere bai eta dendetan. Amurrion bizi naiz, euskara ez da hitz egiten kalean, baina txapa ikustean gehiago*

(10. elkarrizketa; Araba, Belarriprest, 30-44 urte, 2. GSL Gasteiz ez dena)

*Txaparekin zerbait nabaritu dut, normalean erdaraz egiten didaten batzuk euskaraz egin zidaten*

(15.elkarrizketatua; Bizkaia, Ahobizi, 16-44 urte, 2. GSL Bilbo Handia ez dena)

*Sí, al llevar la chapa la gente es más comprensiva y te habla con palabras más sencillas y si les dices "no entiendo" pues son más amables*

(16.elkarrizketatua; Bizkaia, Belarriprest, 30-44 urte, Bilbo Handia)

*Azkeneko urte hauetan ahobizi bezala parte hartu dut. Sumatu dudana alde txaparekin Donostian komertzioetan eta tabernetan sartzekoan, bertakoa euskaraz zuzendu zaidala. Bestela ikusten dut lehenengo hitza erdaraz izaten dela, nahiz eta ni saiatzen naizen lehenengo hitza euskaraz egiten. Gero konturatzen naizenez zailtasunak dituela edo ezin duela, erdarara pasatzen naiz. Bestela txapa gabe baldin banago, 10etik 9 lehenengo hitza erdaraz izaten da. Egun horietan txaparekin sumatu dut*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Ba ez dakit, ziurtasun handiagoa ematen du euskaraz aritzeko garaian. Goieritik ateratzean batez ere, seguritatea ematen du hain euskaldunak ez diren tokietan*

(22.elkarrizketatua; Gipuzkoa, Ahobizi, 45 urtetik gora, 4. GSL)

*Txapa egunero jarri dut. Nik uste dut txapak laguntzen duela, gogorarazten dizu hor dagoela euskaraldia eta gogorarazten dizu horrekin euskaraz egin dezakezula. Bestearen txapa ikusterakoan euskarara jotzen duzu*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

*Euskaraldiarekin babestuago eta bultzatuta sentitu naiz, beharrezkoa zen bultzada hori. Nik beti beldurra eduki dut akatsekin. Euskaraldiarekin hori nolabait barkatzen da, zure esfortzu guztiarekin egiten duzulako. Onartuta dago, nolabait saritzen da, eta hori inportantea dela iruditzen zait*

(4.eztabaida taldea\_Araba, 45+, Belarriprest, 2GSL).

Batzuek aitortu dute ez dutela txapa beti gainean eraman. Edo adierazi dute txapa gutxi ikusi direla kolean. Baina hala ere, txaparen eragin positiboa onartu dute.

*Egunen batean. Ba kosta egin zait txapa eramatea, ez naiz beti gogoratu, egunen batean jarri dut. Txapa jarrita nabaritu dut besteengan gehiago egiten zutela euskaraz, lehen hitza euskaraz izatea errezago*

(1.elkarizketatua; Araba, Ahobizi, 16-29 urte, Gasteizkoa ez dena)

*Nik ez dut txapa egunero jarri. Ez nintzen ibiltzen txapa egunero aldatzen, ahaztu egiten zitzaidan. Txapak asko laguntzen du gogorarazteko euskaraz egin behar dugula, euskaraldian gaudela*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz).

*Txapa askoz ere gutxiago ikusi dira. Baina bai pentsatzen dudala hain sinplea den ikur baten eragina oso potentea dela. Txapa batekin ikusten duzu norbait, zuk euskaraldian izena eman duzu eta arraroa irudituko litzaidake ez egitea euskaraz. Kasuren batean gertatu zait zerbait galdetu behar izatea kaletik eta bi pertsona ikusi, eta txapa daramanaren bila joan*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

Txapak eragin negatiboa izan duela adierazi du gutxiengo batek.

*Jendeak arraro begiratzen zidan. Ez zidaten euskaraz egiten txapa eramateagatik*

(29.elkarizketatua; Gipuzkoa, Belarriprest, 16-29 urte, 2. GSL)

## A.2.4 Euskaraldiaren eragina

### Hartutako jokabideak

Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egiteko jokabidea da zabalduen dagoena, eta jokabide horretan izan da bilakaerarik handiena, gainera, Euskaraldian zehar —% 51tik % 66ra—; ez ahobizien artean bakarrik, baita belarripresten artean ere. Lehen hitza euskaraz egiteko ohituran ere bilakaera nabarmena izan da —handiagoa emakumezkoen artean (% 45etik % 61ra), gizonezkoen artean baino (%49tik % 60)—. Baita elkarrizketa elebidunetan ere, kasu horretan, ahobizien artean, batez ere.

79. taula

**Hizkuntza-jokabideak egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik eta Euskaraldian zehar EAEn (%)**

	Aurretik			Zehar		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	55,4	35,2	<b>50,9</b>	72,5	43,8	<b>66,2</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	51,0	29,6	<b>46,3</b>	66,6	37,8	<b>60,3</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	39,7	25,1	<b>36,5</b>	54,6	33,3	<b>50,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketan euskaraz edo ele bitan izatea	30,9	41,2	<b>33,1</b>	38,2	43,3	<b>39,3</b>
Euskaraz dakienari egin diezadan eskatu diot	29,4	35,0	<b>30,6</b>	35,1	37,4	<b>35,6</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Hizkuntza-jokabide horien artean, euskaraz egiten dutenekin euskaraz egitea izan da errazena, ahobizientzat —% 90entzat erraza edo oso erraza— zein belarriprestentzat (% 82). Lehen hitza euskaraz egitea ere nahikoa erraza izan da bi rolak bete dituztenentzat. Zailena, aldiz, orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edukitzea —zaila edo oso zaila ahobizien %46rentzat eta belarripresten % 54rentzat—.



80. taula

**EAEko parte-hartzaileentzat hizkuntza-jokabideak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila (%)**

	Ahobizi	Belariprest	Guztira	
Euskaraz egiten dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	51,6	32,1	48,8
	Erraza	39,5	51,3	41,2
	Zaila	8,0	14,6	9,0
	Oso zaila	0,5	0,7	0,5
	Ez dagokit	0,3	1,3	0,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	30,8	21,6	29,5
	Erraza	52,4	51,8	52,3
	Zaila	16,4	20,5	17,0
	Oso zaila	0,4	3,6	0,8
	Ez dagokit	0,0	2,5	0,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	12,3	6,9	11,5
	Erraza	48,8	49,4	48,9
	Zaila	35,6	42,9	36,7
	Oso zaila	2,6	0,8	2,3
	Ez dagokit	0,7	0,1	0,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarizketak euskaraz edo ele bitan izatea	Oso erraza	8,8	3,1	7,4
	Erraza	43,7	42,4	43,4
	Zaila	43,7	49,2	45,1
	Oso zaila	2,6	4,8	3,1
	Ez dagokit	1,2	0,5	1,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot	Oso erraza	31,9	20,8	29,3
	Erraza	50,5	58,7	52,4
	Zaila	15,8	17,5	16,2
	Oso zaila	1,4	2,0	1,5
	Ez dagokit	0,5	1,1	0,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

### Hizkuntza-erabileraren bilakaera

Parte-hartzaileen herenek baieztatu dute euskara gehiago erabiltzen dutela 2018ko Euskaraldiaren eraginez. Proportzio hori altuagoa da belarripresten artean (% 39): emakumezko belarripresten artean % 41 eta gizonezko belarripresten artean % 37.

#### 81. taula

##### **2018ko Euskaraldiaren eraginez gehiago ala gutxiago erabiltzen duten euskara EAeko parte-hartzaileek (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Gehiago	32,0	39,4	33,5
Berdin	64,9	50,8	62,0
Gutxiago	0,8	2,6	1,1
Ez nuen 2018ko Euskaraldian parte hartu	0,5	2,8	1,0
Ez dakit	1,9	4,4	2,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

2020ko Euskaraldiari dagokionez, % 22k adierazi dute oro har edo argi eta garbi hizkuntza-ohiturak aldatu dituztela —emakumezkoen % 24k eta gizonezkoen % 20k—. % 41ek ohitura batzuk aldatu dituzte, baina beste batzuk ez.

#### 82. taula

##### **EAeko parte-hartzaileek aurtengo Euskaraldiari esker hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten edo ez (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Argi eta garbi	3,8	4,7	4,0
Oro har, bai	18,7	17,0	18,3
Batzuk bai; beste batzuk, aldiz, ez	41,6	42,3	41,7
Oro har, ez	29,0	28,0	28,8
Inolaz ere	3,7	4,2	3,8
Ez dakit	3,2	3,7	3,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoen arabera, oro har, Gipuzkoa eta gune soziolinguistiko euskaldunenak nabarmentzen dira, ohiturak oro har eta argi eta garbi aldatu dituztenak kontuan hartuz —4.gune soziolinguistikoko belarripresten % 30ek hizkuntzak argi eta garbi edo oro har aldatu dituzte—. Hala ere, lurralde historikoen arabera, hizkuntza-ohiturak argi eta garbi aldatu dituztenen pisu altuena Bizkaiko belarripresten artean ematen da (% 5). Araban, ahobizien erdiek baino gehiagok adierazi dute ohitura batzuk aldatu dituztela, baina beste batzuk ez.

**EAEko parte-hartzaileek aurtengo Euskaraldiari esker hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten edo ez (LURRALDE HISTORIKOA ETA GUNE SOZIOINGUISTIKOA) (%)**

	LURRALDE HISTORIKOA									GUNE SOZIOINGUISTIKOA								
	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			<%49			%50-%79			>=%80		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Argi eta garbi	2,9	4,1	3,3	4,9	5,0	4,9	3,2	4,5	3,5	3,0	4,4	3,4	4,3	4,9	4,4	5,9	4,1	5,7
Oro har, bai	15,1	16,0	15,4	16,8	14,5	16,2	20,6	20,7	20,6	19,0	15,2	17,9	18,7	19,3	18,8	17,9	25,8	18,9
Batzuk bai; beste batzuk, aldiz, ez	50,8	44,0	48,6	44,2	44,4	44,3	38,3	39,0	38,4	44,7	42,8	44,2	40,6	42,6	40,9	30,1	36,2	30,9
Oro har, ez	27,5	27,8	27,6	27,4	29,3	27,9	30,3	26,4	29,7	27,5	29,6	28,1	29,8	26,0	29,2	31,2	18,0	29,5
Inolaz ere	2,3	4,7	3,1	4,3	4,2	4,3	3,6	4,1	3,7	3,2	4,2	3,5	3,5	3,3	3,4	8,7	12,4	9,2
Ez dakit	1,4	3,4	2,0	2,4	2,6	2,4	4,0	5,3	4,2	2,6	3,7	2,9	3,2	3,9	3,3	6,1	3,5	5,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Familian eta lagunartean eragina lortu duten batzuk badaude, baina Euskaraldiaz harago eragin horri eusteko zailtasunak izan dituztenak ere bai.

*Apur bat bai hitz egiten dudala gehiago, batez ere familian eta lagunekin. Haiek ere apur bat gehiago egiten didate euskaraz orain*

(18.elkarizketatua; Bizkaia, Belarriprest, 45 urtetik gora, 4. GSL)

*Bai, koadrilan batez ere euskara gehiago egiten saiatzen ari gara. Besteek ere zerbait gehigo egiten didate euskaraz*

(23.elkarizketatua; Gipuzkoa, Ahobizi, 30-44 urte, 2. GSL)

*Nire erronka nagusia kuadrilla zen. Lagunartean euskaraz hitz egitea niretzat garrantzitsua da. Erronka hori geneukan kuadrillan eta pixkanaka-pixkanaka lortzen ari gara*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

*Lagunartean hartu genuen erronka hori, saiakera hori, baina azkenean ez genuen lortu. Hasi ginen lehenengo hiru egunetan, eta egia da gaur egun ere egiten dugula erdaraz. Dendetan eta horrela euskaraz egiten dugu, lehen erdaraz egiten genuenean. Baina berez erronka bat ez genuen lortu: lagunekin euskaraz hitz egitea beraiek ere euskaraz dakitelako*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

Umeekin edo umeak aurrean daudenean euskara gehiago erabiltzen dutela jabetu dira batzuk, baina zailtasun handiagoak dituztela helduen arteko harremanetan euskarari eusteko.

*Umeekin egoteak laguntzen du, nire inguruan umei oso gutxi egiten zaie erdaraz. Baina nagusien artean oraindik badago. Euskaraz egiten diegu gure seme-alabei eta gero hizkuntza arruntean gaztelera erabiltzen dugu nagusiekin. Hor bai ikusten dut oraindik erresistentzia bat. Euskaraldiak horretan laguntzen du. Ausardia ematen du edozeinekin euskaraz egiteko nahiz eta kostatzen, eta konfiantza ondo erabili ez baina jarraera baikorra dutenei*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Euskara geroz eta gehiago erabiltzen dut haurarekin dena euskaraz egiten dudalako. Lanean ere lagundu dit euskara gehiago erabiltzeko. Ohartzen gara haurarekin beti euskaraz hitz egiten dugula, baina nire emaztearen eta nire artean beti erdara erabiltzen dugu, betidanik horrela egin dugulako. Azkenean kostatzen da aldatzea ohiko hizkuntza, baina umearen aurrean euskaraz hitz egiten saiatzen gara*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

Berdin jarraitzen dutela baieztatu dutenen artean, ohikoa da adieraztea euskaraz dakitela dakitenekin euskaraz egiten dutela, eta gainerakoekin ez.

*Beti bezala jarraitu dut Euskaraldia ondoren, euskaraz hitz egin daitekeenarekin euskaraz. Besteek ez didate lehen baino gehiago egiten*

(6.elkarriketatua; Araba, Belarriprest, 16-29, Gasteizkoa)

*Ba nik erabilera berdina egiten dut, euskaraz dakiela edo ulertzen badu nik beti euskaraz, agian nere erosotasunagatik. Besteetan bueno, agian zerbait nabaritu dut baina ez nabarmenki*

(22.elkarriketatua; Gipuzkoa, Ahobizi, 45 urtetik gora, 4. GSL)

Merkataritzan edo zerbitzuetan izan dituzten esperientzien berri eman dute batzuek.

*Nire anekdota izan da, Bilbora joan nintzela egun batean eta farmaziara sartu nintzen. Eta konturatu nintzen, ez dakit zergatik, mutil horri erdaraz egingo niola berba, baina justu ahobizi zeukan jarrita eta euskaraz hasi nintzen berbetan. Pila bat poztu nintzen. Pentsatu nuen "zelako penagarria izango zen, nire aldetik, ez banu horrelako pinik edo ikusiko igual erdaraz egingo niola"*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Dendetan bertako dendak baldin badira, lokalak, azkarrago ateratzen zait. Baina adibidez Zara moduko denda batean, automatikoki erdarara jotzen duzu, ez duzu pentsatzen “hemen erdaraz egingo dut hemen lanean ari den neskarekin”. Ez dakit zergatik horrelako dendetan, automatikoki, erdarara pasatzen zara zuzenean. Horrelakoetan kostatu zait, eta batzuetan ez dut bete*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

*Etxean eta lagunekin argi daukazu nola jokatu behar duzun, ezagutzen dituzu, baina ezezagunekin zailagoa da. Hau dela eta, leku batzuetan hasi naiz euskaraz esaten egun on, euskaraz eskatzen... esaten badute “lo siento, no lo entiendo” hizkuntza aldatu eta listo. Lehen zuzenean erdaraz egiten nuen*

(2.eztabaida taldea\_Bizkaia, 45+, Ahobizi, 3GSL).

*Nire kalkulua izaten da aurrean daukadana 40 urte edo gutxiago baldin baditu probabilitate handia dagoela euskaraz jakiteko. Horren arabera pentsatzen dut euskaraz hastea. Adinak asko laguntzen dit erabakitzen nire lehenengo hitza euskaraz izatea edo ez izatea*

(2.eztabaida taldea\_Bizkaia, 45+, Ahobizi, 3GSL)

*Zailtasuna bigarren eta hirugarren hitza euskaraz egitea. Dendetan eta sartzen zarenean lehenengo hitza euskaraz, baina gero gazteleraz erantzuten dizutenean, igual saiatzen zara bigarrena ere euskaraz egiten. Aurreiritziengatik zuzenean horrelakoetan gaztelerara pasatzen gara. Horretan aldatu nahiko nuke, saiakera hori egitea. Txapak urte guztian ematea lagungarria izan daiteke horrelakoetan*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)

*Nire burua derrigortu dut euskaraz egitera, tabernetan euskaraz hitz egitera. Ikusita ez duela euskara menderatzen mantsoago hitz egiten eta harritu naiz, gutxienez ulertu didatelako. Tabernetan eta komertzioetan behartu dut nire burua euskaraz hastera. Ez dut gehiegi aldatu baina bai zertxobait, batez ere alaba ondoan neukanean, berak ikus zezan egin daitekeela. Normalean azkarrago aldatzen dut gaztelerara, eta euskaraldian pazientzia gehiagorekin hartu dut*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

Hizkuntza-ohituretan aldaketarik handiena 2018ko Euskaraldian eman zutela azpimarratu dute batzuek. Orduz geroztik euskara gehiago erabiltzen dutela.

*Aurten ez, saltoa egon da euskararen erabileran 2018tik gaur arte, baina ez 2020ko Euskaraldiagatik. Orain normaltasun gehiagorekin hitz egiten da euskaraz, oso positiboa izan da*

(14.elkarriketatua; Bizkaia, Ahobizi, 45 urtefik gora, Bilbo Handia)

Jarrera kritiko edo ezkor samarra dutenak ere badaude.

*Ikusi dudana da, ez dakit nire inguruagatik edo, jendea azkar apuntatzen dela parte hartzera, baina gero hamabostaldi horretan ez dela behar beste saiatu, rolen atzean dauden helburuak edo ez direla behar bezala bete edo landu parte hartu baino lehen*  
(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

*Nik jarraitu dut eguneroko bizitza era berean egiten eta euskaraldia amaitu denean ere bai. Orain dela 10 urte eman nion lehentasuna euskarari orokorrean. Horregatik ez daukat oso argi baliagarria ote den euskaraldia, nire jarrera aurretik, bitartean eta pasa eta gero berdina izan delako*  
(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Kolektiboki postureo apur bat egon dela iruditzen zait. Sare sozialetan txaparekin argazia igotzea, ikusi dezatela, gero agian ez dute praktikatu, baina que se vea. Batzuegan hori ikusi dut, inguruan normalean ez dutenak egiten eta bat batean sare sozialetan argazia. Jai giroaren aitzakiarekin ikusten dut posturoa*  
(9.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 18-30, Ahobizi)


Euskaraldiak izan duen eraginari dagokionez, joera orokorra begien bistakoa da: Euskaraldian zehar euskararen erabilerak gora egiten du, eta behera ondoren. Hala ere, ondorengo jaitsiera ez da igoyeraren parekoa. Beraz, hondar bat, behintzat, geratzen da. Egoeraren eta rolaen arabera, ordea, aldeak antzematen dira.

Bikotekidearekin erabilerak gora egin du Euskaraldian zehar, baina atzerapauso bat nabari da ondoren. Rolan arteko aldeak, baina, esanguratsuak dira:

- Euskaraldian zehar dena edo ia dena euskaraz egitera pasa den ahobizi eta belarripresten ehunekoa oso antzekoa da – zortzi puntu inguruko igoera bi kasutan –; baina ondoren, bikotekidearekin dena edo ia dena euskaraz egiten gehiago jarraitu dute ahobiziek.
- Belarripresten kasuan, aldiz, azpimarragarria da Euskaraldiaren aurretik bikotekidearekin dena edo ia dena gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zutenak erdia baino gehiago ziren (% 54,9), eta Euskaraldiaren ondoren, erdia baino gutxiago (% 42,6). Hortaz, euskarak balio izan die bikotekidearekiko elkarrizketetan nola edo hala euskara txertatzeko, izan dena edo gehiena euskaraz edo gaztelaniaz bezainbeste eginez.

52. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak BIKOTEKIDEAREKIN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Seme-alabekin aldaketa egonkorragoa da. Ez du atzera egin, ez ahobizien, ezta belarripresten kasuan ere.

Aurrerapausoa, aldiz, nabarmenagoa da belarriprestatan: seme-alabekin dituzten hizkuntza-ohiturei astindu handiagoa ematen diete ahobiziek baino. Euskaraz egiten zutenek euskara gehiago egiteaz gain ('dena edo gehiena euskaraz' eta 'gaztelaniaz bezainbeste' % 43,4 izatetik % 51,2 izatera), gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zutenek ere euskara txertatu dute seme-alabekin dituzten elkarrizketetan (% 25,8 izatetik % 18,5 izatera).

53. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak SEME-ALABEKIN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.



Familiartean ere jaitsiera ematen da ondoren, bikotekideenaren antzekoa. Dena edo gehiena euskaraz egitera animatu direnen igoera nahiko handia izan da Euskaraldian zehar eta ondoren ere - sei puntu ingurukoa Euskaraldian zehar, eta laukoa, ondoren -. Txikiagoa da belarripresten kasuan - lau puntukoa Euskaraldian zehar, eta bikoa, ondoren -, baina haien artean euskara familiartean txertatzeko ahaleginak eman ditu fruituak: dena edo gehiena gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zuen % 59,5ek Euskaraldiaren aurretik, eta ondoren, % 53,3 izatera pasa da.

54. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak FAMILIARTEAN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Lagunartean egonkorragoa da aldaketa. Igoera handia da —ahobizien artean, batez ere—, eta jaitciera ez da hain nabarmena. Belarripresten artean, aldiz, bada beste aldaketarik: Euskaraldiaren aurretik dena edo gehiena gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zutenak erdia baino gehiago izatetik (% 55,9), erdia baino gutxiago izatera pasa dira (% 46,1). Hori horrela, ahobiziek zein belarriprestek, erritmo ezberdinetan, baina Euskaraldiaren ondoren denek egin dute aurrera euskararen erabileran.

55. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak LAGUNARTEAN EDO KOADRILAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Lanean aldaketa nabaria izan da bi roletan, ez da bakarrik igo dena edo gehiena euskaraz egiten dutenen kopurua, gutxitu egin da, baita ere, dena edo gehiena gaztelaniaz egiten dutenen kopurua. Aldaketa horiek, gainera, bi roletan antzematen dira; belarriprestetan, ordea, nabariagoa da euskara txertatu izana: sei puntu igo da dena edo gehiena euskaraz egiten dutenen ehunekoa, eta bederatzi puntu jaitsi da dena edo gehiena gaztelaniaz egiten dutenena.

56. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak LANEAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaeren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Herriko dendetan igoera handia izan da, baina jaitsiera ere handi samarra da parte-hartzaile guztiak kontuan izanik. Rolaren arabera, ordea, ahobiziek euskaraz gehiago egiteko joera handiagoa izan dute ariketan zehar, baina abiapuntuko egoerara gehiago bueltatu dira, baita ere. Belarripresten artean aldaketari gehiago eutsi zaio Euskaraldiaren ondoren ere.

57. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak HERRIKO DENDETAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ikastetxean edo euskaltegian igoera ia ez da igarri ere egiten, ezta rolaren arabera ere. Ikastegiak euskararen guneak dira, eta esanguratsua da haietan belarripresten kasuan ere euskararen erabilera oso altua dela.

58. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak IKASTETXEAN EDO EUSKALTEGIAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Aisialdiko taldeetan aldaketa oso txikia izan da, baina egin den hori mantentzen jakin dute, bai ahobiziek eta bai belarriprestek. Kasu honetan esanguratsuena da, dena edo ia dena gaztelaniaz egiten zutenak nabarmen jaitsi direla Euskaraldian zehar eta mantendu egin dela ondoren ere, aisialdi talde batzuetan euskaraz gehiago egiten hasi diren seinale izan daiteke.

59. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak AISIALDIKO TALDEKO KIDEEKIN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Igoera handiena ezezagunekin edo kalean eman da; ondoren, jaitsiera txiki bat izan du, baina ez oso nabarmena. Rolaren arabera, igoera handiagoa izan da ahobizien kasuan; egonkorragoa, aldiz, belarripresten artean.

60. grafikoa

**EAEko parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak EZEZAGUNEKIN EDO KALEAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Aipatutako egoeratan eta rolaren arabera dena edo gehiena euskaraz egiten dutenen kopurua nola aldatu den aztertu da, baita ere. EAEko parte-hartzaileek ezezagunekin edo kalean egiten zuten gutxien Euskaraldiaren aurretik. Ariketak, ordea, bertan izan du eragin gehien: ariketan zehar ezezagunekin dena edo gehiena euskaraz egitera bultzatu ditu parte-hartzaile asko, izan ahobizi edo belarriprest, eta ohitura horiek mantendu egin dira ondorenean ere.

61. grafikoa

**Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren dena edo gehiena euskaraz egin dutenak EAEn, egoeraren eta rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021



62. grafikoa

**Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren dena edo gehiena euskaraz egin dutenak EAEn, egoeraren eta sexuaren arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021

## A.2.5 Ariguneetako jarduna

### Norberaren ariguneak

Euskaraldian norbanako gisa parte hartu dutenen % 23 aritu dira arigune batean —proportzioa altuagoa da ahobizien artean—. Horietatik gehienak, lantokian. Ariguneetan aritu diren gehienak bakarka bezain eroso sentitu dira, baina % 19k adierazi dute bakarka baino erosoago sentitu direla arigunearen babesean. Ariguneak eragindako aldaketari dagokionez, % 17k diote aldaketa iraunkorra lortu dutela: % 18 ahobizien artean —nabarmen gehiago emakumezkoen artean (% 22), gizonezkoen artean baino (% 12)— eta % 14 belarripresten artean.

Bestalde, % 22k diote Euskaraldian zehar aldatu zirela ohiturak, baina ondoren lehengora itzuli direla, eta % 11k saiatu bai, baina ohiturak aldatzea ez dutela lortu. Ohiturak aldatzea lortu ez dutenak % 10 dira ahobizien artean eta % 17 belarripresten artean —gehiago emakumezkoen artean (% 19), gizonezkoen artean baino (% 13)—.

84. taula

#### **EAEko parte-hartzaileek ariguneetan parte-hartzea (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Arigunereren batean parte hartu al duzu?	Bai	24,9	17,3	23,2
	Ez	66,5	73,7	68,1
	Ez dakit	8,6	9,0	8,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>ARIGUNEETAN PARTE HARTU DUTENAK BAKARRIK</b>				
	Lantokian	77,8	74,3	77,2
	Kultur elkarteetan	17,4	15,2	17,0
	Kirol elkarteetan	7,5	6,2	7,2
	Guraso elkarteetan	,9	3,4	1,3
Zer nolako esperientzia izan da?	Bakarka baino erosoago aritu naiz	17,8	25,9	19,2
	Bakarka bezain eroso aritu naiz taldean ere	46,6	27,7	43,5
	Bakarka erosoago aritu naiz taldean baino	1,0	8,6	2,2
	Ez naiz eroso aritu ez bakarka, ezta taldean ere	0,3	0,6	0,3
	Beti bezain eroso sentitu naiz. Ez da ezer aldatu	29,6	30,0	29,7
	Ez dakit	4,8	7,1	5,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Taldearen hitz egiteko ohiturak aldatzea lortu duzue?	Bai, badirudi betirako aldatu ditugula	18,4	13,7	17,6
	Bai, baina Euskaraldian zehar besterik ez ziren aldatu	19,1	34,3	21,6
	Ez, nahiz eta saiatu ginen	9,8	16,6	10,9
	Ez, ez ginen ezta saiatu ere egin	0,5	2,8	0,9
	Ez, lehenago ere beti euskaraz aritzen ginen	41,2	25,5	38,6
	Ez dakit	11,0	7,2	10,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Ariguneen ariketaren balorazio positiboa egin dute batzuek, eta aurrera begira, arigune-sarea gehiago zabaltzearen alde egin dute.

*Ariguneak egotea positiboa dela uste dut. Niri pasa zait, herriko okindegi batean bertan lan egiten dutenak uste nuen ez zekitela euskaraz eta arigunea ikusi nuenean, esan nuen "ostras, andre honek badaki", eta ni erdaraz zuzentzen nintzen beregana, benetan uste nuelako ez zekiela*

(9.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 18-30, Ahobizi)

*Ariguneekin asmatu dela iruditzen zait. Baina gustatuko litzaidake denda handiagotara iristea. Etxe aurrean supermerkatu bat daukat eta han ez zegoen arigunerik. Eta justu ondoan dagoen fruta denda txiki batean arigunea zegoen. Denda txikiagoak errazago izan dira arigune*

(9.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 18-30, Ahobizi)

Zenbaitetik adierazi dute, hain zuzen, egunerokoan ere funtzio hori betetzen duten tokietan sortu direla ariguneak. Ez dela sorpresarik izan, alde horretatik.

*Ariguneak nire inguruan, eskualdean, euskaraz beti hitz egin den lekuetan sortu dira batez ere. Ez da euskararik sortu, ez dira sortu ariguneak euskara sustatzeko, berezkoak dira*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia).

*Bilbon espero zitekeena egon da, betikoak: kultur-etxeak, ikastetxeak eta gutxi gehiago. Berez euskarak presentzia daukan gunea bihurtu da arigunea. Euskaraldiko programak ikusi nituenean euskal telebistan, zelako poztasuna, ez dakit nongo denda, ez dakit nongo zerbitzua..., baina hemendik niri pobre geratu zait hiria ariguneei begira. Nik uste dut aisialdi eremuak, tabernak, dendak sartu beharko liratekeela*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

Euren lantokian arigunea eduki duten batzuek ere balorazio positiboa egin dute.

*Lanean ere arigune bezala sartu gara edizio honetan. Bultzada bat emateko, ikusgarriago edo egiteko euskaraldiaren arlo fisikoa. Uste dudalako zoritxarrez oraindik euskaraldiaren, txantxangorriaren, txapen eragina aprobetxatu behar dugula, oraindik euskarak behar duela segun non gauden*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

*Euskaraldia aurten laneko gauza bat izan da. Herrian ez naiz asko mugitu. Txapa jarrita bakarrik eduki dut. Aurten antzokian euskaraldian arigune bat ginen. Han askotan leihatilan egoten naiz. Jendea euskaraz etortzen bada sarrerak eroatera, nik euskaraz egiten dut*

(4.eztabaida taldea\_Araba, 45+, Belarriprest, 2GSL).

### Gainontzeko ariguneak

Parte-hartzaileen herenek ariguneak ikusi dituzte Euskaraldiko hamabost egunetan zehar. Horietan, euskara gehiago hitz egin edo entzun dute % 62k. Gehiago emakumezkoen artean —% 64—, gizonezkoen artean baino —% 58—.

85. taula

#### **EAEko parte-hartzaileak gainontzeko ariguneei buruz (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Saltokietan banketxeetan, erakunde publikoetan...ariguneak ikusi dituzu?	Bai	33,9	32,0	33,5
	Ez	44,2	45,0	44,4
	Ez dakit	21,9	23,0	22,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Arigune horietan, euskaraz gehiago egin duzu edo egin dizute Euskaraldian zehar?	Askoz ere gehiago	14,1	10,1	13,3
	Oro har, gehiago	48,4	49,9	48,7
	Berdin	30,3	31,0	30,4
	Oro har, gutxiago	0,1	0,3	0,1
	Ez dakit	7,1	8,7	7,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## A.2.6 Aurrera begira

### Aldatutako ohiturak mantenduko diren edo ez

Euskaraldiaren eraginez bikotekidearekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen erdiek aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —proportzioa altuagoa da ahobizien artean—. Belarripresten % 40k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela.

63. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (BIKOTEKIDEAREKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Seme-alabekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen erdiek aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —proportzioa altuagoa da ahobizien artean—. Belarripresten % 20k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela.

Emakumezkoen artean, % 53 dira aldaketa horiek mantenduko dituztela diotenak; gizonezkoen artean, aldiz, % 44.

64. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (SEME-ALABEKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Familiartean hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 53k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean ia % 58 dira—. Belarripresten % 36k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela.

Familiartean aldaketak mantenduko dituztela diotenak gehiago dira emakumezkoen artean (% 55), gizonezkoen artean baino (% 50).

65. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (FAMILIARTEAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Lagunartean edo koadrilan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 59k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean ia % 64 dira—. Belarripresten artean, gehiago dira mantentzen saiatuko direla baina kosta egingo zaiela diotenak (% 49).

66. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (LAGUNARTEAN EDO KOADRILAN) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


Lanean hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 52k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean altuxeagoa da proportzioa—. Belarripresten artean, % 31k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela.

Lanean, aldaketak mantentzen saiatu bai, baina kostatuko zaiela diotenak gehiago dira emakumezkoen artean (% 26), gizonezkoen artean baino (% 19); eta batik bat gehiago dira emakumezko belarripresten artean (% 39).



67. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (LANEAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Herriko dendetan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 60k aldaketa horiek mantendu egongo dituztela diote —emakumezkoen artean nabarmen gehiago gizonezkoen artean baino; % 65 eta % 51 hurrenez hurren—. Belarripresten artean pareko daude mantendu egongo dituztela diotenak eta mantentzen saiatuko direla baina kostatzen zaiela diotenak. Belarripresten % 10ek argi dute Euskaraldian zehar bakarrik aldatu dituztela ohitura horiek.

68. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (HERRIKO DENDETAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ikastetxean edo Euskaltegian hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen erdiek aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean altuxeagoa da proportzioa—.

69. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (IKASTETXEAN EDO EUSKALTEGIAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Aisialdiko taldean hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 43k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean altuxeagoa da proportzioa—.

70. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (AISIALDI TALDEK KIDEEKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ezegagunekin edo kaleko elkarrizketetan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 48k uste dute ohitura horiek mantendu egingo dituztela —% 53 emakumezkoen artean, eta % 39 gizonezkoen artean—, eta beste % 38k saiatu egingo direla. Ahobizien joera orokorraren oso antzekoa da.

Belarripresten artean, aldiz, altuagoa da kosta egingo zaiela diotenen pisua; gainera, % 15ek argi dute Euskaraldian zehar bakarrik aldatu dituztela ohiturak, baina ez dituztela mantenduko.

71. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (EAE) (EZEZAGUNEKIN EDO KALEAN) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

## 86. taula

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (EAE) (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Bela- riprest	Guztira	Ahobizi	Bela- riprest	Guztira
Bikotekidear ekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	53,7	36,8	50,7	56,7	37,2	51,2
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	17,1	39,1	21,1	18,9	40,3	24,8
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	1,2	0,0	1,0	,6	5,2	1,9
	Besterik	6,3	11,5	7,3	5,8	1,5	4,6
	Ez dakit	21,6	12,5	20,0	18,0	15,9	17,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Seme- alabekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	54,3	47,7	53,1	45,0	40,0	43,6
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	9,4	20,4	11,3	10,3	20,7	13,2
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	,1	4,5	,9	1,5	5,0	2,5
	Besterik	5,1	4,4	4,9	5,0	6,1	5,3
	Ez dakit	31,1	23,0	29,7	38,2	28,2	35,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Familiartean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	58,8	36,8	54,8	55,6	33,9	49,6
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	27,1	24,3	26,6	22,6	28,4	24,2
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	2,1	10,4	3,6	3,8	17,7	7,6
	Besterik	6,8	14,1	8,1	5,6	5,2	5,5
	Ez dakit	5,2	14,4	6,9	12,3	14,7	13,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunartean edo koadrilan	Aldaketa horiek mantenduko ditut	65,2	37,2	60,1	62,7	38,5	56,0
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	22,3	41,7	25,8	25,2	36,6	28,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	4,6	4,9	4,6	1,9	10,3	4,3
	Besterik	5,0	6,8	5,4	3,9	4,9	4,2
	Ez dakit	3,0	9,4	4,1	6,3	9,6	7,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lanean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	54,3	36,6	51,1	56,1	43,0	52,5
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	23,1	39,1	26,0	18,7	20,4	19,2
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	2,2	4,5	2,6	2,5	8,3	4,1
	Besterik	5,0	7,0	5,4	4,7	7,1	5,4
	Ez dakit	15,3	12,9	14,9	17,9	21,2	18,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herriko dendetan	Aldaketa horiek mantenduko ditut	70,5	42,2	65,4	56,9	36,8	51,3
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	22,3	38,7	25,3	26,7	43,4	31,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	1,4	10,1	3,0	7,7	9,1	8,1
	Besterik	2,6	3,7	2,8	0,0	3,2	,9
	Ez dakit	3,2	5,2	3,6	8,8	7,4	8,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ikastetxean edo euskarategian	Aldaketa horiek mantenduko ditut	50,4	45,7	49,6	56,4	34,9	50,4
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	8,3	17,6	10,0	9,3	10,6	9,7
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	,4	4,4	1,1	,3	6,5	2,0
	Besterik	4,5	3,3	4,2	5,6	7,4	6,1
	Ez dakit	36,5	29,0	35,1	28,4	40,6	31,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Nire aisialdiko taldeko kideekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	46,3	36,7	44,6	46,8	31,8	42,6
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	18,8	35,9	21,9	25,3	25,4	25,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	1,5	3,8	1,9	1,6	11,1	4,3
	Besterik	2,0	5,9	2,7	7,4	3,1	6,2
	Ez dakit	31,4	17,8	28,9	18,9	28,6	21,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ezeza- gunekin edo kalean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	56,1	36,3	52,6	44,5	25,9	39,3
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	35,0	40,8	36,0	40,9	42,2	41,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	3,4	14,0	5,3	2,4	16,4	6,3
	Besterik	1,9	3,2	2,1	,8	2,9	1,3
	Ez dakit	3,6	5,7	4,0	11,5	12,6	11,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Nolakoa behar lukeen Euskaraldiak

Parte-hartzaileen % 65ek uste dute Euskaraldia urtero egin beharko litzatekeela. % 23k ontzat ematen dute orain arteko maiztasuna, bi urtean behingoa. Iraupenari dagokionez, hamabost eguneko iraupena egokia dela diote % 65ek. % 23k, aldiz, motzegia dela. Beraz, maiztasun handiagoa eskatzen dute batzuek, eta maiztasun berdina baina iraupen luzeagoa, beste batzuek. Parte-hartzaileen % 77k hurrengo edizioetan parte hartzeko asmoa dute —% 79 emakumezkoen artean eta % 74 gizonezkoen artean—, eta % 20k ziurrenik baietz erantzun dute.

87. taula

**EAEko parte-hartzaileentzat nolakoa behar lukeen Euskaraldiak (%)**

	Ahobizi	Belariprest	Guztira	
Zein maiztasun izan beharko luke Euskaraldiak?	Urterokoa	65,7	61,2	64,7
	Orain arte bezala, bi urtean behingoa	23,3	24,3	23,5
	Bi urtean behin baino tartea handiagokoa	2,0	4,4	2,5
	Ez dakit	6,7	7,3	6,8
	Beste bat	2,4	2,7	2,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
11 egunekoa izatetik, 15ekoa izatera pasa da aurten. Iraupena egokia da?	Luzeegia da	3,9	4,6	4,1
	Motzegia da	22,2	25,0	22,8
	Iraupen egokia izan du	66,1	61,6	65,1
	Ez dakit	7,8	8,9	8,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraldiaren hurrengo edizioetan parte hartuko duzu?	Bai, zalantzarik gabe	80,3	65,9	77,2
	Ziurrenik bai	17,6	30,2	20,4
	Ziurrenik ez	0,1	0,8	0,3
	Ez, zalantzarik gabe	0,0	0,3	0,1
	Ez dakit	1,9	2,8	2,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Zure inguruko zenbatek hartu dute parte aurtengo Euskaraldian?	Nire inguruan askok hartu dute parte Euskaraldian	72,1	56,0	68,5
	Nire inguruan oso gutxi hartu dute parte Euskaraldian	23,2	37,1	26,2
	Nire inguruko inork ez du parte hartu	0,3	2,0	0,7
	Ez dakit	4,5	4,8	4,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
2018koarekin alderatuta, zure inguruan zenbatek hartu dute parte aurtengo Euskaraldian?	2018an parte hartu zuten (ia) guztiek hartu dute parte 2020an ere	53,0	45,2	51,3
	2018an parte hartu zuten batzuk ez dute parte hartu 2020an	17,0	14,9	16,5
	2018an parte hartu ez zuten batzuk parte hartu dute 2020an	10,0	11,2	10,3
	Nire inguruan oso gutxi hartu dute parte Euskaraldian, bai 2018an, bai 2020an ere	3,6	7,4	4,5
	Nire inguruko inork ez du parte hartu	0,3	1,7	0,6
	Ez dakit	16,0	19,5	16,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Balorazio positiboa egin dute batzuek, bai antolaketa aldetik, baita norberaren ohiturengan izan duen eraginagatik ere.

*Gustatu zait nola antolatu den, ideia ona da. Giro ona sortu da Gasteizen eta auzoan ere nabaritu da euskara gehiago egin dela*

(3.elkarrizketatua; Araba, Ahobizi, 30-44 urte, Gasteiz)

*Egitasmoak funtzionatzen du, niri lagundu dit batez ere lanean hizkuntza ohiturak aldatzeko*

(2.elkarrizketatua; Araba, Ahobizi, 30-44 urte, Gasteizkoa ez dena)

*Norberak egiten duen erabileraren hausnarketa. Gure ohiturak edo ohitura txarrak aldatzeko ahalegin txiki bat. Egun horietan egiten dugun saiakera hori gero mantentzea*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)

*Agendan sartzen da. Lehenengo lerroan jartzen da pixka bat*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)

Kritiko izan direnen artean, batzuek uste dute Euskaraldiak zabaldu dituen mezuak konplexuegiak edo zailegiak izan direla. Horrekin lotuta, Euskaraldiak soilik euskaldunengana iristea lortzen duela azpimarratu dute zenbaitek.

*Buzoian aurkitu nuen publizitatea nik ez nuen ondo ulertu. Gustatuko litzaidake paper horretan mezu txikiak ipuntzea, euskara maila desberdinetan. Maila bajua duen pertsonen ulertzeko, zegoen ni baino maila handiagoa dutenentzat idatzita*

(10. elkarrizketa; Araba, Belarriprest, 30-44 urte, 2. GSL Gasteiz ez dena)

*Euskaraldia euskaldunon inguruan geratzen denaren inpresioa daukat eta erdaldunen ingurura ez dela iristen*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Nire ustez euskaraldira gerturatzen diren gehienak euskaldunak dira, euskaraz hitz egiten dute eta zuzenean ahobizi hartzera joaten direlako daude belarriprest gutxiago*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)

*Nire ustez hedabideetan eragina gehiago nabaritzen da kalean baino*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

Emakumeen parte-hartze handiagoari dagokionez, gainerako hainbat jardueraran ere hala izaten dela gogorarazi dute. Ez zaie iruditzen Euskaraldiaren ezaugarri bereizgarria denik.

*Emakumeek lezio handiak ematen dizkigute arlo askotan. Ez dakit ausartagoak diren edo kontzientziatuago dauden*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Emakume gehiago daude kultur jardueretan, unibertsitateetan, hizkuntza eskoletan... agian horregatik da*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Alaba dagoen trikiti eskolan, helduen taldean gehiengoa emakumeak dira. Baliteke gizarte eta ekintza kulturaletan parte hartzen dutenak emakumeak direla, eta agian euskaraldia ere horrekin lotu daiteke*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL).

Oro har, Euskaraldiaren hurrengo edizio batean parte hartzeko asmoa adierazi dute parte-hartzaile gehienek. Izena emateko orduan bezala, arrazoiak ezberdinak dira. Batzuek gehiago lotzen dute erabilerarekin eta hizkuntza-ohiturekin, eta beste batzuek, euskarari babes ematearekin eta aldeko jarrera adieraztearekin.

*A ver, hau erdaraz. Ha sido una manera de quitarme la vergüenza, con la chapa era como que decía "os entiendo y empiezo a hablar euskara". Depende si en verano hago un intensivo, igual en la próxima podría ser ahobizi*

(10. elkarrizketa; Araba, Belarriprest, 30-44 urte, 2. GSL Gasteiz ez dena)

*Bai, dudarik gabe. Euskara bultzatzeko eta laguntzen jarraitzeko parte hartuko dut.*

(18.elkarrizketatua; Bizkaia, Belarriprest, 45 urtetik gora, 4. GSL)

*Bai. Euskara asko maite dudalako, euskaldun giroa asko maite dut. Errespetatzen dut besteen aukera, baina nik neurea dena bultzatu nahi dut.*

(5.elkarrizketatua; Araba, Ahobizi, 45 urtetik gora, Gasteizkoa)

*Bai. Jarraipena emateko eta euskara bultzatzeko. Laguntzen du geroz eta jende gehigok parte hartzeko.*

(12.elkarrizketatua; Bizkaia, Ahobizi, 30-44 urte, 3. GSL)

*Bai. Ba niri euskaraz gehiago hitz egiteko, orain ez didate asko egiten.*

(26.elkarrizketatua; Gipuzkoa, Belarriprest, 16-29 urte, 3. GSL)

*Bai. Pues con el objetivo que me apunté... euskara gehiago mintzatzea.*

(29.elkarrizketatua; Gipuzkoa, Belarriprest, 16-29 urte, 2. GSL)

Aurrera begira, maiztasunari eta iraupenari erreparatzen diote batzuek, eta interesgarri ikusten dute urtero egitea edo hamabost egunez baino gehiagoz luzatzea. Haurrengan eta gazteengan Euskaraldiarekin lotutako dinamika handiagoa sustatzea aipatzen duenik ere bada.

*Laburra izan da, bi aste gutxi da erritmoa hartzeko. Agian luzeegia egitea ere ez da ona, baina hilabete bat ondo legoke...bai, hilabete bat!!*

(14.elkarizketatua; Bizkaia, Ahobizi, 45 urtetik gora, Bilbo Handia)

*Askotan pentsatu dut ze alde positibo edo negatibo ekar dezakeen euskaraldia urtero egiteak. Izan ere, alde batetik ez duzu jendea ito nahi, urtero egitasmoa euskararen eguna, euskaraldia, korrika, loraldia... Jendeak euskararen eguna ospatzen duen bezala eta abenduro azokara doan bezala, agian urtero hamabostaldi bat euskaraldia ipintzea lagunduko luke. Igual ez da apuntatuko hainbeste jende, baina nahiz eta jende gutxiago apuntatu, ohitura bezala sartuko da, horrek bilatzen ari garen aldaketa ekarriko du*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

*Gazteentzako dinamika gehiago sortu, gazteak euskaraz hitz egiten hasteko*

(3.eztabaida taldea\_Bizkaia, 16-44, Belarriprest, Bilbo Handia)

*Agian jende gazteagoa sartzea euskaraldian gauza baikorra izan daiteke, ez dakit. Instituzioek ahalegin berezi bat egitea, ez bakarrik txarteltxoak edukitzea*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Ikusten dudan gauzarik okerreana umeekin egiten den lana da. Euskaraldia berez helduentzako ideia bat da, helduek euskara erabiltzeko baldintza bat da. Eskolen bitartez haurrei ere iristen zaie. Nire alabak behintzat ez du ezer ulertu 11 urterekin, eta nagusitxo da eta gauzak ulertu beharko lituzke. Horrek asko kezkatu nau. Iritsi zaien informazioa ez da zuzena. Ez dira euskaraldiaren aktore printzipalak, baina gizarteko aktoreak ere badira, eta nolabait istorio hau iristen da haiengana. Hor ikusten dut akatsa, ez dakit nola zuzendu daitekeen, baina zerbait egin behar da*

(7.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 45+, Ahobizi, 2GSL)

*Nire taldean eta, izena ez zuten eman, baina jakin ere ez eman behar zenik. Gordeta zuten txapa ipini eta izena eman gabe euskaraldian parte hartu zuten. Agian orain covid-agatik informazio gutxiago edo egon da*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)



## A.2.7 COVID-19aren eragina

2020ko Euskaraldian COVID-19 pandemiak izan duen eraginaz ez dago zalantzarik. Nolanahi ere, alderdi ezberdinez galdetuta, eragin horri ematen zaion garrantzia ere diferentea da. Badirudi giroan eragin duela gehien, ia hamarretik zortzik adierazi baitute asko edo nahikoa eragin duela. Antolaketa ia bi herenek aipatu dute.

88. taula

**EAEEn COVID-19 pandemiak izan duen eragina (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Txapak kalean ikustean	Asko	26,2	32,5	27,5
	Nahikoa	34,3	31,3	33,7
	Gutxi	21,1	18,1	20,5
	Batere ez	8,8	7,9	8,6
	Ez dakit	9,6	10,3	9,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Giroan	Asko	44,2	39,6	43,2
	Nahikoa	35,1	35,1	35,1
	Gutxi	11,5	12,9	11,8
	Batere ez	2,4	2,1	2,4
	Ez dakit	6,9	10,2	7,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Antolaketan	Asko	32,0	30,6	31,7
	Nahikoa	31,7	30,4	31,4
	Gutxi	12,2	14,5	12,7
	Batere ez	2,7	3,7	3,0
	Ez dakit	21,3	20,8	21,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Izen emateetan	Asko	22,2	16,6	21,0
	Nahikoa	32,2	31,7	32,1
	Gutxi	21,5	26,2	22,5
	Batere ez	8,0	7,8	7,9
	Ez dakit	16,2	17,6	16,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Mezua zabaltzerakoan	Asko	20,3	20,5	20,4
	Nahikoa	32,5	31,7	32,4
	Gutxi	28,1	26,0	27,6
	Batere ez	9,2	8,8	9,1
	Ez dakit	9,8	13,1	10,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Rolak betetzerakoan	Asko	19,5	22,6	20,1
	Nahikoa	32,4	30,2	31,9
	Gutxi	27,1	21,7	25,9
	Batere ez	9,4	6,8	8,9
	Ez dakit	11,6	18,7	13,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Parte hartzeko aukeretan	Asko	27,4	25,3	26,9
	Nahikoa	32,2	32,7	32,3
	Gutxi	19,7	18,9	19,5
	Batere ez	8,4	5,0	7,7
	Ez dakit	12,3	18,2	13,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

COVID-19 pandemiak eta osasun egoeraren ondoriozko neurri murriztaileek asko eragin dute Euskaraldiko parte-hartzaileen sozializazio-mailan.

*Pandemiarekin arraroa izan da Euskaraldia, oso gutxi sozializatu dugu.*

(5.elkarriketatua; Araba, Ahobizi, 45 urtetik gora, Gasteizkoa)

*Gero badaukat sentsazioa pandemian harreman gutxiago dugula elkarrekin, orduan kontaktu gutxiago daudela. Guzti honek nire inguruan militantzia gutxiago egon denaren sentsazioa eman dit*

(5.eztabaida taldea\_Bizkaia, 30-44, Ahobizi eta Belarriprest euskaldun osoak, 3-4GSL)

*Egoerak ez dauka batere zerikusirik. Azkenean pandemia honek edo gauden egoerak, etxetik lanera eta lanetik etxera. Bi arloetan euskaraz bizi naiz. Kanean gutxi ibili ezker ezin da praktikatu. Orduan niretzako egunak konturatu gabe pasa ziren*

(2.eztabaida taldea\_Bizkaia, 45+, Ahobizi, 3GSL).

*Aurten ariguneena berrikuntza handia izan da, pena ostalaritza itxita egon dela eta ez direla hor euskara fokoak sortu. Dendetan ariguneak egoteak ikusgarritasun handia eman dio Euskaraldiari, hori oso positiboa da*

(19.elkarriketatua; Bizkaia, Belarriprest, 16-29 urte, 3. GSL)

Hala ere, zenbaitek nahiko argi ikusten dute dena ezin zaiola pandemiari egotzi, eta bestela ere, lehen edizioarekiko beheraldi bat antzeman dela 2020ko edizioan.

*lazko edizioan edo jende gehiago ikusi nuen edo agian pandemia dela eta txapa gehiago ikusi nituen kaletik. Esperientzia gehiago nabaritu nuen. Aurten txikiagoa izan da*

(1.eztabaida taldea\_Araba, 16-44, Ahobizi, Gasteiz)

*Egia esan bigarren honetan pixka bat inertziagatik sartu nintzen. Lehenengoan pixka bat ilusioa zegoen, ez dakit zer gehiago, eta bigarrenean, ez dakit pandemiaren kontuarekin edo ni pixka bat isolatuago nengoelako, heldu zen eta ui euskaraldia. Egia da lantokian parte hartu dugula, lantokian bazegoen arigunea (lantokian ere gutxi egon gara, etxetik lan egin dugu)*

(6.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 30-60, Belarriprest, 3GSL)

*Lehenengoak inpaktu gehiago izan zuela iruditzen zait, oraingoan, egoeratik ere, jende gutxiagorekin egon naiz. Lehenengo nobedadea zen, nire inguruan ere jende gehiagok hartu zuen parte. Kanean ere nabaritu dut. Agian gauzak behin da berriz egiterakoan bere xarma galtzen dute*

(9.eztabaida taldea\_Gipuzkoa, 18-30, Ahobizi)

## A.2.8 Norbanakoen joerak

Atal honen helburua da Euskaraldian parte hartzen duten norbanakoen profiletan sakontzea: batetik, rol bakoitza hautatzen duten norbanakoen ezaugarri bereizgarriak zeintzuk diren azalduko da; eta bestetik, Euskaraldiak haien hizkuntza-ohituratan izan duen eragina zein izan den.

Ariketa hau egiteko, lau mota eraiki dira, hautatutako rola eta hizkuntza-gaitasuna gurutzatuta, norbanakoaren profila nola aldatzen den hobeto adierazten dutelako: ahobizi euskaldun oso, ahobizi euskaldun hartzaile<sup>5</sup>, belarriprest euskaldun oso, eta belarriprest euskaldun hartzaile.

Eta ondoren, aztertu da zein den bakoitzaren profil bereizgarria (ez gehiengo). Horrek esan nahi du atal honetan nabarmenduko dena ez dela zein den rol-mota bakoitzak erakarri duen gehiengoaren profila, baizik eta besteekin alderatuta, zein diren bereziki erakartzen dituen ezaugarriak (adina, generoa, ikasketak, etab.). Horiek besteekiko pisu nabarmena dutelako nabarmentzen dira, ez pisu handiena dutelako – nahiz eta batzuetan bat egiten duten –.

### 1. Rola hautatzeko joerak.

Euskaraldian izena ematerako unean erabaki garrantzitsu bat hartu behar dute norbanakoek: ahobizi edo belarriprest rola hartzea. Atal honetan azalduko da rol-mota bakoitzerako nor duen joera adierazgarriena, aldagai ezberdinak kontuan izanik.

#### Karakterizazioa

Oro har, ahobizi rola edo belarriprest rola hartu, generoa dute bereizgarritzat: ahobizi rolera bereziki jotzen dute emakumezkoek, eta belarriprest rola hartzera, gizonezkoek.

Hizkuntza-gaitasunaren arabera, aldiz, ondorengoak dira bereizgarriak:

- Euskaldun osoak (ahobizi edo belarriprest) dira, modu berezitan, goi-mailako ikasketak dituztenak, Gipuzkoako gune euskaldunenetakoa (3. eta 4. gune soziolinguistikoak), eta euskara, gutxienez (biak ere bai), lehen hizkuntzatzat dutenak.
- Euskaldun hartzaileetan, aldiz, ikasketa-maila baxuagoa dutenak, lehen hizkuntzatzat gaztelania dutenak eta 2. gune soziolinguistikokoak (bereziki Bizkaikoak).

Adinak, eta belarripresten kasuan, ikasketa-mailak ere bereizten ditu lau rol-motak:

- Modu berezitan 16 eta 44 urte bitartekoak erakartzen ditu ahobizi euskaldun osoa rol-motak.

---

<sup>5</sup> Ahobizi euskaldun hartzaileen kopurua txikia dela hartu behar da kontuan.

- Ahobizi euskaldun hartzaileetan, aldiz, helduagoak bereziki nabarmentzen dira, 45 eta 60 urte bitartekoak. Gainera, gazteen pisua bereziki jaisten da kasu honetan. Ikasketei dagokionez, goi-mailako batxilergoa edo erdi-goi mailako ikasketak dituzte.
- Belarriprest euskaldun hartzaile izateko joera berezitua dute 60 urtetik gorakoek, eta gainera, oinarrizko batxilergoa dutenek.

	<b>Ahobizi</b> euskaldun oso	<b>Ahobizi</b> euskaldun hartzaile*	<b>Belarriprest</b> euskaldun oso	<b>Belarriprest</b> euskaldun hartzaile
Adina	Gazteak, 16-44 urte	45-60 urte Gazteenak asko jaisten dira	Nahiko orekatua	60tik gorakoak
Generoa	Emakumez-koak	Emakumez-koak	Gizonezkoak	Gizonezkoak oso nabarmen
Ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailako batxilergoa Erdi goi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Oinarrizko batxilergoa
Zein hizkuntza errazago?	Euskaraz Bietan berdin		Bietan berdin	
Lehen hizkuntza	Euskara Biak, euskara eta gaztelania	Gaztelania	Biak, euskara eta gaztelania	Gaztelania
GSL	3 eta 4. Gune soziolinguistikoa	2. Gune soziolinguistikoa	3. Gune soziolinguistikoa (beste belarriprestekiko)	2.gune soziolinguistikoa
Lurraldea	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa (beste belarriprestekiko)	Araba Bizkaia

### Parte hartzeko arrazoiak

Euskaraldian izena emateari loturiko elementuen kasuan, parte hartzeko arrazoiak ezberdintzen ditu ahobizi eta belarriprest rolak: ahobiziei bereziki bultzatzen die euskararen erabilera handitzeak; eta belarriprestei, aldiz, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak. Halaber, belarriprest euskaldun hartzaileen kasuan, inguruko euskaldunak zein diren jakiteak pisu berezitua du.

Oro har, hizkuntza-gaitasunagatik hautatzen dute rola norbanako gehienek. Belarriprest euskaldun osoek izan ezik; hizkuntza-jokabideagatik hautatzen dutenek pisu bereizgarria dute kasu honetan.

Euskaraz zein neurritan bizi diren, euskara-ezagutzari lotuta dago hein handi batean: euskaldun osoak neurri handiagoan bizi dira euskaraz, euskaldun hartzaileak baino.

Euskaraldian parte-hartzen lagundu duten faktoreek ezberdintzen dituzte eraikitako lau rol-motak:

- *Ahobizi euskaldun osoengan* bereziki erakartzen du "euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut" faktoreak.
- *Ahobizi euskaldun hartzaileek* bereziki egunerokotasunarekin lotura duten ideiekin bat egiten dute bereziki: "lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu" edo "lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditut".
- *Belarriprest euskaldun osoa* rol-motak bereziki erakartzen ditu "guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut" faktoreak lagundu dienak.
- *Belarriprest euskaldun hartzaileak* bereziki dira euskaltegian ikasten ari direnak, 2018ko ilusioak erakarrita izena eman dutenak, eta guraso moduan eredu izan nahi dutenak.

	<b>Ahobizi</b> euskaldun oso	<b>Ahobizi</b> euskaldun hartzaile*	<b>Belarriprest</b> euskaldun oso	<b>Belarriprest</b> euskaldun hartzaile
Zergatik rola?	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-jokabideagatik	Hizkuntza-gaitasunagatik
Parte hartzeko arrazoia	Euskararen erabilera handitzea	Euskararen erabilera handitzea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea  Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea
Lagundu duten faktoreak	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu
Euskaraz bizi?	Neurri handian	Neurri oso txikian	Neurri txikian	Neurri oso txikian

## 2. Norbanakoen hizkuntza-ohituratan izan duen eragina.

Bestalde, aztertu da Euskaraldiak nori eragin dion modu berezitan, norbanakoen zein profili. Hau da, bereziki nork jotzen duen erabateko eragina duela esatera edo batere eraginik ez duela esatera. Horretarako, 2020ko Euskaraldiak zer-nola eragin dien galderari emandako erantzuna hartu da oinarritzat; sei erantzun posible zituen: argi eta garbi; oro har, bai; batzuk bai, beste batzuk ez; oro har, ez; inolaz ere ez; eta ez dakit. Horiek kontuan izanik, ondorengo profil bereizgarriak osatu dira.

### Karakterizazioa

Emakumezkoek joera bereizgarriagoa izan dute hizkuntza-ohiturak nolabait aldatu dituztela adierazterakoan, aldaketa zein neurritan gauzatu den zehaztu gabe. Era berean, pisu adierazgarria dute aldaketarik ez dela egon adierazten dutenen artean. Gizonezkoek, berriz, pisu adierazgarriagoa dute 'oro har, ez' esaterakoan edo aldaketarik izan ote den ez dakitenean.

Adinari dagokionez:

- Gazteenek bi muturretan dute pisu bereizgarriena: 'argi eta garbi' aldatu direla adieraztean, eta 'inolaz ere ez' ez direla aldatu diotenean.
- Helduenak ere, ildo beretik: 'oro har, bai' eta 'oro har, ez' erantzutean nabarmentzen dira, bereziki.
- 30-44 urte bitartekoek ez dute pisu bereizgarrikerik eragin handienetan; 'batzuk bai, beste batzuk ez' edo 'inolaz ere ez' adieraztean bai, ordea.
- 45-60 adin-tarteak 'oro har, ez' edo 'ez dakit' erantzutean pisu bereizgarriagoa du.

Ikasketei erreparatuz gero, alde nabaria da: hizkuntza-ohituretan astindu handiena dutenetan bakarrik bereizten dira goi-mailako ikasketak ez dituztenak. Oinarrizko batxilergoa eta erdi goi-mailako ikasketak 'argi eta garbi' diotenen artean; eta goi-mailako batxilergoa 'oro har, bai' diotenen kasuan.

Lehen hizkuntza euskara dutenek modu berezitan diote hizkuntza-ohiturak 'argi eta garbi' edo 'inolaz ere ez' aldatu dituztela. 'Oro har, bai' diotenen artean euskara eta gaztelania, lehen hizkuntza gisa biak dituztenak bereizten dira; eta ohitura batzuk bai, baina besteak ez aldatu dituztenen artean pisu adierazgarria dute lehen hizkuntza gisa gaztelania dutenek.

Lurraldea eta gune soziolinguistikoa aztertzen badira, nolabaiteko eragina izan denean daude elementu nabarmenenak. Gipuzkoako herri euskaldunenetan izan baita, bereziki, eragin txikiena.

- Eragina 'argi eta garbi' izan dela esaterakoan, 3. gune soziolinguistikoko norbanakoen pisua bereizgarria da, baita Bizkaiarena.

- 'Oro har, bai' diotenen artean Gipuzkoa eta 2. eta 3. gune soziolinguistikoko herriak.
- 'Batzuk bai, beste batzuk ez' adieraztera bereziki erakartzen ditu Arabako eta 2. gune soziolinguistikoko herritarrak.

Azkenik, rol-motaren arabera:

- *Belarriprest euskaldun hartzaileek* jotzen dute modu bereizitu batean hizkuntza-ohiturak 'argi eta garbi' aldatu dituztela esatera.
- *Ahobizi euskaldun osoek* pisu bereizgarria dute 'oro har, bai' eta 'oro har, ez' adierazterakoan.
- *Belarriprest euskaldun osoek* 'batzuk bai, beste batzuk ez' adierazterakoan, baita 'inolaz ere ez' esaterakoan ere.
- *Ahobizi euskaldun hartzaileek* joera berezia dute 'ez dakit' esatekoa.

	<b>Argi eta garbi</b>	<b>Oro har, bai</b>	<b>Batzuk bai, beste batzuk ez</b>	<b>Oro har, ez</b>	<b>Inolaz ere ez</b>	<b>Ez dakit</b>
Adina	16-29 urte	60 urtetik gorakoak	30-44 urte	45-60 urte 60 urtetik gora	16-29 urte 30-44 urte	45-60 urte
Generoa	Emaku- mezkoak	Emaku- mezkoak	Emaku- mezkoak	Gizonezkoak	Emaku- mezkoak	Gizonezkoak
Ikasketak	Oinarrizko batxilergoa  Erdi goi-mailako ikasketak	Goi-mailako batxilergoa	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Nahiko orekatuta
Lehen hizkuntza	Euskara	Biak, euskara eta gaztelania	Gaztelania	Nahiko orekatuta	Euskara	Beste bat
GSL	3. gune SL	2. eta 3. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL	4. gune SL
Lurraldea	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Gipuzkoa	Gipuzkoa	Gipuzkoa
Rola	Belarriprest euskaldun hartzaile	Ahobizi euskaldun oso	Belarriprest euskaldun oso	Ahobizi/ belarriprest euskaldun oso	Belarriprest euskaldun oso	Ahobizi euskaldun hartzaile

### Parte hartzeko arrazoiak

Parte hartzeko arrazoiak eta Euskaraldian zehar egindako ibilbideak ere badu zerikusia hizkuntza-ohituretan izandako eraginean.

Nolabaiteko eragina izan denean ('argi eta garbi', 'oro har, bai' eta 'batzuk bai, beste batzuk ez'), hizkuntza-gaitasunagatik rola hartu dutenek indar aipagarria dute. Aldiz, eraginik ez denean egon edo oso txikia izan denean, hizkuntza-jokabideak pisu adierazgarriagoa izan du.

Tarteko eraginetan, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak pisu nabarmena du parte hartzeko arrazoi nagusi gisa. Muturreko eraginetan aldatzen da egoera: aldaketa erabat nabaritu dutenen artean, 'nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea' arrazoiak pisu berezia du; eta inolaz ere ez eraginera, arrazoiak ez dakitenek erakartzen dira bereziki.

Euskaraldian izena ematen lagundu duten faktoreetan daude alderik esanguratsuenak:

- Erabateko eragina izan duela diotenak, hau da, ohiturak argi eta garbi aldatu dituztenak bereziki bultzatu ditu 2018ko ilusioak, baita aisialdiko taldean ariketa kolektiboa egiteak.
- Ohitura batzuk bai, baina beste batzuk aldatu ez direnean, kalean euskara gehiago entzun nahi izateak eta lantokian arigunea sortu izanak eragin berezia izan dute.
- Guraso moduan eredu izateak pisu berezia izan du hiru kasutan: ohiturak oro har, bai aldatu direnean; oro har ez direnean aldatu; eta inolaz ere ez direnean aldatu.
- 'Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut' faktoreak beste hiru kasutan izan du pisu berezia: ohiturak oro har aldatu direnean; inolaz ere ez direnean aldatu; eta aldatu direnik ez dakitenen artean.

Esanguratsuenak da denek neurri handian bete dutela konpromisoa, eta gehiengoa neurri handian bizi dela euskaraz. Bi salbuespen daude: ohitura batzuk bai, beste batzuk ez aldatu dituztela diotenak, eta oro har aldatu ez dituztenak. Gainera, txapa soinean eramatea badirudi zuzenean lotuta dagoela eraginarekin: erabateko eragina aitortu dutenen artean pisu berezia dute txapa beti edo ia beti jantzi dutenak, eta inolaz ere eraginik izan ez denean, inoiz jantzi ez dutenak.

Euskaraldia lagunekin burutzearen erraztasunak du pisu adierazgarri handiena ia kasu gehienetan. Ohitura batzuk bai, baina beste batzuk aldatu ez direnean, aldiz, lankideekin erraza izateak indarra hartzen du; eta aldaketarik ez dela izan diotenen artean, lagunekin ez ezik, bikotekidearekin erraza izateak nabarmentzeko pisua du, baita ere.

Zailtasuna kontuan hartzen bada, zerbitzu pribatuetan eta ezezagunekin edo kalean da bereziki aipagarria ia kasu guztietan. Erabateko aldaketa eragin diotenen artean, nabarmentzekoa da bikotekideekin eta zerbitzu publikoetan zaila izan dela diotenen pisua; eraginik izan ez den ez



dakitenek ere aipatzen dituzte bikotekideak, modu berezitan; eta inolaz ere aldaketarik jasan ez dutenek ez dituzte ezezagunak aipatzen bereziki zaila balira bezala.

Euskaraldian zehar errazen hartutako jokabideak, seguraski, lotura estua dute hartutako rolaekin: erabateko aldaketa izan dutenentzat, euskaraz egin diezaioten eskatzea izan da bereziki errazena; oro har aldatu dituztenentzat, pisu aipagarria dute elkarrizketa elebidunek; batzuk bai, baina beste batzuk ez aldatu dituztenentzat, lehen hitza euskaraz egiteak; eta ia eraginik izan ez dutenen artean, euskaraz egiteak uneoro.

	<b>Argi eta garbi</b>	<b>Oro har, bai</b>	<b>Batzuk bai, beste batzuk ez</b>	<b>Oro har, ez</b>	<b>Inolaz ere ez</b>	<b>Ez dakit</b>
Zergatik rola?	Hizkuntza-gaitasuna-gatik	Hizkuntza-gaitasuna-gatik	Hizkuntza-gaitasuna-gatik	Hizkuntza-jokabide-agatik	Hizkuntza-jokabide-agatik	Hizkuntza-gaitasuna-gatik
Parte hartzeko arazoia	Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Ez dakit	Euskararen erabilera handitzea
Lagundu duten faktoreak	2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera  Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu.	Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut  Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Kalean euskara gehiago entzun nahi dut  Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, arigunea sortu dugu	Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut	Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut  Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut
Euskaraz bizi?	Neurri handian	Neurri handian	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri handian	Neurri handian
Txapa eraman?	Beti Askotan	Batzuetan	Askotan	Gutxitan	Inoiz ez	Askotan Gutxitan
Zenbateraino bete konpromisoa	Neurri handian	Neurri handian	Neurri handian	Neurri handian	Neurri handian	Neurri handian
Erraza norekin	Lagunekin	Lagunekin	Lankideekin	Lagunekin	Bikotekide-arekin Lagunekin	Lagunekin
Zaila norekin	Bikotekide-arekin Zerbitzu publikoetan Zerbitzu pribatuetan Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatuetan Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatuetan Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatuetan Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatuetan	Bikotekidearekin, oso zaila  Zerbitzu pribatuetan Ezezagunekin edo kalean
Jokabide errazena	Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot.	Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea (euskara eta erdara erabiltzea).	Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro.	Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro.  Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot.

# B atala

## Euskaraldia entitateen ikuspegitik

### B.1. ENTITATEEN UNIBERTSOAZ


Euskal Autonomia Erkidegoan, denera, 7.178 egoitzek eman dute izena, eta haiek 21.495 arigune sortu dituzte, 10.823 kanpo-arigune (% 49,6) eta 10.672 barne-arigune (% 50,4).

#### B.1.1. Euskaraldian izena eman duten egoitzak

EAEEn izena eman duten entitateen egoitzak **lurralde historikoaren** arabera aztertzen baditugu, Gipuzkoan kokatzen dira erdia baino gehiago (3.798, % 53). Bizkaian eman du izena egoitzen % 39,7k (2.853), eta Araban, aldiz, % 7,3k (527).

72. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitza kopurua, motaren arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

89. taula

Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitza kopurua, lurraldearen historikoaren arabera (%)

	Egoitza kopurua	%
Araba	527	7,3
Bizkaia	2.853	39,7
Gipuzkoa	3.798	53,0
<b>Guztira</b>	<b>7.178</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Herriko datuen ildotik, egoitza kopurua **eskualdeka** banatzen badugu, Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualdeak dira egoitza kopuru handiena hartzen dutenak, eta bereziki hiriburuen ingurukoak nabarmentzen dira, Bilbo Handia (1.538 egoitza; % 21,4) eta Donostialdea (999; % 13,9), hain zuzen.

90. taula

**Euskaraldian izena eman duten entitateen EAEko egoitza kopuru handieneko 15 eskualdeak.**


Eskualdea	Egoitza kop.	%
Bilbo Handia	1538	21,4
Donostialdea	999	13,9
Urola-Kostaldea	755	10,5
Goierri	642	8,9
Debagoiena	584	8,1
Durangaldea	441	6,1
Debarrena	367	5,1
Tolosaldea	297	4,1
Arabako Lautada	261	3,6
Gernika-Bermeo	225	3,1
Arrati Nerbioi	210	2,9
Kantauri Arabarra	171	2,4
Plentzia-Mungia	171	2,4
Lea Artibai	159	2,2
Bidasoa Beherea	155	2,2

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Euskal Herriko datuen ildotik, izena eman duten egoitzak kokatuta dauden herrien **habitatari** erreparatzen badiogu, bitarteko hirigunean kokatzen dira ia hamar egoitzatik sei (% 57,1). Gipuzkoaren kasuan joera areagotu egiten da; bertan, hamar egoitzatik zazpi pasatxo kokatzen dira bitarteko hirigunean (% 71,4). Bizkaian, hirigunean kokatutako egoitzak nabarmentzen dira (% 42); eta Araban, aldiz, hiru eremuen arteko banaketa orekatuta dago, izena eman duten egoitzen herenaren bueltan kokatzen baita eremu bakoitzean: % 34,7 hirigunean, % 28,7 bitarteko hirigunean, eta % 36,6 landa eremuan.

73. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitzak, lurraldearen eta urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 2020ko Euskaraldian izena eman duten egoitzak kokatuta dauden herrien **gune soziolinguistikoa** aztertu da.

Hain zuzen, 3. gune soziolinguistikoa dauden herrietan sortu da arigune gehien (% 48,3). Dena den, nabarmentzekoa da horien artean Gipuzkoako udalerrietan sortutako ariguneek duten pisua. Araban eta Bizkaian, aldiz, 2.gune soziolinguistikoko herrietan sortu da arigune gehien (lurralde bakoitzeko % 95,4 eta % 62,9, hurrenez hurren).

91. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitzak, lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikokoaren arabera (%)**


Gune soziolinguistikoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira EAE
1. gune soziolinguistikoa	0,8	0,0	0,0	0,1
2. gune soziolinguistikoa	95,4	62,9	17,6	41,3
3. gune soziolinguistikoa	0,0	30,7	68,3	48,3
4. gune soziolinguistikoa	3,8	6,4	14,1	10,3
<b>Guztira</b>	<b>527</b>	<b>2.853</b>	<b>3.798</b>	<b>7.178</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoan izena eman duten 7.178 egoitzak **entitate-motaren** arabera Euskal Herriko datuekin alderatzen baditugu antzeko joerak antzematen dira. Hain zuzen, establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak nagusitzen dira eta segidan daude elkarteak: 7.178 egoitzatik, 2.497 saltoki txikiak, ostalaritza-establezimenduak, etab. izan dira (% 34,8), eta 1.218, aldiz, elkarteak dira (% 17). Horrekin batera, industria-enpresak eta hedabideak dira, baita ere, pisu gutxien dutenak (% 1,9 eta % 0,5, hurrenez hurren). Era berean, alde txiki bat badago: EAEn zerbitzu-enpresa gehiago izan dira Euskaraldian (879 egoitza) hezkuntzako eragileak baino (810 egoitza).

74. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAeko entitateen egoitzak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

92. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAeko entitateen egoitza kopurua, entitate-motaren arabera**

Entitate-mota	Egoitza kop.	%
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	2.497	34,8
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	1.218	17,0
Zerbitzu-enpresak	879	12,2
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	810	11,3
Administrazio publikoa	661	9,2
Bestelakoak	414	5,8
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	293	4,1
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	237	3,3
Industria-enpresak	134	1,9
Hedabideak	35	0,5
<b>Guztira</b>	<b>7.178</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


EAEko egoitzak **entitate-motaren eta lurralde historikoen** arabera banatzen baditugu, establezimendu eta zerbitzu-emate txikien nagusitasuna mantendu egiten da hiru lurraldeetan: Gipuzkoan bost egoitzetik bi dira herriko establezimenduak (% 40,7); Araban bostetik bat (% 23,3); eta Bizkaian, aldiz, ia herena (% 29,1).

Bestela, alde txikiak daude:

- Elkarreak pisu gehien duten hiru entitate-moten artean daude hiru lurraldeetan, baina Bizkaian eta Araban dute pisu erlatibo altuena: Bizkaian, 587 egoitza dira (% 20,6); Araban, 93 (% 17,6); eta Gipuzkoan, 538 (% 14,2);
- Araban administrazio publikoak (% 20,3) eta hezkuntzak (% 16,9) duten pisua gainontzeko lurraldeetan dutena baino handiagoa da.
- Gipuzkoan industria-enpresek duten pisua (106 egoitza; % 2,8) gainontzeko lurraldeetan dutena baino handiagoa da.

75. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitzak, entitate-motaren eta lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

93. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateen egoitzak, entitate-motaren eta lurraldearen arabera (%)**

Entitate-mota	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Administrazio publikoa	107	20,3	303	10,6	251	6,6	661	9,2
Bestelakoak	24	4,6	176	6,2	214	5,6	414	5,8
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	93	17,6	587	20,6	538	14,2	1.218	17,0
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	12	2,3	97	3,4	128	3,4	237	3,3
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegia...)	123	23,3	830	29,1	1.544	40,7	2.497	34,8
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	27	5,1	118	4,1	148	3,9	293	4,1
Hedabideak	3	0,6	10	0,4	22	0,6	35	0,5
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	89	16,9	356	12,5	365	9,6	810	11,3
Industria-enpresak	5	0,9	23	0,8	106	2,8	134	1,9
Zerbitzu-enpresak	44	8,3	353	12,4	482	12,7	879	12,2
<b>Guztira</b>	<b>527</b>	<b>100,0</b>	<b>2.853</b>	<b>100,0</b>	<b>3.798</b>	<b>100,0</b>	<b>7.178</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## B.1.2. Entitateek sortutako ariguneak

2020ko Euskaraldian EAEn izena eman duten entitateek, denera, 21.495 arigune sortu dituzte; horietatik, 10.823 kanpo-ariguneak izan dira (% 50,4), eta 10.672, aldiz, barne-ariguneak (% 49,6). Hain zuzen, Euskaraldian sortutako ariguneen ia % 90 Euskal Autonomia Erkidegoan sortu dira.

76. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako ariguneak, motaren arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako ariguneen **lurralde-banaketa** orekatuta dago egoitzen lurralde-banaketaekin: Gipuzkoan sortu dira ariguneen erdia baino gehiago (11.942 arigune; % 55,6); Bizkaia dago jarraian (8.087; % 37,6); eta Araban sortu dira gutxien (1.466; % 6,8). Banaketa hori nahiko parekoa da barne-ariguneen zein kanpo-ariguneen kasuan.

77. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako ariguneak, lurraldearen arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



78. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako ariguneak, motaren eta lurraldearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

94. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune kopurua, motaren eta lurraldearen arabera.**


	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Araba	7,1	6,6	1.466	6,8
Bizkaia	36,4	38,8	8.087	37,6
Gipuzkoa	56,5	54,6	11.942	55,6
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b>	<b>10.823</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>
	100,0	100,0		

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Euskal Herriko joerari jarraituz, Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek, oro har, kanpo-arigune gehiago sortu dituzte (10.823; % 50,4), barne-ariguneak baino (10.672; % 49,6). Kopuru absolututan, beraz, 150 ariguneko aldea dago, arigune-mota bien artean.

Arabak eta Gipuzkoak ez dute joera orokor horrekin bat egiten: Araban, % 51,4 barne-ariguneak izan dira eta % 48,6, kanpo-ariguneak; eta Gipuzkoan, % 50,5 barne-ariguneak izan dira, eta % 49,5, kanpo-ariguneak.

79. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune-motak, lurraldearen arabera (%).**

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

95. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune kopurua, motaren eta lurraldearen arabera**

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Araba	51,4	48,6	1.466	100
Bizkaia	48,0	52,0	8.087	100
Gipuzkoa	50,5	49,5	11.942	100
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b> <b>49,6</b>	<b>10.823</b> <b>50,4</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Aipatutako datuen ildotik jarraituz, EAEko entitateek sortutako arigune kopurua **eskualdeka** banatzen badugu, oraingo honetan ere Gipuzkoako eta Bizkaiako eskualdeak dira gehien nabarmentzen direnak. Arigune kopuru gehien sortu dituzten hamabost eskualdeetatik zazpi gipuzkoarrak dira, sei bizkaitarrak eta bi besterik ez dira arabarrak. Horrez gain, aiparria da Bilbo eta Donostia inguruan sortu direla arigune gehien, sortutako guztien herena baino gehiago bien artean: Bilbo Handian 4.524 arigune sortu dituzte (guztien % 18,6), eta Donostialdean 3.533 (guztien % 14,5).

Barne- eta kanpo-ariguneak sortzerakoan, alde txikiak daude eskualdeen artean:

- Joera orokorarekin bat egin eta kanpo-origune gehiago sortu dituzte ondorengo eskualdeetan: Bilbo Handian, Goierri, Durangaldean, Tolosaldean, Gernika-Bermeon, Arratia-Nerbioien, Kantauri Arabarrear eta Plentzia-Mungian.
- Aldiz, barne-origune gehiago sortu dituzte kanpo-origuneak baino Donostialdean, Urola-Kostaldean, Tolosaldea, Debararrenan, Arabako Lautadan, Bidasoa Behereak eta Lea Artibai.

96. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten origune kopuru handieneko 15 eskualdeak.**


	Barne-origuneak %	Kanpo-origuneak %	Guztira	
			Kop	%
Bilbo Handia	49,2	50,8	4.524	21,0
Donostialdea	51,0	49,0	3.533	16,4
Urola-Kostaldea	50,8	49,2	2.228	10,4
Goierri	47,9	52,1	1.876	8,7
Debagoiena	48,0	52,0	1.645	7,7
Tolosaldea	56,3	43,7	1.051	4,9
Debararena	51,4	48,6	1.107	5,2
Durangaldea	45,7	54,3	1.192	5,5
Arabako Lautada	53,5	46,5	849	3,9
Gernika-Bermeo	47,6	52,4	687	3,2
Bidasoa Beherea	50,5	49,5	507	2,4
Arrati Nerbioi	46,7	53,3	508	2,4
Lea Artibai	50,1	49,9	449	2,1
Kantauri Arabarra	44,2	55,8	437	2,0
Plentzia-Mungia	45,7	54,3	387	1,8
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b> <b>49,6</b>	<b>10.823</b> <b>50,4</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Habitatari** dagokionez, EAEn bitarteko hiriguneko herrietan sortu dira origuneen erdia baino gehiago, izan barne-origuneak zein kanpo-origuneak.

80. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten ariguneak, urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

97. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten ariguneak, urbanizazio-mailaren arabera (%)**

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Guztira	
	%	%	Kop	%
Hirigunea	28,1	28,1	6.048	28,1
Bitarteko hirigunea	55,7	56,0	11.999	55,8
Landa eremua	16,2	15,9	3.448	16,0
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b>	<b>10.823</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Habitata lurraldearekin gurutzatzen badugu, badaude aldeak:

- Araban eta Bizkaian hiriguneetan sortu dituzte arigune gehien, % 45,3 eta % 43,6, hurrenez hurren.
- Gipuzkoan, aldiz, bitarteko hirigunetako herrietan sortu dira hamar arigunetik zazpi (% 70,8).

81. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten ariguneak lurraldeka, urbanizazio-mailaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

98. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten ariguneak lurraldeka, urbanizazio-mailaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Hirigunea	45,3	43,6	15,5	28,1
Bitarteko hirigunea	25,8	39,2	70,8	55,8
Landa eremua	28,9	17,2	13,7	16,0
<b>Guztira</b>	<b>1.465</b>	<b>8.088</b>	<b>11.942</b>	<b>21.495</b>
	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Habitat bakoitzaren arigune-motak sortzeko joerak ondorengoak izan dira, nahiz eta joera orokorrean jarraiki, aldeak ñimiñoak izan:

- EAEko hiriburu-tako eta bitarteko hiriburu-tako herriek kanpo-ariguneak sortu dituzte barne-ariguneak baino gehiago.
- Landa-eremuan, aldiz, barne-arigune gehiago sortu dira kanpo-ariguneak baino.

99. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune-motak, urbanizazio-mailaren arabera (%)**


	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Guztira
Hirigunea	49,6	50,4	100,0
Bitarteko hirigunea	49,5	50,5	100,0
Landa eremua	50,2	49,8	100,0
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b>	<b>10.823</b>	<b>21.495</b>
	<b>49,6</b>	<b>50,4</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Gune soziolinguistikoen** arabera, 3. gune soziolinguistikoan dauden herrietan sortu da arigune gehien (10.163; % 47,3), 2.gune soziolinguistikoaren datutik oso gertu (9.249; % 43). Arigune-motak sortzerakoan, 4.gune soziolinguistikoa da salbuespena: barne-arigune gehiago sortu ditu (1.100), kanpo-ariguneak baino (977). Era berean, 2.gune soziolinguistikoan aldeak daude lurralde historikoaren arabera; hala, Araban eta Gipuzkoan barne-arigune gehiago sortu dira gune horretako herrietan, eta Bizkaian, aldiz, kanpo-ariguneak sortu dira gehiago.

82. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortu dituzten ariguneak, gune soziolinguistikoaren arabera (%).**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune kopurua, lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira			
	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Guztira	
									Kop	%
1. gune soziolinguistikoa	16,7	83,3	0	0	0	0	16,7	83,3	6	0,0
2. gune soziolinguistikoa	51,3	48,7	48,5	51,5	51,3	48,3	49,7	50,3	9.249	43,0
3. gune soziolinguistikoa	0	0	46,7	53,3	49,7	50,3	49,0	51,0	10.163	47,3
4. gune soziolinguistikoa	60,7	39,3	50,2	49,8	53,6	46,4	53,0	47,0	2.077	9,7
<b>Guztira</b>	<b>753</b>	<b>713</b>	<b>3.884</b>	<b>4.203</b>	<b>6.035</b>	<b>5.907</b>	<b>10.672</b>	<b>10.823</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>
	<b>51,4</b>	<b>48,6</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>50,5</b>	<b>49,5</b>	<b>49,6</b>	<b>50,4</b>		

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

EAEEn establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiena izan da arigune gehien sortu dituen **entitate-mota**: sortutako 21.495 arigunetik 4.243 establezimendu eta zerbitzu-emaile txikietan sortuak izan dira (% 19,7). Dena den, egoitza kopuruekin konparatuta, hezkuntzako arloarekin edo elkarteekin alderatuta dauden aldeak txikiagoak dira, sortutako ariguneeen kasuan: 4.047 arigune sortu dira hezkuntza arloan (% 18,8), eta 3.946 sortu dituzte elkarteek (% 18,4).

## 83. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako barne- eta kanpo-arigune kopurua, entitate-motaren arabera (%)**


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako barne eta kanpo-argune kopurua, entitate-motaren arabera**

	Barne-arguneak		Kanpo-arguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Administrazio publikoa	1.535	14,4	1.431	13,2	2.966	13,8
Bestelakoak	586	5,5	499	4,6	1.085	5,0
Elkartek (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	2.445	22,9	1.501	13,9	3.946	18,4
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	222	2,1	262	2,4	484	2,3
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak	1.540	14,4	2.703	25,0	4.243	19,7
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	471	4,4	330	3,0	801	3,7
Hedabideak	49	0,5	51	0,5	100	0,5
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	2.555	23,9	1.492	13,8	4.047	18,8
Industria-enpresak	330	3,1	179	1,7	509	2,4
Zerbitzu-enpresak	939	8,8	2.375	21,9	3.314	15,4
<b>Guztira</b>	<b>10.672</b>	<b>100,0</b>	<b>10.823</b>	<b>100,0</b>	<b>21.495</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Entitate-moten artean, aldiz, izan dira aldeak barne- edo kanpo-arguneak sortzerakoan, eta bi joera nabarmen antzeman dira:

- EAEn barne-arguneak sortzeko joera argia izan dute elkarteek, gizarte mugimenduek eta hezkuntzako eragileek.
- Berriz, kanpo-arguneak sortzeko joera argia izan dute establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiek, enpresa txikiek eta zerbitzu-enpresek.


Administrazio publikoaren eta industria-enpresen kasuan, lurralde historikoen arabera dira joerak:

- Administrazio publikoak barne-argune gehiago sortzen ditu Gipuzkoan, eta Araban eta Bizkaian, aldiz, kanpo-arguneak sortzeko joera dute.
- Industria-enpresei dagokienez, Bizkaian eta Gipuzkoan barne-arguneak sortu dituzte, batez ere; eta Araban, ordea, kanpo-arguneak dira gehiago.



84. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako ariguneak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

102. taula

**Euskaraldian izena eman duten EAEko entitateek sortutako arigune kopurua lurraldearen eta entitate-motaren arabera.**

Entitate-mota	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira			
	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne	Kanpo	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak	
	%	%	%	%	%	%	Kop	%	Kop	%
Administrazio publikoa	44,4	55,6	45,6	54,4	59,0	41,0	1535	51,8	1431	48,2
Bestelakoak	42,3	57,7	53,6	46,4	54,8	45,2	586	54,0	499	46,0
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	69,8	30,2	57,3	42,7	64,9	35,1	2445	62,0	1501	38,0
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	27,8	72,2	39,0	61,0	49,7	50,3	222	45,9	262	54,1
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	27,3	72,7	36,1	63,9	36,9	63,1	1540	36,3	2703	63,7
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	58,8	41,2	61,1	38,9	57,0	43,0	471	58,8	330	41,2
Hedabideak	40	60	50,0	50,0	49,3	50,7	49	49,0	51	51,0
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	67,8	32,2	63,3	36,7	62,1	37,9	2555	63,1	1492	36,9
Industria-enpresak	37,5	62,5	60,3	39,7	67,0	33,0	330	64,8	179	35,2
Zerbitzu-enpresak	21,2	78,8	24,9	75,1	31,3	68,7	939	28,3	2375	71,7
<b>Guztira</b>	<b>753</b>	<b>713</b>	<b>3.884</b>	<b>4.203</b>	<b>6.035</b>	<b>5.907</b>	<b>10.672</b>		<b>10.823</b>	
	<b>51,4</b>	<b>48,6</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>50,5</b>	<b>49,5</b>	<b>49,6</b>		<b>50,4</b>	

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## B.2. ENTITATEEN PARTE-HARTZEAZ

Euskaraldia dinamikaren baitan ariguneak sortzeko izena eman duten entitateen ezaugarrietan eta parte-hartze horrek haien egunerokoan izan duen eraginean sakontzeko, 400 inkesta egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza edo establezimenduak dira lagina osatu duten 400 laginketa-unitateak. Kontuan hartu behar da, kasu batzuetan, entitate batek egoitza edo establezimendu bakarra duela —herri bateko euskara elkarte batek, adibidez—; baina beste batzuetan, entitate batek hamarnaka egoitza edo establezimendu dituela —supermerkatu-kateak edo finantza-erakundeak, adibidez—.


### B.2.1 Karakterizazioa

#### A. Egoitza edo establezimendu mota

Egoitza eta establezimenduen laurdenek, ia, adierazi dute zerbitzu-emaile txikiak direla —merkataritza, ostalaritza eta bestelakoak—. Industria-enpresak (% 15) eta elkarteak (% 12) dira pisurik handiena duten hurrengo egoitza eta establezimendu motak, administrazio publikoaren eta hezkuntzaren pisua gaindituz.

85. grafikoa

#### Egoitza edo establezimendu motaren arabeko banaketa EAEn (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

EAEko datuak hiru lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoaren arabera bereiziz, nabarmentzekoak dira Gipuzkoan eta 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan zerbitzu-emaile txikiak — merkataritza, ostalaritza eta bestelakoak — hartzen duten pisua. Hau da, zenbat eta euskaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa du zerbitzu-emaile txikien parte-hartzeak. Bizkaian elkarrekin hartzen dute pisu nabarmena (% 19), eta Araban, elkarrekin gain, hezkuntzak eta, batez ere, administrazio publikoak (% 19). Hezkuntzaren pisua nabarmen altuagoa da Araban eta 2. gune soziolinguistikoan, Gipuzkoan eta 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan baino. Alderantzizkoa gertatzen da, beraz: zenbat eta erdaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa dute hezkuntza arloko egoitzek.

### 103. Taula

#### EAEko egoitza edo establezimendu-motak, lurralde historikoen arabera (%)<sup>6</sup>

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Elkartea	15,9	19,4	8,7
Irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimendua	6,0	6,9	4,6
Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-emaile txikiak	12,3	20,7	27,4
Industria-enpresak	7,0	14,1	16,0
Zerbitzu-enpresak	8,4	12,7	12,3
Finantza erakundeak	6,0	6,7	4,1
Hedabideak	2,4	3,8	6,4
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak..)	13,5	10,1	7,9
Erakunde publikoak	19,3	10,4	6,6

Iturria: Siadeco, 2021.

### 104. taula

#### EAEko egoitza edo establezimendu-motak, lurralde historikoen arabera (%)

	2. gune SL euskaldunak >20<49	3. gune SL euskaldunak >50<79	4. gune SL euskaldunak >80
Elkartea	16,4	10,3	17,0
Irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimendua	5,7	4,7	10,1
Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-emaile txikiak	16,5	26,0	40,4
Industria-enpresak	13,6	16,4	10,3
Zerbitzu-enpresak	10,7	14,0	9,6
Finantza erakundeak	9,0	3,1	1,2
Hedabideak	5,5	4,8	4,8
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak..)	13,6	6,4	5,2
Erakunde publikoak	10,2	7,8	10,6

Iturria: Siadeco, 2021.

<sup>6</sup> 14. eta 15. taulei dagozkien galderak aukera anitzekoak izan dira, hau da, erantzun-aukera bat baino gehiago hautatu ahal izan dute inkestatuek. Hori dela-eta, lurralde historiko bakoitzeko eta gune soziolinguistiko bakoitzeko ehunekoen baturak ez du %100 ematen.


## B. Egoitza edo establezimenduaren tamaina

Egoitza edo establezimenduen herenak oso txikiak dira, bost kide baino gutxiagokoak; hamar kidetik beherakoak ere gehituta, Euskalaldian parte hartu duten egoitza edo establezimenduen erdia, ia. Lehen multzoan zerbitzu-enpresez ari gara, batez ere —mota horretako egoitza eta establezimenduen % 65 da tamaina horretakoa—.

Egoitza eta establezimendu handienetan, aldiz, industria-enpresak nabarmentzen dira —151 kidetik gorakoa da mota horretako egoitza eta establezimenduen erdia—. Hezkuntzako egoitza handien pisua ere handia da (% 40).

86. grafikoa

### Egoitza edo establezimenduaren tamainaren araberako banaketa EAEn (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoen arabera, nabarmenena da egoitza eta establezimendu txikien pisua altuagoa dela Gipuzkoan eta Bizkaian, Araban baino. Gune soziolinguistikoaren arabera 3. eta 4.guneetan dute pisurik handiena egoitza eta establezimendu txikiek. Handienak, aldiz, 2.gune soziolinguistikoan nabarmentzen dira.

105. taula

**EAEko egoitzen edo establezimenduen tamaina, lurralde historikoaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
5 baino gutxiago	25,0	37,9	42,8
5-10 artean	19,3	12,1	22,4
11-50 artean	19,1	26,0	17,0
51-100 artean	9,5	6,5	6,6
101-150 artean	4,7	4,2	4,4
151tik gora	22,4	13,2	6,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

106. taula

**EAEko egoitzen edo establezimenduen tamaina, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
5 baino gutxiago	25,0	37,9	42,8
5-10 artean	19,3	12,1	22,4
11-50 artean	19,1	26,0	17,0
51-100 artean	9,5	6,5	6,6
101-150 artean	4,7	4,2	4,4
151tik gora	22,4	13,2	6,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

### C. Egoera linguistikoa

Euskaraldian izena eman duten egoitza edo establezimendu gehien-gehienetan, kideen erdiek, gutxienez, euskaraz hitz egiten dakite. Areago, hamarretik seitan denek dakite euskaraz. Gizarte mugimenduetan da altuena euskararen ezagutza —ia %76tan denek edo ia denek dakite euskaraz—. Enpresa eta establezimenduetan banaketa eginez, begien bistakoa da zerbitzu-establezimenduen eta industriako enpresen arteko aldea. Industrian, kasuen heren batean, ia, erdiek edo gutxiagok dakite euskaraz. Zerbitzu-enpresen bi herenetan, aldiz, denek dakite euskaraz.

87. grafikoa

#### EAEko egoitzetako edo establezimenduetako kideetako zenbatek dakiten euskaraz (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoen arabera, Gipuzkoan eta 4.gune soziolinguistikoan dago euskararen ezagutzarik altuena, eta Araban eta 2.gune soziolinguistikoan apalena.

107. taula

**EAEko egoitza edo establezimenduetako kideetako zenbatek dakiten euskaraz, lurralde historikoaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Denek edo ia denek	41,4	52,0	64,5
Erdiek baino gehiagok	18,9	12,8	26,3
Erdiek	18,3	13,1	6,1
Erdiek baino gutxiagok	19,0	18,0	2,5
Inork ez edo ia inork ez	2,4	0,7	0,6
Ez dakit	0,0	3,5	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

108. taula

**EAEko egoitza edo establezimenduetako kideetako zenbatek dakiten euskaraz, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek edo ia denek	39,1	66,5	89,7
Erdiek baino gehiagok	21,7	22,3	6,2
Erdiek	16,0	5,9	3,5
Erdiek baino gutxiagok	19,3	4,1	0,6
Inork ez edo ia inork ez	0,4	1,2	0,0
Ez dakit	3,4	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.




## D. Arigune-mota

Egoitza edo establezimenduen % 42tan bi arigune-motak sortu dituzte: kanpo-arigunea eta barne-arigunea. Ia heren batean barne-ariguneak sortu dituzte bakarrik eta egoitza eta establezimenduen %11n kanpo-ariguneak bakarrik. Barne-ariguneak sortu dituztenen ehunekoa bereziki altua da industrian (% 65,5) eta hezkuntzan. Kanpo-ariguneak sortu dituztenena, aldiz, zerbitzu-establezimenduetan (% 19). Oso esanguratsua da, halaber, zerbitzu-establezimenduen % 22tan ez dakitela zer arigune-mota sortu duten.

88. grafikoa

### EAEn sortutako arigune motaren araberako banaketa (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Bi arigune-motak sortu dituztenen pisua altuagoa da Gipuzkoan eta 4. eta 3.gune soziolinguistikoetan. Barne-ariguneak bakarrik sortu dituztenei dagokienez, Bizkaia eta 2.gune soziolinguistikoa nabarmentzen dira. Kanpo-ariguneak bakarrik sortu dituztenetan, Araba eta 2.gune soziolinguistikoa.

109. taula

**EAEko egoitza edo establezimenduetan sortutako arigune-motak, lurralde historikoaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Kanpo-ariguneak	13,6	12,5	9,7
Barne-ariguneak	25,7	40,5	28,6
Biak, kanpo eta barne-ariguneak	43,2	31,8	48,9
Ez dakit	17,5	15,3	12,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

110. taula

**EAEko egoitza edo establezimenduetan sortutako arigune-motak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Kanpo-ariguneak	14,4	9,8	4,1
Barne-ariguneak	40,5	28,7	24,9
Biak, kanpo eta barne-ariguneak	34,5	45,7	50,2
Ez dakit	10,6	15,7	20,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Kanpo-ariguneak zerbitzu establezimenduetan sortu dira, batez ere; barne-ariguneak industrian eta hezkuntzan. Bi ariguneak sortzeko joera administrazio publikoan nabarmendu da. Kanpo-ariguneen kasuan, askotan, errazagoa delako edo konpromisoa txikiagoa eskatzen duelako hautatu dute: euskaraz zuzendu zaizkien bezeroei euskaraz erantzutea. Barne-ariguneak beste lanketa eta ahalegin bat eskatu du.

*Gure konpromisoa euskararekin hitz egitea da ahal dugun momentuetan bakarrik, hau da gurekin euskaraz egiten duen jendearekin*

(Bizkaia/Zerbitzuak/2.gune soziolinguistikoa)

*Nos cuesta expresarnos en euskera pero al mismo tiempo nos gusta, nos parece necesario y nos hace sentirnos orgullosos cuando conseguimos atender en totalmente en euskera a un cliente o clienta*

(Bizkaia/Zerbitzuak/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraldia bezeroei begira egin dugu, egun horietan euskaraz egitera animatzeko eta bultzatzeko. [...] Barne-arigunea ez dugu behar, 3 langile gara eta gure artean beti euskaraz egiten dugu.*

(Bizkaia/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Kanpoko errazagoa, elkarrizketak txikiagoak direlako. Barne ariguneetan, presaka badabiltzate zaila egiten da*

(Gipuzkoa\_Industria enpresak\_2.gune soziolinguistikoa)

*Guraso elkarte desberdinekin lan egiten dugu eta haiekin deiak eta kanpo harremanak euskaraz egiten saiatu gara. Beti ez da posible, baina lehen hitza beti euskaraz. Bulego moduan eta barne funtzionamenduan euskaraz egiten dugu. Arigunearen helburuak bete ditugu*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Oro har, bai barne-arigunea zein kanpo-arigunean -eta bereziki azken hau agian-, euskaraz lasai aritzeko guneak dira berez. Hala ere, Euskaraldiak iraun bitartean, batik bat barne-arigunean, era kontzienteago batean, euskararekiko joera bultzatu, eta euskaraz aritzea sustatu da.*

(Gipuzkoa/Administrazio publikoa/4.gune soziolinguistikoa)

2020ko berritasuna izan da ariguneen ariketa, eta badirudi, kasu askotan, kosta egin dela planteatutakoa ondo ulertzea eta barneratzea: ariguneen arteko aldeak bereiztea, ahobizi eta belarriprest roletan oinarritutako ariketarekiko ekarpena ulertzea... Izena emateko prozesua bera ere konplikatua iruditu zaie batzuei.

*Nire kasuan, jendeari arreta eman behar diodanez, ahobizi izatea edo arigune izatea gauza berdina izango litzateke. Arigunea sortu genuen, nik ahobizi bezala eman nuen izena*

(EAE/Zerbitzuak)

*Aurtengo edizioa konplikatua izan da antolaketa aldetik. Gauza gehiegi egon direla uste dut, informazio eta eduki asko. Zer da arigunea, zer da kanpo eta barne-arigunea... kosta egin zait kudeatzea*

(Araba/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Pixka bat kosta zitzaigun gure burua definitzea, ulertzen genuen batean edo bestean betetzen genuen rola berdina zela, barneko nahiz kanpoko harremanak euskaraz direlako orokorrean. Hasiara batean definizioa nahastu samarra zela iruditu zitzaigun, edo guri kosta zitzaigun zehaztea*

(EAE/Gizarte mugimenduak)

*Uste dut ariguneen funtzioa ez dela ondo ulertu. Gure jarrera izan da lehenengo agurrak edo hitzak euskaraz izatea, eta modu honetan, jende asko animatzen da euskaraz aritzera. Baina ez dugu ezer berezirik egin, gure egunerokoan horrela jokatzeko dugu*

(Bizkaia/Administrazio publikoa/2.gune soziolinguistikoa)

*Aurretik aipaturikoagatik. Ez zaigulako argi geratu zein funtzio betetzen genuen eta zein ekintza egin genitzakeen. Egunerokotasunean guztia euskaraz eginez (barne eta kanpo harremanak barne), zer gehiago egin genezaken ez genekien. Saiatu garena da, ikusgarritasuna ematen lagundu sare sozialen bidez, herritarrak eta inguruko eragileak ekimenera batu zitezten. Zeozer lortu genuen, gure inguruko enpresa hainbatek interesa erakutsi zutelako euskaraldia martxan jarri zenean eta geure argazkiak sareetan ikusi zituztenean, parte hartzen genuela esanaz. Beranduegi zen ordea haientzako, arigune bezala alta emateko epea pasata baitzegoen*

(Gipuzkoa/Enpresa txikiak/3.gune soziolinguistikoa)

*Gure entitatean gehiago jorratu dugu ahobizi eta belarripresten rola, horrek konpromiso zehatzagoa eskatzen duelako eta guretzako interesgarriagoa zelako. Ariguneena garrantzitsuago edo eraginkorrago iruditzen zaigu, denda, taberna edo zerbitzura zuzendutako entitateentzat, ezagutzen ez duzun leku batera heltzean mezu hori jasotzea. Gurean, gehienok ezagutzen gara eta harreman ohitura batzuk ezarrita daude dagoeneko, uste dugu horretan eragitea eraginkorragoa dela.*

(Gipuzkoa/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

## B.2.2 Parte hartzeko arrazoiak


### A. Arrazoiak

Euskaraldian parte hartzeko garrantzi handiena izan duten arrazoiei dagokienez, egoitza eta establezimenduen erdietan baino gehiagotan maila berean jarri dituzte entitatean euskararen erabilera handitzea eta euskararen aldeko konpromisoa adieraztea. Azken aukera hori bakarrik egoitza eta establezimenduen % 35ek hautatu dute, eta erabilera handitzea bakarrik, % 12k.

- Industrian % 28k hautatu dute euskararen erabilera handitzea, gainerako egoitza eta establezimendu moten gainera.
- Euskararen aldeko konpromisoa adierazteari dagokionez, gizarte mugimenduetako egoitzen % 60k hautatu dute, eta hezkuntzakoek % 42k.

89. grafikoa

**EAEko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen erabilera handitzeko helburuarekin lotutako arrazoiek indar handiagoa hartzen dute Bizkaian eta Araban Gipuzkoan baino, eta 2.gune soziolinguistikoan 3.ean eta 4.ean baino. Gipuzkoan eta 4.gune soziolinguistikoan, eremurik euskaldunenetan, beraz, euskararen aldeko konpromisoa adierazteak pisu handia hartzen du.

111. taula

**EAEko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak, lurralde historikoaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Entitatean euskararen erabilera handitzea	13,5	16,6	9,1
Entitatearen euskararen aldeko konpromisoa adieraztea	27,0	33,0	37,9
Aurreko biak maila berean	59,6	49,6	52,3
Ez dakit	0,0	0,8	0,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

112. taula

**EAEko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Entitatearen euskararen erabilera handitzea	17,8	9,6	5,0
Entitatearen euskararen aldeko konpromisoa adieraztea	32,6	34,8	46,8
Aurreko biak maila berean	48,9	55,6	44,8
Ez dakit	0,7	0,0	3,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Barne-ariguneak sortu dituzten egoitza eta establezimenduetan, edo biak sortu dituztenetan, gogoeta eta kontzientziazte lan handiagoa egin dutela antzematen da.

*Gure entitatean printzipioz, erabilera arlo formalean oso handia da. Gure ariguneetan arlo informalean egon ahal diren hutsuneak (agian era inkonzientean egiten direnak) bete nahi izan ditugu eta uste dugu oraindik goiz dela jakiteko hori lortu dugun ala ez jakiteko (...). Uste dugu Euskaraldiak ematen digula aukera era konzientean ikusteko non gauden eta nora heldu nahi dugun.*

(Araba/Administrazio publikoa/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskara erdigunera ekartzen duelako eta kontzientziak piztea eragiten duelako. Sarri, inertziaz jokatzen dugu, eta ez gara konturatzen zenbateraino erabiltzen dugun hizkuntza bat ala bestea. Euskaraldiak, berriz, hizkuntzaz hausnartzera eta euskara kontzienteki erabiltzera eramán gaitu*

(Gipuzkoa/Administrazio publikoa/3.gune soziolinguistikoa)

*Baliagarria da kontzientziak astintzeko. Egun horiek iristean, jendeak bultzada hori du, presioa, egunerokotasunetik aparte euskararen erabilera handitzeko. Errazagoa da horrelako zerbait egotea pausotxoak emateko*

(EAE\_Industria enpresak)

*Euskaraldiak ekartzen du geratzea eta hausnartzea. Rola aukeratu behar duzu, zergatik aukeratu duzun aukeratu duzuna. Adibidez, Korrikan: ematen duzu dirua, parte hartzen duzu eta bukatzen denean ahaztu egiten zara. Era honetako ariketek hori eskatzen dute, gelditu eta pentsatu. Gainera orain ariguneekin kolektiboan pentsatu behar dugu, denok elkarrekin eman behar ditugu pausuak. Oso interesantea da*

(EAE\_Industria enpresak)

*Ekimen sozial hauek pentsarazi egiten dute eta erabileran eragiteko interbentzio zuzena izan delako*

(Bizkaia/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

*Gaztelaniarako joera gogorra da eta gai teknikoak transmititzeko erosoko egiten delako*

(Gipuzkoa/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

Kanpo-ariguneak sortzeko joera handiagoa eduki duten zerbitzu-establezimendu eta enpresa txikietan, ez dute ariketaren inguruan horrenbeste hausnartu. Batzuek erabilerari bultzada emateko izena eman dute, modu orokorrean; beste batzuek, aldeko jarrera bat adierazteko, euskararen inguruko beste hainbat ekitalditan parte hartzen duten bezala.

*Euskaraz egiten dugu erabat baina egoera normalizatzeko aldera lagundu nahi dugu, hori da helburu nagusia ez? Euskararen erabilera normalizatzea*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/4.gune soziolinguistikoa)

*Jendea euskaraz egitera animatzeko eta laguntzeko helburuarekin apuntatu gara, guk dagoeneko dena euskaraz egiten dugu*

(Bizkaia/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Zenbat eta jende gehiagok jakin euskaraz hitz egiten dugula, hizkuntza orduan eta gehiago erabiliko da*

(EAE\_Zerbitzuak eta zerbitzu-enpresak)

*Lotsaz edo beldurrez euskara erabiltzera ausartzen ez direnei laguntzeko*

(Gipuzkoa/Enpresa txikiak/4.gune soziolinguistikoa)

*Egunerokoan euskaraz aritu arren, oroigarri bezala ikusten dut euskaraldia, batez be, erabilera bultzatzeko*

(Bizkaia/Zerbitzu enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

*Azaldu ziguten zer zen arigunea izatea eta guk euskaraz egiten dugunez ba parte hartzea erabaki genuen. Euskaraldia eta Korrika bezalako ekitaldietan parte hartzen dugu euskararen erabilera sustatzeko*

(Araba/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskara talde bezala gure euskaltzaletasunagatik parte hartu dugu eta uste dut mota honetako talde guztiek parte hartu beharko genukeela*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Esan bezala, eskualdea oso euskalduna da, eta beraz, ez da ahalegin berezirik egin behar euskaraz lan egiteko eta harremantzeko barne nahiz kanpo mailan. Euskaraldiak balio du, hori bai, guri herritar batek lehen hitza erdaraz egiten badigu, guk ez erantzuteko automatikoki erdaraz, euskaraz ulertzen duen jakin arte, eta ulertzen badu, guk euskaraz jarraitzeko. Edo kanpoko itxura duen pertsona bati aurreneko hitza euskaraz egiteko*

(Gipuzkoa/Gizarte mugimenduak/3.gune soziolinguistikoa)

Ahots kritikoak ere badaude, izena ematen duten baina ariketa betetzeko konpromisorik hartzen ez duten entitateekiko.

*Hala ere, entitateei eta herritarrei eskatutako konpromisoaz harago, egun horietan txapa jartzen duten hainbat eta hainbat erakundek konpromiso gehiago erakutsi beharko luke urte guztian zehar euskararekiko, dela langileei ezagutza eta erabilera exijituz, dela euskarazko proiektuak babestuz.*

(Gipuzkoa/Gizarte mugimenduak/4.gune soziolinguistikoa)

*Nire ustez jende edota entitate askok izena eman ematen dute, baina ez dakit noraino ulertzen dituzten ariketa bera eta horrek ekarri beharko lukeen ohitura eta dinamika-aldaketak*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/3.gune soziolinguistikoa)




## B. Helburuak

Hamarretik zortzik baieztatu dute entitatearen barnean eta kanpoko harremanetan, bietan bultzatu nahi dutela euskararen erabilera. Gainerakoen artean, gehiago dira entitatearen barnean bultzatu nahi dutenak (% 12). EAEko industriaren kasuan, % 45eraino igotzen da proportzio hori. Kanpoko harremanetan indartu nahi dutenei dagokienez, zerbitzu enpresak nabarmentzen dira (% 12).

90. grafikoa

### EAEko entitateek non bultzatu nahi duten euskararen erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen erabilera entitatearen barnean bultzatu nahi dutenen pisua Bizkaian eta 2.gune soziolinguistikoan nabarmentzen da. Baina oro har, egoitza eta establezimendu gehienetan bietan bultzatu nahi dute euskararen erabilera, barne-harremanetan zein kanpokoetan.

113. taula

**EAEko entitateek non bultzatu nahi duten euskararen erabilera, lurralde historikoaren arabera (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Entitatearen barnean	5,4	15,5	10,1
Entitatearen kanpo harremanetan	5,0	7,4	6,5
Bietan	89,6	77,2	83,5
Ez dakit	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

114. taula

**EAEko entitateek non bultzatu nahi duten euskararen erabilera, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Entitatearen barnean	18,2	7,7	5,1
Entitatearen kanpo harremanetan	7,1	6,6	5,4
Bietan	74,7	85,7	89,5
Ez dakit	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

### **B.2.3 Izena emateko prozesua**

#### **A. Euskaraldiaren berri izateko modua**

la hamarretik zazpi herri-batzordearen bidez izan dute Euskaraldiaren berri. Kasuen erdietan entitateko kideren batek proposatu du Euskaraldia dinamikan izena ematea, % 47tan hedabideen bitartez izan dute Euskaraldiaren berri. Datu orokorren gainetik nabarmentzen dira:

- Industriako egoitza eta establezimenduen erdiek erakunde publikoen gutuna jaso dutela.
- Hezkuntzan % 94k herri-batzordeen bidez izan dutela Euskaraldiaren berri.
- Administrazioako egoitza eta establezimenduen % 62tan eta hezkuntzako % 64tan entitateko kideren batek proposatu duela.

**EAEko egoitzek edo establezimenduek ekimenaren berri izateko modua (%)**

		Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikasleak, ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarrekin eta Hedabideak	Guztira
GUTUNA jaso genuen, erakunde publiko batek bidalita	Bai	33,7	51,0	44,2	46,2	31,2	38,0
	Ez	51,5	38,7	44,8	40,5	58,3	49,3
	Ez dakit	14,8	10,3	10,9	13,3	10,6	12,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraldiaren HERRI BATZORDEAREN eskutik	Bai	71,7	56,8	48,6	94,2	66,8	68,9
	Ez	24,4	32,5	48,2	3,1	27,7	26,0
	Ez dakit	3,9	10,7	3,3	2,7	5,5	5,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Entitateko KIDEREN BATEK proposatuta	Bai	47,2	41,2	61,7	64,1	55,5	51,4
	Ez	44,7	48,1	35,0	33,2	39,2	41,8
	Ez dakit	8,1	10,7	3,3	2,7	5,3	6,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
SARE SOZIALEN bidez	Bai	42,3	42,3	33,0	53,7	50,1	44,4
	Ez	51,4	54,0	63,7	36,6	46,1	50,1
	Ez dakit	6,4	3,7	3,3	9,8	3,8	5,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
HEDABIDEEN bitartez	Bai	36,4	54,5	51,6	63,8	52,7	46,9
	Ez	54,2	43,1	45,1	30,8	40,2	46,2
	Ez dakit	9,4	2,4	3,3	5,4	7,1	6,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
BESTE ENTITATE batek esanda	Bai	8,8	15,7	16,4	15,0	5,1	10,4
	Ez	78,6	80,0	72,7	66,0	85,2	78,3
	Ez dakit	12,6	4,3	10,9	19,0	9,6	11,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
BESTERIK	Bai	10,2	3,7	7,8	2,3	1,2	6,2
	Ez	74,7	79,9	80,0	74,4	80,5	77,1
	Ez dakit	15,2	16,4	12,2	23,3	18,3	16,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren inguruko informazioa bide askotatik heldu zaiela adierazi dute behin baino gehiagotan: tokiko komunikabideak zein orokorrak, sare sozialak... Komunikazio aldetik eraginkorra izan dela.

*Web orrian sartu nintzen eta ni apuntatu nintzen. Egia da bailarako egunkariak eta irakurtzen ditudala eta Euskaraldiaren jakinaren gainean nengoela*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Ni eskolan nago lanean eta Euskaraldiaren berri nuen, baina orokorrean informazioa bide askotatik heldu da, oso kanpaina ona egin da Euskaraldia zabaltzeko*

(Bizkaia/Elkarteak/2.gune soziolinguistikoa)

Kasu batzuetan, gertuko antolakuntza-egituren, tokian tokiko herri-batzordeen eta udalen jarraipena oso garrantzitsua izan da. Aurreko edizioan beste era batera parte hartu zuten entitateak berreskuratzeko edota udalerriko establezimendu eta egoitzetara iristeko.

*Informazioa leku ezberdinetatik iritsi da. Sare sozialetan ikusi dugu, lehen edizioan ere parte hartu genuen eta Donostiako batzordetik ere korreoa jaso genuen ea arigunea izan nahi genuen*

(Gipuzkoa/Elkarteak/2.gune soziolinguistikoa)

*Udaletik jaso genuen Euskaraldiaren informazioa*

(Bizkaia/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Zarauzko Udalak antolatuta, dinamizatzaile bat gerturatu zen geuregana pixka bat azaltzera. Herriko enpresen artean ariguneen kontua azaltzeko bilera bat antolatu zuen. Aurreneko pausoa hori izan zen. Beraiek azaldu ziguten nola parte hartu genezakeen*

(EAE\_Industria enpresak)

Koordinazio orokorrek harremana izan dutenen multzoan, Euskara Planak dituzten enpresa handiak eta kooperatibak nabarmendu daitezke.

*Zuzenean Topagunetik eta Jaurlaritzatik jaso genuen. Erakundeak Euskara Plana ere martxan dugu eta hango aholkulariaren bidez ere jaso genuen informazioa*

(Gipuzkoa/Zerbitzu enpresak/4.gune soziolinguistikoa)

*Euskara Plana martxan dugu erakundean eta hori dinamizatzen duen hizkuntza aholkulariaren bidez izan genuen Euskaraldiaren berri.*

(Gipuzkoa/Zerbitzu enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

*A propuesta de la cooperativa que dinamizó la información de cómo crear los arigunes y participar en el Esukaraldia en todas las tiendas*

(Gipuzkoa/Zerbitzu enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Desde la cooperativa nos trasladaron toda la información, al igual que al resto de las tiendas, para ver las fechas, cómo crear los arigunes etc*

(Bizkaia/Zerbitzu enpresak/4.gune soziolinguistikoa)


## B. Iniziatiba norena izan den

Egoitza edo establezimenduen % 30etan adierazi dute Euskaraldian parte hartzeko inizatiba denena izan dela. Beste % 30etan diote zuzendaritzaren inizatiba izan dela. Egoitza eta establezimenduen % 14tan entitateko euskara batzorde edo taldeena eta beste % 13tan langileen ekimena izan da. Azpimarratzeko moduko kasu batzuk badaude :

- Industriako egoitza eta establezimenduen % 34tan eta administrazio publikokoen % 31tan entitateko euskara batzorde edo taldearena izan da inizatiba.
- Hezkuntzako egoitzen % 35etan eta gizarte mugimendukoen % 33tan zuzendaritza izan da inizatiba.

91. grafikoa

### EAeko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko inizatiba norena izan den (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoen arabera, nabarmentzeko moduko diferentzia euskara batzorde edo taldeen inizatibari dagokiona da, altuagoa baita Araban eta 2.gune soziolinguistikoan Bizkaia-Gipuzkoan eta 3-4 gune soziolinguistikoetan baino. Badirudi haien ekimena erabakigarriagoa izan dela gune erdaldunagoetan.

116. taula

**EAEko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko inizatiba norena izan den (lurralde historikoa) (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Zuzendaritza taldearena, zuzendariarena edo jabearena	32,7	29,4	31,9
Elkarteko bazkide boluntarioena	9,8	9,1	3,4
Entitateko edo establezimenduko langileena	15,2	11,2	13,7
Guztiona, maila berean	15,4	30,0	33,3
Entitateko euskara batzorde edo taldearena	23,5	11,3	15,0
Beste bat	3,4	9,0	2,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

117. taula

**EAEko egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko inizatiba norena izan den (gune soziolinguistikoak) (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Zuzendaritza taldearena, zuzendariarena edo jabearena	30,2	31,2	32,4
Elkarteko bazkide boluntarioena	9,5	3,3	6,6
Entitateko edo establezimenduko langileena	12,2	13,9	9,7
Guztiona, maila berean	23,4	33,9	44,0
Entitateko euskara batzorde edo taldearena	17,3	13,9	2,9
Beste bat	7,3	3,8	4,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.




### C. Antolakuntzarekiko harremana

Hamarretik seik baino gehiagok euren herriko herri-batzordearekin eduki dute harremana. % 21ek koordinazio orokorrarekin eduki dute harremana, baina beste hainbeste dira Euskaraldiko antolakuntza-egiturekin inolako harremanik eduki ez dutenak ere.

- Administrazio publikoko egoitzen % 79an herri-batzordeekin eduki dute harremana.
- Antolakuntza orokorrarekin harremana eduki dute hezkuntzako egoitzen % 41ek.
- Euskaraldiko antolakuntza-egiturekin inolako harremanik eduki ez dutenak egoitza eta esblezimenduen % 30 dira industria enpresetan.

92. grafikoa

**EAEko egoitzek edo establezimenduek antolakuntzarekin izandako harremana (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Herrietan entitateei zuzenduta egin diren ekitaldiei dagokienez, egoitza eta establezimenduen herenek batzorde ireki eta aurkezpenetan parte hartu dute, %30ek argazki erraldoietan eta laurdenek, ia, bideoetan. Gainerako ekitaldien pisua baxuagoa da. Nabarmentzeko moduko kasuak:

- Administrazioako egoitzen % 41ek batzorde ireki eta aurkezpenetan parte hartu dute.
- Gizarte mugimenduen % 19k prentsaurrekoetan parte hartu dute.
- Hezkuntzako egoitzen erdiek argazki erraldoietan parte hartu dute eta % 38k bideoetan.

**EAEko egoitzek edo establezimenduek herrian egindako ekitaldietan parte-hartzea (%)**

		Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Adminis-trazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Batzorde irekia/ aurkezpena	Bai	18,1	29,8	41,1	57,4	52,4	33,7
	Ez	61,5	62,8	26,2	31,2	35,9	49,5
	Ez da halakorik egin	6,7	6,2	25,7	5,1	5,5	7,9
	Ez dakit	13,7	1,2	6,9	6,2	6,2	8,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Prensaurrekoa	Bai	7,3	8,8	23,0	19,6	19,8	13,1
	Ez	67,1	73,8	31,1	43,1	54,5	59,3
	Ez da halakorik egin	9,9	13,8	41,6	21,0	19,2	16,6
	Ez dakit	15,6	3,6	4,4	16,3	6,5	11,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Emanaldi berezia	Bai	16,6	2,7	36,3	15,7	35,2	20,4
	Ez	58,4	71,3	23,8	59,4	42,1	53,6
	Ez da halakorik egin	7,3	16,9	35,5	8,7	14,0	12,8
	Ez dakit	17,7	9,1	4,4	16,3	8,7	13,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Bideoa	Bai	14,0	26,2	28,2	38,2	34,2	24,1
	Ez	63,8	58,0	32,2	41,8	45,5	53,6
	Ez da halakorik egin	7,8	11,6	30,6	7,5	10,9	11,1
	Ez dakit	14,4	4,2	8,9	12,5	9,3	11,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Argazki erraldoia	Bai	21,8	30,2	15,6	49,8	40,0	29,5
	Ez	59,2	51,1	24,2	30,7	37,1	46,9
	Ez da halakorik egin	6,2	15,0	54,6	9,7	17,2	14,7
	Ez dakit	12,7	3,7	5,6	9,8	5,7	9,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besterik	Bai	6,3	6,4	7,2	22,1	6,8	8,3
	Ez	60,4	59,8	31,4	50,2	54,0	55,1
	Ez da halakorik egin	6,1	12,6	47,7	12,7	14,4	13,4
	Ez dakit	27,2	21,2	13,7	15,0	24,8	23,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## D. Ariguneak identifikatzeko jarraitutako prozedura

Egoitza eta establezimendu gehienek barne-lanketa bat egin dute ariguneak identifikatzeko, egoitza edo establezimenduko kideen beraien artean, Euskaraldiak proposatutako dokumentuen laguntzaz (% 56). Kanpo laguntza izatekotan, herriko batzorde edo dinamizatzaileena izan dute gehienek (% 28,5). % 6k soilik kontratatu dute kanpo aholkularitza enpresaren bat.

- Kanpo aholkularitzak kontratatu dituzten egoitza edo establezimenduen ehunekoak askoz altuagoa da industria enpresetan (% 30) gainerako azpi-taldeetan baino.
- Kideen artean egindako barne-lanketa gizarte mugimenduetan nabarmentzen da (% 66).
- Zerbitzu-establezimenduen eta hezkuntzako egoitzen % 35etan herri-batzorde edo dinamizatzaileen laguntza izan dute.

93. grafikoa

### EAEko egoitzek edo establezimenduek ariguneak identifikatzeko jarraitutako prozedura (%)



Iturria: Siadeco, 2021.


## E. Kideak informatzeko egindako ahalegina

Egoitza eta establezimendu gehienetan uste dute behar besteko ahalegina egin dutela bertako kideak informatzeko (% 72,5). Egoitza eta establezimenduen % 17tan uste dute egindako ahalegina ez dela behar bestekoa izan.

- Ahalegina behar bestekoa izan dela adierazi dute hezkuntzako egoitzen % 84tan.
- Industriako egoitza eta establezimenduen herenetan uste dute egindako ahalegina ez dela behar bestekoa izan.
- Ahalegin txikia egin dutela diote gizarte mugimenduen % 8tan.
- Ahaleginik egin ez dutela onartu dute administrazio publikoen % 5etan.

94. grafikoa

**EAEko egoitzeko edo establezimenduek kideak informatzeko egindako ahalegina (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## F. Parte-hartze maila

Hamar egoitza edo establezimendutatik zazpitan kide guztiek edo gehienek parte hartu dute Euskaraldia ariketan —% 43tan denek—. Erdiek edo gutxiagok, egoitza eta establezimenduen laurdenetan.

- Zerbitzu establezimenduen % 65etan kide guztiek parte hartu dute.
- Industrian, hamarretik seitan kideen erdiek edo gutxiagok parte hartu dute.
- Administrazio publikoko egoitzen herenetan kideen erdiek edo gutxiagok parte hartu dute.

95. grafikoa

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako zenbat kidek parte hartu duten ariketan (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoaren arabera, entitatean denek edo gehienek parte hartu dutenen pisua Gipuzkoan eta 4.gune soziolinguistikoan nabarmentzen da. Gutxiak parte hartu dutenena, berriz, Araban eta 2.gune soziolinguistikoan.

119. taula

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako zenbat kidek parte hartu duten ariketan (lurralde historikoa) (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Denek	28,1	40,2	47,7
Gehienek	32,7	18,9	33,4
Erdiek	10,0	16,3	10,7
Gutxiak	22,0	15,6	5,6
Inork ez	1,6	1,5	,6
Ez dakit	5,6	7,5	2,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

120. taula

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako zenbat kidek parte hartu duten ariketan (gune soziolinguistikoa) (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek	29,6	49,4	67,7
Gehienek	25,1	30,4	23,6
Erdiek	17,3	11,7	1,1
Gutxiak	19,6	4,8	4,4
Inork ez	1,7	,6	,3
Ez dakit	6,7	3,0	2,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## G. Parte-hartze indibiduala

Ia lautik hirutan kide guztiek edo erdiek baino gehiagok izena eman dute ahobizi edo belarriprest modura. Honakoak, azpimarratzeko moduko kasuak:

- Industriako egoitzen % 80tan erdiek baino gehiagok edo denek edo ia denek izena eman dute.
- Administrazio publikoko egoitzen % 70etan kide guztiek eman dute izena.
- Hezkuntzan, egoitzen % 20tan, ia, kideen erdiek baino gutxiagok eman dute izena.

96. grafikoa

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako zenbat kidek parte hartu duten ariketan (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.



Entitate asko bat datoz izen-ematean izan den nahasmenarekin: kasu askotan, ariguneetako hainbat kidek ez dute norbanako gisa izenik eman. Kasu batzuetan, ariguneetako kideek ariketa lan-arloarekin lotu dutela azpimarratu dute, baina ez dutela konpromisoa euren bizitzako gainerako esparruetara zabaldu.

*Izen ematean arazoak egon dira, nahasmena. Arigunean izena ematean, gero norbanako bezala eman behar zuten izena eta hor jendeak ez zuen ulertzen, galdetzen zuten ea berriro zergatik eman behar zuten izena. Hasieratik azalpen gehigarri bat beharko zen*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*3 langile gara. Nik ariguneaz gain ez nuen ahobizi bezala izena eman, besteek ez dakit. [...] Ez dugu txaparik eraman*

(Bizkaia/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Batzuetan laneko kontu batekin identifikatu dute. Prest zeuden lanean euskaraz egitera, baina gero agian ez zuten ariketa honetan parte hartu nahi, desberdindu egin dute*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Hurrengo edizioarako sinplifikatzea azalpenak eta hasieratik argi izatea*

(Bizkaia/Hezkuntza/4.gune soziolinguistikoa)

*Gehiago ezin izan dugu egin. Informazio guztia asimilatzen saiatzea bakarrik asko da*

(Bizkaia/Hezkuntza/2.gune soziolinguistikoa)

Batzuentzat, arigune bateko partaide izateak norberaren ardura pertsonala murriztu egin duela ere aipatu dute. Horrek arinkerian edo erlaxazioan erortzea eragin duela. Hezkuntzan eta administrazio publikoan aipatu dute hori, batez ere.

*Arigune izateko erabakia taldean hartu izanak sakabanatu egin du bakoitzaren ardura. Gehiengoak hartzen zenez erabakia, onartzen zuten arigunea ginela baina bakoitzaren ardura ez zela hainbestekoa, aurrekoan bezainbestekoa uste zuten. Hori dela eta, erlaxatuago ikusi ditut, batzuek belarriprest eta ahobizi ahaztuta (ez zuten txapa jartzen)*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Erakunde publikoetan askotan langileek ematen dute izena euskara teknikariak edo beste pertsona batek bultzatuta eta orduan ez dute bentako konpromisoa Euskaraldiarekin. Beraz, euskaraldia gauzatzen den bitartean ez badute pertsona bat ondoan gogorarazteko bere konpromisoa ahazten zaie, ez baitute ohiturarik eta ez dutelako izena eman guztik motibatuta*

(Bizkaia/Administrazioa eta hezkuntza/2.gune soziolinguistikoa)

*Entitate barruan ariketa bete dugun arren, norbanako bezala gehiengoak ez dugu izenik eman*

(Gipuzkoa/Administrazioa eta hezkuntza/4.gune soziolinguistikoa)

Ahobizi eta belarriprest modura izena eman dutenen artean, norbanakoek ere lan arloarekin lotuta aipatzen dituzten argudioetako batzuk azpimarratu dituzte: hitz teknikoekin euskaraz moldatzeko zailtasuna edo uneoro euskaraz egin behararen presioa. Rolan inguruko zalantzak ere behin baino gehiagotan agertu dira.

*Lankide bat belarriprest izan da, beste guztiak ahobizi. Lankide hau kontabilitatekoa da eta hitz teknikoak erabiltzen dituenez ez zen ausartzen ahobizi rola hartzera*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Gurean gehiengoak belarriprest izan dira. Nahiz eta ezagutza edo gaitasun maila handiagoa izan, lehenengo hitza beti euskaraz egin behar izateak eta uneoro euskaraz egin behar izateak presioa edo eragiten zien. Ahal zutenetan erabili dute, orduan alde horretatik libreago sentitu dira, erosoago*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Barne-ariguneen kontzeptua ez da ondo ulertu, uste dut langile guztiak euskaldunak direnean soilik sortu direla. Langileren bat euskaldun oso edo ez bazen, ez zen arigunea sortzen edo zailtasun gehiago egon dira. Eta iruditzen zait barne-ariguneak horretarako sortu behar zirela, euskara hainbeste erabiltzen ez zutenak erabiltzera bultzatzeko*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Rolak ezagutza mailarekin lotzen dira, eta belarriprest rola baztertu egiten da lotsagatik. Baina jendeak ez du ondo ulertzen. Ez dakit ahobizi izateak prestigio gehiago ematen duen edo lotsa gutxiago*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Nik ez dakit oraindik oso ondo ulertzen ditudan rolak. Uste nuen ahobizi dena belarriprest ere badela, eta belarriprest hartzen duenak bakarrik erakusteko dela ulertzen duela baina beste hizkuntza batean erantzungo duela. Orduan, pentsatzen dut, belarriprest hartzen duten batzuk zenbakiak puzteko hartzen dutela, agian belarriprest direnak bakarrik ez sentitzeko, ez dakit*

(EAE\_Gizarte mugimenduak)


## H. 2018ko parte-hartzea

Hamarretik zazpitan ariguneetan parte hartu duten kideen erdiek baino gehiagok —edo denek edo ia denek— 2018ko edizioan ere eman zuten izena. Alegia, ahobizi edo belarriprest izan ziren orduan.

- Denek edo ia denek izena eman zuten gizarte mugimenduetako egoitzen % 65etan.
- Denek edo ia denek izena eman zuten administrazio publikoko egoitzen % 56tan.
- Enpresa eta establezimenduen % 7,5etan kideen erdiek baino gutxiagok —edo inork edo ia inork ez— izena eman zuten 2018ko edizioan.

97. grafikoa

**EAEko 2020ko ariguneetan parte hartu duten kideek 2018an izena eman zuten edo ez (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

## B.2.4 Euskaraldiko jarduna


### A. Ulermen-maila

Egoitza edo establezimenduen % 63tan baieztatu dute euren ariguneetako partaide guztiak edo ia denek ulertu dutela ongi ariguneen funtzionamendua.

- Zerbitzu establezimenduen % 76tan denek edo ia denek ulertu dute ongi ariguneen funtzionamendua.
- Administrazio publikoko eta hezkuntzako egoitzen % 8tan erdiek baino gutxiagok edo inork ez (% 5 hezkuntzan) du ulertu ariguneen funtzionamendua.
- Partaideek ulertu ote duten ez dakitela erantzun dutenen proportzioa altua da administrazio publikoan (% 15).

98. grafikoa

**EAEko egoizetako edo establezimenduetako partaideetatik zenbatek ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Lurralde historikoaren arabera, azpimarratzeko modukoa da Araban ulermen-maila altuagoa izan dela Bizkaian baino —Gipuzkoan altuena—. Gune soziolinguistikoaren arabera, 3.gune soziolinguistikoan eman da ulermen-mailarik altuena.

121. taula

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako partaideetatik zenbatek ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (lurralde historikoak) (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Denek edo ia denek	61,2	57,4	66,8
Erdiek baino gehiagok	20,8	16,2	20,1
Erdiek	8,4	9,0	5,1
Erdiek baino gutxiagok	3,6	4,4	1,3
Inork ez edo ia inork ez	1,2	1,8	0,0
Ez dakit/Erantzunik ez	4,8	11,2	6,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

122. taula

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako partaideetatik zenbatek ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (gune soziolinguistikoak) (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek edo ia denek	54,7	69,8	59,7
Erdiek baino gehiagok	24,4	14,3	16,7
Erdiek	7,4	6,1	8,4
Erdiek baino gutxiagok	4,0	2,0	0,9
Inork ez edo ia inork ez	1,0	,8	0,0
Ez dakit/Erantzunik ez	8,5	7,0	14,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## B. Betetze-maila

Ariguneek euren funtzioa bete dute egoitza eta establezimendu gehienetan. Izan ere, hamarretik zazpik 8tik gora baloratu dituzte ariguneak, euskaraz lasai aritzeko gune gisa.

- Gizarte eragileetako egoitzen % 46tan baloratu dute erabat izan direla euskaraz lasai aritzeko gune.
- Enpresa eta establezimenduen % 12tan 6tik behera puntuatu dute.
- Administrazio publikoko egoitzen % 13tan 5etik behera puntuatu dute.

Balorazio onenak gizarte eragileen artean—% 46k erabat—eta administrazioan —% 48,5ek erabat— nabarmentzen dira. Egoitza eta establezimenduen % 9k 6tik beherako puntuazioa eman diete, eta multzo horretan, enpresa eta establezimenduak azpimarra daitezke (% 12), batez ere.

123. taula

### EAEko ariguneak zein neurritan izan diren, Euskaraldiko 15 egunetan, euskaraz lasai aritzeko guneak (%)

	Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Batere ez	0,0	0,0	0,0	0,0	1,4	0,3
1	0,0	0,0	1,6	2,9	0,0	0,5
2	0,0	0,3	0,0	2,9	0,0	0,4
3	0,9	0,0	4,5	0,0	0,4	0,9
4	0,6	0,0	6,8	0,0	3,4	1,6
5	11,2	12,3	5,0	5,3	2,0	8,1
6	5,7	11,6	6,8	5,8	1,2	5,7
7	9,9	22,4	15,7	13,0	8,2	12,2
8	24,8	22,7	8,0	3,4	21,2	19,8
9	12,5	16,5	11,0	25,5	16,2	15,2
Erabat	34,4	14,2	40,5	41,2	45,9	35,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Entitateko ahobizien eta belarripresten konpromiso indibidualei dagokienez, egoitza eta establezimenduen % 60tan uste dute neurri handi batean bete dituztela —8tik gorako balorazioa—. Industriako egoitzen % 14tan 5etik behera puntuatu dute, eta administrazio publikoko egoitzen % 10etan ere bai.

124. taula

**EAEko egoitzetako edo establezimenduetako ahobiziek eta belarriprestek zein neurritan bete dituzten euren konpromisoak (%)**

	Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Adminis- trazioa, ent. publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Batere ez	0,9	0,0	0,0	0,0	1,4	0,7
1	0,0	2,0	1,6	0,0	0,0	0,4
2	0,8	0,0	0,0	0,0	0,4	0,5
3	1,7	0,4	0,0	0,0	0,0	0,8
4	0,9	11,8	8,4	0,0	1,4	3,1
5	12,1	1,7	7,9	7,7	5,1	8,3
6	6,7	10,3	21,8	11,4	4,1	8,6
7	13,8	29,9	18,1	22,1	9,8	16,4
8	25,4	30,2	9,1	26,4	25,5	24,6
9	21,6	11,3	13,2	11,8	26,7	19,4
Erabat	16,2	2,6	19,8	20,6	25,4	17,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

### C. Erraztasun-zailtasun maila

Ariguneen ariketa egitea erraza izan da egoitza eta establezimendu gehientzat. Orokorrean, erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua handiagoa da kanpo-ariguneetan barne-ariguneetan baino. Industria-enpreetan dago alderik handiena, hamarretik zazpik uste baitute barne-ariguneetan ariketa egitea erraza izan dela, eta kanpo-ariguneetan % 31k. Kontrakoa gertatzen da administrazio publikoan: kanpo-ariguneetan ariketa egitea nahiko edo oso erraza izan dela uste dute hamarretik seik, eta barne-ariguneetan herena pasatxok.

99. grafikoa

**Ariguneen ariketa egitea nahiko erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua EAEn (%).**




Iturria: Siadeco, 2021..

Lurralde historikoen arabera, ariketa erraza edo oso erraza iruditu zaien pisuari dagokionez, Gipuzkoan da altuena, Bizkaian ondoren eta Araban azkenik. Gune soziolinguistikoaren arabera, 4.gune soziolinguistikoan da altuena, 3.ean ondoren eta 2.ean azkenik. Araban soilik iruditu zaie errazagoa kanpo-ariguneetan ariketa egitea barne-ariguneetan baino.



100. grafikoa

**Arigunen ariketa egitea nahiko erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua EAEn (lurralde historikoak eta gune soziolinguistikoak) (%).**



Iturria: Siadeco, 2021..

Euskaraldia ariketan planteatutako jokabide ezberdinei buruz galdetuta, agerian gelditzen da euskaraz ulertzen dutenekin uneoro euskaraz egitea dela errazena, oro har. Egoitza eta establezimenduen % 83tan erraza edo oso erraza izan dela diote. Proportzio hori % 56raino jaisten da administrazio publikoan. Areago, lehen hitza euskaraz egitea zaila edo oso zaila izan dela diote administrazio publikoaren % 40tan. Industriakoen herenetan ere hala uste dute.

Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea —% 52rentzat zaila edo oso zaila— edo elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea —% 42rentzat zaila edo oso zaila— konplexuagoa izan da ariguneetako partaideentzat. Administrazio publikoko egoitzen bi herenetan diote elkarrizketa elebidunak edukitzea zaila edo oso zaila dela, eta industrian, % 47k.

125. taula

**Jokabide ezberdinak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila EAEko entitateetako kideentzat (entitate mota) (%)**

		Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarreak eta Hedabideak	Guztira
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	40,3	41,8	31,9	69,4	52,9	45,7
	Erraza	43,8	43,7	24,2	15,9	36,6	37,3
	Zaila	10,4	10,9	35,8	9,2	5,6	11,7
	Oso zaila	2,4	1,2	1,6	0,0	0,0	1,4
	Ez dakit	3,1	2,4	6,6	5,4	4,8	4,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	31,2	9,6	22,6	35,6	29,0	27,4
	Erraza	43,3	41,1	29,7	38,3	49,4	42,5
	Zaila	14,6	31,9	38,0	20,6	12,0	19,3
	Oso zaila	6,0	1,2	1,6	0,0	0,0	2,9
	Ez dakit	4,9	16,2	8,2	5,4	9,6	7,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	18,9	9,5	1,3	24,8	14,4	15,7
	Erraza	36,0	40,8	25,8	31,1	51,2	38,5
	Zaila	36,8	40,0	55,5	39,2	24,1	36,5
	Oso zaila	5,5	7,2	10,8	2,2	3,4	5,4
	Ez dakit	2,8	2,4	6,6	2,7	6,9	3,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bietan izatea	Oso erraza	11,6	1,2	0,0	14,5	7,3	8,5
	Erraza	30,2	26,3	29,4	24,3	46,6	32,4
	Zaila	48,9	51,6	51,6	50,4	29,7	45,6
	Oso zaila	4,9	15,2	6,5	5,4	5,7	6,7
	Ez dakit	4,3	5,7	12,6	5,4	10,8	6,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egitea eskatzea	Oso erraza	29,8	19,7	16,3	23,7	31,5	26,8
	Erraza	48,7	38,5	46,1	38,3	42,9	44,6
	Zaila	14,1	24,5	23,0	28,2	17,2	18,7
	Oso zaila	4,4	9,5	4,8	0,0	0,0	3,7
	Ez dakit	3,0	7,8	9,8	9,8	8,4	6,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Orokorrean, Gipuzkoan eta 4.gune soziolinguistikoan izan dituzte erraztasunik handienak Euskaraldiak planteatutako ariketa aurrera eramateko. Zailtasunik handienak, aldiz, Araban eta 2.gune soziolinguistikoan. Salbuespena elkarrizketa elebidunetan antzematen da; izan ere, horietan euskarari eustea errazagoa iruditu zaie Bizkaian Gipuzkoan baino, eta 2.gune soziolinguistikoan 3.ean baino.

126. taula

**Jokabide ezberdinak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila, EAEko entitateetako kideentzat (lurralde historikoa) (%)**

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	35,3	43,1	49,1
	Erraza	40,5	37,4	36,7
	Zaila	18,5	12,9	9,8
	Oso zaila	2,0	0,9	1,6
	Ez dakit	3,6	5,6	2,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	13,9	22,6	32,8
	Erraza	46,8	38,1	45,2
	Zaila	29,3	24,1	14,4
	Oso zaila	2,0	3,7	2,5
	Ez dakit	8,0	11,6	5,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	7,0	20,2	13,5
	Erraza	35,8	37,1	39,9
	Zaila	42,6	31,5	39,4
	Oso zaila	11,0	6,0	4,2
	Ez dakit	3,6	5,2	3,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bietan izatea	Oso erraza	2,4	8,4	9,3
	Erraza	26,9	32,5	33,2
	Zaila	51,5	41,6	47,8
	Oso zaila	12,4	8,3	4,8
	Ez dakit	6,8	9,2	5,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egitea eskatzea	Oso erraza	15,8	26,8	28,3
	Erraza	48,4	47,0	42,3
	Zaila	19,4	16,6	20,1
	Oso zaila	6,0	2,7	4,1
	Ez dakit	10,4	6,9	5,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

127. taula

**Jokabide ezberdinak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila, EAEko enfitateetako kideentzat (gune soziolinguistikoa) (%)**

		2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	38,2	46,8	70,6
	Erraza	39,3	37,4	28,4
	Zaila	14,6	11,6	0,0
	Oso zaila	3,0	0,3	0,0
	Ez dakit	4,9	3,8	1,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	15,5	32,5	49,1
	Erraza	39,2	45,4	41,5
	Zaila	28,6	14,1	7,7
	Oso zaila	4,8	2,0	0,0
	Ez dakit	11,8	5,9	1,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	15,4	13,3	28,0
	Erraza	38,4	37,2	44,7
	Zaila	34,4	40,8	24,0
	Oso zaila	7,6	4,8	0,0
	Ez dakit	4,2	3,9	3,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bietan izatea	Oso erraza	6,4	8,1	17,9
	Erraza	30,2	33,0	38,4
	Zaila	44,2	47,7	40,8
	Oso zaila	10,4	5,1	0,4
	Ez dakit	8,8	6,1	2,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egitea eskatzea	Oso erraza	22,5	27,5	40,2
	Erraza	43,7	43,9	51,3
	Zaila	20,3	19,9	6,4
	Oso zaila	5,5	2,8	0,8
	Ez dakit	8,0	5,9	1,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

## D. Jarrerak

Entitate gehienetan Euskaraldiaren aldeko jarrerak nagusitu dira, eta jarrera aktiboak, gainera (% 66). Proportzio hori baxuagoa izan da industriako enpresetan (% 43) eta administrazio publikoan (% 56). Horietan, aldeko jarrerak bai, baina jarrera pasiboak nagusitu dira. Nabarmentzekoa da zerbitzu-establezimenduen % 7tan adierazi dutela gutxiengoa izan dela aldeko jarrera izan duena.

101. grafikoa

### Euskaraldiarekiko zer nolako jarrerak nagusitu diren EAEko entitateetan (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

128. taula

**Euskaraldiarekiko zer nolako jarrerak nagusitu diren EAEko entitateetan (lurralde historikoa) (%)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiboarekin	58,8	62,4	69,8
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiborik gabe	25,9	29,9	26,9
Gutxiengo bat izan da aldeko jarrera izan duena	8,0	2,8	2,8
Ez dakit	7,2	5,0	0,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

129. taula

**Euskaraldiarekiko zer nolako jarrerak nagusitu diren EAEko entitateetan (gune soziolinguistikoak) (%)**

	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiboarekin	58,1	69,5	80,5
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiborik gabe	30,8	28,0	17,1
Gutxiengo bat izan da aldeko jarrera izan duena	5,8	1,7	0,0
Ez dakit	5,3	0,8	2,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

## E. Txapak eta identifikagarriak

Entitatean Euskaraldiko parte-hartzaile izan diren guztiek edo ia denek txapak jantzi dituztela adierazi dute egoitza eta establezimenduen % 60tan, orokorrean. Industriako enpresetan, aldiz, % 50era jaisten da proportzio hori, eta % 45era administrazio publikoan eta hezkuntzan. Industriako egoitzen % 11tan diote erdiek baino gutxiagok edo inork edo ia inork ez duela txapa jarri.

102. grafikoa

### EAEko ariguneetako parte-hartzaileek ahobizi eta belarriprest txapak jarri dituzten (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Oro har, ariguneak sortu dituzten egoitza eta establezimenduetan, Euskaraldiko hamabost egunetan zehar txapak erabili direla esan daiteke, nahiz eta batzuetan ariketa ez den bete. Kasu batzuetan, Euskaraldiaren ondoren ere txapak erabiltzen jarraitu dutela baieztatu dute.

*Txapa Euskaraldian eraman nuen eta orain dendan lanean nagoenean ere eramaten dut*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Bai, txapa erabili da. Nik oraindik motxilan jarrita daramat*

(Araba/Gizarte mugimenduak/3.gune soziolinguistikoa)

*Txapa partehartzaileen erdiak jantzi du gutxi gora behera*

(Bizkaia/Merkataritza/3.gune soziolinguistikoa)

*Fundazioan erabili da txapa orokorren, pixkat anekdota moduan, "hay la chapita, la llevo como tú...", baina gero errealtatean ez da euskaraz asko egin*


(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

Hamarretik bederatzik baieztatu dute ariguneak sortu diren lekuetan identifikagarriak jarri dituztela. Entitate motaren arabera, gizarte mugimenduen egoitzetan gainerakoetan baino askoz altuagoa da identifikagarriak jarri ez dutenen pisua (% 18). Kontuan hartu behar da, osasun neurrien ondorioz egoitza sozial horietako asko itxita egon direla.



103. grafikoa

**Ariguneak sortu diren lekuetan identifikagarriak jarri diren edo ez EAEn (%)**




Iturria: Siadeco, 2021..

Oro har, egoitza eta establezimenduen % 60tan uste dute identifikagarriak lagungarriak edo oso lagungarriak izan direla. Administrazio publikoko egoitzen % 16tan oso baliagarriak iruditzen zaizkie. Baina era berean, administrazioko beste %31tan maila txikian edo oso maila txikian iruditzen zaizkie baliagarriak.

104. grafikoa

**Euskara gehiago erabiltzeko zenbateraino izan diren balagarriak identifikagarriak EAEko entitateetan (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## B.2.5 Euskaraldiaren eragina

### A. Orokorrean

Egoitza eta establezimenduen euren pertzepzioak aztertu ditugu, alde batetik, Euskaraldiaren eraginez hizkuntza-ohiturak aldatu ote diren galdetuta. Orokorrean, egoitza eta establezimenduen % 28tan Euskaraldian zehar aldatzeaz harago, gerora ere mantendu egin dira. % 23tan diote Euskaraldian zehar izan dela eraginik, baina gerora inpaktu hori urtu edo arindu egin dela. Egoitza eta establezimendu motaren arabera, administrazio publikoan antzematen da eraginik iraunkorrena (% 35).

105. grafikoa

**Euskaraldiari esker EAEko egoitzeetan edo establezimenduetan hizkuntza-ohiturak aldatu diren edo ez (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Hizkuntza-erabileraren bilakaera aztertu dugu, bestetik. Bilakaera horretan oinarrituz, ondorio nagusia da Euskaraldiak ez dituela hizkuntza-ohiturak goitik behera aldatu, baina eragin bat izan duela. Euskaraldian zehar igoera bat dago euskararen erabileran, eta jaitsiera bat ondoren, baina ez igoeraren parekoa. Hortaz, oro har, hirugarren momentuko egoera hobea da lehen momentukoa baino.

Eraginik handiena ariguneetako kideen artean antzematen da —erabilera-mailarik handiena ere egoera horretan dago—, ariguneetako kideen eta entitateetako gainontzeko kideen artean, ondoren, eta kanpo-harremanetan, azkenik.

106. grafikoa

**Euskararen erabilera EAEko egoitza edo establezimenduetan, egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

## B. Lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

Lurralde historikoaren arabera azterketan, alde esanguratsuak antzematen dira egoeraren arabera. Araban, esate baterako, kanpo harremanetan izan da eraginik handiena, zortzi puntuko igoerarekin, Euskaraldiaren aurreko momentutik ondorengora. Gipuzkoan, aldiz, kanpo harremanetan ia ez da aldaketarik izan. Aldiz, ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen artean, hamabi puntuko igoera izan da. Bizkaian, bost puntuko igoera izan da ariguneetako kideen arteko harremanetan.

130. taula

**Euskararen erabilera EAEko egoitza edo establezimenduetan, egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (lurralde historikoaren arabera) (%)**

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren
Ariguneetako kideen artean	52,7	62,5	54,5	59,9	75,9	65,1	80,0	91,2	84,2
Ariguneetako kideak entitateetako gainontzeko kideekin	36,7	49,2	41,1	46,9	57,1	49,6	65,3	77,1	72,8
Entitatekoak ez direnekin hartu-emanean edo herritarrak artatzerakoan	25,7	43,1	33,7	42,8	56,0	48,9	68,2	71,8	68,1

Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoaren arabera ere, joera antzekoa da. Kanpo harremanei dagokienez 2.gune soziolinguistikoan izan da eraginik handiena, sei puntukoa. Ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen arteko harremanei dagokienez, 3.gune soziolinguistikoan izan da hazkunderik handiena, ia hamabi puntukoa. Ariguneetako kideen artean, bosna puntukoa izan da hazkundera 2.eta 3.gune soziolinguistikoetan.

131. taula

**Euskararen erabilera EAEko egoitza edo establezimenduetan, egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (Gune soziolinguistikoaren arabera) (%)**

	2. gune SL			3. gune SL			4. gune SL		
	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren
Ariguneetako kideen artean	54,7	72,4	59,6	76,8	88,6	81,9	97,6	98,0	97,2
Ariguneetako kideak entitateetako gainontzeko kideekin	36,2	49,9	40,7	65,2	75,6	71,7	88,6	94,2	92,6
Entitatekoak ez direnekin hartu-emanean edo herritarrak artatzerakoan	30,6	45,1	36,5	67,3	72,7	68,5	91,7	91,4	91,4

Iturria: Siadeco, 2021.

Orokorrean, badirudi kanpo-ariguneetan izan dela eraginik handiena, edo zailtasun handiagoak topatu dituztela, behintzat, barne-ariguneetan. Barne-ariguneetan, Euskaraldia pasata, lehenengo ohituretara itzultzeko joera handiagoa egon dela.

*Batez ere kanpo-ariguneak funtzionatu du. Guk langileei esan genien pausu bat gehiago eman behar zutela (lehenengo hitza euskaraz egitea ez da Euskaraldiaren kontua bakarrik), ez bakarrik txapa jantzita dutela erakustea, baizik eta herritarrak gerturatzean beraiei adieraztea euskaraz egin nahi bazuten lasai aritzeko aukera zutela. Ez da kontrako jarrerarik egon, baina gogo falta nabaritu da*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Kanpo-ariguneetan, normalean ere betetzen delako. Barne-ariguneetan berriz, gutxiago bete da, euskara eta gaztelaniaz gain entitatearen egunerokotasunean ingelesak ere (eta baita frantsesak eta alemanak ere) pisu handia duelako eta etengabeen hizkuntzaz aldatzen aritu behar izaten dutelako*

(Araba/Industria-enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Langile gehiagoak lehenengo egunerokotasunera egin du berriro ere; momentuan aurrean duen langileak aukeratzen duen hizkuntzan erantzutera alegia. Baina langile gutxi batzuegan euskaraldiak eragin du eta proaktibotasunera jo dute gainerako lankide euskaldunei euskaraz hitz eginez.*

(Araba/Industria-enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Costumbre. En los externos es más fácil coger la costumbre de empezar siempre en euskera, pero entre nosotras estamos acostumbradas a hablar en castellano, y es difícil cambiar la costumbre*

(Bizkaia/Zerbitzu-enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Egunerokotasunean gutxi, dagoeneko beraiek euskaraz egiten dutelako. Baina nabaritu dute zenbait bezerotan lehen hitza erdaraz egin ordez euskaraz egiten saiatu direla*

(Gipuzkoa/Merkataritza/3.gune soziolinguistikoa)

*Sí, sobre todo en los 15 días que dura, que la gente se anima más. Luengo como que vuelves un poco a lo de antes*

(Bizkaia/Elkarteak/2.gune soziolinguistikoa)

*Behin Euskaraldia pasa eta kartelak kentzean berriro erdarara jotzen dela uste dut. Horregatik nik urte osoa zehar lanean txapa eramaten dut gogorazteko*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/2.gune soziolinguistikoa)

*Berriz jarraitzen dugu, kanporantz euskara bai erabiltzen dela, baina barruan ez.*

(Araba/Administrazio publikoa/2.gune soziolinguistikoa)

*Gure zerbitzuan euskaldun ahobizi garen gehienon artean harremanetarako hizkuntza euskara da daborduko (beste kontu bat da lan-hizkuntza...). Normalean euskara erabiltzen ez dutenak, ordea, Euskaraldian zehar ahalegintzen dira euskaraz egiten, baina behin Euskaraldia amaituta, betiko ohiturak berreskuratzen ditugu. Bada arriskurik baliabide den Euskaraldia helburu bihurtzeko.*

(Bizkaia/Administrazio publikoa/2.gune soziolinguistikoa)

*Oro har, lehendik ere arigune ziren taldeetan, eutsi egin zaio lehengo dinamikari, hau da, arigune izaten jarraitu dute. Ariketara begira arigune izatea adostu zutenen artean, batzuetan lortu da ahobizi-belarriprest rola ondo betetzea, baina gehienetan ez da erabileran jautzirik antzeman. Lanketa jarraiagoa eskatzen du gaiak (pertsonez pertsonakoa eta talde mailakoa), unea iritsita, rol horiek berme gehiagorekin aktibatu daitezke. Zentzu horretan, Covid-19a dela eta ez da hainbesteko lanik egin bertatik bertara, eta horrek eragina izan du*

(Gipuzkoa/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

*Ariguneetan euskararen erabilera erabatekoa izan da, esan bezala, gure ohiko hizkuntza baita. Halere, ahobizi moduan, beste eremu batzuetan zailtasun batzuk bai partekatu genituen. Lehen hitza euskaraz beti ematea da bat (aurreiritziak tarteko, kosta egiten da giro erdaldunagoetan murgiltzerakoan, lehen hitza euskaraz ematea) eta erdaraz egiteko ohitura oso errotuta dagoenean, hizkuntza aldaketa hori egitea. Kasu guztietan euskaraldiaren eragina positiboa da, baina ahobizi rolean aritu ginen guztiok ez genion berdinean eutsi izan (zer esanik ez aurtengo zailtasun gehigarria: pandemiari lotutako sozializatzeko mugak)*

(Araba/Gizarte mugimenduak/4.gune soziolinguistikoa)

Batzuen inpresioa da Euskaraldiaren lehen edizioaren eragina nabaritu zutela, baina 2020koa arinagoa izan dela, edo ez dela aurrekoaren mailara iritsi.

*Orain dela 2 urtekoa enpresan asko nabaritu zen bezala, aurtengoa pixka bat oihartzunik gabe pasa da. Jendeak aurten, zuzendaritzatik hasita, burua ez zuen honetan. Langileei mezua bidali zitzaien parte hartzeko baina ia erantzunik ez zen jaso. Azken momentuan arigune bat sortu genuen bulegoan gauden hiruren artean. Aurtengoan ez dugu aprobe txatu aurreko edizioan bezala*

(EAE\_Industriako enpresak)

*Inpresioa daukat nolabaiteko topea egin dugula. Tope hori seguraski lehenengo euskaraldian egin genuen. Hor euskaraz hitz egin nahi dugunok, deskubritu genuen egunean lasai ahal genuela egin nahiz eta beste batzuk ez egin gure aurrean. Askatasun, lasaitasun hori irabazita daukagu. Lehen ohituraz erdaldun bat baldin bazegoen tartean ez zen euskaraz egiten batzarretan,... Hitz egiten hasterakoan konturatu ginen bazegoela jendea ez duena euskaraz egiten baina bai ulertzen duena eta ez dagoela inolako arazorik berari euskaraz egiteko. Hori kontsolidatu egin da. Batzar batzuetan ariguneak sortu ditugu, ni nago euskaraz egiten eta besteak erdaraz erantzungo dit, baina behintzat aske sentitzen naiz euskaraz egiteko. Tope hori jo dugu eta ez dut ikusi beste aurrerapausorik egin dugunik*

(EAE\_Industriako enpresak)

Elkarrizketa elebidunak normalizatu izana edo lehen hitza euskaraz egitearen ondorioz hainbat elkarrizketa euskaraz hasi izana nabarmendu dituzte, besteak beste, Euskaraldiaren eragin modura.

*Euskara-gaztelania elkarrizketak izan da aldaketa nagusia eta jarraitzen dugu horrelako batzuk egiten*

(Araba/Administrazio publikoa/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraz mintzatzeko ohitura oso zabaldua ez dagoelako. Nahiz eta euskaraz hasi elkarrizketek ez zuten irauten behar beste. Horrela izanda ere, badugu asmorik honekin jarraitzeko*

(Araba/Enpresa txikiak/2.gune soziolinguistikoa)

*Bazegoelako jendea ez zuela gurekin euskaraz hitz egiteko ohitura eta gure lehenengo hitza euskaraz dela ikustean, euskaraz jarraitzen du.*

(Bizkaia/Zerbitzu enpresak/3.gune soziolinguistikoa)



Batzuek azpimarratu dute gai informalez erosoago aritu direla, baina teknikoagoak direnak joratzeko zailtasun handiagoak izan dituztela euskaraz.

*Kasu batzuetan euskaraz aritzeko aurre-joera hori galdu egin da gai teknikoagoak edo sakonagoak joratu behar zirenean*

(Bizkaia/Zerbitzu-enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Jendeak gazteleraz nahiago duelako hitzegin finantzia gaietaz.*

(Gipuzkoa/Zerbitzu-enpresak/2.gune soziolinguistikoa)

*Como ya he comentado cuando la comunicación es más de andar por casa, más coloquial ha resultado más fácil, pero cuando teníamos que tratar temas de informes, puesta a punto de la tienda, ofertas.....para cada sección y para el equipo ha costado más, pues no estamos familiarizados con algunos términos en euskera*

(Bizkaia/Zerbitzu-enpresak/4.gune soziolinguistikoa)


Egoitza edo establezimendu-motaren arabera Euskaraldia ariketak izan duen eragina aztertzeko, hiru momentuetako bakoitzean —Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren— elkarrizketa guztiak edo gehienak euskaraz izan dituztenen pisua alderatu da, hiru egoera ezberdinetan: ariguneetako kideen artean, ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen artean eta entitateko kideak ez direnekin hartu-emanean edo herritarrak artatzerakoan.

### C. Ariguneetako kideen artean, enfitate motaren arabera

Eraginik handiena industriako enpresetan izan da, Euskaraldiaren aurreko erabilera eta ondorengoa alderatuta, hamar puntukoa izan baita egoera. Zerbitzu-establezimenduetan eta administrazio publikoan bost eta sei puntuko igoera izan da, hurrenez hurren. Administrazio publikoan azpimarratu behar da Euskaraldian zehar igoerarik handiena izan duela euskararen erabileran, baina jaitsiera handiena ere bai, ondoren.

107. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— EAEko ariguneetako kideen artean, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Nahiko parekoa izan da Euskaraldiaren eragina harreman formaletan eta informaletan. Alderik handiena industria-enpresetan antzematen da, harreman informalean alde: lautik hiruk adierazi dute Euskaraldiak eragina izan duela harreman informalean, hamarretik seik formalean.

108. grafikoa

**Zein harreman-motatan areagotu den euskararen erabilera Euskaraldiaren eraginez —  
baiezko erantzunak— (EAE) (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

#### D. Ariguneetako kideak entitateko gainontzeko kideekin, entitate-motaren arabera

Kasu honetan ere industrian antzematen da aurrerapenik handiena, hamasei puntukoa. Administrazio publikoan sei puntukoa da, eta ez dago hainbesteko alderik Euskaraldian zehar lortutako erabilera-mailaren eta ondoren mantendutakoaren artean.

109. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— EAeko ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen artean, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

## E. Entitateko kideak ez direnekin hartu-emanen edo herritarrak artatzerakoan, entitate motaren arabera

Kanpo harremanetan administrazio publikoetan lortu dute aldaketarik handiena, bost puntukoa. Ia launa puntukoa lortu dute industrian eta zerbitzu-establezimenduetan. Azken horietan jaitziera handiagoa izan da Euskaraldian zehar lortutako erabilera-mailatik Euskaraldiaren ondorengo egoerara.

110. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— entitateko kide ez direnekin eta herritarrak artatzerakoan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (EAE) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldian parte hartu duten beste entitateekin eta, batez ere, herritar, bezero eta bazkideekiko harremanean areagotu da euskararen erabilera, Euskaraldiaren eraginez. Hamalau puntuko aldea dago administrazio publikoan, herritarrekiko harremanaren alde.

111. grafikoa

**Zein harreman-motatan areagotu den euskararen erabilera Euskaraldiaren eraginez —  
baiezko erantzunak— (EAE) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

## F. Bestelako onurak

Euskararen erabilerari bultzada emateaz harago, Euskaraldiak bestelako onurak ere eragin dizkiela adierari dute hainbat entitatetan (gizarte erantzukizuna, irudi soziala...). Egoitza eta establezimenduen erdiek baino gehiagok baieztatu dute eragin nahikoa edo handia izan duela Euskaraldiak, zentzu horretan.

112. grafikoa

**EAEko egoitzei edo establezimenduei Euskaraldian parte-hartzeak zenbateraino eragin duen bestelako onurarik (gizarte erantzukizuna, irudi soziala...) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## B.2.6 Aurrera begira

### A. Zenbateraino eutsiko zaion etorkizunean

Orokorrean, egoitza eta establezimenduen erdietan uste dute Euskaraldiak sortutako hizkuntza-dinamikak etorkizunean mantendu egingo direla. Zerbitzu-establezimenduetan baikorragoak dira (% 61) administrazio publikoan baino (% 36).

113. grafikoa

**EAEko egoitzetan edo establezimenduetan Euskaraldiaren eraginez sortu diren hizkuntza-dinamika berriak etorkizunean mantenduko diren edo ez (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.




## B. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak

Egoitza eta establezimenduen % 22tan konturatu dira asko dagoela egiteko, eta Euskaraldiari jarraipena emanez, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartuko dituzte etorkizunean. Industriako egoitza eta establezimenduen herenek eman dute erantzun hori, eta zerbitzu-establezimenduen laurdenek, ia.

114. grafikoa

**Euskaraldiari jarraipena emanez, EAEko entitateetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzen jarraituko duten (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

### C. Hurrengo edizioan parte hartzeko asmoa

Egoitza eta establezimendu gehien-gehienetan segurtasun handiz esaten dute Euskaraldiaren 3.edizioan parte hartuko luketela. Ez dakitela adierazi dute zerbitzu-establezimenduen eta hezkuntzako egoitzen % 5etan.

115. grafikoa

**EAEko egoitza edo establezimenduek Euskaraldiaren 3.edizio batean parte hartuko luketen edo ez (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren hurrengo edizioan parte hartzeko asmoa nahiko orokorra da, nahiz eta arrazoiak desberdinak izan. Batzuek oso positibotzat dutelako Euskaraldia dinamikaren planteamendua, balioa aitortzen diotelako. Beste batzuek jarraipena behar duela uste dutelako, ez delako nahikoa, euren ikuspuntutik. Eta beste batzuek, euskararen inguruko gainerako ekimenetan parte hartzen duten bezala, ez dutelako Euskaraldian ez parte-hartzea irudikatzen.

*Bultzada bat delako, jendea adi dago, txapak eta kartelak ikusten ditu eta animatzen dira euskaraz egitera.*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Euskara ulertzen ez duen jendearekin harremana izaten dugu maiz, eta Euskaraldiko jarrera urte osoan zehar aplikatzen ahalegintzen gara.*

(Gipuzkoa/Gizarte mugimenduak/3.gune soziolinguistikoa)

*Talde gero eta handiago baten partaideak sentiarazten gaitu. Ez gaudela bakarrik zeregin honetan...nahiz eta oraindik gutxi izan gizarte mailan*

(Bizkaia/Administrazioa eta hezkuntza/4.gune soziolinguistikoa)

*Ilusioz ari da jendea eta Euskara Batzordea hori bultzatzeko ekintzak egitera konprometitu da 2021. urtean ere*

(Gipuzkoa/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraldia ez da Otik 100erako aldaketa bat... Laguntzen du, baina agian helburu anbizioso samarra da, hizkuntza ohiturak irauli 15 egunetan... hori askotxo da. Balio du jarrera batzuei bultzada bat emateko, posible dela ikusteko, baina ez esateko honekin dena egin dugula, ibilbide bat da*

(EAE\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Bai, dudarik gabe. Beti saiatzen naiz euskararen aldeko gauzetan parte hartzen*

(Gipuzkoa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Hombre, claro. Bai, denetan parte hartzen dugu, Euskararen eguna, Korrika, Euskaraldia... hor gaude beti*

(Gipuzkoa/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

## B.2.7 COVID-19aren eragina

Orokorrean, egoitza eta establezimenduen erdietan, gutxi gorabehera, COVID-19ak hainbat zentzutan asko edo nahikoa eragin diela baieztatu dute. Batez ere, entitateko kideen parte-hartzean eta ariguneak antolatzeke lanean antzeman dute eragin hori. Administrazio publikoko egoitzetan adierazi dute herritarrekiko harremanean eragin asko izan duela (% 50) eta industrian, ariguneetako partaideen arteko harremanetan (% 50).

132. taula

**COVID-19ak nola eragin duen EAEko egoitza eta establezimenduen parte-hartzean (%)**

		Zerbitzu enpresak (+enpresa txikiak eta establezimenduak)	Industria enpresak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkartek eta Hedabideak	Guztira
Ariguneak antolatzerakoan	Asko	12,9	38,3	43,3	27,2	35,0	25,6
	Nahikoa	23,9	27,6	13,8	34,2	21,7	24,2
	Gutxi	24,5	25,1	15,8	15,2	20,1	21,8
	Batere ez	24,7	9,0	20,5	14,5	18,3	19,6
	Ez dakit	14,0	0,0	6,6	8,9	4,9	8,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ariguneetako partaideen barne-harremanetan	Asko	13,1	49,7	26,5	31,7	31,6	25,6
	Nahikoa	19,2	25,2	18,2	26,8	24,9	22,1
	Gutxi	28,9	15,5	31,8	14,3	18,4	23,4
	Batere ez	24,1	9,6	16,9	20,2	17,7	19,6
	Ez dakit	14,6	0,0	6,6	7,0	7,4	9,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herritar, bezero edo bazkideekiko harremanetan	Asko	17,8	33,7	49,6	29,7	35,1	28,0
	Nahikoa	24,7	20,9	18,1	38,4	34,7	27,2
	Gutxi	26,4	19,6	19,6	7,8	12,8	19,8
	Batere ez	19,6	13,9	1,6	17,0	11,4	15,1
	Ez dakit	11,5	12,0	11,2	7,0	6,0	9,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Entitateko kideek Euskaraldian parte hartzerakoan	Asko	14,8	37,1	43,3	20,2	27,4	23,9
	Nahikoa	22,2	29,4	11,6	46,5	28,3	26,3
	Gutxi	27,4	25,7	22,9	10,7	23,6	24,0
	Batere ez	22,3	5,4	9,1	6,6	12,4	14,8
	Ez dakit	13,4	2,4	13,2	16,0	8,3	11,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

*Aurten ezin izan dugu ekitaldirik egin betiko moduan pandemiagatik, harremanak txikiagoak izan dira*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Ez du eragin handia izan, baina pandemiagatik izan da, azkenean harremanak oso mugatuak egon dira*

(Araba/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Aurten berezia izan da, aurrekoan gehiago ibili ginen kalean, harreman gehiago izatearekin eta txapak kalean ikustearekin lotzen dut Euskaraldia*

(Bizkaia/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Pandemiagatik zailtasunak izan ditugu Euskaraldia aurrera eramateko, azkenean aforo kontuak etab. Baina oso beharrezkoa da Trebiñon gauza hauek egitea, guk lagunduko dugu*

(Araba/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Ez da urte erreza izan ezer egiteko pandemia egoeragatik. Ez jarduerak antolatzeke, ez besteak parte hartzerantz animatzeko...konplikatua izan da*

(Araba/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Pandemiaren kontu honekin kontuz ibili behar gara, seguru eragina izan duela, eragin psikologikoa. Baina ariketa honetarako ez da hain erabakigarria. Sakon hausnartu behar da ea benetan noraino izan duen eragina pandemiak edo nobedade ez izate horrek eragin duen edo*

(EAE/Administrazioa eta hezkuntza)

*Euskaraldi honetan entitate, industria mailan, eta beste leku askotan bezala, langileen ahalegina baloratu behar dela. Euskaraldia baino erronka potoloagoa zuten. Pandemiaren erdian hainbat lantokitako egoerarekin euskaraldiari aurre egitea, agian txikikeria ematen zuen. Giro orokor hori ezin da alde batera utzi*

(EAE/Industria)

*Aurreko edizioarekin alderatuta kalean ez da presentzia berdina egon. Hortik abiatuta, ezin emaitza berdinak lortu. Bigarren saiakera izanik, pandemiarik izango ez balitz ere, agian ez zen lortuko horrelako oihartzunik edo, ez dakit. Egoera honetan behintzat ez da erraza izan kalean hori mantentzea edo indartzea*

(EAE/Elkarteak eta komunikazioa)

*Covid egoeraren aurrean Euskaraldiaren ariketa aurrera eramatea txalotzekoa iruditzen zait. Eusko Jaurlaritza eta Topagunea ausartak izan direla uste dut.*

(EAE/Zerbitzu-emaileak eta zerbitzu-enpresak)

*Batetik, bertan behera utzi behar izan ditugu arigune batzuk, kafe-lagunez osatutakoak hain zuzen ere. Holako hiru arigune genituen aurreikusita baina Euskaraldi-egunetan tabernak itxita egon zirenez, langile horiek ez ziren batu atsedean-orduan.*

*Eta bestetik, oraingo Euskaraldiak aurrekoak baino askoz ere zarata eta mugimendua gutxiago eragin izanak kalean (ezinbestean) edizio honi kalte egin diola uste dut, gure erakunde behintzat*

(Bizkaia/Administrazioa eta hezkuntza/3.gune soziolinguistikoa)

*Garai txarrak dira hauek inguru hauetan jendeari hori eskatzeko. Ez da inondik ere lehentasuntzat sumatu aldaketa hori planteatzea (...) Uneak oso garrantzitsuak dira bizitzan. Une egokia topatu eta aurrera. Oraingoak, nik uste, ez da horrelakorik suertatu.*

(Bizkaia\_Hezkuntza\_2.gune soziolinguistikoa)

*Aurtengo euskaraldia nahiko grisa izan da egoerarengatik, aurreko lanketa ere ezin izan da ganoraz egin eta euskaraldia bera ere ez da aurrekoa bezain indartsu bizi izan. Aurrekoan aldaketa bat ekarri zuen bezala pasa ondoren, honetan ez dugu ikusten ohiturak aldatzea ekarri duenik*

(Gipuzkoa/Industria-enpresak/3.gune soziolinguistikoa)

## B.2.8 Entitateen joerak

Norbanakoen kasuan egin bezala, atal honen helburua da Euskaraldian parte hartzen duten entitateetan sakontzea: batetik, arigune-mota bakoitza sortzen duten entitateen ezaugarri bereizgarriak zein diren azalduko da; eta bestetik, Euskaraldiak haien hizkuntza-ohituratan izan duen eragina zein izan den.

Atal honetan nabarmenduko dena ez da zein den arigune-mota bakoitzak erakarri duen gehingoaren profila, baizik eta besteekin alderatuta, zein diren bereziki erakartzen dituen ezaugarriak (entitate-mota, lurraldea, egoitzaren tamaina, etab.). Horiek besteekiko pisu nabarmena dutelako nabarmentzen dira, ez pisu handiena dutelako – nahiz eta batzuetan bat egiten duten –.

### A. Ariguneak sortzeko joerak

#### Barne-ariguneak bakarrik

##### *Karakterizazioa*

- Egoitza ertain-handiak, industria-sektorekoak edo hezkuntzakoak.
- 2.gune soziolinguistikoa eta bereziki Bizkaian.
- Antolakuntzarekiko harremanik izan badute, koordinazio orokorrarekin izan dute.

##### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Erabilera handitzeko helburua dute, barne-harremanetan batez ere.
- Erdiek gutxienez badakite euskaraz, baina kasu askotan gehiena gaztelaniaz egiten dute.

Barne-ariguneak bakarrik sortu dituztenak enpresa ertainak dira, batez ere, koordinazio orokorrarekin harremana izan dutenak eta inguru nahiko erdaldunetan kokatutakoak.

Entitate-mota kontuan hartzen badugu, ikerketan zehar ikusi da industria-sektoreak, bereziki, baduela barne-erabilera bultzatzeko nahia eta beharra. Indar handia jarri da horretan, eta hain zuzen, aldaketa hori bultzatzeko kanpo-aholkularitzara gehien jo duen entitate-mota izan da. Hezkuntza arloan, aldiz, euskararen eremu 'natural' bat izaki, non gehien-gehienetan euskara den lan-hizkuntza, modu naturalean sortu dira barne-arigune hauek, eta horregatik jo dute arigune-mota hauek sortzera.

Esan bezala, entitate ertain-handiak dira bereziki, eta horiek, oro har, harreman handiagoa izan dute Koordinazio Orokorrarekin. Herri batzordeek, antza, indar handiagoa jarri dute herriko establezimenduengana edota gizarte eragileengana iristen.

Azkenik, Bizkaiko 2. gune soziolinguistikoko entitateak izanik, nahiko gune erdaldunetakoak, alegia, beharbada entitateko euskaldunak izan dira aurrerapausoa eman dutenak haien artean barne-origunea sortzeko, eta hala, entitatean euskarak duen presentzia areagotzeko. Izan ere, erdiek gutxienez badakite euskaraz, baina haien artean gaztelania da nagusi.



## Kanpo-ariguneak bakarrik

### *Karakterizazioa*

- Zerbitzuetako enpresa txikiak.
- 2.gune soziolinguistikoan, Araban eta Bizkaian.
- Tokian tokiko herri-batzordeekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Kanpo harremanetan erabilera areagotu nahi dute, batez ere. Baina kasu askotan ez dakite arrazoiak zein den esaten.
- Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta dena edo ia dena gaztelaniaz egiten dute.

Kanpo-ariguneak bakarrik sortu dituztenak zerbitzu-establezimendu txikiak dira, herri-batzordeekin harremana izan dutenak eta inguruko nahiko erdaldunetan kokatutakoak.

Herritarrekin harreman zuzena duten entitateek, hau da, haientzat zuzeneko zerbitzua eskaintzen dutenek sortu dituzte, bereziki, kanpo-ariguneak. Herritarrekiko duten gertutasunagatik herri-batzordeekin harreman zuzenena izan duten entitate-motak dira, tokian tokiko lantaldeek gehien landu dituztenak.

Haien entitateek eskaintzen duten zerbitzuagatik kanpo-harremanetan jartzen dute indarra, eta beraz, gehiengoak bertan eragin nahi du. Dena den, esanguratsua da, askok, ez dakitela esaten zergatik hartu duten parte, agian, euskararen aldekotasuna adierazteko nahia egon daiteke horren atzean.

Kasu honetan ere, joera argia dago erdiek baino gutxiagok euskaraz dakiten entitateetan eta gaztelaniaz egiteko joera argia adierazten duten artean. Beharbada, askok euskara ulertzen dute, eta herritarrek haiei euskaraz egin diezaieten eskatu nahi dute.

## Biak: barne eta kanpo-arigunea

### *Karakterizazioa*

- Tamaina ertain-txikiko administrazio publikoa eta hedabideak eta gizarte eragileak, oro har.
- 3-4 gune soziolinguistikoan, Gipuzkoan, batez ere.
- Koordinazio orokorarekin zein herri-batzordeekin, biek in izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arazoak*

- Euskararen erabilera kanpoan zein barnean, bietan areagotu nahi dute. Hala ere, euskararen aldeko konpromisoa adierazteak pisu handia du haientzat.
- Gehienek euskaraz dakite eta gehiena euskaraz egin ohi dute.

Bi arigune motak sortu dituztenak inguru oso edo nahiko euskaldunetako egoitzak dira, koordinazio orokorarekin zein herri-batzordeekin harremana izan dutenak, eta, batez ere, administrazio publikoarekin edo gizarte mugimenduekin lotutakoak.

Barne-ariguneak zein kanpo-ariguneak, biak sortu diren entitateetan egoerak, entitate barnekoak zein ingurukoak, ahalbidetzen eta errazten die, askotan ia oztoporik gabe, barneko nahiz kanpoko harremanak euskaraz izatea.

Euskara lan- eta harreman-hizkuntza duten entitateak dira –gehienek euskaraz dakite eta ia dena euskaraz egiten dute–, eta beraz, agian, modu nahiko 'naturalean' eman dute izena Euskaraldian. Hori dela-eta, euskararen aldeko konpromisoa adierazteak ere pisu handia du bi arigune-motak sortu dituztenentzat.

Kasu honetan, badago administrazio publikoa, seguraski Koordinazio Orokorarekin harreman zuzena izan duena, baita herri ekimena ere, hedabideak eta elkartegintza, batik bat, agian, herri izaeratik herri-batzordearekin lotura zuzenagoa izan dutenak.

## Zer arigune mota sortu duten ez dakitenak

### *Karakterizazioa*

- Zerbitzuetako establezimendu txikiak.
- 3-4 gune soziolinguistikoetan eta Bizkaian.
- Ez dute harremanik izan edo ez dakite harremanik izan duten.

### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Kanpo-harremanetan, edo, oro har, kanpoan zein barruan erabilera handitzea dute helburutzat. Dena den, zergatik parte hartu duten ez dakitenek ere pisu handia dute.
- Pisu handia dute euskara entitateko inork ez edo ia inork ez dakiela diotenenk.
- Barnean dena edo ia dena gaztelaniaz egiten dutenak dira, batez ere.

Zer arigune-mota sortu duten ez dakitenak, nagusiki zerbitzuetako establezimendu txikiak izan dira, herri oso edo nahiko euskaldunetakoak eta bereziki, bizkaitarrak. Antolakuntza-mailan ez dute harreman zuzenik izan, edo izan badute ere, ez dakite norekin izan den.

Esanguratsua da EAEn zer arigune-mota sortu duten ez dakiten entitateen kopurua. Joera nahiko argia izan da, bereziki, Euskaraldiaren antolaketan parte hartu dutenekin harremanik izan ez dutenen artean. Agian, Euskaraldian izena eman nahi zutelako baina ariguneen funtzionamenduaren nondik norakoen berri ez zutelako.

Kanpo-harremanetan edo kanpoan zein barruan euskararen erabilera handitzea dute helburu, beraz, agian uler daiteke gizartean euskararen presentzia handitzea nahi dutela, orokorrean. Eta horrekin lotu daiteke euskaraz dakitenak entitate horietako gutxi edo ia inor ez izatea; euskararen aldekatasunaren adierazle izan liteke: haiek ez jakin arren, dakitenek gehiago egitera animatzea.

## B. Entitateetan Euskaraldian izan duen eragina.

### Euskaraldian zehar eta gero ere bai

#### *Karakterizazioa*

- Administrazio, zerbitzu eta enpresa txikiak.
- 3.gune soziolinguistikoan eta, batez ere, Bizkaian.
- Bi arigune-motak sortu dituzte.
- Herri batzordeekin izan dute harremana.

#### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Erabilera handitzeari eta aldeko konpromisoa adierazteari, bi arrazoiei ematen diete garrantzia; eta barnean zein kanpoan, bietan bultzatu nahi dute erabilera.
- Gehiena euskaraz dakite eta gehiena euskaraz egiten dute.
- Behar besteko ahalegin egin dutela uste dute.
- Nahiko erraza egin zaie barne-arigunearen ariketa, baina oso zaila kanpo-arigunearena.

Euskaraldian zehar eta gero ere eragina nabaritu dutenak egoitza txikiak dira, establezimendu, enpresa eta administrazioko zerbitzuak, inguru nahiko euskaldunean kokatuak, 3.gune soziolinguistikoan, eta bereziki, Bizkaian. Tokian tokiko herri-batzordeekin izan dute harremana eta bi arigune-motak sortu dituzte.

Parte hartzeko arrazoiak aztertuta, joera handiena dute aldeko konpromisoa adieraztea eta erabilera areagotzea —barruan zein kanpoan— maila berean dutenen artean. Gehienek euskaraz dakite eta gehiena euskaraz egiten da; ondorioz, barne-arigunearen ariketa nahiko erraza iruditu zaie. Kanpo-arigunearen ariketa, berriz, zaila iruditu zaie. Behar besteko ahalegina egin dutela uste dute, eta ahalegin horrek badirudi emaitzak eman dituela.

## Euskaraldian zehar bai, baina gero ez

### *Karakterizazioa*

- Industria-enpresa handiak.
- 2.gune soziolinguistikoan eta, batez ere, Araban.
- Kanpo-ariguneak sortu dituzte.
- Koordinazio orokorrarekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Barne-harremanetan areagotu nahi izan dute euskararen erabilera, baina kasu askotan ez dakite arrazoiak zein den esaten.
- Erdiek edo erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta, oro har, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egiten dute.
- Ahalegina egin dutela diote, baina ez dela behar adinakoa izan.
- Nahiko zaila iruditzen zaie ariketa, bai barnekoa baita kanpora begirakoa ere.

Batzuek Euskaraldian zehar nabaritu dute eragina, baina gerora ez, ordea. Industria-enpresa handiak dira, batez ere, inguru nahiko erdaldunean kokatuak, 2.gune soziolinguistikoan eta Araban, bereziki. Euskaraldiko koordinazio orokorrarekin dute harremana eta kanpo-ariguneak sortu dituzte, gehienbat.

Nahiz eta kanpo-ariguneak sortzeko joera nabarmena izan, barne-harremanetan eragin nahi izan dute, batez ere. Seguraski euskararen ezagutzarekin zerikusia izango du horrek: erdiek dakite euskaraz, eta gaztelania bezain beste erabili ohi dute. Ahalegina egin dutela diote, baina ez behar adinakoa; ariketaren nondik norakoak gutxi landu izanak, agian, lotura zuzena izan dezake ariketa nahiko zaila iruditzearekin, baita eragina epe motzekoa izatearekin ere. Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi badira, epe luzeko lanketa behar izango da.

## Erabilera ez da areagotu

### *Karakterizazioa*

- Industria enpresa txikiak.
- 2.gune soziolinguistikoan eta, batez ere, Araban.
- Barne-ariguneak sortu dituzte.
- Ez dute harreman zuzenik izan edo ez dakite.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Bietan areagotu nahi dute erabilera, barne zein kanpo-ariguneetan. Hala ere, kasu askotan ez dakite arrazoa zein den.
- Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta gehien-gehiena gaztelaniaz egin ohi dute.
- Onartzen dute ez dutela ahaleginik egin.
- Zaila iruditu zaie ariketa egitea, batez ere, kanpo-ariguneari dagokionez.

Euskaraldiak eurentzat eraginik izan ez duela diotenen kasuan ere, 2.gune soziolinguistikoan eta Araban kokatutako industria-enpresak nabarmentzen dira. Baina kasu honetan, txikiak, eta antolakuntzarekiko harreman handirik izan ez dutenak.

Izena emateko arrazoa zein izan den zehazten. Gutxiengoa da euskaraz dakiena eta dena edo ia dena gaztelaniaz egin ohi dute. Onartzen dute ez dutela ahaleginik egin, eta iruditzen zaie ariketa zaila izan dela, barne-arigunearekin lotutakoa, batez ere.

Kasu honetan ere, egindako ahalegina, eragina eta zailtasuna, zuzen-zuzenean lotuta doaz. Gainera, ariketan izena emateko zergatia zehazten ez jakiteak ere nolabaiteko lotura izan dezake, baita ere, euskararen erabilera ez areagotu izanarekin.

## **Ez du eraginik izan euskara nagusi delako, bestela ere**

### *Karakterizazioa*

- Gizarte mugimenduak eta hezkuntzako egoitza handiak.
- 3-4 gune soziolinguistikoetan eta Gipuzkoan.
- Barne-ariguneak edo bi arigune-motak sortu dituzte.
- Koordinazio orokorrarekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Aldeko konpromisoa adierazteko arrazoiak hartzen du pisurik handiena.
- Kanpo harremanetan areagotu nahi dute erabilera, batez ere.
- Gehien-gehienek dakite euskaraz.
- Ahalegin txikia egin dute.
- Oso erraza iruditu zaie, gehienetan.

Batzuek uste dute Euskaraldiak ez duela eraginik izan, bestela ere euskara nagusi delako euren egoitzan. Koordinazio orokorrarekin harremana izan dute, bereziki, eta bi arigune-motak sortu dituzten egoitza handiak nabarmentzen dira, gizarte mugimenduetakoak eta hezkuntzakoak, ingurune nahiko edo oso euskaldunean kokatuak —3-4 gune soziolinguistikoak—, Gipuzkoan batez ere.

Euren egunerokoan euskara berezkoa dutenentzat aldeko konpromisoa adierazteko arrazoiak garrantzi handia du, modu 'naturalean' parte hartzen baitute. Denek edo ia denek euskaraz dakite eta dena edo gehiena euskaraz egiten dute, beraz, ahalegin txikia egin behar izan dute parte hartzeko, eta noski, erraza iruditu zaie. Aipagarria da, oro har, euskara nagusi izateagatik Euskaraldiaren eraginik izan ez dutenek izan dutela pisu handiena Euskal Autonomia Erkidegoan.

## Ez dakite eragina izan duen ala ez

### *Karakterizazioa*

- Hezkuntzako egoitza handiak.
- 2.gune soziolinguistikoan eta Araban, batez ere.
- Kanpo-ariguneak sortu dituzte.
- Herri batzordeekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Kanpoan zein barnean euskararen erabilera handitzeak du pisu handiena entitate hauen artean.
- Entitate gehienetan euskaraz hitz egiteko gaitasuna ez du ia inork.
- Barnean gehiengoa gaztelaniaz egiten da, eta kanpoan, aldiz, dena edo ia dena euskaraz.
- Ahaleginik ez dute egin.
- Ariketa barnean egitea oso zaila izan zaie; kanpoan, aldiz, ez erraza, ez zaila.

Euskaraldiak zein neurritan eragin duen ez dakitenak, bereziki hezkuntzako egoitza handiak dira. Herri nahiko erdaldunetan kokatuta daude, bereziki, 2. Gune soziolinguistikoan eta Araban. Herri batzordeekin izan dute harremana, nagusiki, eta kanpo-ariguneak sortzeko joera handiagoa erakutsi dute.

Entitate hauen artean erabilera kanpoan zein barnean handitzeak du pisu handien. Entitate gehienetan euskaraz hitz egiteko gaitasuna ez du ia inork, eta beraz, gaztelaniaz egiten da barne-harremanetan. Kanpoan, aldiz, den aedo ia dena euskaraz egiten dute, eta beraz, kanpo-ariguneak sortzeko joera izateak honekin izan dezake lotura. Kasu honetan ere, Euskaraldian parte-hartzea sustatzeko ez dute ahaleginik egin. Aurreko ohiturekin dute lotura emaitzek ere: barnean oso zaila izan da ariketa egitea, bertan gaztelaniaz egiten baita nagusiki; eta kanpoan, aldiz, ez erraza, ez zaila, den aedo ia dena hizkuntza horretan egiten baizuten aurretik ere.



### C. Laburpen-etaulak: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

#### Karakterizazioa

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Biak: barne- eta kanpo-ariguneak	Ez dakit
Entitate-mota	Industria-entresak Hezkuntza	Zerbitzuak	Administrazio publikoa Hedabideak	Zerbitzuak
Tamaina	51 kide baino gehiago	5 baino gutxiago	5-10 kide 11-50 kide	5 baino gutxiago
Komunikazioa	Harreman zuzenik ez Koordinazio Orokorrarekin	Herri batzordearekin	Koordinazio orokorrarekin Herri batzordeekin	Ez dakite Harremanik ez
GSL	2. gune SL	2. gune SL	3. gune SL 4. gune SL	3. gune SL 4. gune SL
Lurraldea	Bizkaia	Araba Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia

#### Parte hartzeko arrazoiak

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Biak: barne- eta kanpo-ariguneak	Ez dakit
Arrazoia	Erabilera handitzea	Ez dakite zergatik	Aldeko konpromisoa Biak maila berean	Erabilera handitzea Ez dakite zergatik
Non bultzatu erabilera?	Barne-harremanetan	Kanpo-harremanetan	Bietan	Kanpo-harremanetan Bietan
Euskara-ezagutza	Erdiek Erdiek baino gehiagok	Erdiek baino gutxiagok	Denek edo ia denek Gehienek Pisu adierazgarria dute inork ez edo ia inork ez diotenek.	Inork ez edo ia inork ez
Euskara-erabilera	Gehiena gaztelaniaz Gehiena euskaraz	Dena edo ia dena gaztelaniaz	Barnean zein kanpoan: Dena edo ia dena euskaraz Gehiena euskaraz Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	Barne: Dena edo ia dena gaztelaniaz. Kanpo: Denetarik.


## Eragina

### Karakterizazioa

	<b>Bai, Euskaraldian zehar eta gero ere bai</b>	<b>Bai, Euskaraldian zehar, gero ez</b>	<b>Ez, ez du erabilera areagotu</b>	<b>Ez, euskara nagusi da</b>	<b>Ez dakit</b>
Entitate-mota	Administrazio publikoa Zerbitzuak Industria-entresak	Industria-entresak	Industria-entresak	Gizarte mugimenduak, eragileak, elkarteak... Hezkuntza	Hezkuntza
Tamaina	5 baino gutxiago	151 kide baino gehiago	5-10 kide	101-150 kide	101-150 kide 151 baino gehiago
Komunikazioa	Herri batzordearekin	Koordinazio Orokorrarekin	Harreman zuzenik ez Ez dakite	Koordinazio Orokorrarekin Ez dakite	Harremanik ez Herri batzordearekin
GSL	3. gune SL	2. gune SL	2. gune SL	3. gune SL 4. gune SL	2. gune SL
Lurraldea	Bizkaia	Araba	Araba	Gipuzkoa	Araba
Arigune mota	Biak	Kanpo-ariguneak	Ez dakite Barne-ariguneak	Ez dakite Biak Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak

Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina

		<b>Bai, Euskaraldian zehar eta gero ere bai</b>	<b>Bai, Euskaraldian zehar, gero ez</b>	<b>Ez, ez du erabilera areagotu</b>	<b>Ez, euskara nagusi da</b>	<b>Ez dakit</b>
Arrazoia		Biak maila berean	Ez dakit	Ez dakit	Aldeko konpromisoa	Erabilera handitzea
Non bultzatu erabilera?		Bietan	Barnean	Bietan	Kanpoan	Bietan
Euskara-ezagutza		Denek edo ia denek Inork ez edo ia inork ez	Erdiek Erdiek baino gutxiagok	Erdiek baino gutxiagok Ez dakit	Denek edo ia denek	Inork ez edo ia inork ez
Euskara-erabilera	Barnean	Gehiena euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena euskaraz	Dena gaztelaniaz
	Kanpoan	Gehiena euskaraz		Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena euskaraz	Dena edo ia dena euskaraz
Ahalegina		Bai, behar bestekoa	Bai, baina ez da nahikoa izan	Ez da ahaleginik egin	Ahalegin txikia Ez dakit	Ez da egin
Zailtasuna	Barnean	Nahiko erraza	Nahiko zaila	Oso zaila	Oso erraza Oso zaila	Oso zaila
	Kanpoan	Oso zaila	Nahiko zaila	Nahiko zaila	Oso erraza Oso zaila	Ez erraza, ez zaila



### **4.3. Nafarroa.**

# A atala

## Euskaraldia norbanakoen ikuspegitik


### A.1. NORBANAKOEN UNIBERTSOAZ

#### A.1.1. 2020ko Euskaraldia zenbakitan

Nafarroan 19.539 norbanakok eman dute izena 2020ko Euskaraldian; horietatik, 14.948 ahobizi izan dira (% 76,5), eta beste 4.591 lagunek belarriprest rola hartu dute (% 23,5).

116. grafikoa

2020ko Nafarroako parte-hartzaileak (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2018ko edizioarekin alderatuta (22.334 parte-hartzaile), kopuru absolututan 2.795 norbanako gutxiagok eman dute izena Nafarroan; hau da, % 12,5 jaitsi da parte-hartzea. Joera orokorra (-% 20,9) baino nabarmen gutxiago jaitsi da, eta Nafarroa izan da izen-emate gutxien galdu dituen lurraldea.

Aurreko edizioan ere, ahobizi rola hartu zutenak gehiago izan ziren Nafarroan (16.007; % 71,7) belarriprestak baino (6.327; % 28,3). 2020ko Euskaraldian alde hori handitu egin da termino erlatibotan, baina datu absolututan bi rolek galdu dituzte parte-hartzaileak: ahobiziak % 71,7 izatetik % 76,5 izatera igaro dira, eta 1.059 norbanako galdu dituzte (% 6,6ko jaitsiera); eta belarriprestak, aldiz, % 28,3 izatetik % 23,5 izatera pasa dira, ia parte-hartzaileen herena galduta (1.736; -% 27,4).

133. taula


**2020ko eta 2018ko Nafarroako parte-hartzaileen alderaketa rolaren arabera**

	2018		2020		2018-2020 aldea	
	Kop	%	Kop	%	Kop.	%
Ahobizi	16.007	71,7	14.948	76,5	-1.059	-6,6
Belarriprest	6.327	28,3	4.591	23,5	-1.736	-27,4
<b>Guztira</b>	<b>22.334</b>	<b>100,0</b>	<b>19.539</b>	<b>100,0</b>	<b>-2.795</b>	<b>-12,5</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Izena eman duten herritarren **habitatari**<sup>7</sup> dagokionez, parte-hartze handiena Nafarroako hirigunean (% 45,6) eta landa-eremuan (% 44,9) eman da. Hain zuzen, hiriguneak pisu nabarmena du belarripresten kasuan (% 51,4), eta ahobizien artean, aldiz, landa-eremua nabarmentzen da (% 47,5).

117. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak urbanizazio-mailaren arabera (%)**

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

<sup>7</sup> DEGURBA sailkapena

Nafarroako parte-hartzea ezberdina izan da **eskualdeen** arabera: 19.539 parte-hartzailetik, 9.983k Iruñerrian eman dute izena, eta beste 3.017k, Baztan-Bidasoa eskualdean. Era berean, mila izen-ematetik gora izan dituzte Sakanak (2.176) eta Larraun-Leitzaldeak (1.471).

134. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak eskualdeka (kop.)**

Eskualdea	Parte-hartzaileak guztira
Iruñerria	9.983
Baztan-Bidasoa	3.017
Sakana	2.176
Larraun-Leitzaldea	1.471
Estellerria	965
Pirinioak	466
Erdialdea	382
Izarbeibar-Novenera	328
Zangozeria	249
Pirinioaurrea	244
Erribera	207

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Oro har, ahobizien proportzioa handiagoa izan da belarriprestena baino, baita Nafarroan ere. Hiru eskualdetan % 80tik gora izan da ahobizi: Larraun-Leitzaldean (% 89,2), Baztan-Bidasoan (% 89,1) eta Sakanan (% 81). Kontran, ahobizi proportzio txikieneko eskualdeak Izarbeibar-Novenera (% 63,1), Pirinioaurrea (% 62,3) eta Erribera (% 61,8) izan dira.

135. taula

**Nafarroako eskualdeak 2020ko Euskaraldiko ahobizi proportzioaren arabera (%)**


Eskualdea	Ahobizi proportzioa
Larraun-Leitzaldea	89,2
Baztan-Bidasoa	89,1
Sakana	81,0
Iruñerria	73,3
Pirinioak	69,1
Erdialdea	64,1
Estellerria	64,0
Zangozeria	63,1
Izarbeibar-Novenera	62,8
Pirinioaurrea	62,3
Erribera	61,8

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Nafarroako parte-hartzaileei dagokien **gune soziolinguistikoari** dagokionez, 1.gune soziolinguistikoko herrietan eman du izena bostetik hiruk (% 62,3). Belarripresten kasuan igo egiten da 1.gune soziolinguistikoaren pisua: Nafarroako belarripresten % 76,3ak eman du izena bertan. Ahobizietan, aldiz, 3. eta 4. gune soziolinguistikoaren pisua nabarmen igotzen da (% 21,3 eta % 11,7 dira, hurrenez hurren), 1.gune soziolinguistikoaren kaltetan (% 58,1).

118. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak hautatutako rola-  
ren eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

136. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak hautatutako  
rolaren eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
1. gune soziolinguistikoa	58,1	76,3	62,3
2. gune soziolinguistikoa	8,7	9,0	8,8
3. gune soziolinguistikoa	21,3	11,5	19,0
4. gune soziolinguistikoa	11,7	2,9	9,6
Zehaztu gabe	0,3	0,2	0,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



Ahobizi edo belarriprest rolen arteko proportzioa gune soziolinguistikoaren arabera aztertuta, Nafarroako joera oso argia da: herrietako euskaldunen ehunekoa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta altuagoa da ahobizi rola hautatu dutenen portzentajea, eta baxuagoa, beraz, belarriprestena.

119. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako ahobizi eta belarripresten proportzioak gune soziolinguistikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

137. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak hautatutako rolaen eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
1. gune soziolinguistikoa	71,2	28,8	100,0
2. gune soziolinguistikoa	75,8	24,2	100,0
3. gune soziolinguistikoa	85,8	14,2	100,0
4. gune soziolinguistikoa	92,8	7,2	100,0
Zehaztu gabe	80,4	19,6	100,0
<b>Guztira</b>	<b>76,5</b>	<b>23,5</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Adinari** dagokionez, Nafarroako parte-hartzaile gehienak 16 eta 60 urte bitartean biltzen dira; adin-tarte bakoitzak parte-hartzaileen laurdena baino gehiago hartzen du. Horien artean, baina, 30 eta 44 urte bitarteko nagusitasuna nabaria da. Rolaren artean, aldiz, badaude aldeak:

- Ahobizietan handiagoa da gazteen pisua: 16 eta 29 urte bitartekoena bereziki, baina baita 30 eta 44 urtekoena ere.
- Belarripresten kasuan, igo egiten da 45 urtetik gorakoena pisua.

120. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

138. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak, adinaren eta rolaren arabera (%)**


	16-29 urte	30-44 urte	45-60 urte	>60 urte	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	31,4	36,9	23,1	8,5	0,0	100,0
Belarriprest	14,8	32,9	35,1	17,2	0,1	100,0
<b>Guztira</b>	<b>27,5</b>	<b>36,0</b>	<b>25,9</b>	<b>10,6</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Adina hartutako rolarakin gurutzatuz gero, joera orokorrari jarraiki (% 76,5), adin-tarte guztietan hamarretik zazpi baino gehiagok hartu du ahobizi rola. Dena den, adinaren arabera proportzioak aldatzen doaz: gazteenak ahobiziagoak dira, helduenak baino; hain zuzen, 25 puntuko aldekoa ahobizi rola hartzen duten gazteen eta helduen kasuan duen pisua artean.

121. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako ahobizi eta belarripresten proportzioak adin-tarteka (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

139. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak adinaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

	16-29 urte	30-44 urte	45-60 urte	>60 urte	Zehaztu gabe	Guztira
Ahobizi	87,4	78,5	68,2	61,8	42,9	76,5
Belarriprest	12,6	21,5	31,8	38,2	57,1	23,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nafarroan adin-tarte bakoitzak 2018an izandako pisua 2020an izan duenarekin konparatuta, oro har, esan daiteke datuak nahiko antzekoak direla. Dena den, 45 eta 60 urte bitartekoek pisu erlatibo handiagoa dute; hala ere, igoera oso txikia da, ia anekdotikoa. Kontrarioki, 30-44 urte bitartekoek pisua galdu dute.

140. taula

**2018ko eta 2020ko Nafarroako parte-hartzaileen banaketa adinaren eta lurraldearen arabera (%)**

	Nafarroa	
	2018	2020
16-29 urte	27,5	27,5
30-44 urte	37,7	36,0
45-60 urte	24,4	25,9
>60 urte	10,4	10,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nafarroan, Izarbeibar-Novenera eskualdean izan dute presentzia handiena 16 eta 44 urte bitarteko parte-hartzaileek: hamarretik zazpi baino gehiago adin-tarte horri dagokio. Era berean, Larraun-Leitzaldean izan da 45 urtetik gorakoen presentziarik nabarmenena; bai 45-60 adin-tartearena (% 29,2), baita 60 urtetik gorakoena ere (% 15).

141. taula

**16-44 urtekoen presentzia Nafarroako eskualdeetan (%)**

	16-44 urte
Izarbeibar-Novenera	74,4
Estelleria	66,0
Pirinioaurrea	66,0
Zangozeria	65,9
Iruñerria	65,0
Erribera	63,8
Baztan-Bidasoa	62,9
Erdialdea	62,0
Pirinioak	60,3
Sakana	60,2
Larraun-Leitzaldea	55,8

142. taula

**45-60 urtekoen presentzia Nafarroako eskualdeetan (%)**

	45-60 urte
Larraun-Leitzalde	29,2
Erdialdea	28,3
Erribera	28,0
Sakana	26,5
Iruñerria	26,0
Pirinioak	25,8
Zangozeria	25,7
Pirinioaurrea	25,0
Baztan-Bidasoa	25,0
Estelleria	23,7
Izarbeibar-Novenera	14,9

143. taula


**60 urtetik gorakoen presentzia Nafarroako eskualdeetan (%)**

	>60 urte
Larraun-Leitzalde	15,0
Pirinioak	13,9
Sakana	13,2
Baztan-Bidasoa	12,1
Izarbeibar-Novenera	10,7
Estelleria	10,1
Erdialdea	9,2
Pirinioaurrea	9,0
Iruñerria	8,9
Zangozeria	8,4
Erribera	8,2

Nafarroako parte-hartzaileen adin-piramidean begien bistakoa da emakumezkoen nagusitasuna. Gainera, bereziki esanguratsua da genero honek gazteen artean duen pisua: 16 eta 29 urte bitarte gizonezkoen bikoitza dira.

144. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileen adin-piramidea (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Esan bezala, Nafarroan joera orokorra da emakumezkoak nagusitzea: parte-hartzaile guztien % 61,1 emakumezkoak izan dira, % 38 gizonezkoa, eta % 0,8 ez-binarioa. Esanguratsua da belarripresten kasuan zertxobait igotzen dela gizonezkoen pisua (% 41,6).

145. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

146. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak generoaren eta rolaen arabera (%)**

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Guztira
Ahobizi	62,2	36,9	0,9	100,0
Belarriprest	57,6	41,6	0,7	100,0
<b>Guztira</b>	<b>61,1</b>	<b>38,0</b>	<b>0,8</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

### A.1.2. 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko

Jarraian kalkulatu da Nafarroako unibertso potentzialarekiko zenbatek parte hartu duten edo, beste modu batera esanda, Euskaraldiak zenbateko arrakasta izan duen haiekiko.

Nafarroan dauden 16 urtetik gorako 123.120 euskaldunak eta euskaldun hartzzaileak kontuan hartuta, % 15,9ak eman du izena Euskaraldiaren bigarren edizioan.

147. taula

#### 2018ko eta 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak Nafarroako unibertso potentzialarekiko


Euskaraldiaren urtea	Nafarroako unibertso potentziala (euskaldunak + ia euskaldunak)	Nafarroako izen-emate kopurua	Izen-ematea unibertso potentzialarekiko (%)
2020	123.120	19.539	15,9
2018	123.120	22.334	18,1

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Parte-hartzaileen **adinari** erreparatuta, 25-34 eta 35-49 adin-tarteetan izan du arrakasta gehien Euskaraldiak Nafarroan (% 19,1 eta % 19,0, hurrenez hurren), izena emateko aukera zutenak kontuan izanik. Hedapena bereziki baxua izan da 65 urtetik gorakoen artean (% 6,2).

122. grafikoa

#### 2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



148. taula

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, adinaren arabera (%)**


Lurraldea	16-24 urte	25-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	>=65 edo gehiago
Nafarroa	16,6	19,1	19,0	15,3	6,2

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Generoari** dagokionez, Euskal Herriko joera orokorrari jarraituz, Euskaraldiak emakumeengan izan du arrakasta gehien (% 18,7). Datu orokorraren gainetik dago (% 17,7), baita izena eman zezaketen gizonezkoen parte-hartze maila ere (Euskal Herrian % 11,9, eta Nafarroan % 12,5).

123. grafikoa

**2020ko Euskaraldiko Nafarroako parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, generoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## **A.2. NORBANAKOEN PARTE-HARTZEAZ**

Euskaraldiaren bigarren edizioan ahobizi eta belarriprest moduan izena eman dutenen ezaugarrietan eta parte-hartze horrek haien egunerokoan izan duen eraginean sakontzeko, 800 inkesta egin dira Nafarroan. Datuok, bereziki, rolaren arabera aztertu dira, eta beharrezkoa ikusi denean bakarrik gehitu da gune soziolinguistikoaren arabera irakurketa. Bestalde, generoaren arabera aldeak antzeman badira, horiek espreski aipatu dira, eta datuak modu berezitan aurkeztu ere, koadro hori batean. Alde horiek emakumezkoen eta gizonen artekoak dira; ez-binarioen daturik ez da gehitu ez direlako estatistikoki adierazgarriak.

Azkenik, inkestaren azterketa kuantitatiboa teknika kualitatiboen bitartez – eztabaida-taldeak eta elkarrizketak – jasotako informazioarekin uztartu da.

### **A.2.1 Karakterizazioa**

#### *Hizkuntza-profilaren arabera*

Euskaraldian parte hartu dutenen % 94k ongi edo nahiko ongi ulertzen dute euskara, eta % 88k ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute.

Ahobizi rola hautatu dutenen % 99k ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute euskaraz. Belarriprest izan direnen artean, aldiz, erdiek baino gutxiagok. Belarriprest rola hautatu dutenen % 23k zertxobait edo hitz batzuk besterik ez dituzte ulertzen euskaraz.

149. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, hautatutako rolaen arabera (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ulertu	Ongi	92,6	40,5	80,9
	Nahiko ongi	7,0	35,8	13,4
	Zertxobait	0,4	20,3	4,9
	Hitz batzuk	0,0	2,2	0,5
	Ezer ez	0,0	0,0	0,0
	Zehaztu gabe	0,0	1,3	0,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	83,9	23,2	70,3
	Nahiko ongi	15,5	24,5	17,5
	Zertxobait	0,6	43,9	10,4
	Hitz batzuk	0,0	6,8	1,5
	Ezer ez	0,0	0,4	0,1
	Zehaztu gabe	0,0	1,3	0,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen eta gizonezkoen ezagutza-maila oso antzekoa da; bai ulermenari dagokionean, —ia denak gai dira euskara ongi edo nahiko ongi ulertzeko—, baita euskaraz hitz egiteko gaitasunean ere —% 87 inguruk ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute—.

150. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ulertu	Ongi	94,1	40,4	82,7	90,1	40,5	77,9
	Nahiko ongi	5,7	35,8	12,1	9,0	35,9	15,6
	Zertxobait	0,2	20,2	4,4	0,8	20,4	5,7
	Hitz batzuk	0,0	2,1	0,4	0,0	2,2	0,5
	Ezer ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Zehaztu gabe	0,0	1,4	0,3	0,0	1,0	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	86,5	21,6	72,8	79,7	25,3	66,3
	Nahiko ongi	13,3	22,3	15,2	19,0	27,4	21,1
	Zertxobait	0,2	48,3	10,3	1,3	38,0	10,4
	Hitz batzuk	0,0	5,7	1,2	0,0	8,3	2,0
	Ezer ez	0,0	0,7	0,1	0,0	0,0	0,0
	Zehaztu gabe	0,0	1,4	0,3	0,0	1,0	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoaren arabera alde errepertatuz, alde nabarmena dago 3. eta 4. gune soziolinguistikoaren eta 1. eta 2. en artean.

- 4. gune soziolinguistikoan ahobizien % 93k ongi hitz egiten du euskaraz, eta % 90ek 3. ean. 2. ean % 82k eta % 78k 1. gune soziolinguistikoan.
- 2. gune soziolinguistikoan, belarripresten artean, ia lautik batek zertxobait edo hitz batzuk besterik ez ditu ulertzen euskaraz. 1. gune soziolinguistikoan baino are altuagoa da ehuneko hori.

151. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna, hautatutako rolaen arabera (GUNE SOZIOINGUISTIKOA) (%)**

		<%20			%20-%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ulertu	Ongi	91,9	39,2	<b>77,4</b>	87,1	26,4	<b>75,4</b>	96,0	50,6	<b>88,1</b>	94,0	57,1	<b>91,4</b>
	Nahiko ongi	7,4	36,6	<b>15,4</b>	12,9	35,3	<b>17,2</b>	4,0	35,4	<b>9,5</b>	5,7	21,0	<b>6,8</b>
	Zertxobait	0,7	21,0	<b>6,3</b>	0,0	30,1	<b>5,8</b>	0,0	11,3	<b>2,0</b>	0,3	21,9	<b>1,8</b>
	Hitz batzuk	0,0	1,5	<b>0,4</b>	0,0	8,2	<b>1,6</b>	0,0	2,7	<b>0,5</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ezer ez	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ed/Ee	0,0	1,7	<b>0,5</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hitz egin	Ongi	79,7	20,5	<b>63,4</b>	82,7	8,3	<b>68,4</b>	90,2	41,9	<b>81,8</b>	92,6	36,4	<b>88,6</b>
	Nahiko ongi	19,3	26,0	<b>21,1</b>	17,3	14,4	<b>16,7</b>	9,8	20,5	<b>11,7</b>	7,2	29,7	<b>8,7</b>
	Zertxobait	1,0	44,9	<b>13,1</b>	0,0	65,4	<b>12,6</b>	0,0	30,1	<b>5,2</b>	0,3	33,8	<b>2,6</b>
	Hitz batzuk	0,0	6,9	<b>1,9</b>	0,0	12,0	<b>2,3</b>	0,0	4,8	<b>0,8</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ezer ez	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	2,7	<b>0,5</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ed/Ee	0,0	1,7	<b>0,5</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euskaraldiko parte-hartzaileen % 60k euskaraz errazago edo euskaraz erdaraz bezain erraz hitz egiten dute. Erdiek erdara izan dute lehen hizkuntza.

Euskal elebidunek eta euskara lehen hizkuntza izan dutenek ahobizi rola hautatzeko joera handiagoa dute. Belarripresten % 71k gaztelania izan dute lehen hizkuntza, eta % 64k erdaraz errazago hitz egiten dute. Nabarmenezkoa da, hala ere, ahobizien % 35ek ere erdaraz errazago hitz egiten dutela.

152. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, hautatutako rolaen arabera (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Zeinetan errazago?	Euskaraz	21,1	8,9	19,6
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	44,2	26,6	42,0
	Erdaraz	34,8	64,4	38,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lehen hizkuntza	Euskara	38,8	12,3	32,8
	Euskara eta gazt/frant, biak	15,7	9,3	14,3
	Gaztelania/Frantsesa	44,9	71,4	50,9
	Beste bat	0,6	5,8	1,7
	Zehaztu gabe	0,0	1,3	0,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean, gehiago dira euskaraz errazago egiten dutenak gizonezkoen artean baino; gizonezkoen artean, aldiz, gehiago dira erdaraz errazago egiten dutenak.

Lehen hizkuntzari dagokionez, emakumezkoen artean zertxobait gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo biak izan dituztenak (% 49); eta beraz, gutxiago erdara soilik izan dutenak (% 49)

153. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Zeinetan errazago?	Euskaraz	24,2	10,3	22,8	15,8	7,4	14,5
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	43,7	25,5	41,8	44,8	27,9	42,3
	Erdaraz	32,0	64,2	35,4	39,4	64,7	43,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lehen hizkuntza	Euskara	39,5	12,2	33,7	37,6	12,3	31,3
	Euskara eta gazt/frant. biak	16,6	8,1	14,8	14,3	10,9	13,4
	Gaztelania/Frantsesa	43,0	71,0	48,9	48,2	71,8	54,0
	Beste bat	0,9	7,2	2,2	0,0	3,9	1,0
	Ed/Ee	0,0	1,4	0,3	0,0	1,0	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Ezagutzari dagokionean baino are diferentzia handiagoak antzematen dira lehen hizkuntzari eta gaitasun erlatiboari buruzko azterketan, gun e soziolinguistikoaren arabera. 3. eta 4. gun e

soziolinguistikoan askoz altuagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen pisua; eta euskaraz errazago egiten dutenena, 4.ean batez ere.

- 1.gune soziolinguistikoan ahobizien erdiek, ia erdaraz errazago hitz egiten dute.
- 3.gune soziolinguistikoan belarripresten % 38k euskara du lehen hizkuntza.

154. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, hautatutako rolaen arabera (GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		<%20			%20-%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
<b>Zeinetan errazago?</b>	Euskaraz	6,0	2,5	<b>5,5</b>	12,8	0,0	<b>12,1</b>	38,9	29,0	<b>37,7</b>	63,7	33,5	<b>62,2</b>
	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	45,9	21,4	<b>42,2</b>	55,7	42,8	<b>55,0</b>	46,5	44,6	<b>46,3</b>	25,3	21,6	<b>25,2</b>
	Erdaraz	48,2	76,1	<b>52,4</b>	31,5	57,2	<b>32,8</b>	14,6	26,4	<b>16,0</b>	11,0	45,0	<b>12,6</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Lehen hizkuntza</b>	Euskara	19,5	7,4	<b>16,1</b>	30,4	0,0	<b>24,5</b>	69,1	38,3	<b>63,7</b>	80,3	36,4	<b>77,2</b>
	Euskara eta gazt/frant, biak	15,9	6,7	<b>13,4</b>	25,6	18,4	<b>24,2</b>	13,7	15,1	<b>14,0</b>	12,0	20,7	<b>12,6</b>
	Gaztelania/Frantsesa	64,1	80,4	<b>68,6</b>	41,1	62,8	<b>45,3</b>	17,1	36,5	<b>20,5</b>	7,7	42,9	<b>10,2</b>
	Beste bat	0,5	3,9	<b>1,4</b>	2,9	18,8	<b>6,0</b>	0,0	10,1	<b>1,8</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	Ed/Ee	0,0	1,7	<b>0,5</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euskaraldiko parte-hartzaileen artean ohikoagoa da lankideekin/ikaskideekin (% 41ek beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago) gehien bat euskaraz egitea, etxean (% 39k) edo, lagunekin baino (% 33). Beti erdaraz edo euskaraz erdaraz baino gutxiago egiteko ohiturari dagokionez, lagunekin dago zabalduen (% 50), etxean ondoren (% 46) eta lankideekin/ikaskideekin azkenik (% 42).

Ahobizien artean ere, % 42k beti erdaraz edo euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dute lagunekin, eta % 37k etxean. Belarripresten % 36k beti erdaraz egiten dute lagunekin, % 40k etxean eta % 20k lankideekin/ikaskideekin.

155. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera, hautatutako rolaen arabera (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Etxean	Beti euskaraz	28,5	7,6	23,8
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	18,3	5,9	15,5
	Euskaraz erdaraz beste	15,6	7,2	13,7
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	22,4	37,1	25,7
	Beti erdaraz	14,8	39,8	20,4
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,5	2,4	0,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunekin	Beti euskaraz	17,6	3,9	14,5
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	22,4	4,2	18,3
	Euskaraz erdaraz beste	18,1	9,6	16,2
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	34,6	44,7	36,9
	Beti erdaraz	7,1	35,9	13,6
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,2	1,7	0,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin	Beti euskaraz	34,4	5,4	27,9
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	14,7	5,8	12,7
	Euskaraz erdaraz beste	11,7	5,2	10,2
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	20,5	29,1	22,5
	Beti erdaraz	13,2	43,7	20,1
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	5,5	10,7	6,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean, altuagoa da beti edo nagusiki euskaraz egiten dutenen portzentajea etxean (% 40), lagunekin (% 34), edota lankide eta ikaskideekin (% 45).

Etxeko eta lagunaren arteko harremanetan aldea txikia da (2-3 puntukoa); nabarmena da, aldiz, lankide/ikaskideekiko harremanetan.

156. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera, sexuaren eta hautatutako rolaen arabera (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Etxean	Beti euskaraz	28,6	7,8	24,2	28,2	7,2	23,0
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	18,7	4,6	15,7	17,5	7,8	15,1
	Euskaraz erdaraz beste	17,7	4,8	14,9	12,2	10,6	11,8
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	17,2	36,9	21,3	31,1	37,4	32,7
	Beti erdaraz	17,4	43,1	22,8	10,6	35,2	16,6
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,4	2,9	1,0	0,5	1,7	0,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunekin	Beti euskaraz	18,8	3,0	15,4	15,7	5,1	13,1
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	22,3	4,5	18,5	22,6	3,8	18,0
	Euskaraz erdaraz beste	18,0	7,6	15,8	18,2	12,4	16,7
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	33,0	42,7	35,0	37,2	47,4	39,7
	Beti erdaraz	7,6	40,1	14,5	6,3	30,3	12,2
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,3	2,1	0,7	0,0	1,0	0,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin	Beti euskaraz	38,2	5,6	31,3	28,0	5,1	22,4
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	14,7	7,3	13,2	14,7	3,8	12,0
	Euskaraz erdaraz beste	10,6	3,1	9,0	13,6	8,1	12,2
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	17,4	25,1	19,1	25,7	34,6	27,9
	Beti erdaraz	13,7	47,3	20,8	12,3	38,8	18,9
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	5,3	11,5	6,6	5,7	9,7	6,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.



Euskararen ezagutzarekin, lehen hizkuntzarekin eta gaitasun erlatiboarekin lotuta, erabilera-ohituretan ere alde nabarmenak daude testuinguru soziolinguistikoaren arabera. Etxeko eta lagunarteko ohituretan ematen dira alderik handienak. Lankideekin/ikaskideekin, berriz, aldeak murriztu egiten dira.

157. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen gaitasun erlatiboa eta lehen hizkuntza, hautatutako rolaen arabera (GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		<%20			%20-%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Etxean	Beti euskaraz	17,6	3,7	<b>13,8</b>	17,7	0,0	<b>14,3</b>	44,3	24,5	<b>40,9</b>	60,3	36,4	<b>58,7</b>
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	10,8	3,4	<b>8,8</b>	30,2	4,3	<b>25,2</b>	33,2	16,2	<b>30,2</b>	17,8	20,7	<b>18,0</b>
	Euskaraz erdaraz beste	17,1	7,8	<b>14,6</b>	15,7	4,3	<b>13,5</b>	13,1	5,7	<b>11,8</b>	13,7	8,8	<b>13,3</b>
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	31,3	39,0	<b>33,4</b>	27,3	52,5	<b>32,2</b>	3,9	25,3	<b>7,6</b>	8,2	11,9	<b>8,5</b>
	Beti erdaraz	22,3	43,3	<b>28,1</b>	9,1	38,9	<b>14,8</b>	5,5	26,2	<b>9,1</b>	0,0	22,1	<b>1,6</b>
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,8	2,8	<b>1,4</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	2,0	<b>0,3</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunekin	Beti euskaraz	5,6	0,9	<b>4,3</b>	0,0	3,8	<b>0,7</b>	33,5	14,5	<b>30,2</b>	56,1	23,3	<b>53,8</b>
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	14,6	1,1	<b>10,9</b>	27,5	5,9	<b>23,3</b>	42,7	20,2	<b>38,7</b>	22,0	0,0	<b>20,5</b>
	Euskaraz erdaraz beste	20,9	7,8	<b>17,3</b>	23,6	4,0	<b>19,8</b>	13,0	17,0	<b>13,7</b>	10,6	30,7	<b>12,0</b>
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	49,1	48,2	<b>48,8</b>	45,9	42,3	<b>45,2</b>	8,6	28,0	<b>12,0</b>	4,6	46,0	<b>7,5</b>
	Beti erdaraz	9,5	39,8	<b>17,8</b>	3,0	44,1	<b>10,9</b>	2,2	20,3	<b>5,3</b>	6,7	0,0	<b>6,2</b>
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	0,3	2,2	<b>,8</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lankideekin/ ikaskideekin	Beti euskaraz	27,3	3,7	<b>20,8</b>	41,3	2,4	<b>33,8</b>	44,5	12,4	<b>38,9</b>	44,8	17,8	<b>42,9</b>
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	11,2	5,5	<b>9,7</b>	19,0	4,3	<b>16,1</b>	17,4	9,8	<b>16,1</b>	24,0	0,0	<b>22,3</b>
	Euskaraz erdaraz beste	11,4	4,3	<b>9,4</b>	9,7	7,2	<b>9,3</b>	15,9	9,9	<b>14,9</b>	8,9	0,0	<b>8,2</b>
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	24,9	29,2	<b>26,1</b>	18,0	36,5	<b>21,6</b>	9,9	24,3	<b>12,4</b>	17,6	32,7	<b>18,7</b>
	Beti erdaraz	18,9	47,2	<b>26,7</b>	12,0	40,8	<b>17,5</b>	3,7	29,5	<b>8,2</b>	3,3	36,4	<b>5,6</b>
	Ez dagokio (ez dut lanik egiten/ikasten)	6,2	10,2	<b>7,3</b>	0,0	8,8	<b>1,7</b>	8,6	14,1	<b>9,6</b>	1,4	13,1	<b>2,2</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021


### Hautatutako rolaen arabera

2020ko Euskaraldian norbanako gisa, ahobizi edo belarriprest rolaekin, parte hartu dutenen % 73k rol berdina hautatu zuten 2018ko edizioan ere. % 6k 2018an bete ez zuen beste rola aukeratu du oraingoan, eta hamarretik bik, lehen aldiz eman dute izena.

2020ko belarripresten artean askoz gehiago dira rola aldatu dutenak (% 20). Hortaz, ahobizi roletik belarriprest rolera aldatzea ohikoagoa izan da alderantzizko bidea baino.

124. grafikoa

#### **Nafarroako parte-hartzaileek aurreko edizioko rol bera hartu duten ala ez (%)**




Iturria: Siadeco, 2021..

Hizkuntza-jokabideak baino gehiago eragin du hizkuntza-gaitasunak rola hautaketan. Hautaketa horretan eragin duten arrazoiez galdetuta, parte-hartzaileen % 70ek hizkuntza-gaitasuna hautatu dute, eta % 40k hizkuntza-jokabideak. Hizkuntza-gaitasunaren eta hizkuntza-jokabideen arteko aldea handiagoa da ahobizien artean belarripresten artean baino.

125. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileek rola hautatzeko arrazoiak (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Batzuek gaitasunarekin lotu dute rola, zuzen-zuzenean: euskaraz hitz egiteko gai direnak, ahobizi; zailtasun handiagok dituztenak, belarriprest. Beste batzuek rolaekin identifikatuta sentitu dute euren burua, euren egunerokoan betetzen dutelakoan.

*Aurrekoan ahobizi izan nintzen eta sin más, gaitasun kontuagatik ahobizi izan naiz. Egin beharreko zerbait zelako eman nuen izena*

(31.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 16-29 urte, Iruñea-Iruñerria)

*Printzipioz ahobizi rola zen gutxi gorabehera hitz egiten ondo konpontzen ginenak eta belarriprest gaizki konpontzen zirelako. Horregatik nik ulertu nuen nire maila zela nahikoa ahobizi izateko eta horrela izan da. Gero badago jende piloa, nahiz eta ikastolako izan, belarriprest aukeratu zutela, pixka bat pena ematen ziela, baina azkenean ikastolatik ateratzen bazara 14 urterekin edo, eta gero egoten bazara 20 urtez euskaraz hitz egin gabe, azkenean bihurtzen zara belarriprest eta ez ahobizi. Hori da gure errealitatea hemen eta horrekin bizi behar dugu*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Nere ama hizkuntza euskara da. Esplikazio errazena nik erdaraz hitz egiten ez dakidala da (jajaja) kostatzen zaidana erdaraz egitea da, euskaraz bizi naiz*

(33.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 16-29 urte, 4. GSL)

*Orain dela urte gutxi hasi naiz euskara ikasten, ez dut ohitura euskaraz hitz egiteko eta nahiago nuen belarriprest izan*

(42.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 30-44 urte, 1. GSL)

*Ni belarriprest naiz nire bizitza osoan. Euskaldunekin nagoenean ez dut inoiz arazorik niri euskaraz hitz egiteko, beti esaten diet*

(10.eztabaida taldea\_Nafarroa, 16-29, Belarriprest)

Beste batzuek hausnarketa sakonagoak egin dituzte, euren ohiko jokabideen eta Euskaraldirako jartzen dituzten helburuen inguruan.

*Ez nuen errealista ikusten ahobizi izatea, gaitasuna badut baino inguruan kontestua ez da euskalduna. Kontserbatorioan ikasten dut eta oso irakasle gutxirekin egin dezaket euskaraz, familiarekin bai eta lagunekin ez. Nahiago nuen beteko nuen rola hartu*

(39.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 16-29 urte, Iruñea-Iruñerria)

*Nik uste dut hasieran horrela ulertu zela. Mezua zabaltzerakoan zabaldu zela euskaldun oso baldin bazara izan behar duzula ahobizi eta ez baduzu ondo kontrolatzen hizkuntza belarriprest. Nik gehiago konpromezu kontua dela uste dut. Nik zalantzak izan nituen. Momentu batean konturatu nintzen, hausnartzen nola erabiltzen dudan nik hizkuntza, askotan belarriprest naizela. Konpromezu handia eskatzen du ahobizi izateak. Mantentzea elkarrizketa bat bi hizkuntzetan adibidez, horrek konpromezu asko eskatzen du eta neketsua da mantentzea elkarrizketa horiek. Orduan esan nuen, nire bizitzan normalean egiten dudana da belarriprest izatea. Norbaitek hitz egiten badit gazteleraz, nahiz eta jakin nik ulertzen didala euskaraz, askotan ni pasatzen naiz zuzenean erdarara. Ahobizi izateak konpromezu horiek eskatzen ditu, elkarrizketa horiek mantentzea. Uste dut ulertze modu desberdina dela. Izan zaitezke ahobizi, nahiz eta ez kontrolatu ongi hizkuntza, mantentzen bazara momentu guztietan hizkuntza horretan, baina konpromezu maila oso altua da*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Ahobizi rolak esaten duen moduan, ez nintzen 15 egun horietan uneoro euskaraz egiten ikusten, ez nengoen prest hori egiteko, batzuetan lagunekin erosoago zaudelako gazteleraz hitz egiten, edo edozein kontugatik, ez nengoelako prest uneoro lehen hitza euskaraz egiteko. Horrelako kontuengatik erabaki nuen euskaraldi honetan belarriprest izatea*


(10.eztabaida taldea\_Nafarroa, 16-29, Belarriprest)

Batzordeetako parte-hartzearen arabera

Euskaraldiko parte-hartzaileen % 6k tokian tokiko batzordeetan parte hartu dute, modu aktiboan. Beste % 16k bileraren batean parte hartu dute, baina ez dira modu aktiboan batzordeetan aritu. Rolen arabera, ahobiziek modu aktiboagoan parte hartu dute batzordeetan (%7), belarriprestek baino (% 4).

126. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileek tokian tokiko batzordean parte hartu duten edo ez (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko parte-hartzaileen erdia baino gehiago dira elkarteren batean aritzen direnak — ahobizien artean altuagoa da horien pisua —. Nabarmentzeko modukoa da ahobizi rola hautatu dutenen % 27k euskara edo kultur elkarteren batean parte hartzen dutela. Elkarte gastronomikoetan eta bestelako gizarte eragileetan parte hartzen dutenen pisua altuagoa da belarripresten artean.

127. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileek bestelako elkarteetan parte-hartzea, rolaen arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskara edo kultur elkarte batean parte hartzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajea ez dago alderik.

Baina bai gainerako elkarte motatan: kirol elkarteetan, bestelako gizarte eragileetan eta elkarte gastronomikoetan gizonezkoen presentzia nabarmen altuagoa da emakumezkoena baino; emakumezkoen artean, aldiz, gehiago dira guraso elkarteetan parte hartzen dutenak.

158. taula

**Nafarroako parte-hartzaileek bestelako elkarteetako parte-hartzea, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskara edo kultur elkarte batean	27,7	22,5	26,6	27,2	22,1	26,0
Bestelako gizarte eragileetan	13,2	15,7	13,7	20,0	19,6	19,9
Kirol elkarte batean	15,4	10,1	14,3	23,8	15,5	21,7
Guraso elkarteetan	18,9	18,2	18,8	11,1	8,4	10,4
Elkarte gastronomikoan	7,5	10,8	8,2	16,4	17,1	16,5
Ez, ez dut parte hartu	38,7	47,7	40,6	37,0	46,3	39,3


Iturria: Siadeco, 2021.

Ikasketa-mailaren arabera

Ahobizi rola hautatu dutenen artean, % 57k goi-mailako ikasketak dituzte. Belarriprest rola hautatu dutenen artean, aldiz, % 40k dituzte goi-mailako ikasketak.

128. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen ikasketa-maila, hartutako rolaren arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean gehiago dira goi-mailako ikasketak dituztenak; gizonezkoen artean, aldiz, batxilergoa (goi-mailako batxilergoa edo oinarizkoa) edo horren parekoa.

159. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen ikasketa-maila, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Bat ere ez	0,9	0,7	0,9	1,4	4,3	2,1
Oinarizkoak / OHO	3,2	10,9	4,8	4,8	11,5	6,4
Oinarizko Batxilergoa /DBH/ LH1	6,4	7,7	6,7	11,5	13,5	12,0
Goi mailako Batxilergoa/BBB/UBI/LH2	15,5	18,1	16,1	21,6	21,7	21,6
Erdi goi-mailako ikasketak	11,1	13,8	11,7	11,2	12,9	11,6
Goi-mailako ikasketak	62,3	45,0	58,7	49,2	32,2	45,0
Ez dakit	0,4	3,9	1,2	0,4	4,0	1,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.




## A.2.2. Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak

### Arrazoiak

Euskararen erabilera handitzea da Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia, parte-hartzaileek adierazi dutenez (% 94). Rolaren arabera, belarriprestentzat ahobizientzat baino garrantzi handiagoa hartzen dute beste arrazoiak: euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea (% 24) eta inguruko euskaldunak zein diren jakiteak (%17).

129. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileentzat zein izan den Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, euskararen erabilera handitzeaz aparte, inguruko euskaldunak zein diren jakiteak garrantzia hartzen du 1.gune soziolinguistikoan, belarripresten artean, bereziki. Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea, aldiz, 2.gune soziolinguistikoko ahobizien artean.

**Nafarroako parte-hartzaileentzat zein izan den Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia (GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

		<%20			%20-%49			%50-%79			>=%80		
		Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskararen erabilera handitzea	Bai	97,4	81,4	<b>93,0</b>	95,3	86,2	<b>93,5</b>	95,8	93,5	<b>95,4</b>	97,8	73,8	<b>96,1</b>
	Ez	2,6	18,6	<b>7,0</b>	4,7	13,8	<b>6,5</b>	4,2	6,5	<b>4,6</b>	2,2	26,2	<b>3,9</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea	Bai	16,0	18,7	<b>16,8</b>	10,9	15,7	<b>11,8</b>	5,5	7,4	<b>5,8</b>	10,7	13,1	<b>10,9</b>
	Ez	84,0	81,3	<b>83,2</b>	89,1	84,3	<b>88,2</b>	94,5	92,6	<b>94,2</b>	89,3	86,9	<b>89,1</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Bai	23,4	27,1	<b>24,4</b>	28,1	24,4	<b>27,4</b>	17,6	7,1	<b>15,8</b>	24,5	17,4	<b>24,0</b>
	Ez	76,6	72,9	<b>75,6</b>	71,9	75,6	<b>72,6</b>	82,4	92,9	<b>84,2</b>	75,5	82,6	<b>76,0</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ez dakit/ Erantzunik ez	Bai	0,0	2,8	<b>0,8</b>	0,0	3,9	<b>0,7</b>	0,8	0,0	<b>0,7</b>	0,0	8,8	<b>0,6</b>
	Ez	100,0	97,2	<b>99,2</b>	100,0	96,1	<b>99,3</b>	99,2	100,0	<b>99,3</b>	100,0	91,2	<b>99,4</b>
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euren hizkuntza-ohiturak aldatzea aipatzen dute batzuek, eta euskaraz egiteko jende eta leku berriak ezagutzea, beste batzuek.

*Nik nire ohiturak aldatzeagatik parte hartu nuen. Nik euskaraz hitz egiten dudan jendearekin ohitura daukat eta hitz egiten dut, baina bestela beti erdaraz hasten naiz. Orduan pixka bat horregatik. Lehendabizikoan uste dut horretan asko saiatu nintzela eta sorpresak hartu nituen, polita izan zen. Oraingoan ez zait sentsazio hori gelditu*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Helburua jende gehiagorekin euskaraz hitz egitea da. Iruñan euskaraz egiten duen jendea ezagutu eta identifikatzeko zer lekutan hitz egiten den euskaraz.*

(34.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 30-44 urte, 1. GSL)

Euskaraldiak planteatzen duen ariketa oso aproposa dela azpimarratu dute beste batzuek, bereziki positibotasunetik heltzen diolako erabileraren auziari.

*Nik uste sentsibilizatzeko ekimen erraza eta eragingarria dela. Modu xume batean jendearengana iristeko modua dugula. Oso ondo dago*

(45.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 45 urtetik gorakoak, 1. GSL)

*Pentsatzen dut justu behar duguna dela, hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko erabilera soziala bultzatzea, ez bakarrik ezagutza, erabilera soziala ere bai modu positibo batean, konplexuak alde batera utzita. Oso identifikatua sentitzen naiz euskaraldiaren helburuarekin*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

Euskaraldiak eguneroko bizitza aldatzen ez badie ere, ekimenaren alde daudelako edo beste batzuegan izan dezakeen eraginagatik parte hartzen dutela adierazi dute beste batzuek.

*Euskaraldiak ez dit gehiegi aldatzen bizitza, ezta euskaraldia martxan dagoenean ere, baina horren alde nago, nola ez*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

*Esandakoa, euskaraz bizi nahi dut eta geroz eta gehiago hitz egin dadila gizaratean.*

(37.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 45 urtetik gorakoak, 3. GSL)

Bestelako arrazoiak ere badaude, adibidez: dakidana ez galtzeko, edo irakasleak esan didalako, besterik gabe.


*Euskara asko gustatzen zait, beti gustoko izan dut, pixka bat badakit eta ez dut galdu nahi*

(40.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 16-29 urte, 2. GSL)

*Ni euskaltegia hasi naiz EGA ateratzeko. Bertan lagun batek esan zidan apuntatzeko, irakasleak ere esan zigun. Ni normalean ez naiz animatzen horrelako gauzetara, baina azkenean animatu egin nintzen. Plazara joan ginen eta txapa hartu genuen. Esan zidaten ahobizi izango nintzela*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

2020an Euskaraldian izena eman dutenen % 3k ez zuten aurrez ekimena ezagutzen. belarripresten artean altuagoa da Euskaraldia ezagutzen ez zutenen pisua: % 7.

**Nafarroako parte-hartzaileek noiztik ezagutzen duten Euskaraldia (%)**

Iturria: Siadeco, 2021.

Helburuak

Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten arrazoen inguruan galdetuta, parte-hartzaileen % 98k kalean euskara gehiago entzun nahi dutela adierazi dute, eta % 81ek euskaraz bizi nahi dutela. Helburu zehatzagoei dagokienez:

- Hamarretik zazpik baino gehiagok diote lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dutela —% 73k ahobizien artean eta % 63k belarripresten artean—.
- Erdiek euren aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diote —% 53k ahobizien artean eta % 43k belarripresten artean—.
- Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dutela diote ia erdiek —% 45ek ahobizien artean eta % 51k belarripresten artean—.
- 2018ko edizioak euren hizkuntza-ohiturak aldarazi zituela baieztatu dute %44k —% 43k ahobizien artean eta % 46k belarripresten artean—.

## 161. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten faktoreak (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
2018ko edizioan parte hartu izanak aurretik nituen hizkuntza-ohiturak aldarazi ditu	Bai	43,5	45,8	44,0
	Ez	39,4	38,0	39,1
	Ez dagokit	17,1	16,1	16,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera	Bai	25,8	29,3	26,6
	Ez	36,1	41,0	37,2
	Ez dagokit	38,1	29,6	36,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut	Bai	45,7	51,2	47,0
	Ez	16,4	19,7	17,1
	Ez dagokit	37,9	29,1	35,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Bai	82,5	73,8	80,6
	Ez	11,4	17,2	12,7
	Ez dagokit	6,1	9,0	6,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditut	Bai	43,4	38,2	42,2
	Ez	27,1	33,6	28,5
	Ez dagokit	29,6	28,2	29,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, edota arigunea sortu dugu	Bai	36,0	14,6	31,2
	Ez	41,3	63,0	46,2
	Ez dagokit	22,8	22,4	22,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaltegian nabil euskara ikasten	Bai	4,6	28,1	9,9
	Ez	68,4	58,2	66,1
	Ez dagokit	27,0	13,6	24,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	Bai	73,2	63,1	71,0
	Ez	15,2	26,7	17,7
	Ez dagokit	11,6	10,3	11,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu	Bai	52,6	43,5	50,5
	Ez	19,4	32,0	22,2
	Ez dagokit	28,0	24,6	27,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Kalean euskara gehiago entzun nahi dut	Bai	98,1	97,3	97,9
	Ez	1,4	1,9	1,5
	Ez dagokit	0,6	0,8	0,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besterik	Bai	2,1	3,5	2,4
	Ez	72,6	61,2	70,1
	Ez dagokit	25,3	35,3	27,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen kasuan eragin handiagoa izan du lantokian denok edo gehiengoak parte hartu izanak, 2018an inguruan sortu zen ilusioak, guraso moduan seme-alaben eredu izan nahi izateak edota 2018ko edizioan hartu izanak eragindako aldaketak.

Gizonezkoen artean, aldiz, gehiago eragin du lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi izateak.

162. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen Euskaraldian parte hartzeko erabakian eragin duten faktoreak, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
2018ko edizioan parte hartu izanak aurretik nituen hizkuntza-ohiturak aldarazi ditu	44,2	49,2	45,2	42,4	41,2	42,1
2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera	27,9	28,8	28,1	22,1	30,0	24,1
Guraso moduan, seme-alaben eredu izan nahi dut	47,8	50,7	48,4	42,4	51,9	44,7
Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	80,9	75,9	79,9	85,2	70,9	81,7
Lantokiko hizkuntza ohiturak aldatu nahi ditut	40,1	36,6	39,3	48,8	40,5	46,8
Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, edota arigunea sortu dugu	37,7	14,7	32,8	33,1	14,3	28,5
Euskaltegian nabil euskara ikasten	4,4	31,7	10,1	5,0	23,2	9,5
Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	70,9	61,9	69,0	77,1	64,6	74,0
Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu	53,3	42,4	51,0	51,4	44,9	49,8
Kalean euskara gehiago entzun nahi dut	98,0	98,6	98,1	98,2	95,6	97,6
Besterik	1,1	2,9	1,5	3,9	4,3	4,0

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko rolen inguruko usteei dagokienez, sarritan egiten da hizkuntza-gaitasunaren eta rolaren arteko lotura. Parte-hartzaileen herenak baino gehiagok uste dute euskaraz hitz egiteko gai denak ezin duela belarriprest rola hartu —erabat ados edo nahikoa ados—. Gutxiago dira, aldiz, uste dutenak euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak ez lukeela ahobizi rola hartu behar (% 15,5). Herenek uste dute ahobizi izatea belarriprest izatea baino zailagoa dela.

163. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen baieztapenekiko adostasun-maila (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Euskaraz hitz egiteko gai denak ezin du belarriprest rola hartu	Erabat ados	17,4	8,7	15,5
	Nahikoa ados	19,8	15,9	18,9
	Ez ados/ Ez desados	21,7	28,7	23,3
	Nahikoa desados	12,6	13,0	12,7
	Guztiz desados	23,7	28,9	24,9
	Ez dakit	4,8	4,8	4,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituenak ezin du ahobizi rola hartu	Erabat ados	5,2	12,4	6,8
	Nahikoa ados	10,0	20,8	12,4
	Ez ados/ Ez desados	26,1	24,1	25,7
	Nahikoa desados	18,0	12,7	16,8
	Guztiz desados	37,8	26,1	35,2
	Ez dakit	3,0	3,9	3,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Ahobizi izatea belarriprest izatea baino zailagoa da	Erabat ados	9,7	33,0	14,9
	Nahikoa ados	16,1	27,0	18,5
	Ez ados/ Ez desados	29,9	18,2	27,3
	Nahikoa desados	10,0	6,3	9,1
	Guztiz desados	29,0	9,9	24,7
	Ez dakit	5,4	5,6	5,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren berri izateko modua

Kaleko komunikazioa izan da Euskaraldiaren inguruko informazioa zabaltzeko modurik eraginkorrena: parte-hartzaileen % 79k hautatu dute, informazioa jasotzeko moduen artean. Sare sozialak gertu daude, hala ere: % 76. Komunikabide konbentzioanalak daude ondoren: telebista (% 74) eta irratia (% 69), batez ere. % 65ek emailez jaso dute informazioa.

164. taula

**Nafarroako parte-hartzaileei zein modutara iritsi zaien Euskaraldiaren inguruko informazioa (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Herriko lantalde antolatzailearen bidez	Bai	54,0	47,4	52,5
	Ez	42,1	46,6	43,1
	Ez dakit	3,8	6,0	4,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Sare sozialen bidez	Bai	80,9	60,5	76,3
	Ez	17,2	34,8	21,2
	Ez dakit	1,9	4,7	2,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Emailez	Bai	67,3	60,7	65,8
	Ez	29,4	35,6	30,8
	Ez dakit	3,3	3,7	3,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Kaleko komunikazioaren bidez	Bai	80,8	74,3	79,3
	Ez	16,5	22,3	17,8
	Ez dakit	2,7	3,4	2,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez	Bai	42,4	45,2	43,0
	Ez	51,3	49,2	50,8
	Ez dakit	6,4	5,6	6,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Izena eman duen entitate baten bidez	Bai	30,2	21,7	28,3
	Ez	64,0	69,6	65,3
	Ez dakit	5,8	8,7	6,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Telebistan ikusi dut	Bai	74,7	72,1	74,2
	Ez	23,8	24,5	23,9
	Ez dakit	1,5	3,3	1,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Iratian entzun dut	Bai	70,3	65,3	69,2
	Ez	25,9	30,5	26,9
	Ez dakit	3,8	4,2	3,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herriko egunkari edo aldizkarian irakurri dut	Bai	58,3	58,9	58,4
	Ez	37,0	35,3	36,6
	Ez dakit	4,7	5,9	5,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Beste komunikabide baten bidez	Bai	34,8	26,4	32,9
	Ez	46,0	47,7	46,4
	Ez dakit	19,2	25,9	20,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besterik	Bai	4,5	7,1	5,1
	Ez	68,0	61,3	66,5
	Ez dakit	27,5	31,6	28,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.



Emakumezkoen artean nabarmen gehiago izan dira Euskaraldiaren inguruko informazioa ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez jaso dutenak; gizonezkoen artean, aldiz, gehiago komunikabideen bidez jaso dutenak; irratian entzunda, telebistan ikusita, herriko egunkari edo aldizkarian irakurrita, edota bestelako komunikabide baten bidez.

165. taula

**Nafarroako parte-hartzaileei zein modutara iritsi zaien Euskaraldiaren inguruko informazioa, sexuaren eta hartutako rolaen arabera (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Herriko lantalde antolatzailearen bidez	54,5	50,2	53,6	53,3	43,7	50,9
Sare sozialen bidez	80,4	59,9	76,1	81,7	61,2	76,6
Emailaz	67,8	59,3	66,0	66,4	62,6	65,4
Kaleko komunikazioaren bidez	80,0	73,6	78,6	82,0	75,3	80,4
Ikastetxearen edo euskaltegiaren bidez	46,2	49,1	46,8	36,0	39,8	37,0
Izena eman duen entitate baten bidez	29,4	20,6	27,6	31,4	23,2	29,4
Telebistan ikusi dut	71,8	68,0	71,0	79,6	77,8	79,2
Irratian entzun dut	66,8	58,7	65,1	76,1	74,3	75,7
Herriko egunkari edo aldizkarian irakurri dut	55,3	54,4	55,1	63,2	65,0	63,7
Beste komunikabide baten bidez	30,9	23,4	29,3	41,3	30,4	38,6
Besterik	5,5	7,7	6,0	2,8	6,2	3,6

Iturria: Siadeco, 2021.

### A.2.3 Euskaraldia ariketako jarduna

#### Rolaren betetze-maila eta zailtasunak

0tik 10erako eskalan rola zein neurritan bete duten galdetuta, 7 puntu pasatxoko batez bestekoa eman dute erantzunek, orokorrean. Ahobizien artean batez besteko betetze-maila altuagoa da (7,37) belarripresten artean baino (6,15).

166. taula

---

#### **Nafarroako parte-hartzaileek zein neurritan bete duten rola (batez bestekoa)**

Ahobizi	7,37
Belarriprest	6,15
<b>Guztira</b>	<b>7,09</b>

*Iturria: Siadeco, 2021.*

Euskaraldiak planteatutako ariketa betetzeak hainbat zailtasun-maila eragiten dizkie parte hartzaileei, egoera ezberdinen arabera. Datu orokorreari erreparatuz, bi rola seme-alabekiko harremanean – ahobizientzat errazago – zein ikaskideekin – belarriprestentzat errazago – izan da errazena rola betetzea —parte-hartzaileen ia % 90arentzat erraza edo oso erraza—. Zailena, aldiz, kaleko eremuan: zerbitzu pribatuetan –zailagoa ahobizientzat – edo ezezagunekin edo kalean – zailagoa belarriprestentzat –.

167. taula

**Nafarroako parte-hartzaileei zenbateraino izan zaien zaila edo erraza ahobizi edo belarriprest izatea (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Bikotekidearekin	Oso erraza	53,7	24	47
	Erraza	22,8	36,8	25,9
	Zaila	15,2	25,6	17,5
	Oso zaila	8,3	13,6	9,5
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Seme-alabekin	Oso erraza	75	31	62,7
	Erraza	19,7	44	26,4
	Zaila	4,7	19,8	8,9
	Oso zaila	0,7	5,2	1,9
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Lagunekin	Oso erraza	39,3	14,2	33,9
	Erraza	39	46,7	40,7
	Zaila	19,1	31,4	21,7
	Oso zaila	2,6	7,7	3,7
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Lankideekin	Oso erraza	51,9	13,5	44,1
	Erraza	27,2	34,9	28,8
	Zaila	13,4	34,1	17,6
	Oso zaila	7,5	17,5	9,5
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Seme-alaben ikastetxeko gainontzeko gurasoekin	Oso erraza	34,8	11,9	29,6
	Erraza	42,3	44,8	42,9
	Zaila	19,4	34,3	22,8
	Oso zaila	3,5	9	4,8
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Ikastetxe edo euskaltegiko kideekin	Oso erraza	68,4	31,3	58,7
	Erraza	23,9	50,6	30,9
	Zaila	5,6	13,3	7,6
	Oso zaila	2,1	4,8	2,8
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Nire aisialdiko taldeko kideekin	Oso erraza	34,9	11	30,2
	Erraza	44,6	46	44,8
	Zaila	13,8	33	17,5
	Oso zaila	6,8	10	7,4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Zerbitzu publikoetan (osasun zentroetan, udalean...)	Oso erraza	17,4	5,8	15
	Erraza	44,1	41,7	43,6
	Zaila	28,9	41	31,3
	Oso zaila	9,7	11,5	10,1
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Zerbitzu pribatuetan (dendetan, zerbitzu pertsonaletan...)	Oso erraza	14,1	3,8	11,9
	Erraza	40,8	40,9	40,8
	Zaila	36,2	41,5	37,3
	Oso zaila	8,8	13,8	9,9
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Ezezogunekin edo kalean	Oso erraza	12,9	5,8	11,4
	Erraza	45,4	35,3	43,2
	Zaila	32,8	42,9	35
	Oso zaila	8,9	16	10,4
	<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

Txaparen erabilera eta erabilgarritasuna

Parte-hartzaileen % 45ek adierazi dute, Euskaraldiko hamabost egunetan zehar, beti edo ia beti txapa jarrita eraman dutela. Rolaren arabera, belarripresten artean baxuagoa da beti edo beti eraman dutenen pisua, eta altuagoa batzuetan, gutxitan edo inoiz eraman ez dutenena.

131. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileek 15 egunetan zenbatetan eraman duten txapa jarrita (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean, gehiago dira txapa beti edo ia beti jarrita eraman dutela adierazi dutenak (% 48), gizonezkoen artean baino (% 41). Gizonezkoen artean gehiago dira gutxitan edo (ia) inoiz eraman ez dutela diotenak (% 22).

168. taula

**Nafarroako parte-hartzaileek 15 egunetan zenbatetan eraman duten txapa jarrita, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Beti edo ia beti	48,5	47,7	48,4	43,7	32,2	40,9
Askotan	23,1	25,1	23,5	21,1	23,7	21,7
Batzuetan	13,4	11,8	13,1	12,6	17,9	13,9
Gutxitan	7,6	9,1	7,9	8,8	12,9	9,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	5,5	5,0	5,4	12,5	12,7	12,6
Ez dakit	1,8	1,4	1,7	1,3	0,6	1,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko hamabost egunetan zehar txapa eramateak zertarako balio izan dien galdetuta, ia hiru laurdenek diote ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko balio izan diela. Ia hamarretik seik, Euskaraldian parte hartzen ari zirela erakusteko. Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko balio izan diela, aldiz, herenek baino gutxiagok aipatu dute.

169. taula

**Nafarroako parte-hartzaileei txapa eramateak zertarako balio izan dien (beti edo askotan txapa eraman dutenei) (%)**

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraldian parte hartzen ari naizela erakusteko	Bai	59,4	50,0	57,4
	Ez	40,6	50,0	42,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hizkuntza-ohiturak aldatzeko	Bai	38,5	47,8	40,5
	Ez	61,5	52,2	59,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskararen alde zaudela adierazteko	Bai	47,2	50,0	47,8
	Ez	52,8	50,0	52,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko	Bai	33,1	32,8	33,0
	Ez	66,9	67,2	67,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ingurukoek nirekin euskaraz egin dezaketela adierazteko	Bai	73,9	72,0	73,5
	Ez	26,1	28,0	26,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Emakumezkoen artean gehiago dira txapa eramateak ingurukoek berarekin euskaraz egin dezaketela adierazteko balio izan diela diotenak, eta euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko aukera eman diela diotenak.

Gizonezkoen artean, berriz, hizkuntza-ohiturak aldatzeko edo Euskaraldia edo euskara babesten duela adierazteko.

170. taula

**Nafarroako parte-hartzaileei txapa eramateak zertarako balio izan dien (beti edo askotan txapa eraman dutenei) (baiezko erantzunen %)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraldian parte hartzen ari naizela erakusteko	59,5	45,9	56,6	59,2	57,4	58,8
Hizkuntza-ohiturak aldatzeko	37,3	44,0	38,7	40,8	54,7	43,8
Euskararen alde zaudela adierazteko	45,3	51,9	46,7	50,5	46,4	49,6
Euskara erabiltzeko gune berriak ezagutzeko	35,0	33,1	34,6	29,5	32,2	30,1
Ingurukoek nirekin euskaraz egin dezaketela adierazteko	74,9	75,9	75,1	72,2	65,2	70,6

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiko hamabost egunetan zehar txapa zeraman jendearen artean sortu den hizkuntza-dinamikari dagokionez, erabilera handiena ahobizien artean eman da. Belarriprestekiko harremanari dagokionez, ahobizien % 86k adierazi dute belarripresei euskaraz egin dietela. Aldiz, belarripresten % 60k diote ahobiziek euskaraz egin dietela.

171. taula

**Txapa zeramatenekin nagusiki euskara izan da Nafarroako parte-hartzaileek erabilitako hizkuntza (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraldian zehar ahobizi txapa zutenei euskaraz egin diezu beti/ia beti edo askotan	94,7	57,5	86,3
Belarriprest txapa zutenei euskaraz egin diezu beti/ia beti edo askotan	86,0	54,3	78,9
Euskaraldiko 15 egunetan zehar, ahobizi txapa zutenek euskaraz egin dizute beti/ia beti edo askotan	87,5	60,0	81,3
Euskaraldiko 15 egunetan zehar, belarriprest txapa zutenek euskaraz egin dizute beti/ia beti edo askotan	43,2	40,2	42,5

Iturria: Siadeco, 2021.

Txaparen eraginari dagokionez, Iruñerrian, batez ere, komunitatea eratzearekin lotu dute. Euskaraz hitz egiteko aukera emango dien jendea ezagutzearekin.

*Segun ze gunetan jendeak badu elkartzeko beharra eta nolabaiteko komunitatea edo sortu behar da*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

*Iruñan bertan norbait txaparekin ikusten baduzu esaten duzu "joe begira, ze ondo", berdin du ahobizi edo belarriprest den. Nahiz eta ahobizi edo belarriprest izan, baduzu hurbiltasun pixka bat, konplizitatea. Eta barrerak kentzen dira, ez duzu beldur hori ea zer esango didaten euskaraz hitz egiteagatik. Tristeia da horrela ibiltzea, baina oraindik beldurra edukitzea lehenengo hitza euskaraz egiteko edo zer erantzun izango duzun, horrek heldu egiten zaitu*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Ba txapa zuen jendea ezagutu eta haiekin euskaraz egiteko balio izan dit, euskaraz zekitela ez nekien pertsonekin*

(34.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 30-44 urte, 1. GSL)

*Txapa bada aitzakia bat euskaraz egiteko. Badirudi jendeak gogoia duela baina ez dakiela norekin*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

Inguru euskaldunagoetan bizi direnei dagokienez ere, bereziki hiriburura joaterakoan balio izan diela azpimarratu dute.

*Hemen herrian badakigu zeintzuk garen euskaldunak, baina Iruñan asko laguntzen du txapak ezezagunekin euskaraz egiten. Beti lehen hitza erdaraz egiteko joera dagoelako*

(38.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 45 urtetik gorakoak, 4. GSL)

*Niri gertatzen zait herrian denek dakitela euskaraz dakidala, orduan dakitenek euskaraz hitz egiten dizute. Iruñan gertatu zitzaidan, ilusioa egin zidala, denda batera joan nintzela eta txapa nahiko ikusgarri nuen. Dendariak esan zidan “egun on. Zer nahi duzu?”, poz handia eman zidan. Orduan hasi ginen euskaraz. Txapak horretarako behintzat balio izan zidan*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

Iritzi kritikoagoak ere badaude, eragin handirik nabaritu ez dutenenak.

*Lehen bi edo hiru egunetan eraman nuen, gero ez. Batzuk egin zidaten euskaraz baina oso gutxi*

(31.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 16-29 urte, Iruñea-Iruñerria)

## A.2.4 Euskaraldiaren eragina

### Hartutako jokabideak

Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egiteko jokabidea da zabalduen dagoena, eta jokabide horretan izan da bilakaerarik handiena, gainera, Euskaraldian zehar —% 48tik % 65era—; ez ahobizien artean bakarrik, baita belarripresten artean ere. Lehen hitza euskaraz egiteko ohituran ere bilakaera nabarmena izan da. Azpimarratzeko modukoa da, belarripresten kasuan, ez dela hazkunderik izan euskaraz dakienari euskaraz egin dezan eskatzeko ohituran —% 46 aurretik eta Euskaraldian zehar—.

Proposatutako jokabide gehienetan emakumezkoen artean bilakaera zertxobait positiboagoa izan da gizonezkoen artean baino; elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea, lehen hitza beti euskaraz egitea, euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea, edo orain arte erdaraz ziren elkarrizketetan euskara txertatzea.

172. taula

#### **Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik eta Euskaraldian zehar (%)**

	Aurretik			Zehar		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	53,5	29,7	<b>48,1</b>	71,3	42,5	<b>64,9</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	35,8	17,6	<b>31,7</b>	54,2	24,7	<b>47,5</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	39,1	19,4	<b>34,6</b>	54,1	29,4	<b>48,5</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketan euskaraz edo ele bitan izatea	31,2	32,4	<b>31,5</b>	40,6	34,2	<b>39,2</b>
Euskaraz dakienari egin diezadan eskatu diot	32,6	45,8	<b>35,5</b>	37,1	45,8	<b>39,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Hizkuntza-jokabide horien artean, euskaraz egiten dutenekin euskaraz egitea izan da errazena, ahobizientzat —% 90entzat erraza edo oso erraza— zein belarriprestentzat (% 80). Lehen hitza euskaraz egitea ere nahikoa erraza izan da bi rolak bete dituztenentzat. Zailena, aldiz, orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edukitzea —zaila edo oso zaila ahobizien % 52rentzat eta belarripresten % 60rentzat—.



173. taula

**Nafarroako parte-hartzaileentzat hizkuntza-jokabideak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Euskaraz egiten dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	43,9	18,7	40,2
	Erraza	46,3	61,6	48,5
	Zaila	9,8	17,6	11,0
	Oso zaila	0,0	2,0	0,3
	Ez dagokit	0,0	0,0	0,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	25,0	14,3	23,8
	Erraza	49,5	44,8	49,0
	Zaila	23,4	34,0	24,7
	Oso zaila	0,9	5,3	1,4
	Ez dagokit	1,1	1,6	1,2
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	12,9	3,8	11,6
	Erraza	47,9	47,9	47,9
	Zaila	36,5	45,1	37,7
	Oso zaila	1,9	3,2	2,1
	Ez dagokit	0,8	0,0	0,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarizketak euskaraz edo ele bitan izatea	Oso erraza	5,2	2,6	4,7
	Erraza	42,4	32,6	40,5
	Zaila	48,6	53,8	49,6
	Oso zaila	3,5	6,8	4,1
	Ez dagokit	0,3	4,2	1,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot	Oso erraza	32,1	9,7	26,2
	Erraza	54,5	67,6	58,0
	Zaila	11,5	15,1	12,4
	Oso zaila	0,7	7,2	2,4
	Ez dagokit	1,2	0,4	1,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

### Hizkuntza-erabileraren bilakaera

Parte-hartzaileen % 37k baieztatu dute euskara gehiago erabiltzen dutela 2018ko Euskaraldiaren eraginez —proportzio hori altuxeagoa da belarripresten artean—.

174. taula

#### **Nafarroako parte-hartzaileek 2018ko Euskaraldiaren eraginez gehiago ala gutxiago erabiltzen duten euskara (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Gehiago	36,5	37,4	36,7
Berdin	61,0	49,7	58,5
Gutxiago	0,5	4,9	1,4
Ez nuen 2018ko Euskaraldian parte hartu	0,6	4,7	1,5
Ez dakit	1,4	3,4	1,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

2020ko Euskaraldiari dagokionez, % 23k adierazi dute oro har edo argi eta garbi hizkuntza-ohiturak aldatu dituztela —proportzioa altuxeagoa da ahobizien artean—. % 48k ohitura batzuk aldatu dituzte, baina beste batzuk ez.

Emakumezko ahobizien % 26k adierazi dute oro har edo argi eta garbi hizkuntza-ohiturak aldatu dituztela; aldiz, gizonezko ahobizien % 23k. Belarripresten artean, aldiz, gizonezkoen artean gehiago (% 21), emakumezkoen artean baino (% 15).

175. taula

#### **Nafarroako parte-hartzaileek aurtengo Euskaraldiari esker hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten edo ez (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Argi eta garbi	5,5	4,5	5,3
Oro har, bai	19,4	13,2	18,0
Batzuk bai; beste batzuk, aldiz, ez	47,1	50,2	47,8
Oro har, ez	23,2	26,7	24,0
Inolaz ere	2,6	2,8	2,6
Ez dakit	2,2	2,7	2,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza-ohiturak oro har edo argi eta garbi aldatu dituztenak kontuan hartuta, 2. eta 3.gune soziolinguistikoa nabarmentzen dira. Bigarrenean, ahobizien % 7k baieztatu dute argi eta garbi aldatu dituztela ohiturak. Belarripresten laurdenek, oro har baietz, aldatu dituztela. 4.gune soziolinguistikoan, aldiz, % 9k adierazi dute ez dituztela inolaz ere aldatu.

176. taula

**Nafarroako parte-hartzaileek aurtengo Euskaraldiari esker hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten edo ez (GUNE SOZIOLINGUISTIKOA) (%)**

	<%20			%20-%49			%50-%79			>=%80		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Argi eta garbi	5,9	5,6	<b>5,8</b>	7,1	5,0	<b>6,7</b>	3,8	0,0	<b>3,1</b>	5,4	0,0	<b>5,0</b>
Oro har, bai	19,3	11,4	<b>17,1</b>	19,1	24,6	<b>20,2</b>	21,5	17,1	<b>20,8</b>	17,7	9,0	<b>17,1</b>
Batzuk bai; beste batzuk, aldiz, ez	48,6	50,3	<b>49,1</b>	58,2	39,4	<b>54,6</b>	41,7	58,5	<b>44,6</b>	43,2	35,0	<b>42,6</b>
Oro har, ez	22,9	27,9	<b>24,3</b>	15,6	29,4	<b>18,2</b>	25,5	14,5	<b>23,6</b>	23,4	47,2	<b>25,1</b>
Inolaz ere	1,2	2,8	<b>1,7</b>	0,0	0,0	<b>0,0</b>	3,0	2,8	<b>3,0</b>	8,9	8,8	<b>8,9</b>
Ez dakit	2,0	2,0	<b>2,0</b>	0,0	1,6	<b>0,3</b>	4,5	7,0	<b>4,9</b>	1,3	0,0	<b>1,2</b>
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Euskaraldiak eurengan eragina izan duela baieztatu dute batzuek, egoera ezberdinetan izan duela gainera: seme-alabekin, bikotekidearekin, lagunartean, lanean...

*Bai, saiatzen naiz alabekin euskaraz gehiago egiten. Lanean ere saiatzen naiz. Besteengan ez dakit, ez daude aldaketa asko*

(41.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 30-44 urte, Iruñea-Iruñerria)

*Pixka bat gehiago egin dut euskaraz, momentu horiek aprobetxatu ditut. Ariguneak, jendea txaparekin ikustean...*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi).

*Batez ere bikotekidearekin egiten dut euskara gehiago, lehen erdaraz egiten genuen orokorrean eta orain euskaraz aritzeko ohitura hartu dugu. Lagun batzuekin ere hasi gara euskaraz gehiago egiten*

(34.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 30-44 urte, 1. GSL)

Euren egunerokoan bestela ere euskaraz bizi direnen artean, batzuek nabaritu dute aldaketarik inguruan. Beste batzuek, aldiz, 2018ko edizioan eragina handiagoa izan dela uste dute.

*Nik euskaraz bizitzen jarraitzen dut. Unibertsitatean Euskaraldian euskaraz egiten hasi zirenek mantentzen dute euskara, ia denek, batzuk bueltatu dira erdarara.*

(33.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 16-29 urte, 4. GSL)

*Ni euskaraz bizi naiz eta berdin jarraitzen dut. Baina nabaritu dut Euskaraldian zehar nere ikasleek euskara gehiago egin dutela. Orain pixkat jaisten joan da, indarra galtzen.*

(43.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 30-44 urte, 4. GSL)

*Nik euskaraz egiten jarraitzen dut ahal dudanean. Besteengan gehiago nabaritu nuen lehen Euskaraldian orain baino*

(38.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 45 urtetik gorakoak, 4. GSL)


Euskaraldiak izan duen eraginari dagokionez, joera orokorra begien bistakoa da: Euskaraldian zehar euskararen erabilerak gora egiten du, eta behera ondoren. Hala ere, ondorengo jaitsiera ez da igoseraren parekoa. Beraz, hondar bat, behintzat, geratzen da. Egoeraren eta rolaren arabera, ordea, aldeak antzematen dira.

Bikotekidearekin erabilerak gora egin du Euskaraldian zehar, baina atzera pauso bat nabari da ondoren. Rolan arteko aldeak, baina, esanguratsuak dira:

- Euskaraldian zehar dena edo ia dena euskaraz egitera pasa den ahobizi eta belarripresten ehunekoa oso antzekoa da – bost puntu inguruko iguera bi kasutan –; baina ondoren, bikotekidearekin dena edo ia dena euskaraz egiten gehiago jarraitu dute ahobiziek.
- Belarripresten kasuan, aldiz, azpimarragarria da Euskaraldiaren aurretik bikotekidearekin dena edo ia dena gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zutenak hamarretik sei zirela, eta Euskaraldiaren ondoren, bitik bat. Hortaz, euskarak balio izan die bikotekidearekiko elkarizketetan nola edo hala euskara txertatzeko, izan dena edo gehiena euskaraz edo gaztelaniaz bezainbeste eginez.

132. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak BIKOTEKIDEAREKIN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Seme-alabekin aldaketa egonkorragoa da. Ez du atzera egin, ez ahobizien, ezta belarripresten kasuan ere.

Aurrerapausoa, aldiz, nabarmenagoa da belarriprestetan: seme-alabekin dituzten hizkuntza-ohiturei astindu handiagoa ematen diete ahobiziek baino. Euskaraz egiten zutenek euskara gehiago egiteaz gain — hamar puntuko igoera 'dena edo gehiena euskaraz' eta 'gaztelaniaz bezainbeste' egiten dutenen artean—, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten zutenek ere euskara txertatu dute seme-alabekin dituzten elkarrizketetan —% 34 izatetik % 23 izatera.

133. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak SEME-ALABEKIN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Familiartean dena edo gehiena euskaraz egiteko ohituran igoera txikia izan da, atzera egin du, gainera, ondoren —% 36tik ia % 39ra—. Belarripresten kasuan, ahobizienean baino are apalagoa izan da igoera hori. Nolanahi ere, neurriren batean behintzat familiartean euskara txertatzeko ahalegina egin dela antzematen da. Izan ere, parte-hartzaileen % 46k gaztelaniaz egiten zuten familiartean Euskaraldiaren aurretik; Euskaraldiaren ondoren, aldiz, % 39k.

134. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak FAMILIARTEAN, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Lagunartean egonkorragoa da aldaketa. Igoera handia da —ahobizien artean, batez ere—, eta jaitiera ez da hain nabarmena. Belarripresten artean, bi herenek erdaraz egiten zuten Euskaraldiaren aurretik; Euskaraldiaren ondoren, % 56 dira. Ahobizien artean % 44k dena edo gehiena euskaraz egiten zuten Euskaraldiaren aurretik; Euskaraldiaren ondoren, % 50era iristen dira, ia.

135. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak LAGUNARTEAN EDO KOADRILAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.



Lan-arloan igoera txikia izan da, baina jaitisera ere bai. Beraz, nahiko egonkorra izan da aldaketa. Dena edo gehiena euskaraz egiteko ohituran bi puntuko igoera izan da, bai ahobizien artean, baita belarripresten artean ere. Euskaraz, gaztelaniaz bezainbeste aritzekoan, belarripresten bilakaera da bereziki azpimarragarria: ia bost puntuko igoera.

136. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak LANEAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Herriko dendetan aldaketa iraunkor samarra lortu da, ahobizien artean, batez ere —% 35ek euskaraz egiten zuten Euskaraldiaren aurretik, eta % 39k ondoren—. Belarripresten artean, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egiteko ohituran antzematen da aldaketarik handiena, bederatzi puntuko igoera.

137. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak HERRIKO DENDETAN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaeren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ikastetxeetan edo euskaltegietan, euskararen gune nahiko naturalak izanik ere, badago aldaketarik, dena edo gehiena euskaraz egiteko ohitura, batez ere. Belarripresten artean bost puntuko igoera izan da dena edo ia dena euskaraz egiteko ohitura. Kasu honetan berezko erabilera altua zen, gainera, belarripresten artean, gainerako egoerekin alderatuta.

138. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak IKASTETXEAN EDO EUSKALTEGIAN**  
**Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaeren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Aisialdiko taldeetan aldaketa txikia izan da, baina lortutakoa neurri handi batean mantentzen jakin dute, bai ahobiziek eta bai belarriprestek. Esanguratsuena da Euskaraldiaren aurretik belarripresten % 8k egiten zutela dena edo gehiena euskaraz; eta Euskaraldiaren ondoren, % 13 direla.

139. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak AISIALDIKO TALDEKO KIDEEKIN Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaen arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Igoera handiena ezezagunekin edo kalean eman da; ondoren, jaitsiera txiki bat izan du, baina ez oso nabarmena. Rolaren arabera, igoera handiagoa izan da ahobizien kasuan; egonkorragoa, aldiz, belarripresten artean.

140. grafikoa

**Nafarroako parte-hartzaileen hizkuntza-jokabideak EZEZAGUNEKIN EDO KALEAN**  
**Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, rolaren arabera (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Aipatutako egoeratan eta rolaren arabera dena edo gehiena euskaraz egiten dutenen kopurua nola aldatu den aztertu da, baita ere. Nafarroako parte-hartzaileek ezezagunekin edo kalean egiten zuten gutxien Euskaraldiaren aurretik. Ariketak, ordea, bertan izan du eragin gehien: ariketan zehar ezezagunekin dena edo gehiena euskaraz egitera bultzatu ditu parte-hartzaile asko, izan ahobizi edo belarriprest, eta ohitura horiek mantendu egin dira ondorenean ere. Euskaraldian zehar bikoteetan eta lagunarteetan ahalegin handi bat egin dela ere ikusten da, baina atzera egin dutela berriro, zailagoa baita, egoera horietan, aldagetari eustea.

141. grafikoa


**Euskaraldian aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren dena edo gehiena euskaraz egin duten Nafarroako parte-hartzaileak, egoeraren eta rolaren arabera (%)**



Iturria: Siadeco, 2021

142. grafikoa

**Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren dena edo gehiena euskaraz egin duten Nafarroako parte-hartzaileak, egoeraren eta sexuaren arabera (%)**



## A.2.5 Ariguneetako jarduna

### Norberaren ariguneak

Euskaraldian norbanako gisa parte hartu dutenen % 16 aritu dira arigune batean —proportzioa askoz altuagoa da ahobizien artean belarripresten artean baino—. Horietatik gehienak, lantokian. Ariguneetan aritu diren gehienak bakarka bezain eroso sentitu dira, baina % 19k adierazi dute bakarka baino erosoago sentitu direla arigunearen babesean. Ariguneak eragindako aldaketari dagokionez, % 24k diote aldaketa iraunkorra lortu dutela, eta % 23k Euskaraldian zehar aldatu zirela ohiturak, baina ondoren lehengora itzuli direla.

177. taula

#### Nafarroako parte-hartzaileen ariguneetan parte hartzea (%)

		Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Ariguneraren batean parte hartu al duzu?	Bai	18,9	7,8	16,4
	Ez	71,8	84,8	74,7
	Ez dakit	9,3	7,4	8,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
ARIGUNEETAN PARTE HARTU DUTENAK BAKARRIK				
Lantokian		59,8	44,4	58,2
Kultur elkartean		12,4	33,2	14,6
Kirol elkartean		8,9	12,4	9,3
Guraso elkartean		5,5	0,0	4,9
Zer nolako esperientzia izan da?	Bakarka baino erosoago aritu naiz	18,5	27,4	19,4
	Bakarka bezain eroso aritu naiz taldean ere	43,9	23,6	41,7
	Bakarka erosoago aritu naiz taldean baino	0,0	9,3	1,0
	Ez naiz eroso aritu ez bakarka, ezta taldean ere	0,0	3,8	,4
	Beti bezain eroso sentitu naiz. Ez da ezer aldatu	33,3	21,4	32,0
	Ez dakit	4,3	14,5	5,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Taldearen hitz egiteko ohiturak aldatzea lortu duzue?	Bai, badirudi betirako aldatu ditugula	23,8	26,9	24,1
	Bai, baina Euskaraldian zehar besterik ez ziren aldatu	24,4	16,1	23,5
	Ez, nahiz eta saiatu ginen	5,3	33,6	8,3
	Ez, ez ginen ezta saiatu ere egin	1,4	0,0	1,3
	Ez, lehenago ere beti euskaraz aritzen ginen	36,0	14,3	33,7
	Ez dakit	9,1	9,2	9,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.



Emakumezko belarripresten artean, gizonezko belarripresten artean baino nabarmen gehiago dira, bai aldaketa iraunkorra lortu dutela diotenak (% 33 eta % 20 hurrenez hurren), bai saiatu arren, lortu ez zutela diotenak (% 49 eta % 16 hurrenez hurren).

Gizonezko belarripresten artean, gehiago dira aldaketa Euskaraldira mugatu zela diotenak (% 24).

178. taula

**Nafarroako parte-hartzaileen ariguneek taldearen hitz egiteko ohiturak aldatzea lortu ote duten, sexuaren eta hartutako rolaen arabera (%)**

	Emakumezkoa			Gizonezkoa		
	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Bai, badirudi betirako aldatu ditugula	24,7	33,4	25,5	22,1	19,7	21,8
Bai, baina Euskaraldian zehar besterik ez ziren aldatu	25,5	8,8	24,0	22,5	24,2	22,7
Ez, nahiz eta saiatu ginen	3,4	48,9	7,5	8,7	16,3	9,8
Ez, ez ginen ezta saiatu ere egin	2,2	0,0	2,0	0,0	0,0	0,0
Ez, lehenago ere beti euskaraz aritzen ginen	34,4	8,8	32,1	38,9	20,4	36,4
Ez dakit	9,8	0,0	8,9	7,8	19,5	9,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Ariguneen ariketari dagokionez, Nafarroan badago joera bat dioena planteamendu hori ez dela egokia Nafarroako errealitaterako. Indarra ahobizi eta belarriprest roletan sakontzen jarri behar dela, eta aurreragorako utzi ariguneena.

*Ariguneena oso zentratua dago euskararen erabilera handiagoa den lurraldeetarako, Euskal Autonomi Erkidegoa. Ez da kontuan hartu herri eta hiri ezberdinen euskalduntze erritmoa. Nafarroan atzetik goaz, errua bezala sentitzen da. Nafarroan oraindik ez da herritarrak ahobizi eta belarriprest roletan sartzea lortu, indarra hor jarri behar da. Ariguneena hemen aurrerago egin beharreko zerbait dela uste dut. Euskaraldia gune ezberdinetako errealitatera egokitu beharko litzatekeela uste dut*

(39.elkarizketatua; Nafarroa, Belarriprest, 16-29 urte, Iruñea-Iruñerria)

*Tafallan hasieran pentsatzen genuen arigune batzuk izango genituela, adibidez estanko bat. Baina goizean zegoen euskaldun bat eta arratsaldean erdaldun bat. Beraz, ezin duzu jarri txartela edo marka. Orduan oso zaila da errealitate honetan gauzak egitea*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi).

*Interesgarria iruditu zitzaidan ariguneak sortzea, oso garrantzitsua da hizkuntzaren alde. Gizarteak bere indarra du eta gune hauek identifikatzeak indarra ematen dio*

(37.elkarizketatua; Nafarroa, Ahobizi, 45 urtetik gorakoak, 3. GSL)

### Gainontzeko ariguneak

Parte hartzaileen % 29k ariguneak ikusi dituzte Euskaraldiko hamabost egunetan zehar. Horietan, euskara gehiago hitz egin edo entzun dute % 63k.

179. taula

#### **Nafarroako parte-hartzaileak gainontzeko ariguneei buruz (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Saltokietan banketxeetan, erakunde publikoetan...ariguneak ikusi dituzu?	Bai	29,8	25,8	28,9
	Ez	49,7	55,7	51,1
	Ez dakit	20,4	18,5	20,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Arigune horietan, euskaraz gehiago egin duzu edo egin dizute Euskaraldian zehar?	Askoz ere gehiago	20,3	11,4	18,5
	Oro har, gehiago	43,2	51,4	44,8
	Berdin	30,3	31,3	30,5
	Oro har, gutxiago	0,0	0,0	0,0
	Ez dakit	6,2	5,9	6,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## A.2.6 Aurrera begira

### Aldatutako ohiturak mantenduko diren edo ez

Euskaraldiaren eraginez bikotekidearekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 44k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —proportzioa altuagoa da ahobizien artean—. Belarripresten % 38k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela; eta % 27k aldaketa horiek mantenduko dituztela (% 34 emakumezko belarripresten artean, eta % 21 gizonezko belarripresten artean).

143. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (BIKOTEKIDEAREKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren eraginez seme-alabekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 43k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote. Emakumezkoen artean, % 50 dira aldaketa horiek mantenduko dituztela diotenak; gizonezkoen artean, aldiz, % 34.

Belarripresten % 31k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela. Azpimarratzeko modukoa da, halaber, ahobizien % 46k erantzun dutela ez dakitela ohitura horiek mantendu egingo diren edo ez.

144. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (SEME-ALABEKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Familiartean hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 47k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean ia % 53 dira—. Belarripresten % 36k adierazi dute mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela, eta % 22k ez dakite ohitura horiek mantenduko dituzten edo ez.

Familiartean, gizonetzko eta emakumezko belarripresten artean iritzi desberdinak antzematen dira; emakumezko belarripresten artean, gehiago dira aldaketak mantentzeko konfiantza azaldu dutenak (% 27); gizonetzkoen artean, aldiz, zailago ikusten dute, eta gehiago dira mantentzen saiatu arren, kosta egingo zaiela adierazten dutenak (% 40).

145. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (FAMILIARTEAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Lagunartean edo koadrilan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 56k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote —ahobizien artean ia % 62 dira—. Belarripresten artean, gehiago dira mantentzen saiatuko direla baina kostatuko zaiela diotenak (% 38).

146. grafikoa


**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (LAGUNARTEAN EDO KOADRILAN) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Lanean hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 42k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote. Belarripresten artean % 18 dira bakarrik, % 38k adierazi baitute saiatu egingo direla, baina kostatuko zaiela. Beste % 28k ez dakite ohiturak mantendu egingo dituzten edo ez.

Lanean, aldaketak mantentzeko konfiantza zabalduagoa dago emakumezkoen artean (% 48), gizonezkoen artean baino (% 32); aldiz, saiatu arren, kostatuko zaiela diotenak nabarmen gehiago dira gizonezkoen artean (% 37), emakumezkoen artean baino (% 16).

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (LANEAN) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Herriko dendetan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 52k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote. Belarripresten artean % 28 baino ez dira, % 47k adierazi baitute ohiturak aldatzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela.

Herriko dendetan, nabarmen altuagoa da emakumezkoen artean aldaketa horiek mantenduko dituztela diotenak (% 57), gizonezkoen artean baino (% 44). Azken hauen artean, gehiago dira aldaketa mantentzen saiatu bai, baino kostatuko zaiela diotenak (% 34).

148. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (HERRIKO DENDETAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ikastetxean edo Euskaltegian hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 45ek aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote. Belarripresten artean % 49 dira, eta gainera, beste % 17k adierazi dute ohiturak mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela. Ahobizien % 38k diote ez dakitela ohiturak mantenduko dituzten edo ez.

149. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (IKASTETXEAN EDO EUSKALTEGIAN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.



Aisialdi taldeko kideekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 38k aldaketa horiek mantendu egingo dituztela diote. Belarripresten artean baxuagoa da proportzio hori: hamarretik hiruk diote ohiturak mantentzen saiatuko direla, baina kosta egingo zaiela, eta beste hiruk ez dakite ohiturak mantenduko dituzten edo ez. Belarripresten %10ek argi dute Euskaraldian zehar bakarrik aldatu dituztela ohiturak.

150. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (AISIALDI TALDEKO KIDEEKIN) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Ezezagunekin edo kaleko elkarrizketetan hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenen % 40k uste dute ohitura horiek mantendu egingo dituztela, eta beste % 35ek saiatu egingo direla. Ahobizien joera orokorraren oso antzekoa da. Belarripresten artean, aldiz, altuagoa da kostatzen zaiela diotenen pisua; gainera, % 12k argi dute ez dituztela ohiturak mantenduko, eta beste % 14k ez dakite mantenduko dituzten edo ez.

Ezezagunekin edo kalean, nabarmen altuagoa da emakumezkoen artean aldaketa horiek mantenduko dituztela diotenak (% 45), gizonen artean baino (% 33).

151. grafikoa

**Luzera begira, Euskaraldian esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez (Nafarroa) (EZEZAGUNEKIN EDO KALEAN) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

180. taula

**Luzera begira, Euskaraldiari esker aldatu diren ohiturak mantendu egingo diren edo ez, sexuaren eta hartutako rolaren arabera (Nafarroa) (%)**

		Emakumezkoa			Gizonezkoa		
		Ahobizi	Bela- riprest	Guztira	Ahobizi	Bela- riprest	Guztira
Bikotekidearekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	47,9	20,8	44,3	45,3	33,8	42,6
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	18,5	38,5	21,2	16,8	37,7	21,7
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	1,7	4,6	2,1	0,0	3,3	,8
	Besterik	7,3	9,5	7,6	9,7	4,7	8,5
	Ez dakit	24,6	26,7	24,8	28,2	20,5	26,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Seme-alabekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	50,4	43,9	49,5	31,9	38,6	33,5
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	3,4	34,3	7,5	12,4	27,6	15,9
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	0,0	0,0	0,0	0,0	3,3	,8
	Besterik	1,9	0,0	1,6	7,4	10,7	8,2
	Ez dakit	44,4	21,8	41,4	48,3	19,8	41,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Familiartean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	52,8	27,3	49,4	52,3	18,9	44,5
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	23,4	32,5	24,6	22,9	40,0	26,9
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	3,4	0,0	2,9	10,1	11,3	10,4
	Besterik	9,9	14,6	10,6	7,8	10,6	8,5
	Ez dakit	10,5	25,5	12,5	6,9	19,1	9,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lagunartean edo koadrilan	Aldaketa horiek mantenduko ditut	60,9	33,6	57,3	63,3	25,0	54,3
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	29,6	35,0	30,3	28,8	41,2	31,7
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	6,2	7,1	6,3	2,1	12,7	4,6
	Besterik	1,7	14,6	3,4	3,7	9,8	5,1
	Ez dakit	1,7	9,6	2,8	2,1	11,3	4,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Lanean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	52,1	24,7	48,4	37,9	12,0	31,8
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	14,4	29,3	16,4	34,2	46,5	37,1
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	0,0	5,0	,7	3,2	8,0	4,3
	Besterik	10,8	4,5	10,0	10,4	13,9	11,2
	Ez dakit	22,7	36,6	24,5	14,4	19,6	15,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herriko dendetan	Aldaketa horiek mantenduko ditut	61,4	29,2	57,1	48,9	26,8	43,7
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	16,3	55,0	21,5	32,4	40,4	34,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	5,3	4,6	5,2	8,0	9,8	8,4
	Besterik	3,4	0,0	2,9	4,1	15,0	6,7
	Ez dakit	13,7	11,3	13,4	6,6	8,0	6,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ikastetxean edo euskaltegian	Aldaketa horiek mantenduko ditut	45,9	55,8	47,2	43,8	42,8	43,6
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	5,3	5,0	5,2	9,8	27,8	14,1
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	0,0	4,6	,6	5,3	0,0	4,0
	Besterik	9,1	0,0	7,9	5,6	7,0	5,9
	Ez dakit	39,7	34,6	39,0	35,5	22,4	32,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Nire aisialdiko taldeko kideekin	Aldaketa horiek mantenduko ditut	40,6	29,0	39,0	44,0	18,9	38,2
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	15,6	28,8	17,4	30,7	31,1	30,8
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	3,6	13,8	4,9	4,7	6,6	5,2
	Besterik	14,4	0,0	12,5	7,0	12,7	8,3
	Ez dakit	25,9	28,4	26,2	13,5	30,7	17,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ezeza-gunekin edo kalean	Aldaketa horiek mantenduko ditut	47,6	30,7	45,4	34,8	26,9	32,9
	Mantentzen saiatuko naiz, baina kosta egingo zait	33,2	37,9	33,9	38,1	34,4	37,3
	Gehienekin Euskaraldian zehar bakarrik aldatu ditudala argi dut	3,4	10,1	4,3	9,0	14,6	10,3
	Besterik	3,4	0,0	2,9	2,7	8,3	4,0
	Ez dakit	12,4	21,3	13,6	15,4	15,7	15,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021

Nolakoa behar lukeen Euskaraldiak

Parte-hartzaileen % 67k uste dute Euskaraldia urtero egin beharko litzatekeela. % 22k ontzat ematen dute orain arteko maiztasuna, bi urtean behingoa. Emakumezkoen artean, % 72 azaltzen dira urterokoaren alde; bi urtean behingoaaren alde, aldiz, gehiago dira gizonezkoen artean, % 27.

Beraz, maiztasun handiagoa eskatzen dute batzuek, eta maiztasun berdina baina iraupen luzeagoa, beste batzuek. Parte-hartzaileen % 82k hurrengo edizioetan parte hartzeko asmoa dute, eta % 15ek diote ziurrenik parte hartuko dutela.

181. taula

**Nafarroako parte-hartzaileentzat nolakoa behar lukeen Euskaraldiak (%)**

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira	
Zein maiztasun izan beharko luke Euskaraldiak?	Urterokoa	68,3	64,3	67,4
	Orain arte bezala, bi urtean behingoa	22,2	20,9	21,9
	Bi urtean behin baino tarte handiagoa	2,5	3,6	2,7
	Ez dakit	4,7	9,9	5,9
	Beste bat	2,2	1,2	2,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
11 eguneko izatetik, 15ekoa izatera pasa da aurten. Iraupena egokia da?	Luzeegia da	2,7	3,6	2,9
	Motzegia da	25,4	26,1	25,6
	Iraupen egokia izan du	66,0	60,2	64,7
	Ez dakit	5,9	10,1	6,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraldiaren hurrengo edizioetan parte hartuko duzu?	Bai, zalantzarik gabe	86,1	70,5	82,6
	Ziurrenik bai	12,2	27,0	15,5
	Ziurrenik ez	0,1	0,3	0,2
	Ez, zalantzarik gabe	0,3	0,4	0,3
	Ez dakit	1,3	1,8	1,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Zure inguruko zenbatek hartu dute parte aurtengo Euskaraldian?	Nire inguruan askok hartu dute parte Euskaraldian	70,5	49,4	65,8
	Nire inguruan oso gutxi hartu dute parte Euskaraldian	25,2	45,6	29,8
	Nire inguruko inork ez du parte hartu	0,6	1,1	0,7
	Ez dakit	3,6	3,9	3,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
2018koarekin alderatuta, zure inguruan zenbatek hartu dute parte aurtengo Euskaraldian?	2018an parte hartu zuten (ia) guztiak hartu dute parte 2020an ere	52,2	44,3	50,4
	2018an parte hartu zuten batzuk ez dute parte hartu 2020an	15,8	13,9	15,3
	2018an parte hartu ez zuten batzuk parte hartu dute 2020an	12,5	9,3	11,8
	Nire inguruan oso gutxi hartu dute parte Euskaraldian, bai 2018an, bai 2020an ere	3,9	9,1	5,1
	Nire inguruko inork ez du parte hartu	0,3	0,6	0,3
	Ez dakit	15,4	22,9	17,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Aurrera begira, hainbat aldaketa- eta egokitze-proposamen egin dituzte parte-hartzaileek: Euskaraldiarekin lotutako ekintza gehiago, babes ofizial handiagoa edo ariketa udaberrian egitea, besteak beste. Batzuek uste dute Euskaraldia zurrunezia dela, eta mesede egingo liokeela malguagoa izateak. Euskaraldiak irudi instituzionala duela ere aipatu dute.

*Ekintza batzuk gehiago behar dira. Gauza itxi batzuk egon dira, baina jendea euskararen inguruan batzeko gauza irekiak behar dira. Babes ofiziala behar da, enpresa pribatuen babesa, kolektiboak...*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

*Sozializatzen garen toki publikoen inplikazioa behar da (dendak, tabernak...)*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

*Udaberri aldera izatea. Ekintza gehiago egiten dira, kalera gehiago ateratzen gara, dantza, festak eta horrelako gauzak. Segun ze berokirekin ezin duzu txapa eraman. Berokirik gabeko tenporada batean. Hemen inguruan izan genuen komentario orokor bat da*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Ondo legoke urtean zehar, gaur egun bizi garen komunikabideen gune honetan, rekordatorio batzuk bezala botatzea komunikabideetan, hilean behin anuntzio batzuk bezala. Izan ere, gero bat batean etortzen da urria edo azaroa eta Etb-k dena ematen du, baina gero ez da ezertaz gogoratzen*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Bai. Ikusi dut Euskaraldiak eragina duela eta parte hartzen jarraituko dut. Hizkuntza ohituretan aldaketak lortzea oso poliki doa, hamabostaldi bakarra ez da nahikoa, jarraipena eman behar zaio*

(39.elkarriketatua; Nafarroa, Belarriprest, 16-29 urte, Iruñea-Iruñerria)

*Ez nituzke hainbeste arau jarriko, ez nuke hain rol limitatua jarriko. Nire ustez zerbait egingo nuke konexio moduan. Euskaraz badakienak euskaraz hitz egiteko aukera izan dezan eta euskalduna denak ere euskaraz bestea entzun dezan. Modu horretan egingo nuke, ikusiz badugula aukera hori eta aprobetxatu dezagun, baina gaizki pasatu gabe edo gaizki sentitu gabe euskaraz ezin duzulako edo ez dakizulako edo erantzun behar dizulako. Modu malguagoa erabili beharko genuke. Euskaraz hitz egitea, baina gozatzea. Esperientzia polit baten bitartez euskara bultzatzea*

(8.eztabaida taldea\_Nafarroa, 30-44, Ahobizi, Iruñerria)

*Euskaraldia beraren akatsetako bat: ez azaltzea edo ez aurkitzea modu zehatza, klabea azaltzeko zer den belarriprest, zer den ahobizi eta batez ere jendearengana iristeko*

(10.eztabaida taldea\_Nafarroa, 16-29, Belarriprest)

*Euskaraldia ikusten dela pixka bat instituzionalizatua egongo balitz bezala, ez da Topaguneak antolatzen duen zerbait, baizik eta Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Elkargoak... Irudi horrek gazteen ikuspuntutik min eman ahal dio*

(10.eztabaida taldea\_Nafarroa, 16-29, Belarriprest)

Ariketak denbora behar duela azpimarratu dute batzuek. Bi edizioetan parte hartu dutenek hobeto barneratu dutela eta modu kontzientegoan egin dutela ariketa.

*Uste dut bi edizioen arteko aldaketan parte hartu duen jendeak hobeto ulertzen zuela zer zen Euskaraldia eta erabakia kontzientego hartu duela, hori ikusi dut. Gero ondorioak ez dakit nolakoak izan diren pandemiarekin, baina erabakiak izan du zeozer*

(10.eztabaida taldea\_Nafarroa, 16-29, Belarriprest).

## A.2.7 COVID-19aren eragina

2020ko Euskaraldian COVID-19 pandemiak izan duen eraginaz ez dago zalantzarik. Nolanahi ere, alderdi ezberdinez galdetuta, eragin horri ematen zaion garrantzia ere diferentea da. Badirudi giroan eragin duela gehien, ia hamarretik zortzik adierazi baitute asko edo nahikoa eragin duela. Antolaketa ia hamarretik seik aipatu dute.

182. taula

**Nafarroako parte-hartzaileentzat COVID-19 pandemiak izan duen eragina (%)**

		Ahobizi	Belarjprest	Guztira
Txapak kalean ikustean	Asko	28,4	35,2	29,9
	Nahikoa	29,0	26,6	28,4
	Gutxi	21,5	18,9	20,9
	Batere ez	12,6	8,6	11,7
	Ez dakit	8,6	10,8	9,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Giroan	Asko	46,2	40,1	44,8
	Nahikoa	34,6	28,2	33,2
	Gutxi	10,9	15,0	11,8
	Batere ez	2,9	4,5	3,3
	Ez dakit	5,4	12,2	6,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Antolaketan	Asko	28,5	30,6	29,0
	Nahikoa	30,4	28,3	29,9
	Gutxi	17,7	14,7	17,0
	Batere ez	2,4	4,2	2,8
	Ez dakit	21,0	22,3	21,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Izen emateetan	Asko	18,0	17,7	17,9
	Nahikoa	26,4	29,0	27,0
	Gutxi	30,2	27,2	29,6
	Batere ez	10,9	8,9	10,4
	Ez dakit	14,5	17,2	15,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Mezua zabaltzerakoan	Asko	18,4	22,3	19,3
	Nahikoa	29,0	35,9	30,6
	Gutxi	30,8	24,7	29,4
	Batere ez	11,5	6,8	10,5
	Ez dakit	10,2	10,3	10,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Rolak betetzerakoan	Asko	22,0	25,4	22,8
	Nahikoa	33,3	28,4	32,2
	Gutxi	26,0	18,5	24,3
	Batere ez	9,6	7,1	9,1
	Ez dakit	9,0	20,7	11,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Parte hartzeko aukeretan	Asko	28,2	29,1	28,4
	Nahikoa	31,4	25,7	30,2
	Gutxi	22,8	20,8	22,3
	Batere ez	7,9	6,0	7,5
	Ez dakit	9,7	18,5	11,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

COVID-19 pandemiak eta osasun egoeraren ondoriozko neurri murriztaileek asko eragin dute Euskaraldiko parte-hartzaileen sozializazio-mailan. Hala ere, zenbaitek nahiko argi ikusten dute dena ezin zaiola pandemiari egotzi, eta bestela ere, lehen edizioarekiko beheraldi bat antzeman dela 2020ko edizioan.

*Lehenengoak ilusioa sortu zuen, ongi hedatu zen eta oso ongi antolatu zela uste dut. Azkenengo honetan nik uste saiatu egin ginela baina erdi konfinamenduan geunden, garai horretan igotzen ari ziren kutsatzeak, jendea ezin zen elkartu, elkarteak itxita, tabernak itxita, ariguneak ezin ziren eratu apenas... ala moduz gertatu zen*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Duela bi urte oso pozgarria izan zen, jai bat izan zen. Aurten nahiko tristea izan da, interesgarria baina tristea*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Azkeneko edizioan igual parte asko ez nuen hartu, baina egoeragatik. Ez nintzen etxetik asko atera, orduan ez nituen txapa asko ikusi, ez nuen gehiegi parte hartu, ez nuen asko ikusi, nabaritu. Lehendabizikoa askoz ere politagoa izan zen. Askoz ere jende gehiago ezagutu nuen ez nekiena euskaraz hitz egiten zuenik. Baina oraingoan lanetik etxera ibili naiz*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi).

*Duela bi urte mundiala izan zen. Jende piloak apuntatu zen antolatzeko eta laguntzeko, baina iaz oso zaila izan zen. Ezin ginen bildu, ezin ginen elkarretaratu, eta beraz, oso zaila izan zen antolakuntza. Pixka bat desitxuratua geratu zen*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi)

*Aipatuko nuke lehenengoan gauza guztiak bezala lehenengo aldiz direnean eta nobedadea denean sortzen duen irrika hori*

(11.eztabaida taldea\_Nafarroa, 45+, Ahobizi).



## A.2.8 Norbanakoen joerak

Atal honen helburua da Euskaraldian parte-hartzen duten norbanakoen profiletan sakontzea: batetik, rol bakoitza hautatzen duten norbanakoen ezaugarri bereizgarriak zeintzuk diren azalduko da; eta bestetik, Euskaraldiak haien hizkuntza-ohituratan izan duen eragina zein izan den.

Ariketa hau egiteko, lau mota eraiki dira, hautatutako rola eta hizkuntza-gaitasuna gurutzatuta, norbanakoaren profila nola aldatzen den hobeto adierazten dutelako: ahobizi euskaldun oso, ahobizi euskaldun hartzaile<sup>8</sup>, belarriprest euskaldun oso, eta belarriprest euskaldun hartzaile.

Eta ondoren, aztertu da zein den bakoitzaren profil bereizgarria (ez gehiengoa). Horrek esan nahi du atal honetan nabarmenduko dena ez dela zein den rol-mota bakoitzak erakarri duen gehiengoaren profila, baizik eta besteekin alderatuta, zein diren bereziki erakartzen dituen ezaugarriak (adina, generoa, ikasketak, etab.). Horiek besteekiko pisu nabarmena dutelako nabarmentzen dira, ez pisu handiena dutelako – nahiz eta batzuetan bat egiten duten –.

### 3. Rola hautatzeko joerak.

Euskaraldian izena ematerako unean erabaki garrantzitsu bat hartu behar dute norbanakoek: ahobizi edo belarriprest rola hartzea. Atal honetan azalduko da rol-mota bakoitzerako nor duen joera adierazgarriena, aldagai ezberdinak kontuan izanik.

#### Karakterizazioa

Nafarroako parte-hartzaileen joerak kontuan izaten badira, bi mailatan aurki daitezke aldeak: hizkuntza-gaitasunaren arabera, batetik; eta eraikitako lau rol-moten arabera, bestetik.

Hizkuntza-gaitasunaren arabera, ondorengoak dira bereizgarriak:

- Euskaldun osoak (ahobizi edo belarriprest) dira, modu berezitan, ikasketa mailarik altuenak dituztenak, eta Nafarroako gune euskaldunenetakook (3. eta 4. gune soziolinguistikoak).
- Euskaldun hartzaileetan, aldiz, ikasketa-maila baxuagoa dutenak, eta 1. gune soziolinguistikokoak.

Adinak, generoak eta lehen hizkuntzak bereizten ditu lau rol-motak:

- Adin-tarte bakoitzak joera nabarmenagoa du rol-mota batengan: 16-29 urte bitartekoek ahobizi euskaldun osoengan; 45-60 adin-tarteak ahobizi euskaldun hartzaileengan; eta 60

---

<sup>8</sup> Ahobizi euskaldun hartzaileen kopurua oso txikia dela kontuan hartu behar da.

urteik gorakoek, belarriprest euskaldun osoengan. Belarriprest euskaldun hartzaileetan adin-tarte bakoitzaren pisua nahiko orekatuta dago.

- Generoari dagokionez, emakumezkoek pisu aipagarria dute ahobizi euskaldun osoetan eta belarriprest euskaldun hartzaileetan; eta gizonezkoek, aldiz, ahobizi euskaldun hartzaileetan eta belarriprest euskaldun osoetan.
- Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenak ahobizi euskaldun osoetara jotzen dute modu aipagarrian; beste rol-motetan indar bereziagoa hartzen dute lehen hizkuntzatzat gaztelania dutenek.

	<b>Ahobizi</b> euskaldun oso	<b>Ahobizi</b> euskaldun hartzaile*	<b>Belarriprest</b> euskaldun oso	<b>Belarriprest</b> euskaldun hartzaile
Adina	16-29 urte	45-60 urte	60 urteik gora	Nahiko orekatuta
Generoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Goi-erdi mailako batxilergoa	Goi-mailako ikasketak Erdi goi-mailako ikasketak	Oinarrizkoak
Zein hizkuntza errazago?	Euskaraz Biak berdin		Erdaraz	
Lehen hizkuntza	Euskara Biak, euskara eta gaztelania	Gaztelania	Gaztelania	Gaztelania
GSL	4.gune soziolinguistikoa	1.gune soziolinguistikoa	3.gune soziolinguistikoa	1.gune soziolinguistikoa

### Parte-hartzeko arrazoiak

Euskaraldian izena emateari loturiko elementuen kasuan, parte hartzeko arrazoiak ezberdintzen dituzte ahobizi eta belarriprest rolak: ahobiziei bereziki bultzatzen die euskararen erabilera handitzeak; eta belarriprestei, aldiz, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak (euskaldun hartzaileak) edo inguruko euskaldunak identifikatzeak (euskaldun osoak).

Hizkuntza-gaitasunagatik rola hautatzen dutenek indar aipagarriagoa dute ahobizi euskaldun osoen eta belarriprest euskaldun hartzaileen artean. Belarriprest euskaldun osoek eta ahobizi euskaldun hartzaileen artean, aldiz, hizkuntza-jokabideak pisu aipagarria du.

Oro har, denak neurri txikian bizi dira euskaraz, eta belarriprest euskaldun hartzaileen kasuan, are txikiagoan.

Euskaraldian parte-hartzen lagundu duten faktoreek ezberdintzen dituzte eraikitako lau rol-motak:

- *Ahobizi euskaldun osoengan* bereziki erakartzen du lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi izateak.
- *Ahobizi euskaldun hartzaileen* kasuan, euskaraz bizi nahi izateak edo euskararen bueltan egiten diren ekimen guztietan parte-hartzeak du pisu bereizgarria.
- *Belarriprest euskaldun osoetan* aisialdiak pisu aipagarria du; hau da, "lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu" eta "nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu" faktoreek.
- *Belarriprest euskaldun hartzaileak* bereziki erakarri ditu 2018ko ilusioak bultzatuta izena eman dutenak.

	Ahobizi euskaldun oso	Ahobizi euskaldun hartzaile*	Belarriprest euskaldun oso	Belarriprest euskaldun hartzaile
Zergatik rola?	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-jokabideengatik	Hizkuntza-jokabideengatik	Hizkuntza-gaitasunagatik
Parte-hartzeko arrazoia	Euskararen erabilera handitzea	Euskararen erabilera handitzea	Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea
Lagundu duten faktoreak	Lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditut	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu  Nire aisialdiko taldean (kirola, musika, antzerkia...) euskarari bultzada eman nahi diogu.	2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera
Euskaraz bizi?	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri oso txikian

#### 4. Norbanakoen hizkuntza-ohituratan izan duen eragina.

Bestalde, aztertu da Euskaraldiak nori eragin dion modu berezitan, norbanakoen zein profili. Hau da, bereziki nork jotzen duen erabateko eragina duela esatera edo batere eraginik ez duela esatera. Horretarako, 2020ko Euskaraldiak zer-nola eragin dien galderari emandako erantzuna hartu da oinarritzat; sei erantzun posible zituen: argi eta garbi; oro har, bai; batzuk bai, beste batzuk ez; oro har, ez; inolaz ere ez; eta ez dakit. Horiek kontuan izanik, ondorengo profil bereizgarriak osatu dira.

##### Karakterizazioa

Emakumezkoek joera bereizgarriagoa izan dute hizkuntza-ohiturak nolabait aldatu dituztela adierazterakoan, aldaketa zein neurritan gauzatu den zehaztu gabe. Gizonezkoek, berriz, pisu nabarmenagoa dute aldaketa oso txikia edo ia aldaketarik ez dela izan adierazterakoan.

Adinari dagokionez:

- Hizkuntza-ohiturak argi eta garbi aldatu dituztenen artean, 45 eta 60 urte bitartekoak bereizten dira bereziki; baita 'oro har, ez' erantzunean ere.
- 60 urtetik gorako nafarrek dute pisu aipagarriena eragin txikienetan ('oro har, ez' eta 'inolaz ere ez').
- 30 eta 44 urte bitartekoak 'oro har, bai' erantzutean nabarmentzen dira, bereziki.
- 16-29 adin-tartea da aipagarriena ohitura batzuk bai, baina beste batzuk ez direla aldatu diotenean.

Ikasketei erreparatuz gero, aldea nabaria da: hizkuntza-ohiturei erabateko astindua eman zaionean bakarrik dute pisu aipagarria goi-mailako ikasketak ez dituztenak.

Lehen hizkuntza gutxienez euskara (biak dituztenak ere bai) dutenek modu berezitan diote hizkuntza-ohiturak 'argi eta garbi', 'inolaz ere ez' edo ez dakitela zein neurritan aldatu dituzten.

Lurraldea eta gune soziolinguistikoa aztertzen badira, nolabaiteko eragina izan denean daude elementu nabarmenenak, bestela, herri euskaldunen eragina bereizgarria da eragina txikia izan denean.

- Eragina 'argi eta garbi' izan dela esaterakoan, 1. eta 2. gune soziolinguistikoko norbanakoen pisua bereizgarria da.
- 'Oro har, bai' diotenen artean 3. gune soziolinguistikoko herriak.
- 'Batzuk bai, beste batzuk ez' adieraztera bereziki erakartzen ditu 1. Gune soziolinguistikoko herritarrak

Azkenik, rol-motaren arabera:

- *Belarriprest euskaldun* osoek jotzen dute modu bereizitu batean hizkuntza-ohiturak 'argi eta garbi' aldatu dituztela esatera, baita 'inolaz ere ez' dituztela aldatu diotenean ere.
- *Ahobizi euskaldun* osoek pisu bereizgarria dute 'oro har, bai' eta 'ez dakit' adierazterakoan.
- *Ahobizi euskaldun hartzaileek* joera berezia dute ' batzuk bai, beste batzuk ez' eta 'oro har, ez' esatekoa.

	<b>Argi eta garbi</b>	<b>Oro har, bai</b>	<b>Batzuk bai, beste batzuk ez</b>	<b>Oro har, ez</b>	<b>Inolaz ere ez</b>	<b>Ez dakit</b>
Adina	45-60 urte	30-44 urte	16-29 urte	45-60 urte 60 urtetik gora	60 urtetik gora	16-29 urte
Generoa	Emaku- mezkoak	Emaku- mezkoak	Emaku- mezkoak	Gizonezkoak	Gizonezkoak	Emaku- mezkoak
Ikasketak	Oinarrizko batxilergoa  Goi-mailako batxilergoa	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Bat ere ez	Goi-mailako ikasketak
Lehen hizkuntza	Euskara  Euskara eta gaztelania, biak	Gaztelania	Gaztelania	Gaztelania	Euskara	Euskara  Euskara eta gaztelania, biak
GSL	1. eta 2. Gune soziolinguistik oak	3. Gune soziolinguistik oia	1. Gune soziolinguistik oia	3. eta 4. Gune soziolinguistik oia	4. Gune soziolinguistik oia	3. gune soziolinguistik oia
Rola	Belarriprest euskaldun oso	Ahobizi euskaldun oso	Belarriprest euskaldun hartzaile	Belarriprest euskaldun hartzaile	Belarriprest euskaldun oso	Ahobizi euskaldun oso

### Parte-hartzeko arrazoiak

Parte-hartzeko arrazoiak eta Euskaraldian zehar egindako ibilbideak ere badu zerikusia hizkuntza-ohituretan izandako eraginean.

Erabateko eragina izan denean ('argi eta garbi') hizkuntza-gaitasunagatik rola hartu dutenek indar aipagarria dute. Aldiz, eraginik ez denean egon, hizkuntza-jokabideak pisu adierazgarriagoa izan du ('inolaz ere ez').

Argi eta garbi eragina izan denean, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak pisu aipagarria du parte-hartzeko arrazoi nagusi gisa; eta aldiz, eraginik izan ez denean, euskararen erabilera handitu nahi izateak. Tartean nahasten dira joerak: aldaketa 'oro har, bai' edo 'oro har, ez' izan denean, pisu aipagarriagoa hartzen du euskararen erabilera handitu nahi izateak; eta ohitura batzuk aldatu bai, baina beste batzuk mantendu badira, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutu nahi izateak.

Euskaraldian izena ematen lagundu duten faktoreetan dago ezberdintasun handiena:

- Erabateko eragina izan duela diotenak, hau da, ohiturak argi eta garbi aldatu dituztenak bereziki bultzatu ditu lantokian gehiengoak hartu duela parte, arigunea sortu izanak.
- Ohitura batzuk bai, baina beste batzuk aldatu ez direnean, lagunartean edo koadrilan hizkuntza-ohiturak aldatu nahi izateak berezia izan du.
- Ohiturak oro har aldatu ez direnean, pisu aipagarria dute 2018ko ilusioak, eta lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi izateak.
- 'Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut' faktoreak bi kasutan du eragin berezia: ohiturak oro har aldatu direnean; eta inolaz ere ez direnean aldatu.
- Eraginik izan ote duen ez dakitenen artean, pisu aipagarria du kalean euskara gehiago entzun nahi izateak.

Nabarmentzekoa da gehiengoa neurri txikian bizi dela euskaraz, eraginik izan ez dutenak edo izan ote dutenak izan ezik, haiek neurri handian bizi dira euskaraz. Hartutako rolaren konpromisoak, oro har, neurri handian bete dituzte, ohitura batzuk bai, baina beste batzuk aldatu ez dituztenek, eta oro har aldaketarik ez duenak izan neurri txikian bete ditu.

Horrekin lotuta, txapa beti edo ia beti eraman duenak pisu aipagarria du ohiturak oro har bai eta batzuk bai eta beste batzuk aldatu ez dituztenen artean. Inoiz ez edo ia inoiz ez jantzi ez dutenek, aldiz, aldaketarik izan ote duen ez dakitenen artean.

Euskaraldia lagunekin burutzearen erraztasunak du pisu adierazgarri handiena ia kasu gehienetan. Oro har aldatu direla diotenek, lagunekin ez ezik, bikotekidearekin egin zaie erraza ariketa, modu berezian. Ohiturak argi eta garbi aldatu direnean, aldiz, lankideekin erraza izatea da aipagarriena.

Zailtasuna kontuan hartzen bada, zerbitzu pribatuetan bereziki aipagarria da kasu guztietan. Ezezagunak gehitzen dira erabateko aldaketa izan dutenen artean, baita 'oro har, ez' eta aldaketarik izan ez dutenen artean ere. Zerbitzu pribatuei publikoak ere gehitzen zaizkio aldaketa 'oro har, bai' izan dutenen artean.

Euskaraldian zehar errazen hartutako jokabideak, seguraski, lotura estua dute hartutako rolaekin: erabateko aldaketa izan dutenen artean, lehen hitza euskaraz egitea eta euskaraz egin diezaioten eskatzea izan da errazena modu aipagarrian; azken hori izan da errazena ohitura batzuk bai, baina beste batzuk ez dituztenentzat, baita aldaketarik izan ez dutenen kasuan ere.

	<b>Argi eta garbi</b>	<b>Oro har, bai</b>	<b>Batzuk bai, beste batzuk ez</b>	<b>Oro har, ez</b>	<b>Inolaz ere ez</b>	<b>Ez dakit</b>
Zergatik rola?	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-jokabideengatik	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-gaitasunagatik	Hizkuntza-jokabideengatik	Hizkuntza-gaitasunagatik
Parte-hartzeko arrazoia	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Euskararen erabilera handitzea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Euskararen erabilera handitzea	Euskararen erabilera handitzea	Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea
Lagundu duten faktoreak	Lantokian denok edo gehiengoak hartu dugu parte, arigunea sortu dugu	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Lagunartean edo koadrilan euskararen erabilera handitu nahi dugu	Lantokiko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditut  2018an ez nuen parte hartu, baina inguruan sortu zen ilusioak bultzatu nau aurten parte hartzera	Euskaraz bizi nahi dut/euskararen inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dut	Kalean euskara gehiago entzun nahi dut
Euskaraz bizi?	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri handian	Neurri handian
Txapa eraman?	Askotan -Batzuetan	Beti edo ia beti	Beti edo ia beti	Askotan	Batzuetan	Inoiz ez Gutxitan
Zenbateraino bete konpromisoa	Neurri handian	Neurri handian	Neurri txikian	Neurri txikian	Neurri handian	Neurri handian
Erraza norekin	Lankideekin	Lagunekin Bikotekidearekin	Lagunekin	Lagunekin	Lagunekin	Lagunekin
Zaila norekin	Zerbitzu pribatueta Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatueta Zerbitzu publikoetan	Zerbitzu pribatueta	Zerbitzu pribatueta Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu pribatueta Ezezagunekin edo kalean	Zerbitzu publikoetan
Jokabide errazena	Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea.  Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot.	Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro.	Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot.	Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea (euskara eta erdara erabiltzea).	Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatu diot.	Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro.



# B atala

## Euskaraldia entitateen ikuspegitik

### B.1. ENITATEEN UNIBERTSOAZ


Nafarroan, denera, 696 egoitzek eman dute izena 2020ko Euskaraldian, eta haiek 1.974 arigune sortu dituzte, 1.043 kanpo-arigune (% 52,8) eta 931 barne-arigune (% 47,2).

#### B.1.1. Euskaraldian izena eman duten egoitzak

Nafarroan izena eman duten 696 egoitza horiek **eskualdeka** banatzen baditugu, Iruñerria eta Baztan-Bidasoa dira pisu handiena dutenak: Iruñerrian 216 egoitzek eman dute izena (% 31), eta Baztan-Bidasoan, aldiz, 176k (% 25,3). Kontran, Zangozerria (2 egoitza; % 0,3) eta Pirinioak (4 egoitza; % 0,6) dira ekarpen txikiena egin dutenak.

152. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateen egoitzak eskualdearen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

183. taula


**Euskaraldian izena eman duten entitateen Nafarroako egoitzak eskualdearen arabera.**

Eskualdea	Egoitza kop.	%
Iruñerria	216	31,0
Baztan-Bidasoa	176	25,3
Sakana	119	17,1
Larraun-Leitzalde	100	14,4
Estelleria	52	7,5
Izarbeibar-Novenera	10	1,4
Pirinioaurrea	7	1,0
Erribera	5	0,7
Erdialdea	5	0,7
Pirinioak	4	0,6
Zangozeria	2	0,3
<b>Guztira</b>	<b>696</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nafarroan izena eman duten egoitzak kokatuta dauden herrien **habitatari** erreparatzen badiogu, landa eremuan kokatzen dira hamar egoitzatik sei (436; % 62,6). Era berean, nabarmentzekoa da egoitzen ia herena (% 28,2) hirigunean kokatzen dela.

153. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako egoitzak urbanizazio-mailaren arabera (kop.)**

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

184. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako egoitzak urbanizazio-mailaren arabera**

	Kop.	%
Hirigunea	196	28,2
Bitarteko hirigunea	64	9,2
Landa eremua	436	62,6
<b>Guztira</b>	<b>696</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nafarroaren kasuan, 696 egoitza horiek kokatuta dauden herrien **gune soziolinguistikoa** ere aztertu da. Horren arabera, izena eman duten egoitzen % 41,8 (291 egoitza) 1.gune soziolinguistikoko herrietan kokatuta dago, eta segidan, egoitzen % 34,2, 3. gune soziolinguistikoa (238).

185. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateen egoitzak gune soziolinguistikoaren arabera**


Gune soziolinguistikoa	Kop.	%
1. gune soziolinguistikoa	291	41,8
2. gune soziolinguistikoa	62	8,9
3. gune soziolinguistikoa	238	34,2
4. gune soziolinguistikoa	105	15,1
<b>Guztira</b>	<b>696</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Nafarroan izena eman duten egoitzak **entitate-motaren** arabera, Euskal Herriko joerarekin bat egiten du bertakoak ere: establezimendu eta zerbitzu-emaile txikien sektorea da nagusitzen dena (232 egoitza, % 33,3). Dena den, Nafarroaren kasuan nabarmentzekoa da administrazio publikoak eta hezkuntzako eragileek duten pisua: administrazioko 111 egoitzek eman dute izena (% 15,9), eta hezkuntza arloko 96k (% 13,9).

154. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateen egoitzak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

186. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateen egoitza kopurua, entitate-motaren arabera**

Entitate-mota	Egoitza kop.	%
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	232	33,3
Administrazio publikoa	111	15,9
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	96	13,8
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	74	10,6
Zerbitzu-enpresak	68	9,8
Bestelakoak	43	6,2
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	36	5,2
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	23	3,3
Hedabideak	9	1,3
Industria-enpresak	4	0,6
<b>Guztira</b>	<b>696</b>	<b>100,0</b>


*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

## B.1.2. Entitateek sortutako ariguneak

2020ko Euskaraldian izena eman duten Nafarroako 696 egoitzek, denera, 1.974 arigune sortu dituzte: 1.043 kanpo-ariguneak izan dira (% 52,8), eta barne-ariguneak, aldiz, 931 (% 47,2). Kopuru absolututan, 112ko aldea dago bi arigune-moten artean.

155. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako ariguneak, motaren arabera (%)**




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Ariguneen datuak **eskualdeka** aztertuz gero, arigune gehien sortu dituzten eskualdeak egoitza gehien dituztenekin bat egiten dute: Iruñerrian sortu dira arigune gehien (714; % 36,2) eta Baztan-Bidasoa dago jarraian (507; % 25,7). Kontran, Erdialdea eta Zangozerian sortu dira arigune gutxien, 7 eta 4, hurrenez hurren.

156. grafikoa


**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako ariguneak eskualdearen arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

157. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako ariguneak eskualdeka, motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

187. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortu dituzten ariguneak eskualdearen eta motaren arabera**


Eskualdea	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Iruñerria	327	45,8	387	54,2	714	36,2
Baztan-Bidasoa	256	50,5	251	49,5	507	25,7
Sakana	157	47,3	175	52,7	332	16,8
Larraun-Leitzaldea	101	42,3	138	57,7	239	12,1
Estellerria	61	48,8	64	51,2	125	6,3
Izarbeibar-Novenera	8	47,0	9	53,0	17	0,9
Pirinioak	6	60,0	4	40,0	10	0,5
Pirinioaurrea	4	40,0	6	60,0	10	0,5
Erribera	6	66,7	3	33,3	9	0,5
Erdialdea	3	42,9	4	57,1	7	0,4
Zangozerria	2	50,0	2	50,0	4	0,2
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>47,2</b>	<b>1.043</b>	<b>52,8</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Habitatari** dagokionez, Nafarroan landa eremuko herrietan sortu dira ia hamar arigunetik sei (% 57,6), izan barne-ariguneak zein kanpo-ariguneak.

158. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune-motak habitataren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

188. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune-motak habitataren arabera**


Habitat mota	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Hirigunea	309	33,2	359	34,4	668	33,8
Bitarteko hirigunea	78	8,4	91	8,7	169	8,6
Landa eremua	544	58,4	593	56,9	1.137	57,6
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>47,2</b>	<b>1.043</b>	<b>52,8</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Hiru habitaten artean ez da alderik egon barne- edo kanpo-ariguneak sortzerakoan; hiruetan kanpo-ariguneak sortzeko joera izan dute.

159. grafikoa

**Nafarroako urbanizazio-maila ezberdinetan sortutako ariguneak, motaren arabera (%).**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

189. taula

**Nafarroako urbanizazio-maila ezberdinetan sortutako ariguneak, motaren arabera**

Habitat mota	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Hirigunea	309	46,3	359	53,7	668	100,0
Bitarteko hirigunea	78	46,2	91	53,8	169	100,0
Landa eremua	544	47,9	593	52,1	1.137	100,0
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>100,0</b>	<b>1.043</b>	<b>100,0</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.



Nafarroan, **gune soziolinguistiko**en arabera, 1. gune soziolinguistikoan dauden herrietan sortu da arigune gehien (868; % 44), eta jarraian dago 3.gune soziolinguistikoa, 698 egoitzarekin (% 35,4). Lau gune soziolinguistikoetan arigune bata edo bestearen aldeko joera berbera da: kanpo-arigune gehiago sortzen dira barne-ariguneak baino.

160. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune-motak gune soziolinguistikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

190. taula


**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune kopurua, gune soziolinguistikoaren arabera**

	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1.gune soziolinguistikoa	407	43,7	461	44,2	868	44,0
2.gune soziolinguistikoa	87	9,3	93	8,9	180	9,1
3.gune soziolinguistikoa	346	37,2	352	33,7	698	35,4
4.gune soziolinguistikoa	91	9,8	137	13,1	228	11,6
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>100,0</b>	<b>1.043</b>	<b>100,0</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

161. grafikoa

**Nafarroako gune soziolinguistiko ezberdinetan sortu diren ariguneak, motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

191. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako gune soziolinguistiko ezberdinetako entitateek sortutako arigune kopurua, lurraldearen eta entitate-motaren arabera**


	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1.gune soziolinguistikoa	407	46,9	461	53,1	868	100,0
2.gune soziolinguistikoa	87	48,3	93	51,7	180	100,0
3.gune soziolinguistikoa	346	49,6	352	50,4	698	100,0
4.gune soziolinguistikoa	91	40,0	137	60,0	228	100,0
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>47,2</b>	<b>1.043</b>	<b>52,8</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

**Entitate-motari** erreparatzen badiogu, Nafarroan hezkuntza arloa izan da arigune gehien sortu dituen: 1.974 arigunetik 449 dira hezkuntza eragileek sortutakoak (% 22,7). Dena den, oso gertu dago establezimendu eta zerbitzu-emaile txikien sektorea (430; % 21,8); kopuru absolututan 19ko aldean dago.

162. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako ariguneak, entitate-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

192. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune kopurua, entitate-motaren arabera**

	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Administrazio publikoa	122	13,1	166	15,9	288	14,6
Bestelakoak	52	5,6	84	8,1	136	6,9
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	120	12,9	83	8	203	10,3
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	21	2,6	26	2,5	47	2,4
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	166	18	264	25,3	430	21,8
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	43	4,6	26	2,5	69	3,5
Hedabideak	22	2,4	22	2,1	44	2,2
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	254	27,3	195	18,7	449	22,7
Industria-enpresak	3	0,3	15	1,4	18	0,9
Zerbitzu-enpresak	128	13,7	162	15,5	290	14,7
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>100</b>	<b>1043</b>	<b>100</b>	<b>1974</b>	<b>100,0</b>


*Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.*

Entitate-moten artean, aldiz, izan dira aldeak barne- edo kanpo-ariguneak sortzerakoan, Nafarroaren kasuan ondorengoak dira:

- Barne-arigune gehiago sortu dituzte elkaratek, gizarte mugimendu eta eragileek eta hezkuntzako eragileek.
- Aldiz, kanpo-arigune gehiago sortu dira administrazio publikoan, establezimendu, zerbitzu-emaile eta enpresa txikietan, baita industria- zein zerbitzu-enpresetan ere.

163. grafikoa

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako ariguneak, entitate-motaren eta arigune-motaren arabera (%)**



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

193. taula

**Euskaraldian izena eman duten Nafarroako entitateek sortutako arigune kopurua, entitate-motaren arabera**

	Barne-ariguneak		Kanpo-ariguneak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Administrazio publikoa	122	42,4	166	57,6	288	100,0
Bestelakoak	52	38,2	84	61,8	136	100,0
Elkartea (kultura, kirola, gastronomikoak, musika...)	120	59,1	83	40,9	203	100,0
Enpresa txikiak (tailerrak, iturginak...)	21	44,7	26	55,3	47	100,0
Establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak (saltokiak, ostalaritza, ile-apaindegiak...)	166	38,6	264	61,4	430	100,0
Gizarte mugimenduak, gizarte eragileak eta sindikatuak	43	62,3	26	37,7	69	100,0
Hedabideak	22	50,0	22	50,0	44	100,0
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak...)	254	56,6	195	43,4	449	100,0
Industria-enpresak	3	16,7	15	83,3	18	100,0
Zerbitzu-enpresak	128	44,1	162	55,9	290	100,0
<b>Guztira</b>	<b>931</b>	<b>47,2</b>	<b>1.043</b>	<b>52,8</b>	<b>1.974</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

## B.2. ENTITATEEN PARTE HARTZEAZ

Euskaraldia dinamikaren baitan ariguneak sortzeko izena eman duten entitateen ezaugarrietan eta parte-hartze horrek haien egunerokoan izan duen eraginean sakontzeko, 200 inkesta egin dira Nafarroan. Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitza edo establezimenduak dira lagina osatu duten 200 laginketa-unitateak. Kontuan hartu behar da, kasu batzuetan, entitate batek egoitza edo establezimendu bakarra duela —herri bateko euskara elkartea, adibidez—; baina beste batzuetan, entitate batek hamarnaka egoitza edo establezimendu dituela —supermerkatu-kateak edo finantza-erakundeak, adibidez—.


### B.2.1 Karakterizazioa

#### A. Egoitza- edo establezimendu-mota

Egoitza eta establezimenduei galdegin zaie euren entitate-mota definitzeko. Zerbitzu-emaile txikiena da pisu erlatiborik altuena duen multzoa (% 19). Hezkuntza (% 16) eta erakunde publikoak (% 14) daude ondoren.

164. grafikoa

#### Nafarroako egoitza edo establezimendu motaren araberako banaketa (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Nafarroako datuak gune soziolinguistikoaren arabera bereiziz, alde nabarmenena erakunde publikoetan antzematen da, horien pisua gainerakoetan baino askoz handiagoa baita 4.gune soziolinguistikoan (% 38). Finantza-erakundeen pisua ere 4.gune soziolinguistikoan nabarmentzen da. Merkataritza-ostalaritzarena eta hezkuntzarena, aldiz, 1.gune soziolinguistikoan.

194. taula

**Nafarroako egoitza edo establezimendu mota, gune soziolinguistikoaren arabera (%)<sup>9</sup>**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Elkartea	13,9	0,0	8,0	14,1
Irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimendua	9,9	0,0	0,0	0,0
Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-emaile txikiak	21,9	13,6	18,8	12,7
Industria-enpresak	1,5	0,0	32,0	0,0
Zerbitzu-enpresak	8,9	11,2	17,1	7,8
Finantza erakundeak	4,4	6,8	4,3	16,9
Hedabideak	3,3	3,8	1,6	0,0
Hezkuntza (ikastetxeak, akademiak..)	20,7	17,7	9,9	18,1
Erakunde publikoak	10,8	23,0	6,1	38,2

Iturria: Siadeco, 2021.

<sup>9</sup> 51. taulari dagokion galderak aukera anitzekoa izan da, hau da, erantzun-aukera bat baino gehiago hautatu ahal izan dute inkestatuek. Hori dela eta, gune soziolinguistiko bakoitzeko ehunekoen baturak ez du % 100 ematen.


## B. Egoitzaren edo establezimenduaren tamaina

Egoitza eta establezimenduen % 40, ia, oso txikiak dira, bost kide baino gutxiagokoak. Handienak, 151tik gorakoak, aldiz, egoitza eta establezimenduen % 9.

- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 56 txikienen multzokoa da.
- Administrazio publikoko egoitzen % 60, ia, 10 langiletik beherakoa da.
- Hezkuntzako egoitzen % 38 ,100 langiletik gorakoa da.

165. grafikoa

**Nafarroako egoitza edo establezimenduaren tamainaren arabeko banaketa (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.



Gune soziolinguistikoaren arabera, alderik esanguratsuena da establezimendu handien pisua askoz ere altuagoa dela 1.gune soziolinguistikoan gainerakoetan baino. Txikienen pisua 3.gune soziolinguistikoan nabarmentzen da.

195. taula

**Nafarroako egoitza edo establezimenduaren tamaina, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
5 baino gutxiago	36,1	25,1	45,7	34,7
5-10 artean	16,7	22,2	6,7	25,2
11-50 artean	18,0	33,7	35,7	22,5
51-100 artean	10,9	10,2	3,8	5,1
101-150 artean	2,6	4,4	2,4	7,0
151tik gora	15,7	4,4	5,7	5,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


### C. Egoera linguistikoa

Euskaraldian izena eman duten egoitza edo establezimenduen % 82tan kideen erdiek, gutxienez, euskaraz hitz egiten dakite. Areago, hamarretik zazpitan denek dakite euskaraz.

- Administrazio publikoen eta enpresa eta establezimenduen hiru laurdenetan denek edo ia denek dakite euskaraz.
- Gizarte mugimenduen % 15etan erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz.

166. grafikoa

**Nafarroako egoitza edo establezimenduetako kideetako zenbatek dakiten euskaraz (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen ezagutzari dagokionez alde nabarmena dago 3.eta 4.gune soziolinguistikoetatik 1.gunera —% 30etan erdiek edo erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz—. 1.tik 2.era —%73tan denek edo ia denek dakite euskaraz— ere, jautzia handia da.

196. taula

**Nafarroako egoitza edo establezimenduetako kideetako zenbatek dakiten euskaraz, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek edo ia denek	43,5	73,1	91,5	91,3
Erdiek baino gehiagok	16,6	20,1	4,6	5,9
Erdiek	10,6	0,0	0,9	0,0
Erdiek baino gutxiagok	19,6	6,8	2,9	2,8
Inork ez edo ia inork ez	8,9	0,0	0,0	0,0
Ez dakit	0,8	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## D. Arigune-mota

Egoitza edo esblezimenduen erdietan bi arigune-motak sortu dituzte: kanpo-arigunea eta barne-arigunea. Gainerakoei dagokienez, % 21ek barne-ariguneak sortu dituzte bakarrik, eta % 13k kanpo-ariguneak bakarrik.

- Kanpo-ariguneak sortu dituzte administrazio publikoetako egoitzen % 27tan.
- Barne-ariguneak sortu dituzte gizarte mugimenduetako egoitzen % 31,5etan.

167. grafikoa

**Nafarroan sortutako arigune-motaren araberako banaketa (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Bi arigune-motak sortu dituztenen pisua altuagoa da 3.gune soziolinguistikoan (% 62) gainerakoetan baino. Barne-ariguneak bakarrik sortu dituztenena 1.gunean nabarmentzen da, eta kanpo-ariguneak bakarrik sortu dituztenena 2.ean.

197. taula

**Nafarroako egoitza edo establezimenduetan sortutako arigune-motak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Kanpo-ariguneak	19,6	22,7	9,1	2,8
Barne-ariguneak	28,5	19,4	14,1	18,9
Biak, kanpo- eta barne-ariguneak	41,9	52,1	62,0	42,9
Ez dakit	10,1	5,8	14,8	35,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Barne-ariguneak —edo biak— sortzeko joera handiena administrazioan eta hezkuntzan izan dute. Oro har, kanpo-ariguneen ariketak baino lanketa eta ahalegin sakonagoa eskatzen duela adierazi dute. Zerbitzu-establezimenduetan, kanpo-ariguneak sortu dituzte, batez ere. Horietan, espazio fisikoaren garrantzia azpimarratu dute.

*Kanpo-ariguneen kasuan, ikusgarritasunaren aldetik, badu garrantzia. Udaletan ere ikusarazi nahi diogu jendeari zerbitzuetan badela jende euskalduna. Nik uste dut horretarako baliagarriak direla. Barne-ariguneak baliagarriak dira gure buruei pixka bat eragiteko. Ez da erraza sortzea, askotan sortzen ditugun egituretan euskaldunak edo belarriprestak bertan izatea zaila delako, baina uste dut badutela erabilgarritasuna. Nire ustez, kanpora begirako horiek eraginkortasun gehiago dute*  
(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Kanpo-arigunea nahiko erraz ulertu da, orain arte emandako zerbitzuarekin landu delako, baina barne-arigunea publikoki ez da hainbeste saldu. Entitate askotan, iruditzen zait ez dela hainbeste landu, eta landu den tokietan, ez zaie aitortza berdina eman. Eta batzuek lanketa sakona egin dute*  
(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Si, hemos sido kanpo-arigune en la relación con los clientes. En la tienda trabajamos la ama y yo, entre nosotras también hemos hecho un esfuerzo para hacer el barne-arigune*  
(Nafarroa/Merkataritza/1.gune soziolinguistikoa)

*Si, en la comunicación con los clientes - sobre todo en caja- es donde más hemos compartido los espacios en euskera*

(Nafarroa\_Zerbitzu-enpresak)

*Porque el cliente en seguida relacionaba el espacio ( la caja) con la campaña y por lo tanto quien quería se comunicaba en euskera*

(Nafarroa\_Zerbitzu-enpresak)

*Ez dut argi zer diren barne eta kanpo-ariguneak. Hala ere, gaztetxeko kideen artean euskaraz egiteko ohitura dugu*

(Nafarroa\_Gizarte mugimenduak)

## B.2.2 Parte hartzeko arrazoiak


### A. Arrazoiak

Euskaraldian parte hartzeko garrantzi handiena izan duten arrazoiei dagokienez, egoitza eta establezimenduen erdietan, ia, euskararen aldeko konpromisoa adieraztea hautatu dute. Euskararen erabilera handitzea, aldiz, % 7k.

- Arrazoi nagusia entitatean euskararen erabilera handitzea izan dela esan dutenen pisua altuagoa da hezkuntzan (% 13) eta gizarte mugimenduetan (% 11).
- Bi arrazoiak maila berean jarri dituzte administrazio publikoetako egoitzen % 70etan.

168. grafikoa

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko arrazoiak (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen erabilera handitzeko arrazoiak pisu handiagoa du 2.gune soziolinguistikoan gainerakoetan baino. Euskararekiko konpromisoa adierazteak, aldiz, 3.gune soziolinguistikoan.

198. taula

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek Euskaldian parte hartzeko arrazoiak, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Entitatearen euskararen erabilera handitzea	8,9	15,0	3,8	6,6
Entitatearen euskararen aldeko konpromisoa adieraztea	35,8	35,4	59,2	51,3
Aurreko biak maila berean	53,2	49,6	35,6	42,1
Ez dakit	2,1	0,0	1,4	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen erabilera-ohituretan eragiteko helburuarekin lotutako arrazoiak aipatzen dituzte batzuek. Beste batzuek, aldiz, euskara bultzatzea edo euskararen aldeotasuna adieraztea. Irudiagatik parte hartu dutela onartzen duenik ere bada.

*Birgogoratzen digulako euskararen erabileraren garrantzia, konpromezua eta dituen onurak*

(Nafarroa/Zerbitzu enpresak)

*Ate berriak irekitzen direlako: Euskaldia irauten duen egunetan jende euskaldun berria ezagutzen delako, euskara erabiltzeko gaitasuna nahikoa dugula ohartzeko garelako, ohituretan eragina duelako.*

(Nafarroa/Zerbitzu-enpresak)

*Euskaldian izena emateak hitz egiteko ohitura aldatzera modu aktiboan behartzen gaitu. Bestela aldaketa gure kabuz egitea zailagoa iruditzen zaigu*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak)

*Ikastetxean oso zaila egiten zaigu ikasleek euskaraz hitz egitea*

(Nafarroa/Administrazio publikoa eta hezkuntza)

*Euskaldian parte hartzea aberasgarria dela iruditzen zaigu eta guk ere gure aportazioa egin nahi genuen*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/4.gune soziolinguistikoa)

*Euskara bultzatzea izan da parte hartzeko motibazioa*

(Nafarroa/Zerbitzuak/1.gune soziolinguistikoa)

*Egunerokoan euskara da nagusi ikastolan. Beraz, Euskaraldian parte hartzea aldekotasun ariketa bat izan da, hizkuntza-ohiturak aldatzeko baina*

(Nafarroa/Administrazio publikoa eta hezkuntza)

*Nik esango nuke entitateak parte hartzen duela Euskaraldian eta beste halako gauza batzuetan askotan irudiagatik. Izan ere, gero ez da sakondu. Gauzak egiten dira euskara bultzatzeko, baina ez dira oso sakonak, nahiko azalean geratzen dira*

(Nafarroa/Zerbitzuak/4.gune soziolinguistikoa)




## B. Helburuak

Hamarretik zortzik baieztatu dute entitatearen barnean eta kanpoko harremanetan, bietan bultzatu nahi dutela euskararen erabilera, Euskaraldiaren bitartez. Gainerakoei dagokienez, gehiago dira kanpo harremanetan indartu nahi dutenak (% 13). Euskara barne harremanetan indartu nahi dutela adierazi dute egoitza eta establezimenduen % 6tan.

- Administrazioiko egoitzen laurdenetan kanpo harremanetan indartu nahi dute euskararen erabilera.
- Gizarte mugimenduetako egoitzen % 13,5etan barne harremanetan indartu nahi dute.

169. grafikoa

### Nafarroako egoitzek edo establezimenduek non bultzatu nahi duten euskararen erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskararen erabilera entitatearen barnean bultzatu nahi dutenen pisua 2.gune soziolinguistikoan nabarmentzen da. Kanpo harremanak lehentasunezko zatit dituztenena, berriz, 3.ean. Bietan indartu nahi dutenen pisua 4.gune soziolinguistikoan da altuena.

199. taula

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek non bultzatu nahi duten euskararen erabilera, gune soziolinguistikoaren arabera (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Entitatearen barnean	5,0	17,4	3,7	4,8
Entitatearen kanpo harremanetan	13,1	0,0	19,8	7,4
Bietan	78,6	82,6	76,5	87,8
Ez dakit	3,3	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2021.*

### **B.2.3 Izena emateko prozesua**

#### **A. Euskaraldiaren berri izateko modua**

Hamarretik seik herri-batzordearen bidez izan dute Euskaraldiaren berri. Entitateko kideren batek esanda edo sare sozialen bidez Euskaraldiaren berri izan duten egoitza eta establezimenduen pisua berdina da: % 40.

- Gizarte eragileen % 81,5ek herri-batzordeen bidez izan dute Euskaraldiaren berri.
- Hezkuntzako % 57tan sare sozialen bidez izan dute Euskaraldiaren berri, eta % 68tan hedabideen bitartez.
- Administrazio publikoko egoitza eta establezimenduen herenetan beste entitate batek esanda izan dute Euskaraldiaren berri.

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek ekimenaren berri izateko modua, entitate-motaren arabera (%)**

		Enpresa eta establezimenduzko pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarrekin eta Hedabideak	Guztira
GUTUNA jaso genuen, erakunde publiko batek bidalita	Bai	17,2	24,2	29,7	20,4	20,6
	Ez	52,6	66,7	62,2	68,5	58,9
	Ez dakit	30,2	9,1	8,1	11,1	20,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraldiaren HERRI BATZORDEAREN eskutik	Bai	53,7	66,7	59,5	81,5	61,3
	Ez	23,6	27,3	37,8	16,7	25,0
	Ez dakit	22,7	6,1	2,7	1,9	13,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Entitateko KIDEREN BATEK proposatuta	Bai	31,1	39,4	45,9	61,1	39,6
	Ez	62,4	57,6	48,6	37,0	55,4
	Ez dakit	6,4	3,0	5,4	1,9	5,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
SARE SOZIALEN bidez	Bai	30,1	48,5	56,8	48,1	39,8
	Ez	64,6	45,5	40,5	46,3	55,1
	Ez dakit	5,4	6,1	2,7	5,6	5,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
HEDABIDEEN bitartez	Bai	24,7	57,6	67,6	46,3	39,5
	Ez	66,7	42,4	32,4	46,3	54,6
	Ez dakit	8,6	0,0	0,0	7,4	5,8
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
BESTE ENTITATE batek esanda	Bai	10,7	33,3	10,8	14,8	15,0
	Ez	82,8	54,5	89,2	77,8	78,3
	Ez dakit	6,4	12,1	0,0	7,4	6,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
BESTERIK	Bai	10,7	18,2	8,1	3,7	10,4
	Ez	53,7	66,7	75,7	81,5	63,5
	Ez dakit	35,6	15,2	16,2	14,8	26,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren berri izateko moduei dagokienez, tokian tokiko antolakuntza-egiturak aipatu dituzte gehienek: herri-batzordeak edo udalak eta Euskara zerbitzuak. Nolanahi ere, Euskaraldiak komunikabideetan izan duen oihartzuna ere lagungarria izan dela uste dute.

*Euskara batzordea dago herrian eta hortik jaso genuen informazioa batez ere, baina hedabideetan ere oso presente zegoen Euskaraldia. Batzordeak antolatu zuen bilerara joan ginen eta han esplikatu ziguten dena*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/4.gune soziolinguistikoa)

*Euskaltegia jendea ezagutzen dut eta handik jaso nuen informazioa*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Euskara zerbitzutik kontaktuan jarri ziren ea interesatuak ginen elkartean arigunea sortzen*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Gure kasuan Berriozarko Euskaraldiaren arduraduna etorri zen esplikatzera zer zen arigunea, parte hartzera animatzeko eta guzti hori*

(Nafarroa\_Industria enpresak)


## B. Iniziatiba norena izan den

Egoitza edo establezimenduen % 30etan adierazi dute Euskaraldian parte hartzeko inizatiba denena izan dela. Beste % 30etan, ia, diote zuzendaritzaren inizatiba izan dela. Egoitza eta establezimenduen % 22tan langileen ekimena izan da.

- Hezkuntzako egoitzen % 46tan zuzendaritzaren inizatiba izan da.
- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 36tan langileena izan da inizatiba.
- Administrazio publikoko egoitzen % 18tan entitateko euskara batzorde edo taldearena izan da.

170. grafikoa

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko inizatiba norena izan den (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoaren arabera, nabarmentzekoak dira zuzendaritza taldeen inizatiba 4.gune soziolinguistikoan (% 39) langileen inizatiba 3.gune soziolinguistikoan (% 34) eta euskara batzorde edo taldeena 2.ean (% 19).

201. taula

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek Euskaraldian parte hartzeko inizatiba norena izan den (gune soziolinguistikoa) (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Zuzendaritza taldearena, zuzendariarena edo jabearena	32,5	15,7	23,2	38,8
Elkarteko bazkide boluntarioena	9,0	10,6	5,9	7,2
Entitateko edo establezimenduko langileena	13,9	13,6	34,4	15,1
Guztiona, maila berean	32,7	19,0	30,1	31,8
Entitateko euskara batzorde edo taldearena	5,9	19,1	3,5	7,2
Beste bat	6,0	22,1	2,8	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


### C. Antolakuntzarekiko harremana

Egoitza eta establezimenduen % 56tan euren herriko herri-batzordearekin eduki dute harremana, % 17k koordinazio orokorrarekin eta % 20k ez dute harreman zuzenik eduki Euskaraldiaren antolaketa-egiturekin.

- Gizarte mugimenduetako egoitzen % 83tan eta hezkuntzakoen % 67tan tokian tokiko herri-batzordearekin izan dute harremana.
- Administrazio publikoko egoitzen % 42tan koordinazio orokorrarekin izan dute harremana.
- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 30etan ez dute inolako harremanik eduki Euskaraldiko antolakuntza-egiturekin.

171. grafikoa

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek antolakuntzarekin izandako harremana (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.



Herrietan entitateei zuzenduta egin diren ekitaldiei dagokienez, egoitza eta establezimenduen laurdenek baino gehiagok batzorde ireki eta aurkezpenetan parte hartu dute eta % 16k argazki erraldoietan eta bideoetan.

- Administrazioko egoitzen % 54tan eta gizarte mugimenduen % 40tan batzorde ireki eta aurkezpenetan parte hartu dute.
- Hezkuntzako egoitzen % 27tan bideoetan parte hartu dute.
- Gizarte mugimenduen % 19tan prentsaurrekoetan parte hartu dute.

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek herrian egindako ekitaldietan parte-hartzea (%)**

		Enpresa eta establezimenduek pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarteak eta Hedabideak	Guztira
Batzorde irekia/ aurkezpena	Bai	15,0	54,5	27,0	40,7	27,4
	Ez	52,6	30,3	37,8	35,2	44,0
	Ez da halakorik egin	25,9	12,1	10,8	16,7	20,0
	Ez dakit	6,4	3,0	24,3	7,4	8,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Prensaurrekoa	Bai	7,5	3,0	5,4	18,5	8,4
	Ez	54,8	54,5	54,1	35,2	51,3
	Ez da halakorik egin	31,3	39,4	24,3	40,7	33,2
	Ez dakit	6,4	3,0	16,2	5,6	7,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Emanaldi berezia	Bai	11,8	12,1	27,0	22,2	15,7
	Ez	48,3	48,5	45,9	38,9	46,4
	Ez da halakorik egin	32,3	36,4	10,8	33,3	30,2
	Ez dakit	7,5	3,0	16,2	5,6	7,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Bideoa</b>	Bai	9,7	12,1	27,0	35,2	16,8
	Ez	50,5	51,5	43,2	40,7	48,0
	Ez da halakorik egin	32,3	33,3	16,2	18,5	27,9
	Ez dakit	7,5	3,0	13,5	5,6	7,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Argazki erraldoia	Bai	9,7	27,3	21,6	22,2	16,3
	Ez	68,9	39,4	37,8	38,9	54,8
	Ez da halakorik egin	12,9	27,3	21,6	27,8	18,9
	Ez dakit	8,6	6,1	18,9	11,1	10,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besterik	Bai	3,2	30,3	18,9	5,6	10,1
	Ez	51,5	36,4	35,1	50,0	46,6
	Ez da halakorik egin	7,5	21,2	5,4	13,0	10,3
	Ez dakit	37,7	12,1	40,5	31,5	33,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


#### D. Ariguneak identifikatzeko jarraitutako prozedura

Egoitza eta establezimendu gehienek barne-lanketa bat egin dute ariguneak identifikatzeko, egoitza edo establezimenduko kideen beraien artean, Euskaraldiak proposatutako dokumentuen laguntzaz (% 52). Kanpo-laguntza izatekotan, herriko batzorde edo dinamizatzaileena izan dute (% 30). Izan ere, bakar batek ere ez du kanpo-aholkularitarik kontratatu.

- Kideen artean egindako barne-lanketa gizarte mugimenduetan (% 59) eta hezkuntzan (% 57) nabarmentzen da.
- Herriko batzorde eta dinamizatzaileen laguntza izan dutenei dagokienez, administrazioak du pisurik handiena (% 48,5).

172. grafikoa

#### Nafarroako egoitzek edo establezimenduek ariguneak identifikatzeko jarraitutako prozedura (%)



- Kideen artean egin dugu, Euskaraldiak proposatutako dokumentuen bidez
- Herriko Euskaraldiaren dinamizatzaileak, koordinatzaileak edo herri batzordeak lagundu digu
- Ez dakit

Iturria: Siadeco, 2021.


## E. Kideak informatzeko egindako ahalegina

Egoitza eta establezimenduen bi herenetan uste dute behar besteko ahalegina egin dutela bertako kideak informatzeko. Egoitza eta establezimenduen % 19tan uste dute egindako ahalegina ez dela behar bestekoa izan.

- Behar besteko ahaleginik egin ez dutela uste dute hezkuntzako egoitzen % 27tan, ahalegin txikia egin dela % 8tan eta ahaleginik egin ez dela % 3tan.
- Ahalegin txikia egin dutela diote gizarte mugimenduetako egoitzen % 9tan.

173. grafikoa

**Nafarroako egoitzetako edo establezimenduetako kideak informatzeko egindako ahalegina (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## F. Parte-hartze maila

Hamar egoitza edo establezimendutatik zazpitan kide guztiek edo gehienek parte hartu dute Euskaraldia ariketan —% 47tan denek—. % 18tan egoitza eta establezimenduetako kideetako gutxi batzuek parte hartu dute.

- Administrazio publikoko eta hezkuntzako egoitzen % 85etan kide guztiek edo gehienek parte hartu dute.
- Enpresa eta establezimendu pribatuetako % 28tan kide gutxi batzuek parte hartu dute.

174. grafikoa

**Nafarroako egoitzetan edo establezimenduetan zenbat kidek parte hartu duten ariketan (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Azpimarratzeko modukoa da 2.gune soziolinguistikoko egoitza eta establezimenduetan kideen parte-hartzea altuagoa izan dela 3.gunekoetan baino.

203. taula

**Nafarroako egoitzetan edo establezimenduetan zenbat kidek parte hartu duten ariketan (gune soziolinguistikoa) (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek	36,2	56,1	48,9	64,0
Gehienek	23,5	34,3	15,9	29,4
Erdiek	14,8	3,8	2,9	0,0
Gutxik	17,9	0,0	29,3	2,3
Inork ez	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez dakit	7,6	5,8	3,1	4,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## G. Parte-hartze indibiduala

Hamarretik zortzitan kide guztiek edo erdiek baino gehiagok izena eman dute, maila indibidualean, ahobizi edo belarriprest modura. % 6tan erdiek baino gutxiagok edo inork ez du izenik eman.

- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 72tan denek edo ia denek eman dute izena.
- Gizarte mugimenduetako egoitzen % 11tan erdiek edo gutxiagok.
- Administrazio publikoetako egoitzen % 3tan inork edo ia inork ez du izenik eman.

204. taula

### Nafarroako egoitzetan edo establezimenduetan zenbaterik izena eman duten ahobizi/belarriprest modura (%)

	Enpresa eta establezimendu pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarrekin eta Hedabideak	Guztira
Bai, denek edo ia denek	72,1	60,6	54,1	61,1	65,9
Bai, erdiek baino gehiagok	9,7	27,3	16,2	16,7	14,6
Bai, erdiek	6,4	0,0	5,4	1,9	4,5
Bai, erdiek baino gutxiagok	2,1	6,1	8,1	9,3	4,8
Ez, inork ez edo ia inork ez	1,1	3,0	0,0	0,0	1,1
Ez dakit/Erantzunik ez	8,6	3,0	16,2	11,1	9,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Ariguneetako ariketaz harago, Euskaraldiko parte-hartze indibidualari dagokionez, belarriprest rola garrantziaz jabetu dira batzuk, besteak beste, euskaldun hartzaileen parte-hartzea ahalbidetzen duelako. Kasu batzuetan, gertatu izan da arigune modura izena eman eta ariguneko partaideek norbanako gisa izenik ez ematea.

*Aurreko edizioarekin alderatuta ikusi dudana on bat izan da batzuk belarripresten garrantziaz ohartu direla. Nik horretan sakontzea proposatuko nuke, belarripresten parte hartzea zeinen garrantzitsua den. Gutxienez ia euskaldun edo ulertzen duten horiei ikusaraztea nola parte hartu dezaketen eta zeinen inportanteak diren*

(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Belarriprest rola izanda, askoz errazagoa iruditu zaidalako. Ahal dudan guztietan euskaraz hitz egiten ahalegindu nintzen arren, bezeroen esku zegoelako euskaraz hitz egin ala ez*

(Nafarroa/Zerbitzuak)

*Ez, ez nuen izena eman ahobizi edo belarriprest moduan*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Askok ahobizi eduki arren ondoren erdaraz hitz egiteko ohitura dute*

(Nafarroa/Zerbitzuak)



## H. 2018ko parte-hartzea

Hamarretik zazpi entitatek diote ariguneetan parte hartu duten kideek 2018ko edizioan ere izena eman zutela Euskaraldian, alegia, ahobizi edo belarriprest izan zirela orduan.

- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 59tan kide guztiek edo ia denek eman zuten izena.
- Administrazio publikoetako egoitzen % 54,5etan denek edo ia denek eman zuten izena.
- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 8tan inork edo ia inork ez zuen izenik eman 2018an.

205. taula

### Nafarroako ariguneetan parte hartu duten kideek 2018an izena eman zuten edo ez (%)

	Enpresa eta establez pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Bai, denek edo ia denek	59,2	54,5	45,9	53,7	55,7
Bai, erdiek baino gehiagok	10,7	18,2	21,6	18,5	14,8
Bai, erdiek	3,2	3,0	5,4	5,6	3,9
Bai, erdiek baino gutxiagok	5,4	6,1	2,7	7,4	5,5
Ez, inork ez edo ia inork ez	8,6	6,1	0,0	1,9	5,9
Ez dakit/Erantzunik ez	12,9	12,1	24,3	13,0	14,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## B.2.4 Euskaraldiko jarduna


### A. Ulermen-maila

Egoitza edo establezimenduen % 62tan baieztatu dute euren ariguneetako partaide guztiek edo ia denek ulertu dutela ongi ariguneen funtzionamendua. % 11k, aldiz, erdiek edo erdiek baino gutxiagok ulertu dutela.

- Enpresa eta establezimendu pribatuen % 69tan baieztatu dute kide guztiek edo ia denek ulertu dutela ongi ariguneen funtzionamendua.
- Administrazio publikoan egoitza eta establezimenduen % 90etan, ia, adierazi dute erdiek baino gehiagok edo guztiek ulertu dutela.
- Hezkuntzako egoitzen % 13tan diote erdiek baino gutxiagok edo inork ez duela ulertu.

175. grafikoa

**Nafarroako ariguneetako partaideetatik zenbatak ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Gune soziolinguistikoen arabera, ulermen-mailarik altuena 3.ean eman da. eta 1.an altuagoa da 2.ean baino.

206. taula

**Nafarroako ariguneetako partaideetatik zenbatek ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (gune soziolinguistikoak) (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Denek edo ia denek	55,6	46,2	71,2	61,5
Erdiek baino gehiagok	23,6	27,5	8,6	17,1
Erdiek	8,1	8,9	5,1	3,6
Erdiek baino gutxiagok	7,4	0,0	2,9	4,2
Inork ez edo ia inork ez	0,0	3,8	,9	0,0
Ez dakit/Erantzunik ez	5,2	13,6	11,1	13,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

*Ariguneen dinamika indartuko genuke, sozialki ez baitu eragin handirik izan. Ez da argi geratu zeintzuk ziren eta arigune izateak zer suposatzen zuen*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

*Badirudi prozesua ez genuela guztiz ongi egin. Nahiko korapilatsua iruditu zaigu eta hortaz ez diogu etekina atera. Aurreko Euskaraldia bezala jokatu dugu baina arigune karteltxoak jarri.*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

## B. Betetze-maila

Ariguneeek euren funtzioa bete dute egoitza eta establezimendu gehienetan. Hamarretik zortzik, ia, 8tik gora baloratu dituzte, euskaraz lasai aritzeko gune gisa.

- Hezkuntzako egoitzen % 60tan adierazi dute ariguneeek erabat bete dutela euren funtzioa.
- Administrazioeko egoitzen % 48tan uste dute erabat bete dutela funtzioa.
- Gizarte mugimenduetako egoitzen % 15etan 7tik behera puntuatu dute.
- Administrazio publikoko egoitzen % 6tan 4tik behera puntuatu dute.

207. taula

### Nafarroako ariguneeek zein neurritan izan diren, Euskaraldiko hamabost egunetan, euskaraz lasai aritzeko guneak (%)

	Enpresa eta establez pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarfeak eta Hedabideak	Guztira
Batere ez	0,0	0,0	0,0	1,9	0,3
1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
2	0,0	3,0	0,0	0,0	0,5
3	0,0	3,0	0,0	0,0	0,5
4	2,2	0,0	0,0	0,0	1,2
5	2,2	0,0	2,9	9,6	3,2
6	2,2	6,1	0,0	5,8	3,2
7	16,6	9,1	5,7	13,5	13,4
8	39,0	9,1	8,6	9,6	25,0
9	15,5	21,2	22,9	17,3	17,8
Erabat	22,2	48,5	60,0	42,3	35,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Entitateko ahobizien eta belarripresten konpromiso indibidualei dagokienez, egoitza eta establezimendu gehien gehienetan (% 78) uste dute neurri handi batean bete dituztela —8tik gorako balorazioa—. Administrazio publikokoan % 6tan 4tik behera puntuatu dute, eta gizarte mugimenduetakoan % 2tan batere ez dituztela bete baieztatu dute (% 2).

208. taula

**Nafarroako egoitzetako edo establezimenduetako ahobiziek eta belarriprestek zein neurritan bete dituzten euren konpromisoak (%)**

	Enpresa eta establez pribatuak	Administrazioa, entz.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Batere ez	0,0	0,0	0,0	1,9	0,3
1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
2	0,0	3,0	0,0	0,0	0,5
3	0,0	3,0	0,0	0,0	0,5
4	2,2	0,0	0,0	0,0	1,2
5	2,2	0,0	2,9	9,6	3,2
6	2,2	6,1	0,0	5,8	3,2
7	16,6	9,1	5,7	13,5	13,4
8	39,0	9,1	8,6	9,6	25,0
9	15,5	21,2	22,9	17,3	17,8
Erabat	22,2	48,5	60,0	42,3	35,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

### C. Erraztasun-zailtasun maila

Ariguneen ariketa egitea erraza izan da egoitza eta establezimendu gehientzat. Orokorrean, erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua altuagoa da barne-ariguneetan kanpo-ariguneetan baino. Hezkuntzako egoitzetan dago alderik handiena, ia hiru laurdenek uste baitute barne-ariguneetan ariketa egitea erraza izan dela, eta kanpo-ariguneetan erdiek. Administrazio publikoan kontrakoa gertatzen da, gehiago baitira kanpo-ariguneetan ariketa egitea errazagoa izan dela uste dutenak —hamarretik zortzi baino gehiago—.

176. grafikoa

#### Nafarroan ariguneen ariketa egitea nahiko erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua (%)



Iturria: Siadeco, 2021..

Gune soziolinguistikoen arabera, ariketa erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua 4.gune soziolinguistikoan da altuena, 3.ean ondoren, eta nahiko pareko daude 1. eta 2.gune soziolinguistikoak. 2.ean ariketa egitea errazagoa iruditu zaie kanpo-ariguneetan barne-ariguneetan baino, eta 1.an alderantziz.

209. taula

**Nafarroan ariguneen ariketa egitea nahiko erraza edo oso erraza iruditu zaien pisua (gune soziolinguistikoak) (%)**

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Kanpo-ariguneetan	48,0	56,0	77,2	79,2
Barne-ariguneetan	59,2	47,9	80,2	95,8

*Iturria: Siadeco, 2021.*

Euskaraldia ariketan planteatutako jokabide ezberdinei buruz galdetuta, agerian gelditzen da euskaraz ulertzen dutenekin uneoro euskaraz egitea dela errazena, oro har. Zehaztu behar da, hala ere, gizarte mugimenduetako egoitzen % 11tan uste dutela zaila edo oso zaila dela, eta enpresa eta establezimendu pribatuen % 7,5etan ere bai.

Lehen hitza euskaraz egitea zaila dela dioten pisua % 20tik gorakoa da egoitza- edo establezimendu-mota guztietan, eta % 50etik gorakoa orain arte erdaraz ziren elkarrizketak orain euskaraz edo ele bitan izateari dagokionez.

**Hizkuntza-jokabide ezberdinak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila, Nafarroako entitateetako kideentzat (%)**

		Enpresa eta establez pribatuak	Adminis-trazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkarateak eta Hedabideak	Guztira
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	52,7	66,7	64,9	35,2	53,6
	Erraza	39,7	27,3	27,0	48,1	37,4
	Zaila	5,4	6,1	5,4	9,3	6,1
	Oso zaila	2,1	0,0	0,0	1,9	1,5
	Ez dakit	0,0	0,0	2,7	5,6	1,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	20,4	33,3	43,2	20,4	25,6
	Erraza	56,0	36,4	32,4	46,3	47,9
	Zaila	19,3	24,2	21,6	22,2	20,9
	Oso zaila	4,3	3,0	0,0	1,9	3,1
	Ez dakit	0,0	3,0	2,7	9,3	2,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	14,0	15,2	18,9	11,1	14,3
	Erraza	54,9	42,4	29,7	35,2	46,1
	Zaila	27,9	33,3	37,8	35,2	31,4
	Oso zaila	2,1	6,1	8,1	5,6	4,2
	Ez dakit	1,1	3,0	5,4	13,0	4,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bietan izatea	Oso erraza	4,3	3,0	16,2	3,7	5,6
	Erraza	38,7	36,4	10,8	31,5	33,2
	Zaila	51,7	51,5	51,4	42,6	50,1
	Oso zaila	4,3	0,0	13,5	7,4	5,4
	Ez dakit	1,1	9,1	8,1	14,8	5,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egitea eskatzea	Oso erraza	23,6	21,2	37,8	25,9	25,6
	Erraza	39,7	48,5	21,6	37,0	38,2
	Zaila	32,3	24,2	27,0	24,1	28,9
	Oso zaila	3,2	3,0	8,1	1,9	3,6
	Ez dakit	1,1	3,0	5,4	11,1	3,7
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.



Gune soziolinguistikoaren arabera, orokorrean, 4.gune soziolinguistikoan izan dituzte erraztasunik handienak, eta 1.gunean zailtasunik handienak. Salbuespena elkarrizketa elebidunetan antzematen da; izan ere, horietan euskarari eustea errazagoa iruditu zaie 1.gune soziolinguistikoan 2.ean baino.

211. taula

**Jokabide ezberdinak hartzea zenbateraino izan den erraza edo zaila, Nafarroako enfitateetako kideentzat (gune soziolinguistikoa) (%)**

		1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitea uneoro	Oso erraza	35,1	45,2	68,8	67,6
	Erraza	47,1	41,5	28,8	32,4
	Zaila	12,2	5,8	2,4	0,0
	Oso zaila	3,0	3,8	0,0	0,0
	Ez dakit	2,6	3,8	0,0	0,0
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Besteek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitza euskaraz egitea	Oso erraza	18,4	24,8	24,2	51,1
	Erraza	42,4	32,9	61,6	33,3
	Zaila	30,1	34,7	12,0	12,1
	Oso zaila	5,7	3,8	1,4	0,0
	Ez dakit	3,4	3,8	0,8	3,6
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Oso erraza	13,0	6,8	12,2	29,2
	Erraza	38,2	40,5	58,3	36,5
	Zaila	43,2	34,0	21,5	24,8
	Oso zaila	2,2	15,0	4,0	3,6
	Ez dakit	3,4	3,8	4,0	5,9
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bietan izatea	Oso erraza	3,6	0,0	7,2	10,6
	Erraza	41,9	23,1	25,8	36,2
	Zaila	41,5	60,5	58,4	43,6
	Oso zaila	7,3	12,6	3,8	0,0
	Ez dakit	5,6	3,8	4,8	9,5
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskaraz dakienari euskaraz egitea eskatzea	Oso erraza	19,8	25,6	22,5	51,5
	Erraza	46,7	40,8	30,2	35,5
	Zaila	25,8	15,9	41,0	10,6
	Oso zaila	5,2	8,2	2,4	0,0
	Ez dakit	2,6	9,5	4,0	2,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

## D. Jarrerak

Euskaraldiaren aldeko jarrerak nagusitu dira entitate gehienetan, eta jarrera aktiboak, gainera, hamarretik zazpitan. Entitate-motaren arabera, hezkuntzan altuagoa da proportzio hori (% 78) eta baxuagoa gizarte mugimenduetan (% 63).

177. grafikoa

### Euskaraldiarekiko zer-nolako jarrerak nagusitu diren Nafarroak entitateetan (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

212. taula

### Euskaraldiarekiko zer-nolako jarrerak nagusitu diren Nafarroako entitateetan (gune soziolinguistikoak) (%)

	1. gune SL	2. gune SL	3. gune SL	4. gune SL
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiboarekin	50,6	67,7	86,2	87,1
Gehienek aldeko jarrera izan dute, jarrera aktiborik gabe	41,9	28,5	8,0	12,9
Gutxiengo bat izan da aldeko jarrera izan duena	2,1	3,8	0,0	0,0
Ez dakit	5,5	0,0	5,8	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

## E. Txapak eta identifikagarriak

Entitatean Euskaraldiko parte-hartzaile izan diren guztiek edo ia denek txapak jarri dituztela adierazi dute egoitza eta establezimenduen % 63tan, orokorrean. Enpresa eta establezimenduetan % 59 izan dira, eta nabarmentzekoa da erdiek edo erdiek baino gutxiagok jarri dutela diotela mota horretako egoitza eta establezimenduen laurdenetan.

178. grafikoa

**Nafarroako egoitzetako edo establezimenduetako parte-hartzaileek ahobizi eta belarriprest txapak jarri dituzten (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Entitateetako kideek eurek onartu dute ariguneetako kide guztiek ez dutela txapa jarri, edo kasu batzuetan jarri dituztela, baina beste batzuetan ez. Nolanahi ere, txapek funtzionatzen dutela uste dute, eta lortu dutela erreferentzialtasun bat, ariguneek, oraingoz behintzat, lortu ez dutena.

*Bai, ahobizi bezala eman nuen izena. Txapa lanean eta Leitzañan eramatean nuen, baina Iruñean ere lan egiten dut eta hara ez nuen eramatean*

(Nafarroa/Zerbitzuak/4.gune soziolinguistikoa)

*Bai, jendea bi roletan apuntatu da. Baina ez dakit zenbat izan diren. Txapa erabilera egin da, nik uste belarriprest edo ahobizi bezala apuntatu diren etatik erdiak jantzi duela*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/1.gune soziolinguistikoa)


*Txapek beraien funtzioa betetzen dutela uste dut. Lehenengo Euskaraldian ezagutu genituen, eta abantaila txiki batekin ezagunagoak ziren, ariguneen kartela baino. Erabilgarriak dira. Nahiko sartuta daude euskaltzaleen artean eta ezagunak dira. Ariguneena ez zen hain ezaguna*

(Nafarroa/Zerbitzuak)

Hamarretik bederatzik baieztatu dute ariguneak sortu diren lekuetan identifikagarriak jarri dituztela. Entitate-motaren arabera, gizarte mugimenduen egoitzetan gainerakoetan baino askoz altuagoa da identifikagarriak jarri ez dutenen pisua (% 20).

179. grafikoa

**Ariguneak sortu diren lekuetan identifikagarriak jarri diren edo ez Nafarroan (%)**




Iturria: Siadeco, 2021..

Egoitza eta establezimenduen erdietan baliagarriak edo oso baliagarriak iruditu zaizkie identifikagarriak. Laurdenei, aldiz, maila txikian edo oso maila txikian. Batez ere, enpresa eta establezimendu pribatuetan da altua identifikagarrien baliagarritasun-maila txikia edo oso txikia

dela baloratu dutenen pisua (% 28). Administrazio publikoko egoitzen % 13tan, berriz, oso baliaerriak iruditu zaizkie identifikagarriak.

180. grafikoa

**Nafarroako egoitzentzat edo establezimenduentzat euskara gehiago erabiltzeko zenbateraino izan diren baliaerriak identifikagarriak (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## B.2.5 Eragina

### A. Orokorrean

Egoitza eta establezimenduen euren pertzepzioak aztertu ditugu, alde batetik, Euskaraldiaren eraginez hizkuntza-ohiturak aldatu ote diren galdetuta. Orokorrean, egoitza eta establezimenduen % 25etan Euskaraldian zehar aldatzeaz harago, gerora ere mantendu egin dira. % 15etan diote Euskaraldian zehar izan dela eraginik, baina ondoren, lehengo dinamikara itzuli direla. Egoitza- eta establezimendu-motaren arabera, administrazio publikoan antzematen da eraginik iraunkorrena (% 30), eta enpresa eta establezimenduetan, ondoren (% 26).

181. grafikoa

**Euskaraldiari esker Nafarroako egoitzek edo establezimenduek hizkuntza-ohiturak aldatu diren edo ez (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Hizkuntza-erabileraren bilakaera aztertu dugu, bestetik. Bilakaera horretan oinarrituz, ondorio nagusia da Euskaraldiak ez dituela hizkuntza-ohiturak goitik behera aldatu, baina eragin bat izan duela, hondar bat gelditu dela. Euskaraldian zehar igoera bat dago euskararen erabileran, eta jaitziera bat ondoren, baina ez igoeraren parekoa. Hortaz, hirugarren momentuko egoera hobea da lehen momentukoa baino.

Eraginik handiena ariguneetako kideen artean antzematen da —erabilera-mailarik handiena ere egoera horretan dago—, ariguneetako kideen eta entitateetako gainontzeko kideen artean, ondoren, eta kanpo-harremanetan, azkenik.

182. grafikoa

**Euskararen erabilera Nafarroako egoitza edo establezimenduetan, egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Aurrera begira aldaketa horiei eustea eta lortutakoari jarraipena ematea zaila dela onartzen badute ere, oro har, hamabost egunetan zehar Euskaraldiaren eragina nabaritu dutela adierazi dute.

*Euskaraldia baino lehen ez genuen euskaraz egiten gure artean, bezero batzuekin soilik egiten genuen. Euskaraldian zehar, berriz, egun osoa ematen genuen euskaraz hitz egiten.*

(Nafarroa\_Zerbitzu enpresak)

*Euskaraldiko hamabostaldian azkenean esfortzu extra bat egiten da euskara gehiago erabiltzeko*

(Nafarroa/Elkarteak/1.gune soziolinguistikoa)

*Aldaketa nabarmena izan da, nik ez nuen espero. Lehen erdaraz egiten zuten bezero asko euskaraz etorri ziren eta oraindik egiten dute. Polita da, gainera, lankidetakoa bat euskaraz ikasten dabilela eta bezero horiek berarekin euskaraz eroso sentitzen direla*

(Nafarroa/Zerbitzuak/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraz zekiela ez nekien bezero bat etorri zitzaidan AEKn zegoela esaten eta Euskaraldian hasi gara euskaraz*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Nahiz eta egunerokotasunean euskara erabili, egun horietan kontziente gara horrela jarraitu behar dugula, edo gehiago eman behar dugula. Bezeroei lehenengo hitza beti euskaraz egin behar geniola erabaki genuen, eta guztiok bat etorri ginen horrekin*

(Nafarroa/Zerbitzuak)

*Euskaraz funtzionatzen duen entitateak euskaraz egiten segituko du Euskaraldia izan ala ez. Norberaren baitan dagoen hizkuntza ohitura horri eutsiko dio, ohi bezala. Hori horrela izan arren, beti egonen da motibazioan eragitea beharko duenik ere, eta kasu horretan oso eraginkorra da ariketa sozial hau*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

*Hizkuntza ohituretan, lanari erlazionatutako giroan bai egiten dela euskaraz, baina kafe giroan, egoera informala goetan badira erdarara jotzen duten taldeak. Euskaraldiaren aurretik bilera bat egin zen, identifikatu ziren, eta batzuek hartu zuten erronka, eta barne-arigunearen aitzakiarekin, batzuek landu genuen. Gero betetzearen aldera, teknikarien gogorazpena, gainean egotea edo zerbait falta izan da*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)



*Bisibilizatu da eta herritar orok bazekien aurrean zuen langilea euskalduna zela. Horrek jendea, herritarrak euskaraz egitera animatu ditu*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

*Ariguneetan denak euskaraz aritu dira egun horietan, normalean gaztekeraz aritzen direnak ere bai*

(Nafarroa/Zerbitzuak)

*Eskolaren barneko euskara dinamika, bereziki ikasleen artean, izugarri baldintzatu dago zonaldeko egoera soziolinguistikoagatik. Dinamika hauek epe luzeagoan mugitzen dira eta ibili eta bueltan, dinamika horiek agintzen dute. Dena den, lortu genuen euskararen indarra eta presentzia handitzea Euskaraldiko tarte horretan. Gero berriro, lehen aipatutako dinamika horiek nagusitu dira*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

*Ez du eragin asko izan, guk euskaraz egiten dugulako. Baina bueno, juntan badago belarripresten bat eta nabaritu da prestutasuna*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraldiko hamabostaldian azkenean esfortzu extra bat egiten da euskara gehiago erabiltzeko*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/1.gune soziolinguistikoa)

*Kontzientzia aldaketa bat egotea da helburua, euskararen erabilera sustatzea. Gaztetxean Euskaraldian parte hartzeak sortu duen eztabaida bera bakarrik ya positiboa izan da. Joera asanbladan daudenak euskara ulertzen badute euskara lehenestea da orain*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/1.gune soziolinguistikoa)

*Euskaraz aritzeko zailtasun gehiago zituzten pertsonentzat konfiantzazko eta erosotasunez betetako espazio bat sortzeko ahalegina egin dugulako. Talde txikia gara eta lasaitasunez hartu genituen bilerak bi aste horietan. Gure jarrerak izan dira aldatu direnak. Gure dinamiken erritmo eta denborak luzatu ditugu, komunikazioa arazo bat izan ez zedin*

(Nafarroa\_Gizarte mugimenduak)

*Eskola barruan eragin handia izaten du txaparen erabilerak ikasleengan (nahiz Euskaraldiko partaideak ez izan). Kanpora begira eragin handirik ez badu ere, euskara sustatzeko kanpaina baliagarria da ikasleekin*

(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Aunque han sido pocos los arigunes que hemos podido crear, se ha cuidado mucho el compromiso para que funcionaran, y creemos que se han cumplida las expectativas*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

*Belarriprestekin aldaketa txikiren bat eman dutela erranen nuke zerbait aldatu dutela. Ni bederen saiatzen naiz elkarrizketa elebidunak mantentzen*

(Nafarroa\_Elkarreak)

*Euskaraldiaren berri ez zekien jende asko gerturatu dela iruditu zaigu, euskaraz aritzen ez diren asko tartean*

(Nafarroa\_Zerbitzu enpresak)

Aitortzen dute, nolani ere, Euskaraldiko hamabost egunak pasata, aurreko inertziak gailentzen direla pixkanaka. Bestelako zailtasunak ere azpimarratu dituzte: txapa zeramatenek euren rola ez betetzea edo eztabaidetan erdarara jotzea.

*Que cuando pasan los quince días se nos olvida un poco el tema y se tiende a volver a lo de antes*

(Nafarroa/Zerbitzuak/1.gune soziolinguistikoa)

*Denborarekin berriro bueltatu gara aurreko egoerara, erdaraz aritzera. Ez nuen gustura ikusten bezeroa*

(Nafarroa/Zerbitzuak/4.gune soziolinguistikoa)

*Inertziak, beti bezala, gaztelerara jotzeko bidea eman du*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

*Positiboa ikusten dugu kanpaina bera baina aurretik kontzientzia dutenengan bakarrik.*

*Iruditzen zaigu euskararekin harremanik ez dutenengan edo erabilera axola ez zaienengan ez duela eragiten nahiz eta kanpaina gertu izan*

(Nafarroa\_Administrazio publikoa)

*Porque durante esos quince días, en todo momento he llevado visible mi txapa de "belarriprest" y un número importante de personas que llevaban la txapa de ahobizi se ha dirigido a mi en castellano, siendo el compromiso de estas personas, al llevar la txapa de ahobizi, hablar en euskera a toda persona que se hubiera apuntado a la campaña*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

*Barne-arigunean beti baina kanpo-arigunean ez dugu oportunitate handirik izan, nahiz eta belarriprest izan gutxitan euskaraz hitz egiten zigutelako*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

*Nahiz eta euskaraz hitz egin, nahi gabe batzuetan erdarara jotzen genuen, eztabaidatzean gehien bat*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

## B. Gune soziolinguistikoaren arabera

Gune soziolinguistikoaren araberako azterketak erakusten du Euskaraldiaren eraginik handiena 1. eta 3.gune soziolinguistikoetan antzeman dela. Ariguneetako kideen artean, gehien, 1.gune soziolinguistikoan; eta ariguneetako kideen eta entitateetako gainontzeko kideen artean, berriz 3.ean.

213. taula

**Euskararen erabilera Nafarroako egoitza edo establezimenduetan, egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (Gune soziolinguistikoaren arabera) (%)**

	1. gune SL			2. gune SL			3. gune SL			4. gune SL		
	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren	Aurretik	Zehar	Ondoren
Ariguneetako kideen artean	55,3	73,8	66,0	76,9	93,2	77,9	86,4	91,5	88,7	100,0	100,0	100,0
Ariguneetako kideak entitateetako gainontzeko kideekin	40,3	50,4	45,6	64,2	76,9	56,1	80,6	90,1	87,8	96,4	100,0	96,4
Entitatekoak ez direnekin hartu-emanen edo herritarrak artatzerakoan	31,6	42,7	37,6	47,3	58,5	37,7	78,4	89,4	83,6	100,0	92,2	96,4


Iturria: Siadeco, 2021.

### C. Ariguneetako kideen artean, enfitate-motaren arabera

Euskaraldia ariketak gizarte eragileetan izan du eraginik handiena ariguneetan parte hartu duten kideen artean, bederatzi puntu altuagoa baita elkarrizketa guztiak edo gehienak euskaraz dituztenen pisua Euskaraldiaren ondoren —hamazazpi puntuko igoera izan da Euskaraldian zehar—. Enpresa eta establezimenduetan ere nabarmentzekoa da irabazia, zazpi puntu eta erdikoa.

183. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— ariguneetako kideen artean, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (Nafarroa) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Enpresa eta establezimendu pribatuetan harreman informaletan nabaritu dute Euskaraldiaren eragin handiago bat. Gainerako egoitza eta establezimendu motetan, aldiz, harreman formalean, gehiago.

184. grafikoa

**Zein harreman-motatan areagotu den euskararen erabilera Euskaraldiaren eraginez—  
baiezko erantzunak— (Nafarroa) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021

#### D. Ariguneetako kideak entitateko gainontzeko kideekin, entitate-motaren arabera

Ariguneetan parte hartu duten kideen eta entitateko gainontzeko kideen arteko elkarriketei dagokienez, hezkuntzan izan da aurrerapenik handiena, zortzi puntukoa. Enpresa eta establezimenduetan sei puntuko igoera izan da Euskaraldiaren aurreko eta ondorengo erabileraren artean.

185. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen artean, Euskaraldian aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (Nafarroa) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

## E. Entitateko kideak ez direnekin hartu-emanean edo herritarrek artatzerakoan, entitate-motaren arabera

Kanpo harremanetan, enpresa eta establezimendu pribatuek antzeman dute Euskaraldiaren inpakturik handiena, zazpi puntu eta erdikoa —hamahiru puntukoa izan da igoera Euskaraldian zehar—. Hezkuntzan eta gizarte mugimenduetan Euskaraldia ariketan zehar lortu dute erabilera areagotzea. Ondoren, alabaina, aurreko mailara itzuli dira.

186. grafikoa

**Euskararen erabilera —dena, ia dena edo gehiena euskaraz— ariguneetako kideen eta entitateko gainontzeko kideen artean, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (Nafarroa) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Kanpo harremanetan, herritar, bezero eta bazkideekiko harremanetan izan da eraginik handiena. Batez ere enpresa eta establezimendu pribatuetan eta administrazioan.

187. grafikoa

**Zein harreman-motatan areagotu den euskararen erabilera Euskaraldiaren eraginez —baiezko erantzunak— (Nafarroa) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021




## F. Bestelako onurak

Euskararen erabilerari bultzada emateaz harago, Euskaraldiak bestelako onurak ere eragin dizkiela adierazi dute hainbat entitatetan (gizarte erantzukizuna, irudi soziala...). Egoitza eta establezimenduen erdiek baino gehiagok baieztatu dute eragin nahikoa edo handia izan duela Euskaraldiak, zentzu horretan.

188. grafikoa

**Euskaraldian parte-hartzeak zenbateraino eragin duen bestelako onurarik (gizarte erantzukizuna, irudi soziala...) (Nafarroa) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.


## B.2.6 Aurrera begira

### A. Zenbateraino utsiko zaion etorkizunean

Orokorrean, egoitza eta establezimenduen erdietan uste dute Euskaraldiak sortutako hizkuntza-dinamikak etorkizunean mantendu egingo direla. Enpresa eta establezimendu pribatuetan baikorragoak dira (% 59) hezkuntzan baino (% 30).

189. grafikoa

**Euskaraldiaren eraginez sortu diren hizkuntza-dinamika berriak etorkizunean mantenduko diren edo ez (Nafarroa) (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

## B. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak

Egoitza eta establezimenduen % 20tan konturatu dira asko dagoela egiteko, eta Euskaraldiari jarraipena emanez, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzen jarraituko dute. Erantzun hori eman dutenen pisua altuagoa da gizarte mugimenduetan (% 30). Hezkuntzako egoitzen % 8tan ezetz erantzun dute, ez dutela beharrik ikusten.

190. grafikoa

**Euskaraldiari jarraipena emanez, Nafarroako entitateetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzen jarraituko duten (%)**




### C. Hurrengo edizioan parte hartzeko asmoa

Egoitza eta establezimendu gehien-gehienetan segurtasun handiz esaten dute Euskaraldiaren 3.edizioan parte hartuko luketela. Ez dakitela erantzun dute enpresa eta establezimenduen % 3tan.

191. grafikoa

**Nafarroako egoitzek edo establezimenduek Euskaraldiaren 3.edizio batean parte hartuko luketen edo ez (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren esperientziaren eta izan duen eraginaren balorazio positiboa egiten dutelako baieztatu dute, batzuek, hurrengo edizioan parte hartuko dutela. Beste batzuek, aldiz, euskararen sustapenarekiko militantziagatik.

*Hasi dugun honi jarraipena emateko eta ahalik eta gehien euskarari alde egiteko*  
(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/3.gune soziolinguistikoa)

*Sí, participaremos. Hace falta tener más iniciativas de éstas para fomentar que hablemos más en euskara*  
(Nafarroa/Zerbitzuak/1.gune soziolinguistikoa)

*Gustora hartu genuen parte eta Euskaraldian zehar laguntzen du, baina luzeran joerak mantetzeko zerbait pentsatu behar da.*  
(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/1.gune soziolinguistikoa)

*Hurrengo edizioan parte hartuko dugu, ez bakarrik militantziagatik. Argi dago enpresa zerbitzu batek bi hizkuntzatan ematen baditu zerbitzuak kalitate gehiago, aukera gehiago ematen duela*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

*Bai, militantzia mantentzeko ekitaldi hauek egiten jarraitu beharra dago*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

Aurrera begira, Nafarroaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu behar liratekeela azpimarratu dute, Euskaraldia ekimena horien arabera egokitzeko.

*Nafarroako errealitatea kontuan hartzea eskatuko nuke, Topaguneari aurretik eskatu izan diogun bezala. Askotan gauzak zentrismotik egiten direla iruditzen zaigu. EAEn ere seguruenik errealitate guztiak ez direla berdinak, batzuk egongo dira gure antzekoak direnak. Baliabideak, aurrekontuak murriztagoak dira, eta guretzat lan handia suposatzen du. Iruditzen zaigu gauzak Gipuzkoako edo Bizkaiko ikuspegitik egiten direla. Hau esan bezala, askotan esaten diegu, baina ez digute kasurik egiten*

(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Nafarroan jende gehiegi dago euskaraz ez dakiena, ezagutza maila txikia da horrelako dinamika bat planteatzeko horren zorrotz. Nafarroan jendeari euskara erakargarri egitea eskatuko nuke. Agian ez da Topaguneari, euskaraldiaren zereginak, baina Nafarroako ikuspegitik jakinik biztanleriaren %70a euskararik gabe lasai bizi dela eta gainera, regodeatzen dela, zerbait ederra, bikaina sortu behar da, ez dakit nola sortu daitekeen. Motibazio kanpaina potenteak planteatuko nituzke eta euskaraldiari ematen zaizkion baliabideak kanpaina horri eman. Eta beste kopuru batzuk daudenean, bestelako erabilera prozesuak jarri martxan*

(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Esan bezala, Topaguneari behin eta berriz errepikatu diogu ekimenaren diseinua ez dagoela eginda, pentsatuta Nafarroagan, eta arrastan eramaten gaitu. Arrapalaka, ezin jarraituz ibiltzen gara. Parte hartzeari begira, espero dut parte hartzen jarraitzea, bestela seinale txarra izango litzake betoa jarriko baligute udaletik euskaraldian edo horrelako ekintzetan parte hartzean*

(Nafarroa\_Administrazioa eta hezkuntza)

*Euskaraldiak benetako arrakasta eta jarraipena izateko, beharrezkoa da hemen ez dugun euskaldun kopurua. Horrek asko errazten Euskaraldiaren eragina. Beraz, erdaldunak esukalduntzen ahalegindu behar dugu horrelako ariketek benetako onura izan dezaten*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)

*12-13 urteko gazteak gaztelaniaz asko hitz egiten dutela iruditzen zait eta ez dira euskaraldiaren barruan sartzen. Uste dut txikienentzat zerbait egin behar dela, edo bestelako ekimenen bat sortu, izan ere, gure etorkizuna dira eta euskararen etorkizuna. Uste dut ez dutela hain argi euskarak duen garrantzia edota euskara jakiteak duen abantaila*

(Nafarroa\_Zerbitzuak)

## B.2.7 COVID-19aren eragina

Egoitzen % 30 eta % 40 artean dira COVID-19ak eragin handia edo oso handia izan duela uste dutenak. Ariguneak antolatzeke lanean izan du pandemiak eraginik handiena, oro har. Herritar, bezero eta bazkideekiko harremanean asko eragin duela uste dute gizarte mugimenduetako egoitzen % 37tan eta administrazioen herenean.

214. taula

### COVID-19ak nola eragin duen Nafarroako egoitza eta establezimenduen parte-hartzean (%)

		Enpresa eta establez pribatuak	Administrazioa, ent.publikoa	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	Gizarte mug., eragileak, Elkartek eta Hedabideak	Guztira
Ariguneak antolatzerakoan	Asko	9,7	15,2	16,2	29,6	14,9
	Nahikoa	26,8	21,2	18,9	29,6	25,3
	Gutxi	40,9	18,2	21,6	24,1	31,8
	Batere ez	11,8	39,4	37,8	13,0	20,0
	Ez dakit	10,7	6,1	5,4	3,7	8,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Ariguneetako partaideen barne-harremanetan	Asko	6,4	12,1	18,9	24,1	12,1
	Nahikoa	24,7	18,2	27,0	37,0	26,1
	Gutxi	40,9	30,3	13,5	24,1	32,6
	Batere ez	17,2	36,4	35,1	13,0	22,0
	Ez dakit	10,7	3,0	5,4	1,9	7,3
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Herritar, bezero edo bazkideekiko harremanetan	Asko	9,7	33,3	21,6	37,0	19,8
	Nahikoa	20,4	18,2	21,6	27,8	21,5
	Gutxi	45,2	30,3	21,6	24,1	36,0
	Batere ez	16,1	18,2	24,3	9,3	16,4
	Ez dakit	8,6	0,0	10,8	1,9	6,4
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Entitateko kideek Euskaraldian parte hartzerakoan	Asko	8,6	15,2	16,2	24,1	13,3
	Nahikoa	14,0	18,2	10,8	24,1	15,9
	Gutxi	42,0	30,3	21,6	31,5	35,5
	Batere ez	20,4	30,3	37,8	13,0	23,1
	Ez dakit	15,0	6,1	13,5	7,4	12,1
	<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

*Edizio honetan klean txapa askoz gutxiago ikusi dira, pandemiagatik ezin izan da harreman asko izan*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/2.gune soziolinguistikoa)

*Aurten nahiko arraroa izan da pandemiagatik eta ez da aurrekoan bezala hainbeste giro nabaritu. Baina bezero batekin bai aldatu dudala erdaraz egitetik euskaraz egitera.*

(Nafarroa/Zerbitzuak/3.gune soziolinguistikoa)

*Pandemia kontestua ulertu behar da. Euskara normalizatzeko bidean pandemiak atzera pausoa suposatu du*

(Nafarroa/Gizarte mugimenduak/4.gune soziolinguistikoa)

*Pandemia ezin dugu kendu gainetik. Nire ustez ezin dira alderatu bi edizioak*

(Nafarroa/Administrazioa eta hezkuntza)



## B.2.8 Entitateen joerak

Norbanakoen kasuan egin bezala, atal honen helburua da Euskaraldian parte hartzen duten entitateetan sakontzea: batetik, arigune-mota bakoitza sortzen duten entitateen ezaugarri bereizgarriak zein diren azalduko da; eta bestetik, Euskaraldiak haien hizkuntza-ohituratan izan duen eragina zein izan den.

Atal honetan nabarmenduko dena ez da zein den arigune-mota bakoitzak erakarri duen gehiengoaren profila, baizik eta besteekin alderatuta, zein diren bereziki erakartzen dituen ezaugarriak (entitate-mota, lurraldea, egoitzaren tamaina, etab.). Horiek besteekiko pisu nabarmena dutelako nabarmentzen dira, ez pisu handiena dutelako – nahiz eta batzuetan bat egiten duten –.

### A. Ariguneak sortzeko joerak

#### Barne-ariguneak bakarrik

##### *Karakterizazioa*

- Gizarte mugimenduak, tamaina ertain-handiko egoitzak.
- 1.gune soziolinguistikoan kokatuak.
- Tokian tokiko herri batzordeekin izan dute harremana..

##### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Barne-harremanetan erabilera handitzeko helburua dute.
- Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta gehien-gehiena gaztelaniaz egin ohi dute.

Barne-ariguneak bakarrik sortu dituztenak gizarte mugimenduetako egoitza ertain-handiak dira, inguru erdaldunean kokatuak, seguraski horietako asko Iruñerrian, eta herri batzordeekin harremana dutenak.

Barne-ariguneak bakarrik sortu dituztenek barne-harremanetan erabilera handitzeko helburua dute. Baina erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta gehiena gaztelaniaz egiten dute. Kasu honetan, seguraski euskara dakiten horien artean, behintzat, euskararen erabilera areagotzea bilatzen dute, kontuan izanda gehiengoak ez duela hitz egiten.

## Kanpo-ariguneak bakarrik

### *Karakterizazioa*

- Administrazio publikoa, tamaina ertain-handiko egoitzak.
- 1-2 gune soziolinguistikoetan kokatuak.
- Koordinazio orokorrarekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Kanpo-ariguneetan areagotu nahi dute erabilera.
- Gutxiengoak daki euskaraz.

Kanpo-ariguneak bakarrik sortu dituztenak administrazio publikoko egoitza ertain-handiak dira, inguru erdaldunean edo nahiko euskaldunean kokatuak eta koordinazio orokorrarekin harremana izan dutenak. Kanpora begira eragin handia izan dezaketen egoitzak dira, seguraski.

Gutxik dakite euskaraz, agian, barne-ariguneak sortzeko zailtasunak dituzte. Gainera, herritarrekin harreman handia dutenez, kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotu nahi dute. Hori horrela, kanpo-ariguneak sortu dituzte.

## Biak: barne eta kanpo-arigunea

### *Karakterizazioa*

- Hezkuntzako egoitza ertain-txikiak.
- 3.gune soziolinguistikoan.
- Koordinazio orokorrarekin dute harremana..

### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Euskararen aldeko konpromisoa adieraztea da arrazoi nagusia.
- Barnean zein kanpoan areagotu nahi dute euskararen erabilera.
- Gehienek euskaraz dakite eta gehiena euskaraz egiten dute.

Bi arigune-motak sortu dituztenen artean hezkuntzako egoitza ertain-txikiak nabarmentzen dira, inguru euskaldunean kokatuak eta koordinazio orokorrarekin harremana dutenak. Nolabait, Nafarroan euskararen gune izan daitezkeen entitateak dira: euskararen barneko erabilera, zein herritarrei euskaraz artatzea, gehien-gehienetan, bermatuta dute. Gainera, herri euskaldunenetakoak dira gehienak, eta beraz, inguruak ere bermatzen die barnean nahiz kanpoan ariketa egiteko aukera izatea.

Ingurune euskaldunetan duten pisuaren adierazle, seguraski, euskararen aldeko konpromisoa erakusteak du pisurik handiena, entitate hauen arrazoien artean. Izan ere, gehienek euskaraz dakite eta gehiena euskaraz egiten dute.

## Zer arigune mota sortu duten ez dakitenak

### *Karakterizazioa*

- Tamaina txikiko enpresa pribatuak.
- 4.gune soziolinguistikoan.
- Ez dute harreman zuzenik izan antolakuntzarekin.

### *Parte hartzeko arrazoiak*

- Gehiengoak ez daki parte hartzeko arrazoia zein izan den.
- Barne-harremanetan sustatu nahi dute erabilera, bereziki.
- Bi muturrak dira nagusi, ezagutzen zein erabileran: denek edo ia denek euskaraz dakiten entitateak, eta beraz, gehiena euskaraz egiten dutenak; eta inork ez edo ia inork ez euskaraz ez dakitenak, eta gehiena gaztelaniaz egiten dutenak.

Zein arigune-mota sortu duten ez dakitenak enpresa pribatu txikiak dira, batez ere, inguru oso euskaldunean kokatuak eta antolakuntzarekin harreman zuzenik izan ez dutenak.

Gehiengoak dio ez dakiela parte hartzeko arrazoia zein den; agian, ekimenarekin berarekin bat egin nahi dute, besterik gabe. Deigarria da bi muturrak direla nagusi joera honetan: denek edo ia denek euskaraz egiteko gaitasuna duten entitateak, eta beraz, gehiena euskaraz egiten dute bertan; eta euskaraz egiteko ia gaitasunik ez dutenak, eta beraz, euren jarduna gaztelaniaz egiten dutenak.

## B. Entitateetan Euskaraldian izan duen eragina.

### Euskaraldian zehar eta gero ere bai

#### *Karakterizazioa*

- Administrazio publikoko eta enpresa pribatuetako tamaina txikiko egoitzak.
- 2.gune soziolinguistikoan.
- Barne-ariguneak edo biak sortu dituzte.
- Koordinazio orokorrarekin izan dute harremana..

#### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Erabilera handitu nahi dute, barnean zein kanpora begira.
- Erdiek dakite euskaraz eta gehiena euskaraz egiten dute.
- Behar besteko ahalegina egin dutela uste dute.
- Barne-arigunearen ariketa nahiko erraza iruditu zaie; kanpo-arigunearena, aldiz, oso zaila.

Euskaraldian zehar zein ondoren eragina nabaritu dutenei dagokienez, tamaina txikiko enpresa pribatuak eta administrazio publikoetako egoitzak nabarmentzen dira, inguru nahiko euskaldunean. Koordinazio orokorrarekin harremana dute eta barne-ariguneak edo biak sortu dituzte.

Euren parte-hartzearekin euskararen erabilera areagotu nahi izan dute, barnean eta kanpoan. Erdiek gutxienez badakite euskaraz, gehiena euskaraz egiten dute, eta behar besteko ahalegina egin dutela uste dute. Barne-arigunearen ariketa nahiko erraza iruditu zaie, eta kanpo-arigunearena oso zaila. Kasu honetan ere, ahalegina eta emaitzak loturik doazela dirudi.

## Euskaraldian zehar bai, baina gero ez

### *Karakterizazioa*

- Tamaina ertain-handiko enpresa pribatuak.
- 2.gune soziolinguistikoan.
- Barne-ariguneak sortu dituzte.
- Ez dute harremanik izan antolakuntzarekin.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Aldeko konpromisoa adierazteak erabilera handitzeak bezainbesteko garrantzia du.
- Barne harremanetan areagotu nahi dute erabilera.
- Gutxiengoa da euskaraz dakiena.
- Dena edo ia dena gaztelaniaz egiten dute.
- Ez dute ahaleginik egin.
- Nahiko zaila iruditu zaie barne-arigunearen ariketa, eta oso zaila kanpo-arigunearena..

Euskaraldian zehar eragina nabaritu duten baina gerora mantendu ez dutenen artean, enpresa pribatuak daude, ertain-handiak, inguru nahiko euskaldunean kokatuak. Antolakuntzarekin ez dute harremanik izan eta barne-ariguneak sortu dituzte.

Maila berean daude euskararen aldeko konpromisoa adieraztea eta erabilera areagotzea —barnean zein kanpoan—. Gutxiengoa da euskaraz dakiena eta gehiena gaztelaniaz egiten dute, horren adierazle, seguraski, bereziki barne-ariguneak sortzeko joera. Ahalegina egin dutela uste dute, baina ez nahikoa, eta zaila iruditu zaie ariketa —kanpo-arigunearena gehiago—.

## Erabilera ez da areagotu

### *Karakterizazioa*

- Enpresa pribatu txikiak eta administrazio publiko handia.
- 1.gune soziolinguistikoa.
- Kanpo-ariguneak sortu dituzte.
- Herri batzordeekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Barne harremanetan euskararen erabilera areagotu nahi dute.
- Gutxiengoa da euskaraz dakiena.
- Dena edo ia dena gaztelaniaz egiten dute.
- Ez dute ahaleginik egin.
- Nahiko zaila iruditu zaie ariketa.

Eraginik izan ez dutenen artean administrazio publikoko egoitza handiak eta enpresa pribatu txikiak nabarmentzen dira, inguru erdaldunean kokatuak, herri batzordeekin harremana izan dutenak eta kanpo-ariguneak sortu dituztenak.

Barne-harremanetan erabilera areagotzeko helburua izan dute, baina erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz eta gehiena gaztelaniaz egiten dute. Onartzen dute ez dutela ahaleginik egin, eta ariketa nahiko zaila iruditu zaie.

Kanpo-ariguneak sortu arren, barne-harremanetan eragiteko helburua dute, baina, seguraski, egoerak ez die barne-ariguneak sortzeko aukerarik eskaintzen: oso gutxi baitakite euskaraz eta gaztelania baita nagusi. Horrez gain, ingurune erdaldunean kokatuta egoteak ere trabak sor ditzake, eta horrek ariketa zail dezake.

### **Ez du eraginik izan euskara nagusi delako, bestela ere**

#### *Karakterizazioa*

- Hezkuntzako eta tamaina ertain-handiko egoitzak.
- 3-4 gune soziolinguistikoetan.
- Bi arigune motak sortu dituzte.
- Ez dakite zer harreman izan dute antolakuntzarekin.

#### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Aldeko konpromisoa adieraztea da arrazoi nagusia.
- Kanpo harremanetan areagotu nahi dute erabilera.
- Denek edo ia denek dakite euskaraz eta dena edo ia dena egiten dute euskaraz.
- Behar besteko ahalegina egin dutela uste dute.
- Oso erraza iruditu zaie ariketa..

Euren egunerokoan euskara berezkoa dutenak, eta beraz, Euskaraldiak eraginik ekarri ez dietenak hezkuntzako egoitza ertainak dira, batez ere, inguru euskaldunetan kokatuak. Bi arigune-motak sortu dituzte, euren egoerak aukera ematen baitie horretarako: denek edo ia denek dakite euskaraz eta beraz, euren harreman-hizkuntza euskaraz da bereziki, bai barne-harremanetan baita kanpo-harremanetan ere.

Lan-hizkuntza euskara dela ziurtatuta dute, eta beraz, kanpo-harremanetan areagotu nahi dute erabilera, herritarrekin. Euren egunerokoan euskara berezkoa dutenen artean, euskararen aldeko konpromisoa adierazteak hartzen du garrantzi handiagoa, arrazoiaren artean.



## Ez dakite eragina izan duen ala ez

### *Karakterizazioa*

- Gizarte mugimenduetako entitateen egoitza txikiak.
- 1.gune soziolinguistikoan.
- Kanpo-ariguneak sortu dituzte.
- Koordinazio orokorarekin izan dute harremana.

### *Parte hartzeko arrazoiak eta egindako ahalegina*

- Euskararen aldeko konpromisoa adieraztea zein erabilera handitzea – kanpoan nahiz barnean – , biak, izan dira arrazoi nagusia.
- Erdiek baino gutxiagok hitz egiten dute euskaraz.
- Pisu handia dute: barnean, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egitea; eta kanpoan, gehiena gaztelaniaz egitea.
- Behar besteko ahalegina egin dutela diote.
- Kanpoan zein barnean ariketa oso zaila izan da.

Euskaraldiak zein neurritan eragin duen ez dakitenak Nafarroan, bereziki, gizarte mugimenduetako entitateen egoitza txikiak dira. Ingurune erdaldunean kokatuta daude, seguraski, Iruñerrian. Kanpo-ariguneak sortzeko joera nabarmena izan dute, seguraski euskara-ezagutzari lotuta: erdiek baino gutxiagok hitz egiten dute euskaraz halako entitatetan.

Euskararen aldeko konpromisoa adieraztea zein erabilera handitzea, biak, dira entitate hauek Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusiak. Euskaraldia aurreko erabilerari eta parte hartzeko ahaleginari dagokionez, gehiengoak dio ez dagokiola erantzutea. Dena den, pisua handia dute ondorengo joerek: barnean, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egitea; eta kanpo-harremanetan, gehiena gaztelaniaz egitea.

Euskaraldiari buruz informatzeko ahalegina behar bestekoa izan dela adierazi dute, batez ere, baina, hala ere, ariketa oso zaila izan zaie, kanpoan nahiz barruan.

### C. Laburpen-taulak: NAFARROA

#### Karakterizazioa

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Biak: barne- eta kanpo-ariguneak	Ez dakit
Entitate-mota	Gizarte mugimenduak, eragileak, elkarteak.	Administrazio publikoa	Hezkuntza	Enpresa pribatuak
Tamaina	51-100 kide	51-100 kide	11-50 kide	5 kide baino gutxiago
Komunikazioa	Herri batzordearekin	Koordinazio Orokorrarekin	Koordinazio Orokorrarekin Ez dakit	Harreman zuzenik ez
GSL	1GSL	1GSL 2GSL	3GSL	4GSL

#### Parte hartzeko arrazoiak

	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Biak: barne- eta kanpo-ariguneak	Ez dakit
Arrazoia	Erabilera handitzea	Ez dakit	Euskararen aldeko konpromisoa	Ez dakit
Non bultzatu erabilera?	Ez dakit Barne-harremanetan	Kanpo-harremanetan	Bietan	Barne-harremanetan
Euskara-ezagutza	Erdiek baino gutxiagok	Inork edo ia inork ez	Gehiena euskaraz	Denek edo ia denek Inork ez edo ia inork ez
Euskara-erabilera	Dena edo ia dena gaztelaniaz Gehiena gaztelaniaz	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	Dena edo ia dena euskaraz	Gehiena gaztelaniaz Gehiena euskaraz

## Entitateetan izan duen eragina

### Karakterizazioa

	<b>Bai, Euskaraldian zehar eta gero ere bai</b>	<b>Bai, Euskaraldian zehar, gero ez</b>	<b>Ez, ez du erabilera areagotu</b>	<b>Ez, euskara nagusi da</b>	<b>Ez dakit</b>
Entitate-mota	Administrazio publikoa Enpresa pribatuak	Enpresa pribatuak	Administrazio publikoa Enpresa pribatuak	Hezkuntza	Gizarte mugimenduak, elkarteak...
Tamaina	5 baino gutxiago	51-100 kide	5 baino gutxiago 151 kidetik gora	51 kidetik gora	5-10 kide
Komunikazioa	Koordinazio Orokorrarekin	Harremanik ez	Herri batzordearekin	Ez dakit	Koordinazio Orokorrarekin
GSL	2GSL	2GSL	1GSL	3GSL 4GSL	1GSL
Arigune mota	Ez dakit Biak Barne-ariguneak	Barne-ariguneak	Kanpo-ariguneak	Biak	Kanpo-ariguneak

Egoera, arazoak eta ahaleginak

		<b>Bai, Euskaraldian zehar eta gero ere bai</b>	<b>Bai, Euskaraldian zehar, gero ez</b>	<b>Ez, ez du erabilera areagotu</b>	<b>Ez, euskara nagusi da</b>	<b>Ez dakit</b>
Arrazoia		Ez dakit Erabilera handitzea	Biak maila berean	Erabilera handitu	Aldeko konpromisoa	Biak maila berean
Non bultzatu erabilera?		Bietan	Bietan	Barne-harremanetan	Kanpo-harremanetan	Bietan
Euskara-ezagutza		Erdiek	Erdiek baino gutxiagok Inork ez edo ia inork ez	Erdiek baino gutxiagok Inork ez edo ia inork ez	Denek edo ia denek	Erdiek baino gutxiagok
Euskara-erabilera	Barnean	Gehiena euskaraz	Gehiena gaztelaniaz Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena euskaraz	Ez dagokit Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste
	Kanpoan	Gehiena euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena gaztelaniaz	Dena edo ia dena euskaraz	Ez dagokit Gehiena gaztelaniaz
Ahalegina		Bai, behar beste	Bai, baina ez da nahikoa izan	Ez da ahaleginik egin	Bai, behar beste	Ez dagokit Bai, behar beste
Zailtasuna	Barnean	Nahiko erraza	Nahiko zaila	Ez erraza, ez zaila	Oso erraza	Oso zaila
	Kanpoan	Oso zaila	Oso zaila	Nahiko zaila	Oso erraza	Oso zaila



# 5.

**Herri-batzordeen eta prozesuen  
azterketa.**

Oinarri komunak Euskaraldiaren koordinazio orokorrak jartzen baditu ere, ariketa soziala tokiko testuingurura egokitzeko proposamena egiten dute. Tokian toki antolatzeke ardurak dute, hain zuzen, herri-batzordeek; hau da, eskualde, herri edo auzoetako eragileek, erakunde publikoek zein herritar norbanakoek elkarrekin sortutako lantaldeek. Denera, ia 350 herri-batzordek eman dute izena 2020ko Euskaraldian.

Horietatik, 25 herri-batzorde arrakastatsu (EAEko 15 eta Nafarroako 10) identifikatzeko, unibertso osoari galdetegia helarazi zion Siadecok. Denera, 225 erantzun jaso dira eta horiek 298 herri-batzorde ordezkatzeko dituzte (% 86).

215. taula

**Herri-batzordeen landa-lan kuantitatiboa datutan (kop.)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Guztira
<b>Abiapuntuko herri batzorde kopurua</b>	<b>51</b>	<b>100</b>	<b>75</b>	<b>120</b>	<b>346</b>
Ez da kontaktatzerik lortu/ kontakua ez zen egokia	-2	-3	-0	-1	-6
Ezezkoa eman du	-2	-8	-3	-6	-19
Hasita, bukatu gabe	-1	-1	-0	-1	-3
Saiatuko direla edo beteko dutela, baina ez dute egin	-2	-3	-2	-2	-9
Bete dutela, baina ez zaigu agertzen	-0	-0	-0	-2	-2
Ez da batzorderik sortu	-4	-6	-2	-0	-12
Landa-lanean agertutako berriak	+0	+2	+1	+0	+3
<b>Landa-lanean ordezkaturako herri batzordeak, guztira:</b>	<b>40</b>	<b>81</b>	<b>69</b>	<b>108</b>	<b>298</b>
% abiapuntuko herri batzordeekiko	78	81	92	90	86
<b>Informazio-unitate kopurua</b>	<b>31</b>	<b>80</b>	<b>66</b>	<b>48</b>	<b>225</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Lurraldeka, ondorengoak dira lagina osatu duten informazio-unitateak:

**Araba:** Aiara, Amurrio, Aramaio, Arraia-Maeztu, Arrankudiaga, Artziniega, Bilar, Burgelu, Eltziego, Gasteiz, Gasteiz (Abetxuko), Gasteiz (Erdialdea), Gasteiz (Salburua), Gasteiz (Zaramaga-Aranbizkarra), Iekora, Iruraiz-Gauna, Kanpezu, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Laudio, Laudio (Areta), Oion, Okondo, Orozko, Samaniego, Urduña eta Villabuena de Alava-Eskuernaga.

**Bizkaia:** Abadiño, Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Areatza, Arrieta, Arrigorriaga, Artea, Artzentales, Atxondo, Aulesti, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bedia, Bermeo, Berriatua, Berriz, Bilbo (Miribilla), Bilbo (Bilbo Zaharra), Bilbo (Irala), Bilbo (Otxarkoaga), Bilbo (Uribarri), Bilbo (Zorrotza), Busturia, Derio, Deustualdea, Dima, Durango, Ea, Elorrio, Erandio, Ermua, Errigoiti, Etxebarri, Etxebarria, Gamiz-Fika, Gatika, Gernika-Lumo, Getxo, Getxo (Algorta), Gizaburuaga, Gordexola, Ibarrangelu, Igorre, Ispaster, Iurreta, Karrantza, Larrabetzu, Leioa, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mañaria, Markina-Xemein, Meñaka, Mundaka, Mungia, Muskiz, Muxika, Ondarroa, Ortuella, Otxandio, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Trapagaran, Turtzioz, Ugao-Miraballes, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zeberio eta Zierbena.

**Gipuzkoa:** Abaltzisketa, Aduna, Aia, Aizarnazabal, Alegia, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Andoain, Anoeta, Antzuola, Arama, Aretxabaleta, Arrasate, Asteasu, Ataun, Azpeitia, Beasain, Beizama, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Deba, Donostia, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Eskoriatza, Ezkio, Gabiria, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Irun, Irura, Lasarte-Oria, Lazkao, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Leintz Gatzaga, Lezo, Lizartza, Mutiloa, Mutriku, Oiartzun, Olaberria, Oñati, Ordizia, Orendain, Orereta, Orío, Ormaiztegi, Pasaia, Soraluze, Tolosaldea, Urnieta, Urretxu-Zumarraga, Usurbil, Zarautz, Zegama, Zerain eta Zizurkil.

**Nafarroa:** Agoitz, Altsasu, Andosilla, Antsoain, Arakil, Arantza, Arbizu, Arruazu, Añorbe, Bera, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Etxarri Aranatz, Etxauri, Ezkabarte, Gares, Irunberri, Iruña (Arrosadia), Iruña (Arrotxapea), Irurtzun, Izagaldea, Lakuntza, Leitza, Estellerria (Lizarraga, Deierrri, Oteitza), Lizarraga, Lizarragabengoa, Mañeru, Mendabia, Olazti, Olite-Erriberri, Orkoien, Tafalla, Uharte, Uharte Arakil, Urdiain, Ziordia, Zirauki eta Zizur Nagusia.

Atal honetan 225 informazio-unitate horien eskutik jasotako informazioaren azterketa kuantitatiboa egingo da lehenengo. Datuak bateratuta eskainiko dira, EAE eta Nafarroaren arteko bereizketarik egin gabe. Dena den, aldea dagoenean azaldu egiten da: Nafarroaren kasua besterik ez da aipatzen, EAEko herri-batzordeek duten pisua kontuan izanik, datu orokorrek eta EAEko datuek bat egiten baitute.

Ondoren, 25 herri-batzorde arrakastatsu hautatzeko prozesua azalduko da, eta besteekiko dituzten ezaugarri bereizgarriak nabarmenduko dira. Bukatzeko, herri-batzorde horiek arrakastatsua izateko identifikatu diren faktore baldintzatzaileak identifikatuko dira, eta besteetara zabaltzeko dekalogoia zehaztuko da.


## 5.1. AZTERKETA KUANTITATIBOA

### A) 2018ko herri-batzordearen jarraipena den ala ez

2020an Euskaraldia antolatzeko lantaldea izan duten eskualde, herri edo auzoen hamarretik ia bederatzitan herri-batzordea sortu zuten 2018an ere: ia hiru laurdenek aurreko lantaldearen jarraipentzat jotzen dute euren taldea; % 17,3ak, aldiz, guztiz ezberdina izan dela dio.

192. grafikoa

#### 2020ko herri-batzordea, 2018koaren jarraipena kontsideratzen den ala ez (%)



Iturria: Siadeco, 2021.




## B) 2020ko Euskaraldia antolatzeko inizatiba edo ekimena

Herri-batzordeen ia erdiak dio nagusiki udalarena izan dela 2020an Euskaraldia euren eskualdean, herrian edo auzoan antolatzeko ekimena. Beste ia erdiak dio inizatiba hanka sozialak (elkartek, herritarrak...) izan duela: ia herenak euskara edo kultur elkarteak aipatu du, eta % 17,8ak, aldiz, herritar euskaltzale bat.

Bi erkidegoak alderatuz gero, EAEn gehiago dira ekimena nagusiki udalarena (% 49) edo euskara edo kultur elkartearena (% 31) izan zela diotenak; Nafarroan, aldiz, nabarmen altuagoa da ekimena herritar euskaltzale baten inizatibaz sortu zela dioten kasua (% 33).

193. grafikoa

### Norena izan den 2020ko Euskaraldia antolatzeko inizatiba edo ekimena (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

## C) Antolaketarako sortutako taldeak

Taldeak antolaketaz galdetuta, erdiak baino gehiagok herri-batzordea sortu du (% 52,0). Hamarretik ia bik ez dute batzorde edo lantalde berezirik sortu (% 19,1): dagoeneko sortuta zeuden euskara talde edo batzordeetatik bideratu da 2020ko Euskaraldiaren lanketa. Nafarroan % 29,2 izan dira batzorde berezirik sortu ez dutenak; EAEn, aldiz, % 16,4.

Azpitaldeak sortu dituztenek, gaika (komunikazioa, entitateak...), auzoka edo adin-tarteka (gazteen azpitaldea...) egin dituzte, bereziki.

216. taula

**Euskaraldiaren antolaketaarako sortutako taldeak (%).**

	%
Herri-batzordea	52,0
Talde eragilea	12,9
Herri-batzordea + talde eragilea	9,8
Herri-batzordeak + azpitaldeak	3,6
Herri-batzordea + talde eragilea + azpitaldeak	2,2
Ez da batzorde berezirik sortu	19,1
Beste bat.	0,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

**D) Herri-batzordeetako kide kopurua**

2020ko Euskaraldiko hamar herri-batzordetik lauk 5 eta 10 kide artean izan dituzte, eta beste lauk 2-5 kide artean. Nafarroan 2-5 kide artekoak nagusitu dira (% 62,5), eta gutxiago izan dira 5-10 kide artekoak.

Dena den, herri-batzordeen erdiak pasatxok (% 53,8) dio batez beste 2-5 kide hartu dutela parte bileretan —% 68,8 Nafarroako batzordeen artean—.

217. taula

**Euskaraldia antolatzeko herri-batzordeetako kide kopurua (%).**

	Zenbat kidek osatu dute?	Batez beste, zenbat kidek hartu dute parte?
2-5 kide artean	38,7	53,8
5-10 kide artean	40,4	39,6
10-20 kide artean	17,3	4,0
20 kidek baino gehiagok	2,2	0,4
Ed/Ee	1,3	2,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## E) Herri-batzordeen osaera


Erakunde publikoen eta eragile sozialen arteko elkarlanerako proposamena egiten du Euskaraldiak. Hori zer neurritan gauzatu den galdetu zaie herri-batzordeei.

Herritar euskaltzaleak eta udala izan dira herri-batzordeetan ordezkatuak egon direnak: bost batzordetik lauk herritar norbanakoak izan dituzte (% 81,8), eta hiru laurdenak ia udaleko ordezkariak (% 72,4). Bost batzordetik bitan egon da ordezkatuta euskara elkarteak. Kontrari, euskalgintzakoak ez diren herriko beste eragileak izan dute ordezkariarik txikiena, hamar batzordetik batek besterik ez (% 10,2). Horrez gain, udaleko ordezkari politikoa ordezkatuagoa egon da (% 25,3), oposizioko taldeak baino (% 13,8).

Nafarroan, gehiago izan dira herritar euskaltzaleen ordezkari politikoa izan duten herri-batzordeak (% 85,4); nabarmen gutxiago, aldiz, gainerako eragileak ordezkatuta izan dituztenak.

194. grafikoa

### Ondorengo multzoetatik zein egon den ordezkatuta batzordean (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Aurreko eragileen arteko elkarlanaz galdetuta, oro har, positiboki baloratu dute: herri-batzordeen hiru laurdenek diote elkarlana oso ona edo ona izan dela (% 75,6). Ildo horretatik, batez beste 7,27ko puntuazioa eman diote elkarlan horri —6,49 Nafarroako herri-batzordeak—.

Nafarroako herri-batzordeen balorazioa ez da hain positiboa: elkarlana ona edo oso ona izan dela adierazi du herri-batzordeen % 58,1ak; eta txarra edo oso txarra, aldiz, % 18,7ak.

218. taula

**Euskaraldia antolatzeneko herri-batzordean eragileen arteko elkarlana (%).**

	%
Oso ona	24,9
Ona	50,7
Nahikoa	17,1
Txarra	5,5
Oso txarra	1,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Herri-batzordeetan zein hutsune antzeman diren aztertzen, herri-batzordeei galdetu zaie ea herritarren zein multzo ez den ordezkaturik egon:

- **Adinari** dagokionez, hutsune nabarmenena gazteen eta adinekoen presentzian sumatu da: erdiak baino gehiagok adierazi du ez direla ordezkaturik egon ez 16 eta 29 urte bitartekoak (% 55,1), ezta 60tik gorakoak ere (% 54,7).
- **Sexuari** dagokionez, gizonezkoen ordezkartza falta (% 39,1) gehiago nabaritu da emakumezkoena (% 21,8) baino.
- **Hizkuntza-gaitasunari** erreparatuz gero, euskaldun hartzaileen falta antzeman dute bost batzordetik ia hiruk (% 57,3).
- Kideen **jatorria** kontuan hartuta, Euskal Herritik kanpo jaiotakoen presentzia txikiagoa izan da: bost batzordetik hiruk nabaritu dute haien hutsunea (% 64,0k Espainian jaiotakoena; % 66,2k Espainiatik kanpo jaiotakoena).
- **Sektorearen** arabera, bereziki, enpresa edo negozio pribatuak ez dira ordezkaturik egon: merkataritza eta ostalaritzako zein industriako entitateen falta sumatu dute bi herenek.

219. taula

**Euskaraldia antolatzeneko herri-batzordean herritarren zein multzo ez den ordezkaturik egon (%).**

		%
Adina	16-29 urte	55,1
	30-44 urte	13,3
	45-60 urte	13,8
	60+	54,7
Sexua	Emakumezkoak	21,8
	Gizonezkoak	39,1
Hizkuntza-gaitasuna	Euskaldun oso	23,1
	Euskaldun hartzaile	57,8
Jatorria	Bertan jaioak	20,9
	EHn jaioak	22,2
	EHtik kanpo, Espainian jaioak	64,0
	Espainiatik kanpo jaioak	66,2
Sektore sozial eta sozioekonomikoak	Euskalgintza	23,6
	Kulturgintza	24,9
	Kirola	49,3
	Hezkuntza	29,8
	Auzoak	38,2
	Merkataritza eta ostalaritza	58,7
	Industria	66,7
	Bestelako gizarte eragileak	37,8

Iturria: Siadeco, 2021

## F) 2018ko eta 2020ko edizioen arteko alderaketa

Bi edizioen alderaketa eginez gero, oro har, 2020ko herri-batzordeek 2018koek baino partaide kopuru txikiagoa izan dute, baita motibazio eta ilusio gutxiago ere: % 47,6ak esan du partaide aldetik okerragoa izan dela, eta % 58,6arentzat okerragoa izan da motibazio eta ilusio aldetik. Gutxiago dira, aldiz, elkarlana eta lan dedikazioa okerragoa izan dela esan dutenak; berdina izan dela diotenak dute pisu gehien (% 33,3).

220. taula

**2020ko Euskaraldiaren herri-batzordea 2018koarekiko (%).**

	Partaide kopurua	Motibazioa eta ilusioa	Elkarlana eta lan dedikazioa
Askoz hobea	6,2	4,9	4,9
Zertxobait hobea	12,4	6,7	12,4
Berdin	26,7	22,7	33,3
Zertxobait okerragoa	32,0	40,4	25,8
Askoz okerragoa	15,6	18,2	16,0
Ez dagokio	7,1	7,1	7,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## G) Herri-batzordeak noiz aktibatu ziren

Euskaraldiaren antolaketari noiz ekin, herri-batzorde bakoitzak erabakitzen du, eta badaude aldeak.

- 2020a baino lehen hasi zen herri-batzordeen % 35,1: horietatik, laurden batek 2019ko abuztua baino lehen hasi zuen lanketa, eta gainontzeko hiru laurdenek, 2019ko iraila eta Abendua bitarte.
- Gehiengoa, baina, 2020an bertan aktibatu zen (% 58,7): ia heren batek itxialdiaren aurretik ekin zion lanari (% 28,8); beste heren batek 2020ko abuztura arte (% 31,8); eta zertxobait gehixeago izan dira Euskaraldiaren antolaketari irailetik aurrera ekin diotenak (% 39,4).

Euskaraldia hasi eta bi hilabeteko epean, hau da, azaroa eta urtarrila bitarte, desegin da hamar batzordetik zortzi (% 79,1).

## H) Herri-batzordeen baliabideak

Euskaraldia tokian toki antolatzeko herri-batzordeek hainbat baliabide izan dituzte. Horiek, ordea, ezberdinak izan dira toki batetik bestera, baina, oro har, pertsonalak, ekonomikoak eta azpiegiturazkoak edo teknikoak izan dira.

### Baliabide pertsonalak

Euskaraldia antolatzeko herritar boluntarioek egindako lana funtsezkoa izan da kasu gehienetan: bost batzordetik lauk baliabide pertsonal moduan aipatu ditu (% 81,3). Jarraian, erdiak baino gehiagok udaleko euskara teknikaria ere aipatu du (% 55,6). Gutxiago izan dira dinamizatzailer liberatua (% 34,2) edo euskara edo kultur elkarteko langilea izan dutenak (% 19,6).

Nafarroako herri-batzordeetan herritar boluntarioen (% 85,4) eta udaleko euskara teknikariaren (% 58,3) presentzia nabarmenagoa da; eta aldiz, jaitzi egiten da dinamizatzailer liberatuarena (% 27,1) eta euskara edo kultur elkarteko langilearena (% 14,6).

Dinamizatzailer liberatua izan dutenen artean aniztasun handia dago: badaude egunean ordu batzuk aritu direnak edo lanaldi osokoak; herri mailakoak edo eskualdekoak...

195. grafikoa

#### Herri-batzordeak Euskaraldiaren antolaketarako izan dituen baliabide pertsonalak (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Aipatutako baliabide pertsonalen balorazioa positiboa da: erdiak baino gehiagok (% 58,3) uste du nahikoak izan direla – guztiz edo oro har –. Dena den, askok aipatzen dute baliabideak nahikoak izan direla horietara egokitu dituztelako haien asmoak ere. Horrekin batera, herri-batzordeek partaide falta izan dutela diote batzuek, eta horrek euren jarduna murriztu diela. Era berean, COVID-19aren pandemia ere mugatzen jo dute, lanerako gaitasunean.

221. taula

**Baliabide pertsonalak nahikoak izan diren ala ez (%).**

	%
Bai, guztiz	10,7
Oro har, bai	47,6
Erdizka	24,0
Oro har, ez	12,4
Inolaz ere ez	5,3
Ed/Ee	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

**Baliabide ekonomikoak**

225 erregistrotatik 126k eman du Euskaraldia antolatzeko baliabide ekonomikoen berri (% 56,0). 62k ez dute zehaztu, eta 29k esan dute ez dutela baliabide ekonomikorik izan. Gainontzeko 8ek onartu dute baliabide ekonomikoak izan dituztela, eta nahiz eta ez dituzten zehaztu, horien inguruko azalpenen bat eman dute.

222. taula

**Baliabide ekonomikoak zehaztu dituzten edo ez.**

	Kop	%
Ez dute baliabide ekonomikorik izan	29	12,9
Ez dute erantzun, ez dute zehaztu	62	27,6
Baliabide ekonomikoak izan dituzte:		
<i>Izan eta zehaztu dituzte</i>	126	56,0
<i>Azalpenen bat dute</i>	8	3,6
<b>Guztira</b>	<b>225</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.




Hori horrela, hemendik aurrera baliabide ekonomikoak zehaztu dituztenen datuak aztertuko dira (126; % 56). Horietatik 17 dira Nafarroako herri-batzordeak. Jasotako informazioaren arabera, oro har, nahiko orekatuta dago denera baliabide pertsonaletarako eta teknikoetarako bideratutako diru-kopurua (% 52,3), eta ekintzetara bideratutakoa (% 47,7).

Nafarroako herri-batzordeetan, aldiz, altuagoa da ekintzetara bideratutako aurrekontua (% 63,7), eta gutxiago bideratu da baliabide pertsonal eta teknikoetara (% 36,3).

196. grafikoa

**Baliabide ekonomikoak zertara bideratu diren (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Dena den, aurrekontuaren banaketa ez da homogenea herri-batzordeen artean. Erdiak baino gehiagok (% 57,1) ekintzetara bideratu du aurrekontu osoa: herri txikiez osatutako eskualde, herri edo auzo txikiak dira, bereziki. Nafarroan, % 76,5 dira aurrekontu osoa ekintzetara bideratu dutenak. Alde handiarekin, jarraian daude aurrekontua nagusiki baliabide pertsonal eta teknikoetara bideratu dutenak (% 15,1).

223. taula

**Baliabide ekonomikoak zertara bideratu diren (%).**


	%
Aurrekontu osoa ekintzetara bideratu dute (%100)	57,1
Aurrekontuaren erdia baino gehiago ekintzetara bideratu dute (%55 edo gehiago)	5,6
Aurrekontuaren erdia ekintzetara eta erdia baliabide pertsonal/teknikoetara bideratu dute	8,7
Aurrekontuaren erdia baino gehiago baliabide pertsonal/teknikoetara bideratu dute (%51-%75 artean)	13,5
Aurrekontua nagusiki baliabide pertsonal/teknikoetara bideratu dute	15,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Finantzio-iturriei dagokionez, tokiko administrazioak nabarmentzen dira, zalantzarik gabe: herri-batzordeek baliabide ekonomikoen % 88,3 jaso dute udal, mankomunitate edo tokiko erakunde publikoetatik. Nafarroako herri-batzordeetan, are altuagoa da zifra hori: % 94,9.

197. grafikoa

**Herri-batzordeen finantziazio-iturriak (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Herri-batzordeek Euskaraldia antolatzen izan dituzten baliabide ekonomikoak nahikoak izan direla diote ia hiru laurdenek: bostetik batek guztiz nahikoak direla (% 20) —% 10,4 Nafarroako herri-batzordeetan—, eta erdiak baino gehiagok oro har nahikoak izan direla (% 52,9). Herri-batzorde batzuek aipatu dute baliabide pertsonaletarako aurrekontua dela falta izan dena, kasu batzuetan dinamizatzailerik kontratatatu ahal izateko eta beste batzuetan, aldiz, lehenago kontratatzen. Dena den, asko izan dira Udalak arazorik gabe baliabide ekonomikoak jartzeko prest egon direla aipatu dutenak.

224. taula

**Baliabide pertsonalak nahikoak izan diren ala ez (%).**

	%
Bai, guztiz	20,0
Oro har, bai	52,9
Erdizka	18,2
Oro har, ez	4,0
Inolaz ere ez	4,4
Ed/Ee	0,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

COVID-19 pandemia betean antolatutako edizioa izan da 2020koa, eta horrek herri-batzordeen baliabide ekonomikoetan zer-nola eragin duen galdetu zaie. Herri-batzordeen ia erdiak esan du ez duela eraginik izan (% 49,8); ia laurden batek, aldiz, jaitsiera eragin duela (% 24). Bostetik batek ez daki edo ez du erantzun (% 22,2).

Aipatu dutenez, COVID-19ak bereziki eragin du aurrekontuaren exekuzioan: osasun-neurriek ekintzak egiteko mugak ezarri zituzten, eta beraz, aurreko edizioan baino baliabide ekonomiko gutxiago behar izan dituzte.

225. taula

---

**COVID-19ak baliabide ekonomikoetan eragin duen ala ez (%).**

	%
Bai, jaitsiera eragin du	24,0
Bai, igoera eragin du	4,0
Ez du eraginik izan	49,8
Ed/Ee	22,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>


*Iturria: Siadeco, 2021.*

## Azpiegiturak eta baliabide teknikoak

Azpiegiturei eta baliabide teknikoiei dagokionez, udalaren azpiegituren erabilera nabarmentzen da, bereziki bilerak egiteko (% 75,1), baina bulego-lanetarako ere bai (% 32,0). Nafarroan, gutxiago izan dira baliabide tekniko hauek erabili dituzten herri-batzordeak: % 64,6k udalen azpiegiturak bilerak egiteko, eta % 25,0ek bulego-lanetarako.

198. grafikoa

### Zein azpiegitura eta baliabide tekniko erabili dituen (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Baloraziorik positiboena jaso dute azpiegiturek eta baliabide teknikoek. Hain zuzen, bostetik hiruk oro har nahikoak direla esan dute (% 60,4), eta bostetik ia batek, aldiz, guztiz nahikoak (% 19,1).

Azpiegiturei eta baliabide teknikoiei dagokienez, udalaren azpiegiturak erabiltzeko aukera izan dute askok. Kasu honetan ere, COVID-19ak zuzenean eragin die, azpiegituren erabileran, batez ere.

226. taula

### Azpiegiturak eta baliabide teknikoak nahikoak izan diren ala ez (%)

	%
Bai, guztiz	19,1
Oro har, bai	60,4
Erdizka	14,7
Oro har, ez	2,7
Inolaz ere	3,1
Ed/Ee	0,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## I) Herri-batzordeen funtzionamendua eta eraginkortasuna

Batez beste 7aren azpitik baloratu dituzte herri-batzordeek funtzionamenduari eta eraginkortasunari loturiko alderdi guztiak. Barne-komunikazioa (6,96) eta dinamizatzailearen rola izan dira balorazio positiboak jaso dituztenak; eragile sozial eta instituzionalen arteko elkarlana (5,98) eta eragile ezberdinen arteko funtzio-banaketa (5,67), aldiz, negatiboak.

199. grafikoa

### Herri-batzordearen zenbait alderdiren batez besteko balorazioa funtzionamenduarekiko eta eraginkortasunarekiko (%)




Iturria: Siadeco, 2021.

Lantaldeen zereginei dagokienez, barne-komunikazioarena eta gidaritza eta koordinazioarena dira ondoen bete direnak: guztiz ongi edo ongi bete dituzte ia hamar batzordetik zortzik (% 79,1 eta % 77,8, hurrenez hurren). Kontran, balorazio positibo baxuagoa dute lantaldeko kideen motibazioa eta osagarritasuna sustatzeak (% 57,8 eta % 48,5, hurrenez hurren).

Nafarroako herri-batzordeetan ere oso ongi baloratzen da barne-komunikazioa (% 79,2), baina gainerako zeregin guztietan gutxiago dira guztiz ongi edo ongi funtzionatu dutela diotenak; euren funtzionamenduaz ikuspegi kritikoagoa azaltzen dute.

200. grafikoa

**Lantaldearen dinamikan zenbateraino bete diren ongi ondorengo zereginak (guztiz ongi+ongi) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

227. taula

**Lantaldearen dinamikan zenbateraino bete diren ongi ondorengo zereginak (%)**

	Gidaritza eta koordinazioa	Lantaldeko kideen osagarritasuna sustatzea	Lantaldeko kideen motibazioa	Barne komunikazioa	Kanpo komunikazioa	Arazoei taldean erantzutea
Guztiz ongi	11,1	3,6	7,1	11,1	12,9	8,4
Ongi	66,7	44,9	50,7	68,0	56,0	54,2
Ez ongi, ez gaizki	15,6	31,1	25,8	15,6	23,1	24,4
Gaizki	0,9	7,6	8,9	2,2	4,0	4,9
Guztiz gaizki	0,4	1,3	3,6	0,0	0,9	1,3
Ed/Ee	5,3	11,6	4,0	3,1	3,1	6,7
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.


## J) Herri-batzordeen jarduera

Norbanakoei zein entitateei Euskaraldiaz informatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko hamar batzordetik zazpi baino gehiagok lau kanal baliatu ditu, batez ere: emaila (% 73,7), sare sozial propioak (% 73,2), elkarrizketa pertsonalak elkarte eta taldeekin (% 72,3), eta informazio-puntuak eta mahaiaik (% 70). Gutxiengoak gaztelaniaz argitaratzen duten hedabideetara jo du (% 25) edo sektorekako bilerak egin ditu (% 17,9).

Nafarroako herri-batzordeek baliatutako kanalen hurrenkera oso antzekoa den arren, gutxiago dira, oro har, horietako bakoitza erabili duten herri-batzordeak.

201. grafikoa

### Norbanakoei zein entitateei Euskaraldiaz informatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko erabilitako kanalak (%)




Iturria: Siadeco, 2021.

Harreman zuzenarekin loturikoak dira eraginkorrenak herri-batzordeen ustez. Hain zuzen, eraginkortasun handiena izan dute elkarteekin eta taldeekin egindako elkarrizketa pertsonalek (% 72,5) eta informazio-puntuak eta mahaiaiek (% 70,4). Eraginkortasun txikiena, aldiz, gutxien baliatutako kanalei dagokie: sektorekako bilerak egin dituzten % 40ak besterik ez dituzte eraginkortzat jo; eta gaztelaniazko hedabideetara jo dutenen % 26,7ak esan du eraginkortasun oso handia edo handia izan duela kanal horrek. Are gehiago, gaztelaniazko hedabideak baliatu dituztenen herenak (% 30,3) eraginkortasuna txikia edo oso txikia izan duela diote.

202. grafikoa

**Norbanakoei zein entitateei Euskaraldiaz informatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko erabilitako kanalen eraginkortasuna (oso handia + handia) (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

228. taula

**Norbanakoei zein entitateei Euskaraldiaz informatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko erabilitako kanalen eraginkortasun-maila (%)**

Kanala	Oso handia	Handia	Ertaina	Txikia	Oso txikia	Guztira
Emaila: bidalketa masiboak	5,5	39,3	37,4	12,3	5,5	100,0
Telefono bidezko lehen kontaktazioa	9,7	54,8	23,4	10,5	1,6	100,0
Elkarrizketa pertsonalak elkarte eta taldeekin	17,5	55,0	22,5	5,0	0,0	100,0
Elkarrizketa pertsonalak enprekin	16,0	44,5	22,7	11,8	5,0	100,0
Sektorekako bilerak	5,0	35,0	40,0	15,0	5,0	100,0
Sare sozial propioak	17,0	40,9	28,9	11,9	1,3	100,0
Euskaraz argitaratzen duten hedabideak	12,9	40,0	39,3	5,7	2,1	100,0
Gaztelaniaz argitaratzen duten hedabideak	7,1	19,6	42,9	19,6	10,7	100,0
Informazio-puntuak edo mahaiak	23,9	46,5	22,6	5,2	1,9	100,0


Iturria: Siadeco, 2021.



Euskaraldia herrietara eramatea da herri-batzordeen eginbeharretako bat. Lan horretan, ariketak ikusgarritasuna izan dezan egiten dute lan talde horiek, eta horretarako proposamenak egiten ditu Koordinazio Orokorrak. Horietatik, txapak banatzeko puntuak jartzeak du arrakasta gehien: hamarretik ia bederatzik txapa-banaketarako lekuak izan dituzte (% 89,9). Aldea dago hurrengoekin: % 68,4ak euskarriak herrira egokitu eta herrian zehar jarri ditu, eta % 64ak saldu ditu merchandising-a eta banderatzkoak. Bostetik batek besterik ez ditu motibazio- eta formazio-saioak antolatu (% 21,8) —zazpitik batek Nafarroan (% 14,6)—.

203. grafikoa

**Euskaraldiari ikusgarritasuna emateko ekintzetatik zein burutu dituzten (%)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldian haien eragin-eremuan izan duen ikusgarritasunari eman dioten batez besteko puntuazioa 5,91koa da. Nahikoa ikusgarritasun izan duela diotenen dute pisu gehien (% 45,5), eta segidan daude ikusgarritasun handia izan duela uste dutenak (% 36,2).

229. taula

**Euskaraldiak eragin-eremuan izandako ikusgarritasuna (%)**

	%
Oso handia	2,7
Handia	36,2
Nahikoa	45,5
Eskasa	11,6
Oso eskasa	4,0
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Hala ere, Euskaraldiak ez omen du izan aurreko edizioan izandako ikusgarritasun bera, eta hori, bereziki, COVID-19arekin lotzen dute askok. Hein batean kaleko bizitza soziala mugatua edukitzearekin, baita herritarrek bizitzen ari ziren egoerarekin ere:

*«Pandemiak sortutako giro sozialak ez zuen aukerarik uzten orain arte erabili ditugun ekintzak antolatzeke: mahai-informatiboak, kaleko animazioak, formazio saioak, bilerak, txapa banaketa etxez-etxe, buzoneoak, esku-orri banaketa establezimenduetan... [...] herrietan ditugun eragileei eta herri batzordeko kideei ezin zitzaien eskatu aurreko urtetan eman duten dedikazioa, inplikazioa. Jendeak arazo pertsonalak, familiarrak, laboralak eduki ditu. Egoera sozial horretan Euskaraldia proposatzea ez zen egokia, egoera behartzea zen, kontrako erantzunak jaso ditugu kasu batzuetan»*

*«Euskaraldiak herrian izan duen ikusgarritasuna oso txikia izan da, batetik, kalean gutxi ibili garelako pandemiaren eraginez, eta beraz, sozializatzeko aukera gutxi izan da, besteek txapa jantzita duten ala ez ikusteko... Halaber, bestetik, hori osatu ahal izateko, komunikatiboki ez da asmatu. Dinamizatzailerak elikatu ditu sare sozialak, baina hortik aurrerago ezin izan du joan. Komunikabideetan gutxi ikusi da, eskualdeko Hitzan salbu. Udaleko komunikazio arlotik ez da ahalegin handiegirik egin, eta udaleko webgunean atal berezia jarri bada ere, ez da herrian komunikatu hor zegoenik. Oro har, herritarrek emandako informazioaren arabera, Euskaraldia ez da iritsi komunikatiboki»*

*«Pandemia dela-eta, aurrekontutik jaitsi dugun zatia, komunikazio euskarriei zegokien. Kaleko presentziari. Eta presentzia bisual hori kenduta, askoz handiagoa zertan eta nola izan dezake? Ez du presentzia handiegirik izan, baina eguneroko ohiturak aldatzea baldin bada kontua eta ez jai edo bereizgarritasun handiegirik eskaintzea, nik ondo ikusten dut, bere xumetasunean. Izan ere, parte hartu zezaketenen laurden batek eman baldin badu izena, eta niri ere txapa beti ez zaidala ikusi kontuan izanda, kalean ze presentzia handiagoa izan dezake Euskaraldiak? 1.000 biztanletik beherako herriak dira gehienak eta tabernak itxita egonda...»*

*«Ikusgarritasuna lortu da baina egoerak bultzatuta ezin izan da ikusgarritasun handiko ekintzarik egin, beraz, aurreko edizioarekin konparatuta ikusgarritasun apalagoa lortu da»*

## K) Entitateak aktibatzea

2020ko Euskaraldiak erronka berria proposatu du: norbanakoak ez ezik, entitateak ere aktibatzea hizkuntza-ohiturak aldatzeko bidea har dezaten. Tokiko merkataritza eta ostalaritzara iritsi dira gehien herri-batzordeak, % 45,3k dio guztiengana edo gehiengoarengana iritsi dela. Kontrako aldean daude industria-enpresak: % 67,6k dio gutxiengo batengana iritsi dela edo zuzenean, ez dela sektore horretara iritsi.

Honako entitateetara iritsi diren Nafarroako herri-batzordeak gutxiago izan dira: % 27,1ek erakunde publikoen menpeko elkarte edo sozietate guztietara edo gehiengoarengana iritsi dela dio; % 22,9k tokiko merkataritza eta ostalaritza guztiengana edo gehiengoarengana, baina hortik behera kokatzen dira gainerako sektoreetara iritsi direla adierazi dutenak.

230. taula

**Herri-batzordeak zein neurritan lortu duen ondorengo entitateetara iristea (%)**

	Kultur elkarteak	Kirol elkarteak	Irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimenduak	Tokiko merkataritza eta ostalaritza	Bestelako zerbitzu enpresak	Industria enpresak	Erakunde publikoen menpeko elkarte edo sozietateak
Ez gara sektore honetara iritsi	9,3	18,7	21,8	14,7	25,8	42,7	20,4
Gutxiengo batengana	19,6	19,1	17,8	20,9	30,2	24,9	10,2
Erdiengana	20,4	16,4	12,0	14,7	9,8	7,1	10,7
Gehiengoarengana	31,6	23,1	19,6	31,1	12,0	4,0	25,3
Guztiengana	10,2	7,6	4,4	14,2	4,0	2,2	12,9
Ez dagokio	8,9	15,1	24,4	4,4	18,2	19,1	20,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Aurreko sektoreetara iristeko egindako ahalegina guztiz edo maila handian eraginkorra izan da kultur elkarteetan (% 45,7), tokiko merkataritza eta ostalaritzan (% 44,5) eta kirol elkarteetan (% 41,5). Aldiz, maila txikian edo eraginkortasunik ez du izan industria-enpresekin (% 40,7) eta bestelako zerbitzu-enpresekin (% 37,3) egindako ahaleginak.

231. taula

**Ondorengo entitateetan egindako ahalegina zein neurritan izan den eraginkorra (%)**

	Kultur elkarteak	Kirol elkarteak	Irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimenduak	Tokiko merkataritza eta ostalaritza	Bestelako zerbitzu enpresak	Industria enpresak	Erakunde publikoen menpeko elkarte edo sozietateak
Guztiz eraginkorra	12,5	12,1	8,3	12,6	4,0	2,3	7,5
Maila handian	33,2	29,5	30,6	31,9	15,9	17,4	42,9
Erdizka	35,9	38,3	34,7	31,3	38,1	34,9	27,1
Maila txikian	10,9	12,1	15,7	15,9	28,6	30,2	15,0
Ez da eraginkorra izan	2,7	4,7	6,6	4,9	8,7	10,5	3,0
Ed/Ee	4,9	3,4	4,1	3,3	4,8	4,7	4,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## L) Herri-batzordeek lortutako emaitzak

Norbanakoen kasuan, hamarretik seik dio guztiz edo maila handian (% 59,1) islatu dela batzordeak egindako lana izen-emate kopuruetan. Beste ia hamarretik hiruk adierazi du erdizka islatu dela (% 28,4), eta hamarretik batek besterik ez maila txikian edo batere ez dela islatu —% 16,7 Nafarroako herri-batzordeen artean—. Deigarria da gehiengoak izen-emate kopuruarekin lotzen duela egindako lanaren eragina. Hortaz, izen-emateak igo edo mantendu badira, oro har, islatu dela diote, eta alderantziz.

232. taula

### Zenbateraino islatu den batzordeak egindako lana herrian izandako izen-emate kopuruan (%)

	%
Guztiz	8,0
Maila handian	51,1
Erdizka	28,4
Maila txikian	8,9
Ez da islatu	1,3
Ed/Ee	2,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Norbanakoen izen-ematearekin lotuta, 2018an ahobizi edo belarriprest izan ziren norbanako askok ez dute izena eman 2020ko edizioan. Joera horren arrazoien artean, hiru nabarmentzen dira, bereziki: lehenengoa, aurreko edizioan izena eman zutenek eman behar zutela ez jakitea; bigarrena, ariguneetako kideek norbanako gisa izenik ez ematea; eta hirugarrena, COVID-19ak jarritako mugek sortutako egoera ezberdinak.

*«Hainbat faktorengatik: batzuek uste zutelako behin izena emanda, edizio berrian ez zela izenik eman behar; beste batzuek, ez zuten izena berriz emateari zentzua aurkitzen, utzikeria puntu bat ere... Hala ere, nahasmen handiena sortu duena ariguneetan parte hartzen zutenek norbanako bezala ere izena eman behar izatea izan da. Bestalde, egoerak ere ez du lagundu ariketa egiten, eta honek ere izen ematean eragina izan du»*

*«Hainbat faktore izan daitezke:*

- Covid-19aren eraginagatik jendea ez zegoen beste kontutarako.*
- Aurreko edizioan hartutako rolaekin esperientzia txarra izan dutelako (gutxi batzuk).*
- Aurreko edizioko txapa bazutenez, ez dute izena emateko beharrik ikusi.*
- Despistatu egin direlako (gutxi batzuk).*
- Utzikeria (gutxi batzuk)»*

«Ariguneen figurarekin gaizki ulertuak (arigunean izena eman badut, nahikoa da). Batzuk uste zuten joan zen edizioan izena emanda nahiko zutela, aurten oraindik txapa zutelako. 2. edizioa izanda, akaso ez da hain nobedosoa izatez, eta horrez gain aurten gauza bakarra egon da guztion mingainotan»

Euskaraldiak herriko euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan islada izan duela diotenak, aldiz, gutxiengoak dira. Herenak baino zertxobait gehiagok dio erdizka islatu dela (% 35,1), beste heren batek maila txikian izan duela eragina (% 34,1), eta hamarretik batek ez dela islatu.

233. taula

**Zenbateraino islatu den Euskaraldiaren eragina euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan (%)**

	%
Guztiz	1,3
Maila handian	4,0
Erdizka	35,1
Maila txikian	34,2
Ez da islatu	11,1
Ed/Ee	14,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Gehiengoak dio ez duela daturik euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan Euskaraldiak izan duen eragina neurtzeko. Beste batzuek diote COVID-19ak sozializazioan eragindako murrizketek erabat baldintzatu dutela izan litzakeen eragina. Eta badaude, bidea luzea dela eta sakoneko aldaketa bat behar dela diotenak:


«Euskaraldiko tartean apur bat aldatu dira ohiturak, baina nik uste dut bide luzea dugula egiteko jendeari ikusarazten txapa eramatearen benetako esanahia. Agian horretan badute zeresana jende ezagunak eta euskal komunikabideek. Euskaraldiko tartean funtzionamendu aldaketa egongo balitz ETB2n, Naiz egunkarian, Radio Euskadin... eta euskal hitzunek Euskaraldiko tartean euskaraz egingo balituzte adierazpenak, elkarrizketak... jendea konturatuko litzateke benetan zerbait gertatzen dela eta Euskaraldiak ohiturak aldatzea esan nahi duela»

«Kontuan izan behar dugu kanpaina bat baino ez dela; identifikazioa lagungarri da baina euskaraz egingo du, normalean euskaraz egiten duenak. Tarteka norbait konbentzituko dugu baina gero gizartean, euskaraz aritzeko derrigortasunik ez badu.. motibazio horrek gutxi irauango du. Argi dago, sakoneko aldaketa bat behar dugula; Kike Amonarrizi entzun nion bezala, leku batzuetan euskararen presentzia eta erabilera derrigorrezkoa izan beharko litzateke; eta adibide argia da erakunde publiko barruan eskaintzen diren zerbitzuak ( EITB, Aldundiak, udalak, Osakidetza, Ertzaintza ..) eta elebitasuna bitarteko moduan erabili, ez helburu gisa. EITB baten euskaldun zahar bateri bere iritzia gaztelaniaz ematen derrigortzen dugunean, zerbait gaizki egiten ari garela uste dut... Edo alderdi politiko abertzaleak be gaztelaniaz aritzea. Adibide argia daukagu Katalunian»

Ariketaren eraginari eta ulermenari dagokionez, herri-batzordeek batez besteko balorazio altuena ahobizi eta belarriprest kontzeptuen ulermenari eman diote, hala ere, ez da oso altua: 6,37. Herri-batzordeen balorazioari erreparatuta, herritarrek gutxiago ulertu dute ariguneen kontzeptua (5,20).

204. grafikoa

**Zein neurritan lortu dituzten herri-batzordeek ondorengo emaitzak (batez bestekoak)**




Iturria: Siadeco, 2021.

## M) Herri-batzordeek koordinazio orokorrarekin izandako harremana

Euskaraldiaren koordinazio orokorraren bitartez bideratu da herri-batzordeen arteko koordinazioa. Horretarako, hainbat bitarteko jarri dira martxan Euskaltzaleen Topagunetik. Herri-batzordeek ondoen baloratu dutena harreman bera izan da (7,38). Zazpiaren gainera geratu da, baita ere, komunikazioa (7,11). Baloraziorik ezkorrena jaso duena, aldiz, prestakuntza-saioei dagokiona izan da (6,33), eta oso gertu daude lurraldeetako foroak ere (6,68).

205. grafikoa

### Topagunetik martxan jarritako bitartekoen balorazioa (batez bestekoa)



Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren antolaketan sortutako zalantzei erantzuteko martxan jarritako dinamikak eta komunikazio-sareak lagungarriak izan zaizkiela adierazi dute herri-batzordeen hiru laurdenek (% 75,1).

Nafarroako herri-batzordeen artean, lagungarriak izan zaizkiela diotenak gehiago dira (% 79,2) eta baita nahikoa izan ez dela diotenak (% 10,4); gehiegizkoa iruditu zaiena, aldiz, gutxiago (% 8,3).



234. taula

**Sortutako zalantzen aurrean martxan jarritako dinamikak eta komunikazio-sareak lagungarriak izan diren (%)**

	%
Bai, lagungarriak izan zaizkigu	75,1
Ez, ez dira lagungarriak izan	2,2
Bai, baina ez da nahikoa izan	7,6
Bai, baina batzuetan gehiegizkoa izan da	12,0
Ed/Ee	3,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2021.*

Koordinazio Orokorrek COVID-19aren pandemiak sortutako egoerara behar bezala egokitzen jakin duela uste du hamar batzordetik ia zazpik.

235. taula

**Koordinazioak COVID-19ak sortutako egoerara behar bezala egokitzen jakin duen (%)**

	%
Bai	68,9
Ez	4,4
Erdizka	15,6
Ez dakit	11,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2021.*

Besteak beste, COVID-19ak sortutako egoerak behartu du lurralde batzarrak online egitera. Batzarren digitalizazioa begi onez ikusten dute erdiak baino gehiagok: % 13,8ak oso balorazio ona egin du, eta % 42,2ak ona.

Parte-hartzeari dagokionez, bost batzordetik birentzat errazagoa izan da parte-hartzea; bostetik bati, aldiz, parte-hartzea zaildu dio.

Nafarroako herri-batzordeei zailagoa egin zaie online parte-hartzea, eta % 31,3 dira zailagoa edo askoz zailagoa gertatu zaiola adierazi dutenak.

236. taula

**Lurralde batzarren digitalizazioaren balorazioa (%)**

	%
Oso ona	13,8
Ona	42,2
Erdizka	18,2
Txarra	1,8
Oso txarra	0,9
Ed/Ee	23,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

237. taula

**Lurralde batzarren digitalizazioak parte-hartzea erraztu duen (%)**

	%
Askoz errazagoa	9,3
Errazagoa	32,9
Berdin	19,1
Zailagoa	19,6
Askoz zailagoa	2,2
Ed/Ee	16,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Koordinazio orokorrarekin izandako hartu-emanak gehienek oso ondo baloratzen dute, eta eskertu egin dute jaso duten babesa eta laguntza, nahiz eta batzuek informazio falta sentitu izana aipatu duten:

*«Hartu-emanak telematikoa izan bada ere (posta elektronikoa, telefonoa, bideodeiak...), isolamendu sententziorik ez izatea ekarri du sikiera. Komunikazio arretik, koordinazio orokorrarekin zuzeneko elkarrizketak oso lagungarriak izan dira»*

*«Laguntzeko prestutasuna eta beraiekin harremanetan jartzeko erraztasuna baloratuko nuke positibotzat, hala ere, planifikazio eta komunikazioan berandu ibili direla iruditzen zait, herri batzordeen zalantzak argitzerako orduan ere erantzun garbirik ez... egoerak eragindakoa izango da, baina momentu batzuetan aurreikuspen gutxiarekin aritu direla esango nuke»*

*«Guk behar izan dugunean arreta egokia jaso dugu, bai emailaz eta baita telefonoz ere. Nik uste dut herri bakoitzaren ezaugarriak eta batzordeen osaketa kontuan hartuta, hainbat foro eta ekimen jarraitzea ez zaigula erraza izan, baina hori gure arazoa da»*

*«Laguntzeko prestutasuna. Entzutea. Tokian tokiko egoera ulertu, errespetatu eta laguntzen saiatzea»*

*«Lan ikaragarria egin dute. Egoerak ez du batere lagundu eta benetan borrokatu dira gauzak aurrera egiteko. Gertatu dena da lan hori guztia ez dela ikusi eta ez duela, nire ustez, merezi zuen erantzuna jaso»*

Dena den, hobetzekoak ere aipatu dituzte askok, Koordinazio Orokorrarekin izandako hartu-emanari dagozkionak, baita herri-batzordeek beraiek edizio honetan antzemandako zailtasunekin zerikusi dutenak ere:

*«Horrenbesteko informazio, jarraibide eta euskarri erabiltzeak askotan behar duzuna ez aurkitzea ekartzen du»*

*«Komunikazioa, entitate handiei dagokienez, herri mailan ezin izan ditugu alboan izan, barne komunikazioak izan duen gabeziak eta lege oharraren onarpena dela, eta inskribapena aparte zela, entitate asko nahastu eta prozesua erdizka utzi dute. Gauzak argi eta zuzen, webgune zuzen bat eta zereginak argi aurkezten dituen gunea»*

*«Ahaleginak egin dira, bai, baina herritik herrira, dinamiketan hainbesteko aldeak daude... Gu aurrekoan baino galduago egon gara»*

*«Zenbaitetan somatu dugu kronograma eta txostenak ez zirela aproposak gurea bezalako herri txiki baterako. Oso landuta zeuden proposamenak baina espezializazio lana eskatzen zuten batzordean, eta hori ez da erraza izaten»*

*«Nahikoa lan izan dute eta ez nago ezer exijitzeko moduan. Halere, herri handien erritmoa hartzen da aintzat eta nahikoa lan izaten dut nik erritmo hori herri ertain»*

*eta txikietara ekartzen. Ez dut nik ere asmatu, beraz, beraiei ezin bada gehiago eskatu»*

*«Koordinazio nazionaletik erabakia hartu zenean Euskaraldiarekin aurrera jarraitzea. Konbentzimendu handia egon da aurrera jarraitzeko. Momentu batzuetan eskertu dugu konbentzimendu hori hemen aurrera jarraitzeko. Beste momentu batzuetan gure burua galdetu diogu: ze demontre egiten ari gara egoera sozial honetan Euskaraldia proposatzen?»*

*«2020an Euskaraldia antolatzeak mesede egin dio euskarari baina kalte egin dio Euskaraldia berari. Ariketa oso eskasa izan delako. Horri buelta ematea kostatuko zaigu»*

*«Faltan somatu dut iritziak eta esperientziak partekatzeko foro gehiago egitea iraila eta abendua bitarte. Zalantzak pertsonalki erantzuteko prestutasuna, ordea, eskertzekoa izan da»*

*«Ariguneen bilaketa eta bultzaketa herritarren esku gelditu da, eta hori ez da askoren gustoko izan. Hiri handi batean "komertzial" lana egin beharrak atzera bota du jendea. Auzo batzordeak, prestaketarako egin beharrekoak: jendea ez zegoen prozedura horretan sartzeko prest»*

**Eta aurrera begira jarri eta ekimena bera hobetzeko proposamenak egin dituzte, beste batzuek:**

*«Koordinazio orokorrean Euskaraldiarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu zenean egin zen hausnarketa konpartitu beharko litzateke herri batzordeekin. Azkeneko eguneko mezuaren "sekretua" mantentzeak, herrietako itxiera ekitaldiak zailtzen ditu. Hain garrantzitsua da sekretu hori? Marko teorikoa lantzen jarraitu behar da, ez gaitzen ekintzailtzean bakarrik geratu»*

*«Ahobizi, belarriprest eta ariguneen kontzeptuak argitu behar dira. Oraindik ez dugu lortu egoki transmititzetik eta formazio saioak ez dira erakargarriak herritarrentzako, beste moduren bat bilatu beharko litzateke. Herrian gehienek uste dute gaitasun kontua dela eta ez konpromiso kontua»*

*«Koordinazioa indartu behar da, horretarako ezinbestekoa da dirua inbertitzea eta Iruñan diru sarrerak oso murrizta izan dira. Nondik atera baliabide hori?»*

*«Prestakuntza saioen inguruko gogoeta egin beharko litzateke. Prestakuntza saioak ezin dira berdinak izan lurralde txiki eta handietan, egokitzapen beharra dago, bai eduki aldetik eta baita data aldetik ere. Jende gutxiko batzordeak dauden lurraldeetan ez da beharrezkoa urte beteko aldearekin formazioa egiten hastea, kontraeraginkorra izan baitaiteke»*

*«Euskaraldia ariketa ez dagoen urtean zer egin eta nola egin argitzea erronka bat da. Hizkuntza ohituren aldaketak jarraikortasun eskatzen du, eta oraindik ez dugu hori lortu»*

*«Gurea bezalako herri txikietan, euskaraldiatik eskaintzen den katalogoaz baliatzea irreal da. Prezioak oso garestiak dira»*

## N) Herri-batzordearen balorazioa eta aurrera begirakoak

Herri-batzordeen % 60 inguruk balorazio baikorra (oso baikorra eta nahiko baikorra) egiten dute lantaldearen parte-hartzeaz, eraginkortasunaz eta izandako emaitzez. Aldiz, parte-hartzeaz balorazio ezkorra egiten du herri-batzordeen ia % 20k, herri-batzordearen eraginkortasunaz eta emaitzez balorazio ezkorra egiten dutenak baino nabarmen gehiago.

Nafarroako herri-batzordeetan, parte-hartzeaz balorazio baikorra egiten dutenak gutxiago dira (% 50,0), eta aldiz, nahiko edo oso ezkorra egiten dutenak % 27,1 dira.

238. taula

### Herri-batzordearen parte-hartzeaz, eraginkortasunaz eta emaitzez zer balorazio egiten den (%)

	Parte-hartzea	Eraginkortasuna	Emaitzak
Oso baikorra	16,4	10,2	12,9
Nahiko baikorra	43,6	49,3	46,2
Ez baikorra, ezta ezkorra ere	20,4	30,2	32,0
Nahiko ezkorra	17,3	8,9	8,4
Oso ezkorra	2,2	1,3	0,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

Horrekin lotuta, ia erdiak uste du bere herri-batzordea arrakastatsua izan dela, guztiz (% 7,6) edo maila handian (% 40,6) —Nafarroan gutxiago, % 4,2 eta % 35,4 hurrenez hurren—. Heren bat tartean kokatu da (% 33,9). Batez beste 6,11ko puntuazioa jarri diote herri-batzordeek euren buruari. Beste behin ere, COVID-19ak erabat baldintzatutako edizioa izan da: batzuek, egoerara egokitzen jakin dute, eta helburu txikiak jarri eta bete ahal izan dituzte; beste batzuentzat, aldiz, pandemiak bestelako hutsuneak utzi ditu agerian (partaide gutxiago, online komunikatzeko zailtasunak...). Aipagarria da askok izen-emate kopuruekin lotzen dutela herri-batzordearen arrakasta, helburua izanik 2018koa berdintzea edo hobetzea.

239. taula

**Zein neurritan izan den arrakastatsua herri-batzordea (%)**

	%
Guztiz	7,6
Maila handian	40,6
Erdizka	33,9
Maila txikian	12,1
Batere ez	5,8
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2021.

Euskaraldiaren ondoren, taldea nekatuta edo pozik dagoela esan duen herri-batzordeen pisua da altuena, % 32,9 eta % 31,6, hurrenez hurren. Esanguratsua da, baita ere, laurden pasatxok aipatu duela desanimatuta bukatu dutela (% 26,7), eta bostetik batek dio itxaropentsu dagoela taldea (% 23,1).

Nafarroan, pozik amaitu duten herri-batzordeak nabarmen gehiago dira (% 39,6) eta gutxiago, berriz, nekatuta amaitu dutenak (% 14,6).

206. grafikoa

**Euskaraldia bukatu ondoren nola dagoen taldea (%)**




Iturria: Siadeco, 2021.

Girozearekin loturiko jardueratan eragin du gehien COVID-19ak: ekintzak antolatzerakoan eta ikusgarritasunean (8,25 eta 8,05eko batez besteko puntuazioarekin). Txapen banaketan, aldiz, izan da txikiena eragina (5,73).

207. grafikoa

**Zein neurritan eragin duen COVID-19ak herri-batzordeen jardunean (batez bestekoak)**



Iturria: Siadeco, 2021.

Aurrera begira, herri-batzordeen herenak uste du Euskaraldia antolatzeko sortutako lantaldeetik euskararen erabilera sustatzeko talde egonkorra sor litekeela (% 32,4). Horietatik, bostetik batek nahiko luke gai hori lantzeko Euskaltzaleen Topagunea haiekin harremanetan jartzea (% 22,2).

240. taula

**Herri-batzordea oinarri hartuta sor litekeen euskararen erabilera sustatzeko lantalde egonkorrik (%)**

	%
Bai	32,4
Ez	26,7
Ed/Ee	40,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

241. taula

**Horretarako Euskaltzaleen Topagunea haiekin harremanetan jartzerik nahi duten (%)**

	%
Bai	22,2
Ez	36,4
Ed/Ee	41,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2021.

## 5.2. 25 HERRI-BATZORDE ARRAKASTATSU HAUTATZEKO PROZEDURA

Aurreko atalean aipatutako galdetegiari 225 informazio-unitateek emandako erantzunak hartu dira kontuan 25 herri-batzorde arrakastatsuenak identifikatzeko. Horietatik, 15 izan dira Euskal Autonomia Erkidegokoak, eta gainontzeko 10ak, aldiz, Nafarroakoak.

Horiek hautatzeko puntuazio-sistema bat diseinatu da, lehenengo. Sistema honetan, prozesuaren arrakastaren adierazgarri izan daitezkeen aldagaiak marka positiboak eman zaie, hain zuzen:

1. **Herri-batzorde anitza izatea**, hau da, eragin-eremuaren aniztasuna ordezkatzea, izan norbanakoena zein eragileena. Horretarako kontuan hartu dira eragile ezberdinen parte-hartzea, eta herria ordezkatzerakoan hutsune gutxi izatea. Bereziki positibotzat hartu da gazteen zein euskaldun hartzaileen presentzia izatea herri-batzordeak.
2. **Eragileen arteko lankidetzari ongi baloratzea**. Haien arteko lankidetzari puntuazio altua ematea ere puntu positiboak eman dizkio herri-batzorde bati, arrakastatsua izateko.
3. **Herri-batzordearen funtzionamenduarekin eta eraginkortasunarekin loturiko alderdiak eta lantalde baten dinamikari loturiko zereginak ongi baloratzea**. Bileren eraginkortasuna, batzordekide eta eragileen inplikazioa, eragile ezberdinen arteko funtzio-banaketa, batzordekideen arteko koordinazioa, barne-komunikazioa, dinamizatzaileraren rola eta eragile sozial eta instituzionalen arteko elkarlana, batetik. Eta gidaritza eta koordinazioa, lantaldeko kideen motibazioa, barne-komunikazioa, kanpo-komunikazioa, lantaldeko kideen osagarritasuna sustatzea, ideia eta proposamen berriak egitea eta arazoei taldean erantzutea, bestetik.
4. **Herri-batzordearen lanarekin loturiko emaitzak positiboak izatea**: Euskaraldiak eragin-eremuan izandako ikusgarritasuna eta norbanakoen izen-ematean izandako islada.
5. **Herri-batzordeek euren buruaz egindako balorazioa ona izatea**. Herri-batzordea arrakastatsutzat jotzen duten, eta lantaldearen parte-hartzeaz, eraginkortasunaz eta emaitzez balorazio baikorra egiten duten.

Puntuazio-sistema honen bidez 24 puntu lortu ahal izan dituzte herri-batzordeak.

Behin herri-batzordeak sailkatuta, puntuaketa batetik gorakoan artean azken hautaketa egin da, herri batzordeen aniztasuna bermatzeko. Horretarako, ondorengo aldagaiak hartu dira kontuan:

- Lurralde Historikoa
- Auzoko/herriko/eskualdeko batzordea ote den
- Herri handiak/txikiak diren
- Solaskidearen ezaugarriak
- Galdesortan solaskideak emandako erantzun kualitatiboak



## 5.3. HERRI-BATZORDE ARRAKASTATSUEN EZAUGARRI BEREIZGARRIAK

### 1) Lantaldearen sorrera

Herri-batzordeen artean gehiago dira 2018ko batzordearen jarraipena kontsideratzen direnak.

### 2) Herri-batzordearen sustatzailea eta aktibazioa

Hein handiagoan bigarren edizioa eragin-eremuan abian jartzeko ekimena hanka sozialarena izan da, hau da, euskara edo kultur elkartearena edota herritar batzuen.

Horrez gain, herri-batzorde arrakastatsu hauek gainontzekoak baino lehenago aktibatzen ziren edo hasi zuten euren jarduna (2019an).

### 3) Herri-batzordearen osaera

Herri-batzordeen osaerari dagokionez, beste batzordeekiko arrakastatsuak kontsideratu direnak tamaina ertainekoak dira: gehiago dira 5 eta 20 kide artekoak, 6 kide baino gutxiagokoak edo 20 kideetik gorakoak baino. Herri-batzorde arrakastatsuenen bileretan 5-10 kide agertu izan ohi dira, batez ere. Hortaz, lantalde gisa aritzeko kopuru egokia dute.

Eragileen aniztasunari erreparatuz gero, udala gutxiago dago presente, eta gehiago daude euskara elkarte eta herriko bestelako eragileak (merkatariak eta ostalariak, entitate sozioekonomikoak...).

Eragile horien arteko lankidetzaz, gainera, balorazio nabarmen hobea egiten dute gainontzeko herri-batzordeek baino.

Generoari dagokionez, emakumeek eta gizonek, biek presentzia izan duten batzordeak gehiago izan dira arrakastatsuak. Adinari erreparatuta, ez dira gehiago 16-29 urteko kideak izan dituztenak, baina 30-60 urtekoen presentzia maila bai, handiagoa izan da.

### 4) 2018ko lantaldearekiko alderaketa

Aurreko edizioaren jarraipena kontsideratzen direla esan da, eta oro har hobera egin ez badu ere, 2018koarekiko gainerako herri-batzordeek baino gehiago mantendu dituzte partaide kopurua, motibazioa eta ilusioa eta elkarlana eta lan-dedikazioa. Hortaz, gutxiago dira 2020ko batzordea okerragoa izan dela diotenak.

## **5) Herri-batzordearen baliabideak**

Baliabide pertsonaletan eta azpiegituretan izan da aldea batzorde arrakastatsuenen eta gainontzekoen artean.

Baliabide pertsonalei dagokienez, gehiagok dira baliabide nahikoak izan dituztela diotenak. Ildo horretatik, gehiago dira, baita ere, dinamizatzaille liberatua izan dutenak.

Azpiegitura eta baliabide teknikoaren aldetik, ez dira hain udalaren menpeko izan, autonomoagoak izan dira: gehixeagotan izan dituzte herritarren harrerarako eta informaziorako lokal propioa edo euskara edo kultur elkartearen bulegoa, eta gutxiagotan udalaren azpiegiturak bilerak egiteko (nahiz eta gehienek baduten) edo bulego-lanetarako.

## **6) Funtzionamendua eta eraginkortasuna**

Herri-batzordearen funtzionamenduarekin eta eraginkortasunarekin zerikusia duten alderdien balorazio hobea egiten dute arrakastatsua kontsideratu direnek. Hala, haien ustez hobea izan da batzordekideen arteko koordinazioa, eragileen inplikazioa, barne-komunikazioa, bileren eraginkortasuna eta dinamizatzaillearen rola.

Gainera, hein handiago batean gustura daude lantaldearen dinamikak eman duenarekin eta gehiago dira alderdiok ongi bete direla adierazi dutenak: lantaldeko kideen motibazioa, barne- eta kanpo-komunikazioa, kideen osagarritasuna sustatzea, ideia eta proposamen berriak egitea, eta arazoei taldean erantzutea.

## **7) Herri-batzordearen jarduna**

Norbanakoei eta entitateei, Euskaraldiaz informatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko baliabide desberdinak erabili dituztenak gehiago izan dira herri-batzorde arrakastatsuak: email bidalketa masiboak, telefono bidezko kontaktazioa, elkarrizketa pertsonalak, sare sozial propioak, hedabideak, informazio-puntuak...

Eta gehiago izan dira, baita ere, Euskaraldiari ikusgarritasuna emateko ondorengo motatako ekintzak egin dituztenak: programazio berezia Euskaraldiaren aurretik, girotzeko; euskarriak herrira egokitu eta herrian zehar jarri; merchandisinga eta banderatzkoak saldu.

## **8) Euskaraldiaren ikusgarritasuna**

Euskaraldiak beren udalerrian izan duen ikusgarritasunaz balorazio hobea egiten dute.

## **9) Parte-hartzaileen aktibazioa**

Herri edo eskualdeko entitateetara, gainerakoak baino gutxiago iritsi dira. Datu orokorretan baino gutxiago dira kultur elkarte gehienetara / guztietara iritsi direla diotenak; eta berdin kirol elkarteekin, irabazi asmorik gabekoekin, tokiko merkataritza eta ostalaritzarekin, bestelako zerbitzu enprekin, industria enprekin, edo erakunde publikoen menpeko elkarteekin. Arrakastatsuen artean, gehiago dira sektore horietara joan ez direnak, edo erdiengana soilik iritsi direnak.

Lan horren eraginkortasunari dagokionez, batzorde arrakastatsuen artean gehiago dira entitateekin egindako ahalegina eraginkorra izan dela diotenak (guztiz, maila handian edo erdizka) bai tokiko merkataritza eta ostalaritzan nola erakunde publikoen menpeko elkarte edo sozietateetan, irabazi asmorik gabeko gizarte talde edo mugimenduetan, bestelako zerbitzu enpresetan edota kultur elkarteetan. Industria enpresetan izandako eraginarekin, aldiz, kritikoago agertzen dira batzorde arrakastatsuak, seguraski, gutxiago jo dutelako haiengana edo indar gutxiagoz egin dutelako.

Norbanakoen kasuan, batzordearen lana herrian izandako izen-emate kopuruan guztiz edo maila handian islatu direla diotenak nabarmen gehiago dira. Beren lana eraginkorra izan dela adierazten dute.

## **10)Eragin-eremuan izandako eragina**

Euskaraldiaren eragina herriaren euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituren aldaketan islatu ote den galdetzean, aldiz, gehiago dira erdizka islatu dela diotenak, eta erantzun ez dutenak (gutxiago maila txikian edo islatu ez dela diotenak).

Dena den, hein handiago batean sentitzen dute Euskaraldiak tokiko euskalgintzari indarra eman diola (kontzeptuen ulermenean ez dago alde handirik batetik bestera).

## **11)Herri-batzordearen balorazioa**

Herri-batzordearen beraren eraginkortasunaz eta emaitzez balorazio nabarmen hobea egiten dute gainerakoek baino. Parte-hartzeaz ere balorazio hobea da, baina alde txikiagoa da. Eta gehiago ere beren herri-batzordea arrakastatsua izan dela adierazten dutenak.

Euskaraldia bukatu ondoren, gehiago dira taldea pozik eta ilusionatuta dagoela diotenak, baina gehiago dira, baita ere, nekatuta dagoela diotenak. Desanimatuta, aldiz, gutxiagok ikusten du (talde orokorrean baino).

COVID-19ak zein neurritan eragin ote duen galderari, arrakastatsuen artean gehiago dira bileretan eragin handia izan duela diotenak. Gainerako alderdietan ez dago alderik bi multzoen artean.

Arrakastatsuetan, gehiago dira euskararen erabilera bultzatzeko talde edo elkarte egonkorrik sor daitekeela diotenak.

## 5.4. HERRI-BATZORDE ARRAKASTATSUEN FAKTORE BALDINTZATZAILEAK

Arrakasta-kasutzat hautatu diren herri-batzordeen esperientzietan oinarrituz, faktore baldintzatzaille nagusiak nabarmendu ditugu. Onerako eragin duten faktore positiboak bereiziz, alde batetik, eta negatiboak edo aurrera begira hobetu beharrekoak, bestetik. Horiek identifikatzeko, herri-batzordeek betetako galdetegiaz gain, 25 herri-batzorde arrakastatsuenekin izandako elkarriketa sakonak hartu dira oinarritzat.

### Faktore positiboak

#### 1. Ez dira hutsetik sortu, oinarri bat eduki dute

2018ko batzordeen jarraipenak izan dira gehienetan, nahiz eta aldaketak egon diren. Herri askotan talde iraunkorrak izan dira, Korrikaren eta euskararekin lotutako bestelako ekimenen antolaketan ere aritzen direnak. Horrek taldekideen elkar ezagutzan, harremanean eta lanerako giro onean eragin du.

*«Batzorde nahiko trinkoa dugu, berdin da ekintza, euskararekin lotuta dagoen edozein ekintza egiten dugu, euskararen inguruan dauden hainbat elkarte biltzen gara»*

*«Lehenengo Euskaraldian sortu zen batzordea. Orduan, lehendik zegoen Whatsapp taldea hartu eta berriro aktibatu genuen»*

*«Korrikarako ere existitzen den batzorde bera edo lantalde bera da. Eta berez, Korrikarik edo Euskaralditik at ere euskara sustatu nahi duen batzordea da. Baina orain, gorabehera askorekin, Euskaraldiaren baitan aktibatu da»*

*«Gu hutsetik inoiz ez gara abiatu. Euskara batzorde bat daukagu, eskuartean dugunaren arabera funtzionatzen du. Euskara batzordea izan da sustraia Euskaraldia batzordea sortzeko. Horren arrakastarako beharrezkoa da indarrean dagoen zerbait izatea abiapuntua»*

*«Ezerezetik ere ez dator ezer. Urte asko daramatzagu kanpaina berezi batekin, merkataritza, ostalaritza, enpresa eta elkarteak lantzen ditugu. Hori da urtero lantzen dugun zerbait, zerbitzu bat daukagu. Hori baliatu dugu entitateekin lan egiteko»*

## 2. Talde autonomoak izan dira

Iniziatiba herritarrena izan edo udalarena izan, udalarekiko autonomoak izan dira batzordeak, euren dinamika propioa eduki dute. Euskaraldiaren izenean jardun dute, gehiegizko protagonismoak edo protagonismo-lehiak saihestuz.

*«Euskara zerbitzua hor egoteak udalaren parteko babes, laguntza hori ematen dio, euskara teknikariak ere dedikazioa eman dezake, baina ez luke pisu handia izan behar»*

*«Euskaraldia ariketari lotutako komunikazio guztietan (...) Euskaraldia Taldea azaltzen da. Protagonismoa taldearena da. Elkartea eta Udala bigarren plano batean agertzen dira»*

## 3. Udalak bideratzaile izan dira

Batzordeetako herrietako udalek funtzio bideratzailea bete dute, jarrera eraikitzailea eduki dute eta batzordeei laguntza eskaintzeko prest egon dira: baliabideak eskaintzeko, baimenak emateko, etab. Udal teknikarien parte-hartzeak batzordearen eta udalaren arteko lotura hori erraztu egin du.

*«Etorri ziren udaleko euskara teknikaria eta zinegotziren bat ere bai (...). Hor galdetu zitzaigun ea prest geunden Euskaraldia aurrera eramateko herri moduan, baina garbi zeukaten herritarrek sortutako zerbait izan behar zela eta beraiek lehenengo bultzada ematea... Baina ikusten bazuten lan guztia egin behar zutela kontzejalek eta teknikariak uste zuten ez zela biderik egokiena»*

*«Nahiago administrazioak pisu gutxiago izango balu, eta herrigintzatik ateratzea. Herriak behar izan hori sentitu dezala. Hori idealena izango litzateke. Udalak bitarteko materialak jarri laguntzeko. Mobilizatzea lortzen da, baina ardurak hartzea lortu behar da»*

*«Arrakasta kontu mistoetan dago, ez izatea begiratzea nork antolatzen duen, guztion arteko zerbait izatea»*

*«Inportantea da definitzea zer den elkarlana. Batzuetan udaletik elkarlana da beraiek dirua jartzea guk lana egiteko. Kasu honetan ez dakit zer eskatu behar zaion. Guretzat elkarlan hori ezinbestekoa da eta gauzatze horretan asmatu behar da. Maila berean egon behar dute, ezin du udalak pisu gehiago hartu herri batzordeak baino»*

*«Taldea ofizialak gerturatzeko udalaren presentziak onura bat ematen dio. Hor ere oreka bat egon behar du, ikusi behar da herritar talde batek bultzatzen duela eta udala ere hor dagoela parte hartzen»*

#### 4. Goragoko antolaketa-egiturekin harremana eduki dute

Euskaraldiko koordinazio orokorrarekin harreman ona eduki dute eta Topagunea izan dute erreferentzia nagusi. Eskualde mailako antolaketa bat ere eduki dute kasu gehienetan, eta ondo baloratu dute harekiko harremana eta koordinazioa.

*«Koordinazio Orokorra oso ondo egon da, webgunea, intranet informazioa izan dugu, epeak...»*

*«Informazioa eta koordinazioa uneoro jasotzen egon gara»*

#### 5. Dinamizazio- eta koordinazio-ardurak hartu ditu kide batek

Taldearen dinamizatzailerik eta koordinatzaile lanak egin dituen kidearen rola funtsezkoa izan da. Haren inplikazioa eta profila —herrian ezaguna edo erreferentea izatea—erabakigarriagoa izan da kontratatuta edo modu boluntarioan aritu izana baino. Orokorrean, baliabide ekonomikoak baino erabakigarriagoak izan dira giza baliabideak.

*«Guk borondatez egiten dugu lan eta ezagunen, lagunen bidez aritzen gara. Niretzat garrantzitsuena, nahiz eta finantzazioa ere garrantzitsua den, jendeari hurbiltzea da, jendea engantxatzea»*

*«Baina gehiago da hemen egin beharreko lana, harreman sarea ea noraino heltzen den. Finantzazioari ez diogu buelta handirik eman, baliabide gutxirekin egin dugu»*

*«Pertsona bat egon behar da x denborarekin, herri-batzordeak jarritako helburuen arabera, dinamizatzailerik moduan, dena koordinatzeko»*

*«Kanpotik norbait joanez gero, igual pista horiek ez dauzka. Eta gero oso desberdina da ikustea dutela herritar talde antolatzen ari den gauza bat dela, edo goitik datorkien gauza bat. Gertutasun hori ere nik uste dut beraiek ere eskertzen dutela, horrek ere beraien inplikazioan eragina daukala»*

## 6. Lanen banaketa bat egin dute

Batzordearen zereginak taldeko kideen artean banatu dituzte, ez dira denak denean egon. Rolak hartzerako orduan, norbera eroso sentitzen den edo hoberen moldatzen den arloan aritu da.

*«Ariguneetara bisitak egin ditugunean, lanak banatu egin ditugu adibidez. Beldurra genuen saltsa handiegietan sartzeko, orduan pixka bat neurtu genuen. Lehentasunak markatu eta bakoitzak hainbeste»*

*«Gero elkartzen gara eta brainstorming bat egiten dugu. Gero egingarriak, errealak direnak aukeratzen ditugu eta egutegia antolatzen dugu. Norbaiti ideia on bat etorri bazaio berak hartzen du ardura handiena. Informatikan abilagoa den bat dugu eta bera arduratzen da kartelak egiteaz, baina bestela nahiko rotatorioa da»*

*«Jendeak azkenean esaten du 'nik hau egingo dut' ikusita zer egiteko kapaza den. Alde horretatik ondo, jendeak ahal duena egin eta gustura egiten duzu (...) Hemen ez gara ibiltzen gauzak aurpegiatzen: zuk hau egin duzu... Batzuk umeak daukate, beste batzuk ez; beste batzuk jubilatuta daude eta denbora asko daukate, beste batzuk nahiz eta jubilatuta egon bere hobbiak ere badaukate... Bakoitzak aportatzen du uste duena egin dezakeela»*

*«Funtzio banaketa egon behar da, baina batzorde edo herri bakoitzaren izaerak markatzen duela iruditzen zait. Harreman pertsonalek bere eragina dute»*

## 7. Planteamendu orokorrak herrira egokitu dituzte, eta lehentasunak finkatu

Euskaraldiko koordinazio orokorretik landutako planteamenduak, proposamenak eta materiala baliatu dituzte, baina tokian tokiko errealitatera egokituz eta bertako ikuspuntua emanaz. Helburuei dagokienez ere, euren eremurako helburu zehatzagoak finkatu dituzte, errealitate horren eta euren ahalmenaren arabera lehentasunak ezarriz.

*«Herrian erabakitzea zer lehentasun ezarri behar diren. Herritarrek aktibatzea, eta aurten zehazki, ariguneen hautaketa bat egin —batzordearen indarraren arabera— eta horietara joan (...) Euskaraldiak dituen helburuak herritarrengana iristeko zubi bat. Herria hobeto ezagutzen du, eta mezua egokitu egin dezake»*

*«Guk horrela egiten dugu. Erabiltzen dugu karteleria orokorra, baina ekartzen ditugu ideiak gure herrira eta ditugun baliabideetara»*

*«Gauzak herrira ekartzeko orduan (orokorretik planteatzen direnak) horrelako gauzak kontratatzeke ahalmenik ez dugu, gauza txikiagotan mugitu behar gara»*

*«Bigarren edizioan, adibidez, entitate guztiekin egoteko proposamena ez dela egokia uste dut. Denok genekien ez ginela helduko, eta, batez ere, denok genekien ez ginela behar bezala helduko. Helburu eta egiteko lorgarriagoak jarri behar ditugu, jendea (herriak) heldu ezinik ez geratzeko»*

## **8. Tokian tokiko egoitza eta establezimendu txikietan jarri dute arreta**

Ariguneen sustapenari dagokionez, tokian tokiko egoitza eta establezimenduak egon dira batzordeen lehentasunen artean —merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuak—, elkarteez eta herri ekimeneko bestelako taldeez gain. Haiekin harreman zuzena eduki dute. Enpresa handiagoetan aliatuak edo Euskaraldiaz arduratuko ziren pertsonak lortzen ahalegindu dira.

*«Ariguneak osatzerakoan, itxialditik gentozen eta egin genuen lanketa herriko elkarteekin eta komertzioekin, enpresetara ez ginen iritsi. Alde batetik, ez geneukan ziurtasun handirik eta indar handirik ere ez, orduan, mugatu genuen gure lana herriko elkarte eta komertzioekin, eta arigune batzuk osatu ziren»*

*«Gu zentratu ginan, gehienbat, merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetan, horiek, behintzat, ondo erantzun ziguten. Baina egia da igual beldurra bagenuela beste maila bateko entitateetara joanez gero, dela enpresa edo horrelakoetara, igual erantzuna ez zela berbera izango, beste lehentasun batzuk izango zituztela momentu horretan»*

## **9. Banan-banako bisitak egin dituzte**

Ariguneen sustapenean kanal ezberdinak erabili badituzte ere, egoitza eta establezimenduak banan-banan bisitatu dituzte eta gertuko harreman horrek izan du eraginik handiena, telefono-deiek edo sektorekako bilerek baino askoz gehiago.

*«Kartelak banatu genituen, baina azkenean konturatu ginen kartelak banatzea ez da nahikoa pertsonalki elkar-ezagutu behar da: hau egitera goaz. Ahoz ahokoa askoz eraginkorragoa da kartel bat ipintzea baino»*

*«Saiatu gara hurbiltasun batetik hurbiltzen. Gure herriko egoera badakigu zein den eta saiatu gara aurreko euskaraldi eta dinamiketatik ezagutzen genituen fokuetatik tiratzen eta zubi gehiago lortzen. Dendaz denda joan gara, ikastetxe guztietatik, kirol elkarte gehienetara heldu gara...»*

*«Informazioa pertsonatik pertsonara bidaltzen bada eta iristen bada hor dago gure arakasta, horretarako ez duzu dirua behar, pertsonak behar dituzu»*



## 10. Girotzeko ekitaldi eta jarduerak egin dituzte

Euskaraldiaren aurretik eta Euskaraldian zehar euren ingurua girotzeko egitaraua antolatu dute. Programatutako ekitaldi eta jarduerak antolatzeko, dirua ez da ezinbestekoa izan, baina antolatu diren ekitaldien eta jardueren kalitatean eragin du. Kaleko ikusgarritasunari garrantzia eman diote, merchandising-a salduz, komunikazio-euskarri fisikoak erabiliz, etab.

*«Ekintzak agian ez dira gehiegi izan baina nahiko ikusgarriak izan dira. Asmatu dugu izenak hartzerakoan ekintza bat egitean eta txapak banatzerakoan beste ekintza bat egitea»*

*«Ezinbestekoak dira, kalean egon behar duzu informazioa transmititzen. Hurrengo edizioari begira, mahaiez gain, kaleko giroa sortzen saiatuko gara. Ez badago kalerik, ez dago Euskaraldirik. Sare sozialak laguntza bezala ditugu»*

## 11. Epe luzeagoko helburua dute

Euskaraldiaren inguruko lanari jarraipena emateko helburua dute Batzordeek. Euskaraldia modu isolatuan landu beharrean, plangintza orokorrago batean txertatzeko beharra azpimarratu dute.

*«Jarraia izan behar du, baina horretarako ez daukagu proposamen on bat batzorde horiek lanean mantentzeko, neurriko lan batean mantentzeko. Oraindik finkatu gabe gaude»*

*«Lortu dugu 50 lagunek izena ematea egin nahi ditugun gauzetan parte hartzeko. Lorpen bezala aipatu beharko genuke lortu dugula taldetxo bat sortzea aurrera begira lan egiteko prest dagoena»*

*«Guk argi genuen egiten genuena denboran irauteko zela. Ez genuen kanpaina bezala ikusten, kanpaina hasi eta bukatu egiten da. Jarraipen bat eman behar zaiola argi izan dugu»*

*«Onura nagusia da konturatzea jarraipen estua behar duela honek guztiak. Euskaraldia ez den urteetan, bertatik lan zehatzik ez baldin badago kudeaketa planaren zati bat hartu behar duela gidatzeko. Orain seguruenik ariguneena bistaratzeko mapa bat egingo dugu. Komertzianteei ere eskolak ematen hasiko gara, prestutasuna adierazi dute eta udalak sustatuko du»*

### 1. Aniztasun falta

Martxan dauden taldeetan oinarritzeak eragin du batzordeak nahi bezain anitzak ez izatea. Gainera, adinari dagokionez, gazteak erakartzeko zailtasunak eduki dituzte, ez baitira eroso sentitzen euren adinkideak ez direnekin lanean.

*«Herri-batzordeak asko hedatu gabe, leku askotara heldu nahi dugu eta ez dugu lortzen, beti berdinak gaude. Esparru ezberdin gehiagotara heltzea izango litzateke»*

*«Beti egin dugu hasieran deialdi irekia, jende berria sartzeko, baina gu beti gaude. Agian ez dugu ukitzen herriko aniztasun guztia, zabalagoa izatea gustatuko litzaiquke»*

*«Bai izan beharko genuke garena baino anitzagoa (...) 6-8 izan ginen, gehienak euskara elkartekoak eta oso gertukoak. Anitzagoa izatea ondo egongo litzateke, adinagatik, jatorriagatik...»*

### 2. Saturazio sentsazioa

Koordinazio orokorretik informazio, proposamen eta material gehiegi jaso dutela iruditu zaie hainbat batzordetan; gainditua ikusi dute euren taldea, hori guztia kudeatu ezinik.

*«Topaguneak zer egin dezakeen? Herri-batzordeei laguntzeko, herri-batzorde xumeei, material gutxiago, argiago, sinpleago... Eta gero ideia poltsa bat, herri dinamiketarako funtzionatu duten ideiak»*

*«Euskaraldiaren web-orrian zegoen hainbeste material, hainbeste gauza ezberdin, pixka bat galtzen ginela. Nik esango nuke herri-batzorde asko izutu egiten zirela hor sartuta. Agian mailaketa bat behar da: batzuei bakarrik oinarritzkoa eman, eta hor aurkituko dute errazago behar dutena»*

*«Neurri batean zertan geratu daiteke? Hori ere onartu beharko da Koordinazio Orokorretik: zer eskatzen zaio inolako zalantzarik gabe herri batzorde bati. Niri iruditzen zait hori dela txapa banaketa antolatzea. Hortik abiatuta Euskaraldiko batzordeen antolaketan nolabaiteko semaforo bat egin daiteke bitartekari moduan, esanez "zer dedikazio emango diozue honi? Zer gaitasun duzue?". Minimoa modu honetan hori da, txapa banaketa. Semaforoa egongo balitz, neurtuko litzateke bidali beharreko informazioa eta noiz bidali, orain informazio-txosten asko iristen dira»*

### 3. Industria-enpresetatik urruti

Herri-batzordeek zailtasunak eduki dituzte industriara eta herriguneetatik kanpo dauden enpresa handiagoetara iristeko. Elkarrekin eta eragile sozialei dagokienez, kirol arlokoekin eduki dituzte zailtasunak.

*«Alde batetik, esan dugu aurtengoa behintzat oinarri bat izango litzatekeela eta hortik gora nahi dugula: enpresa esanguratsuetara eta horrelakoetara joz»*

### 4. Gaztelaniazko hedabideetan agertzeko zailtasunak

Euskarazko hedabideekin harreman estua dute herri-batzordeek eta oihartzuna lortzen dute horietan. Gaztelaniazkoetara iristeko, aldiz, askoz ere zailtasun handiagoak dituzte.

*«Jendea bestela ez da enteratzen. Euskal komunikabideak kontsumitzen ditugunak bai, baina hemen herritar gehienek euskal komunikabideak ez dituzte kontsumitzen»*

### 5. Motibazioz eta ilusioz urriago ibili dira

Batzordeak ez dira 2018ko ilusio eta motibazio berdinarekin aritu. Pandemiaren eraginez, neurri batean; baina bestela ere, nobedade izatearen faktoreak indarra galdu duelako.

*«Aurrekoan ilusio gehiago ikusi zen, pandemiagatik baina bestela ere bai»*

*«Indar gutxi egon da, eta justu-justu gure inguruko jendearengana iristeko indarra izan dugula iruditzen zait edo ausardia»*

*«Gehienetan ikustea tokatzen zaidana da jende berbera leku askotan inplikatzeko dena izaten garela. Indar falta, nekea, nekatu gaitzkeela. Ahulgunea bereziki hor ikusten dut»*

## 6. Nekatuta iritsi dira

Antolaketa lanetarako denbora behar dela badiote ere, abendura nekatuta iritsi direla ere onartu dute. Ahaleginari neurria hartzearen garrantzia azpimarratu dute, jarritako helburuen eta batzordearen indarraren arabera, urte osoan intentsitateari eustea oso zaila dela kontuan hartuta. Behar baino lehenago hasteak boluntarioak erretzea eta herritarrengan konfusioa eragitea dakarrela adierazi dute.

*«Martxoan hasi ginen eta nik bukatu nuen kokoteraino Euskaraldiaz —aurreko edizioako esperientzia zutenek esaten ziguten nekatuko ginela— (...) Lana du, baina goizegi hasiz gero erre egiten du»*

*«Urriari hasten gara pentsatzen, prestatzen... Normalean oso berandu hasten gara. Baina nik uste lehenago hasita ere, ez dakit horrek suposatuko lukeen jende berria erakartzea. Ez daukagu denborarik dena eramateko, eta nekatzen gara»*

*«Egutegia aurkezten dutenean beti goizegi dela iruditzen zaigu. Oso urrunekoa iruditzen zaigu. Jendea azkenean azken hilabetean edo aktibatzen da. Lehenengoan agian denbora gehiago behar zen. Urtean zehar ekintzak egotea ere ondo dago. Baina orainoan jendeak ezagutzen zuen. Eta batzordean gaudenak gauza askotan gaude eta niri behintzat oso luzea egiten zait»*

*«Goizegi hasi zen. Luze egin da. Batzordeetako jendea beste gauza batzuetan ere badabil, orduan agian beranduago hastea ondo egongo litzateke. Epea luzatzeak ez du esan nahi intentsitate berdinarekin lan egingo dela denbora guztian, zati bat lasai joango da eta heltzen ari denean sprinta»*

## 5.5. EUSKARALDIA ANTOLATZEKO HERRI-BATZORDE ERAGINKORRAK SORTZEKO ETA EPE LUZERA MANTENTZEKO DEKALOGOIA

Egindako azterketaren ondorio gisa, Euskaraldia antolatzeke herri-batzorde eraginkorrek sortzeke eta epe luzeke mantentzeke dekalogoia azaltzen da jarraian. Arrakastatsutzat jo diren herri-batzordeen ezaugarri bereizgarriak eta faktore baldintzatzaileak kontuan izanik, helburua da hemendik aurrerako herri-batzordeak osasuntsu jaiotzea eta dagoeneko sortuta daudenak epe luzeke ibilbidea izan dezaten bultzatzea. Hain zuzen, ezaugarri positiboek lau haizeetara zabaltzeke bidea marraztu nahi du dekalogo honek.

**1**

Aukera dagoenean aprobetxatzea eskualde, herri edo auzoetan eratuta dauden taldeak, dinamika sortua dutenak.

**2**

Horietatik abiatuta, edo talde propioa sortzen bada, taldea irekia izatea eta aniztasuna bilatzea, ordezkaturta egon daitezen adin-tarte, genero, euskara-gaitasun, jatorri, eragile, ideologia... ezberdineke herritarrek.

**3**

Taldeek autonomia sustatzea: eragile sozial eta erakunde publikoek arteko elkarlana uztartzea, baina ez dadila izan bata bestearen menpeke. Tokiko administrazioak bideratzaile izan behar du, eta herritarrekin partekatuta, biak elkarrekin Euskaraldiaren motorra bilakatu behar dira. Herri-batzordeek hazia bestelako taldeetan edo eragileetan dagoen kasuan, horiekiko ere autonomia izan behar du.

**4**

Koordinazio Orokorren funtzioaren aitortzatik, harkiko hartu-eman zuzena bultzatzea, herri-batzordeek oinarri edo helburu komunekin bat egin dezaten.

**5**

Oinarri komun baten pean, herri-batzordeek tokian tokiko helburu espezifikoak lantzea, eta hala izan dadin sustatzea Koordinazio Orokorrek ere. Horrekin batera, herri-batzordeek artean erritmo ezberdinak daudela onartu beharko du, eta lankeke-maila ezberdinak proposatu beharko ditu. Antolaketan laguntzeaz gain, mailaketa horrek herri-batzordeek izan dezaketen saturazio sententzia ekidin lezake.

**6**

Helburu espezifiko horietatik kanpo uztea Koordinazio Orokorrak, Euskaltzaleen Topagunearen zein erakunde publikoen bitartez, landuko dituen gizarte esparruak: herriz gaidiko entitateak, komunikabideak nazionalak... Horiek modu zorrotzean zehaztea, eta informazio hori modu zuzenean helaraztea herri-batzordeei. Indarrak metatzea da gakoa, herri-batzordeen alferrikako lana saihestea.

**7**

Antolaketa-modu naturalak proposatzea, hau da, norbera erosen sentitzen den edo hoberen moldatzen den horretan aritzea. Betiere, ahaztu gabe koordinazio- edo dinamizatzaile-lana ezinbestekoa dela: boluntarioa edo liberatua izan, bakarkakoa edo partekatua...

**8**


Lehentasunak ezartzerakoan, aurrez aurreko kanalen bidezko komunikazioa azpimarratzea. Gertutasunagatik, naturaltasunagatik Euskaraldiarekin inplikatzeko modu zuzenagoa da. Gainera, herri-batzordeek dituzten balibideetara erraz egokitzen den komunikazio-kanala da, eta eraginkorra.

**9**

Euskaraldiaren ikusgarritasuna eta girotzea ez dira helburua, bitartekoak baizik: batetik, herritarrek Euskaraldia erakartzeko, haiengan ariketa sozialarenganako irrika pizteko; eta bestetik, herri-batzordearentzat pizgarri, egindako lana islatzeko.

**10**

Taldeak barneratzea lanaren azken helburua ez dela Euskaraldia antolatzea besterik gabe, euskararen erabileran eragitea baizik.



# 6.

## Euskaraldia ariketa sozialaz.

Bigarren Euskaraldiaren antolaketari, parte-hartzeari eta eraginari buruzko azterketa egin da aurretik, horietan zuzen-zuzenean aritu diren norbanako, entitate edota herri-batzordeekin. Ondorengo atalean, ariketa bera aztertzeari ekingo zaio. Horretarako, Euskaraldia lkerketaren Jarraipen Batzordeak proposatutako 20 aditu eta informatzaile kualifikatuaren iritzia jasotzen da, aurreko azterlanetan zehar azaleratutako hainbat gairen ingurukoa.

## 6.1. ADITU ETA INFORMATZAILE KUALIFIKATUEN IRITZIA

### A) Euskaraldiaz, orokorrean.

Euskararen sustapenean Euskaraldia Euskal Herri mailako ekimen berritzailea izan dela ez dago zalantzarik, baina, zer eman dio Euskaraldiak euskarari?

Oro har, aditu eta informatzaileek aipatu dute euskararen erabilerari bultzada eman diola, eta horrekin batera, prestigioa; komunitatearen ilusioa piztu duela, saretzeko balio izan duela; euskara agenda sozialean jarri duela; eta herritarrak eta erakunde publikoak elkarlanean euskararen sustapenean lana egiteko ateak ireki dituela.

*«Erabiltzeko aukera, ariketa sozial masiboaren bidez jende gehiagorengana iristeko aukera, batez ere belarriprestengana. Belarriprestak lasai aritzeko aukera gehienbat, eta aldi berean euskal hiztunak erabileraren bidez kontzientziatzekoa».*

*«Bizitasuna, publizitatea, erabilera, atxikimendua, elkarlana. Euskararen gaia lehen lerroan jartzen du eta iritzi eta arlo guztietako jendearen partaidetza eta inplikazioa dakar».*

*«Euskaraldiak mota askotako onurak dakartzkio euskarari eta, bereziki, euskararen erabilerari, baina modu orokorren hiru aipatuko nituzke: prestigioa, ikusgarritasuna eta onarpen soziala».*

*«Batetik, gaia agendan jartzen du, euskara plazaratzeko bozgorailua dakar. Beste alde batetik, bisibilitate horrez gain, hizkuntza ohituren gainera pedagogia soziala egiteko tresna ona da. Bakoitzak dituen ohiturak zeintzuk diren, ohitura horien gainera pentsatu, ... Egunerokora eta aurrez aurrekora hurbiltzen da euskara eta, azken Euskaraldi honetan batez ere, euskaraz egiteko aukera asko ekarri du plazara. Ariguneen lanketaren bidez, han eta hemen euskaraz egin ahal izateko uneak eta guneak identifikatzen lagundu digu».*

*«Neurri batean, hainbeste urtetan problematizatutako gai bati (ezagutzatik erabilerarako jauzia) eman zaion erantzunik praktiko eta zehatzena izan da. Euskaigintza datozen urteetan definituko duen elementu garrantzitsuenetako bat bilakatu da».*



*«Asko. Bultzada. Gauzak egiteko moduak aldatzeko eredua. Ilusioa. Jendea berriz ilusionatu du. Jendearen buruetan sartu da, bere lekua egin du. Ezaguna egin da. Inertzietan eragin du».*

*«Hizkuntzaren gaia gizartera eramateko aukera. Aterpe komunikatibo sendo bat herritarrek eta arduradunek hizkuntzari buruzko gogoeta egin dezaten (nahiz eta gizarte osora ez heldu)».*

lido beretik doaz Euskaraldiaren indarguneak ere, eta besteak beste, hiru ideia dira gehien errepikatzen direnak: ariketa praktikoa eta erraza dela, Euskal Herri osoan egiten dela, eta elkarlanean egiten dela. Dena den, badira beste asko:

*«Gizartean duen onarpen zabala. Norberaren hizkuntza errealitatearen aitortzatik abiatzea. Lepotik beherako jarduna izatea, arrazionalera / teoriara mugatuko ez den proposamena izatea, praktikatzera egiten duen gonbidapena, bizipena inkorporatzeko ematen duen aukera. Bere exigentzia maila malgua, izaera esperimentalta, huts egiteko aukera aurreikustea».*

*«Adostasunean oinarrituriko planteamendua, elkarlana, masibotasuna, inplikazio soziala, progresibotasuna, Euskal Herri osoko lanketa, proposamen praktikoa izatea...»*

*«Ariketa parte-hartzailea izatea, ikuspegi nazionala eta tokikoa uztertzea, erabileran eragitea, eragile sozialak eta instituzioak biltzea, eta euskaldun aktibatuetatik harago iristea».*

*«Indargune moduan, denbora jakin bat daukala. Ez da egun bakar batean geratzen baizik eta egunak dituzu parte hartzeko eta baita modu ezberdinak hau egiteko. Oso irekia da eta ez dago modu zehatz eta bakar parte hartu ahal izateko baizik eta taldean zein bakarrik, bakoitzaren behar izanetara oso moldagarria da».*

*«Atzetik duen oinarri teorikoa. Asko landutako metodologia da, eta horrek seriotasuna eta sendotasuna ematen dio ariketari»*

*«Rol inklusiboak proposatzen ditu Euskaraldiak. Bere horretan, hori bada indargunea. Hiztun mota guztiek (eta gure herriaren luze-zabalean mota askotako hiztunak daude) dute kabida, dute leku. Izan du eragina ulermen mailan zentroan jartzen, izan du eragina ere plazaratzeko erabileraren korapiloak non txirikordatzen diren».*

*«Ariketa erraza da, parte-hartze zabala izateko modukoa. Berezia da, berria, polita. Jendea euskaraz egitera animatzeko aproposa. Jendearengan kontzientzia pizten du, eta aldi berean barne hausnarketa eragin ere. Iritzi, ideologia eta eremu desberdinetako jendea bitzen du».*

Baina ariketa sozialak baditu ahulguneak ere. Batik bat, komunikazioari edo ulermenari loturikoak azpimarratu dituzte informatzaile kualifikatuek: ariketa, eta bereziki, rolak ulertzeko zailtasunak antzeman dituzte askok.

*«Komunikatzeko zaila izatea eta horrek dakarrena (aldekotasunean gelditzeko arriskua, erabilera okerrak, ahobizi=euskaraz jakite hutsa...)».*

*«Rolak eta ariketa ulertzeko zailtasunak (gizarte ikuspegia eraldatzera datorrelako, eta marko mentalak aldatzea zaila delako)»*

*«Ez ote den konplexua ariketa osoa ondo ulertzea (rolak, ariguneak...). Askorentzat atxikimendu ariketa bat baino ez da izan. Baina hori berez ez da txarra. Hori ere lortu da».*

*«Rol inklusiboak dira biak ala biak, baina azken edizioan batez ere sumatu dut rolen inguruan eztabaida. Sumatu dut ahobizi rolak ematen duela legitimitate gehiago eta, hortaz, euskaraz ondo dakitenek derrigorrez eta ezinbestean rol hori besarkatu behar dutela. Eta hori arriskutsua da, zentrotik mugitzen duelako Euskaraldiaren benetako helburua, hizkuntza ohiturak astintzeko pausoa izatearena»*

*«Euskaraldian parte hartzeko herritarrek egin dezaketena oso argi ez dago euskaraz hitz egin eta ekitaldietara joateaz gain».*

Ondorioz, rolak betetzeko arazoak izan dira. Eta Euskaraldian zabalduetako mezuekin bat ez datozen praktika linguistiko publikoek ez dute horretan lagundu:

*«Rolak behar bezala ez betetzea ohikoa da. Are gehiago, eredu eman beharko luketenek (publiko aurrean duten ikusgarritasunagatik) ez dute rol hori behar bezala bete eta horrek ahultzen du Euskaraldiak izan dezakeen eraldaketarako grina».*

*«Euskaraldiarekin mezuarekin bat ez datozen praktika linguistikoak erakunde babesleen aldetik...».*

*«Praktika inkoherenteak arduradun batzuen aldetik (txapari ez dagozkionak, publikoki), masibotasunaren B aldea (batzuek txapa jarri eta besterik ez egitea)».*

*«Azken edizioa ez ote den instituzionalizatu; erakunde publikoek bat egin dute, baina ondoren ez da koherentzia hori ikusten egunerokoan».*

*«Parte hartzaile erreferentzialen koherentzia falta».*

*«Ahulgune moduan, batzuk, txapa, aldekotasun markatzat hartzen dutela eta benetan ez dutela ariketa egiten. Horrek, gogotsu dauden pertsoneri eragin dezake».*

Euskaraldiaren azkartasuna ere ahulgunetzat dute batzuk: Euskaraldia oso indartsu hasi omen zen eta emaitzak berehalakoak izango direla pentsa dezakete batzuk, baina diote ez dela horrela. Horrez gain, denboran mugatua izateak eta jarraikortasun ezak ez diote laguntzen ariketari:

*«Arrisku bezala, edizio bakoitzen erritmo hori segi behar izatea, edota edizio berri bakoitzean zerbait berria sartu behar izatea. Beste arrisku bat da euskararen aldeko beste ekimen hutsal bat bezala geratzea. Helburua ohiturak aldatzea zenean. Aldaketa sakona da hori gainera. Ohiturak aldatzea asko kostatzen da, asko, asko. Energia asko behar da hori gauzatzeko. Simil bat eginez, ez da energia bera behar izotz puska bat urtzeko, edo berunezko bola bat urtzeko. Eta hizkuntza ohiturak, (hizkuntzarekin lotutako gai gehienak bezala) berunaz eginak daudela dirudite».*

*«Herri oso baten hizkuntza ohiturak aldatzea oso epe laburrean egingarri dela pentsaraztea, ez da helburu lorgarria benetan, ez hamar -hogei urtetan. lan eta neke izugarria dakar antolaketa mailan, dagoeneko lanez gabiltzanontzat horrelako ekimen batek arrakasta lortuko badu, dedikazio handia eskatzen du, bai denboran bai dirutan. Azkarregi goazen irudipena, jendea nekatzen hasita, eta ibiltzen baino ez gara hasi».*

*«Ariketa errepikatzen denez bi urtean behin, erlaxatzera jotzeko joera egon daiteke eta horrek indarrez ahuldu dezake egitasmoa».*

*«15 eguneko ariketa puntuala izateko arriskua eta hizkuntz ohitura berriak finkatzeko eta egonkortzeko aukerarik ez sortzea».*

Gutxiago aipatu dira, baina beste ahulgune batzuk ere azalerau dira: lurraldeen ezberdintasunak kontuan ez hartzea, kanpaina soil batean geratzea...

*«Ekintzara mugatzen da, gogoeta bigarren maila batean utzita. Hizkuntza elkarrekintzetan gertatzen ari dena ulertzeko gakoetan ez du sakontzen, ez du nahikoa argitzen. Hankamotza da».*

*«Batzuek ariketa erabiltzea aurpegi garbiketa bezala»*

*«Denok berdin jokatu beharra gotik beherako kanpaina baten itxura ematen dio, moldaketarik gabe, ez lurralde ezberdinak kontuan hartuz, ez pandemia zegoela kontuan hartu gabe, ez da urterik onena izan, noski».*

*«Eta gehituko nuke arrisku bat ere: erabilera handitzea (edo ez) hiztunen borondatearen arabera kontu bat dela aditzera ematea, baldintza soziolinguistiko estrukturalak baldintzatuko ez balute bezala».*

*«Estrategia nazional modura proposatzen da, baina tokiko eragin-eremua izan nahi duena, eta askotan bide horretan kontraesanak sortzen dira. Espektatiba "nazional" batzuk jarri daitezke, sarri hanpatuegiak, eta tokian tokiko errealitatera (funtzionamendura, dinamikara...) jaitsi ondoren, espektatiba horiek okerrak direla ohartzeko arriskua egon daiteke. Horrez gain, makinaria handia jartzen du martxan, eta unean uneko aldaketetara egokitzeko geldotasuna eransten du horrek».*

*«Momentuz nahiko "euskararen aldeko" direnen artean geratu izana».*

## **B) Norbanakoak**

Euskaraldiak euskarari ematen diona nabarmentzeaz gain, Euskaraldiak norbanakoari ematen diona ere aipatu dute eta asko da:

*«Norbere hizkuntza bizipenaren gainean arreta jartzekoa. Norberaren hizkuntza elkarrekintzak birpentsatzekoa, eta birnegoziatzekoa. Norberaren hizkuntza egiteateen gainean kontzientzia hartzekoa. Konplizitateak lantzekoa. Norberaren baitan bizi den euskaldun gutxituaz gogoratzekoa».*

*«Hizkuntza ohituren gainean hausnartu eta aldatu daitezkeela praktikatzeko aukera bat».*

*«Erabilera aukera berriak identifikatzeko aukera».*

*«Hizkuntza-praktika berriak martxan jartzeko aukera».*

*«Hizkuntza ohiturak astintzea, ezagutzan egindako aurrerapausoari etekina ateratzen saiatzea».*

Onura horiek euskararen erabilerarekin eta hizkuntza-praktikekin lotu dute gehienek, eta bide horretan bereziki aipatu da euskaldun hartzaileen kasuan belarriprest rolak dakarren aurrerapausoa:

*«Euskaraz egiteko gaitasunik edo gogorik izan gabe, euskaraz aritzeko bidea errazten dutenak erraz identifikatzeak mesede asko egin dio euskarari».*

*«Belarriprest rolak euskaldunon komunitatearen parte sentitzeko kide askori eman dien aukera»*

Hain zuzen, euskaldun hartzaileek beraiek Euskaraldiak emandako bultzada nabarmendu dute. Dena den, parte-hartzaileen artean gutxiengoa dira. Horiek nola erakarri, askok diote ikusgarritasuna eman behar zaiela eta belarriprest rola prestigiatu behar dela:

*«Azpimarra beraiengan jarrita, edizio oso bat belarriprestaren figura duindu eta indartzera dedikatuz. Nola egiten da hori? Ekitaldi publikoetan, prentsan, aurkezpenetan "ahobizi" ahoskatzen dugun bakoitzeko "belarriprest" sei aldiz ahoskatuz, karteletan erdigunean jarriz, etab.»*

*«Bigarren lerro bat dugu agian esfortzu gehiegi dela uste dutenak. Koxka handiegia dela haientzat. Belarripresten figura prestigiatzen jarraitu beharko genuke.»*

*«Kanpaina bat egin beharko litzateke euskararen hartzaileei zuzenean bideratuta. Euskara egiteko lotsarik ez izatea gakoa dela uste dugu. Euskara traketsa erabiltzea euskara zuzena erabiltzeko lehenengo pausoa da. Hobetzen laguntzeko jarrera da erakutsi behar dena. Beraiei bideratutako edukiak sortzea edo eskeintzea ere egokia litzateke.»*

*«Euskaldun hartzaileen papera zer den eta zer onurak dituen gizartean azalduz eta horri beharrezko bultzada emanaz. Pertsona eredugarriak euskaldun hartzaile legez azaltzea ere baliagarria litzateke.»*

Ohiko eremuetatik kanpo jotzea proposatzen dute beste batzuk, euskalgintzatik kanpo, besteak beste. Izan ere, batzuk diote euskara urrunago bizi dutela askok:

*«Gure ohiko eragin-geruzetatik aterata: gazteak, euskaltegiako ikasle-ohiak, eremu erdaldunenak... Kasu hauetan, ezinbestekoak dira harreman zuzenak, informazio-bilerak, kanpaina berezituagoak... Horretarako, Euskaraldia, euskara sailetatik atera eta beste sail, batzorde eta esparruak inplikatzeko ere oso onuragarria izango da.»*

*«Eragin eremu berrietara heldu behar dugu. Ezin dugu betiko guneetan aktibatzea mugatu (eskoletako gurasoak, euskaltegiak, euskalgintzatik gertu dauden merkatariak eta abar). Hainbat aukera datozkit burura baina egongo dira hobeak ere.»*

*- Hedabideak. Erdal hedabideetan presentzia areagotzea elkarrizketa eta erreportaje txukunak lortuta. Nagusiki, bere funtzio eta izaeragatik, ETB2ko presentzia indartzea eta kualifikatzea lortu beharko genuke.*

*- Entitateak. Ariguneen bidez herritar multzo berrietara hel gintezke. Horretarako, entitate berriak aktibatzea izan liteke gakoa.*

*- Erakunde publikoak. Euskara sailetatik aparteko bestelako sail eta zuzendaritzen inplikazioa, sektore berrietara heltzeko. Adibidez, alor sozioekonomikoan eta kirolean ari diren teknikari eta arduradun politikoekin lankidetzan arituta.»*

*«Haiengana hurbilduz. Batzuetan, egiten diren kanpainak, euskaldunei zuzentzen dira. Uste dugu denontzako irekiak direla baina kasu askotan ez da horrela izaten. Eta erakartzeko alde garrantzitsuenetako bat, errealitatea ezagutzea da. Kasu askotan, jendeak ez du parte hartzen ez delako identifikatuta sentitzen. Badaude famili askotan, non seme alabek jakin badakiten euskara eta gurasoek ez, baina gurasoek, euskararekiko jarrera izan ez balute, haien seme-alebek ez lukete euskara ikasiko. Perfil horiek ez dira euskaraldian erreflejatzen. Denok dakigu euskaraldia egiteko eta praktikatzeko dinamika bat dela baina egiten dutenak pertsonak dira eta hauek, istorio bat daukate atzean. Erakartzeko modurik eraginkorrena, identifikatuta sentiarazten dieten horretatik egiten dela uste dut».*

Euskaldun hartzaileen beharra gutxietsi gabe, indarra roletan jartzea proposatzen dute askok, eta horiek ondo komunikatzea:

*«Uste dut (eta Euskaraldiak aurrera begira izan dezakeen arrisku handienetako bat dela) rola direla benetan Euskaraldiak duen indargunerik nagusienak. Eta zaindu behar direla, ahobizi zein belarriprest, eta argi adierazi rolek ez dutela gorpuzten zeure euskara maila, baizik eta ariketan zer esfortzu egiteko prest zaude zure ohitura batzuk aldatzeko. Belarriprestak erakartzeaz ari bazarete, uste dut bide bat izan beharko litzatekeela eurei protagonismo gehiago ematea. Guk herrian proba egin genuen belarripresten batzordea osatzeko (Covidak ez zigun bat ere lagundu) eta uste dut bide horretatik jo beharko genukeela. Zergatik ez osatu belarripresten elkarte bat eta horiek izatea Euskaraldiaren zabalpenean protagonismoa? Zergatik ez sartu belarriprest bat koordinazioan? Uste dut orain arte oso ikuspuntu euskaltzaletik garatu direla koordinazioak, agerpenak eta abar, eta igual da momentua horrekin ere esperimendatzeko».*

*«Giltzarria da euskaldun hartzaileak ere erakartzea, eta batez ere ikusaraztea beren gaitasuna hobetzeko bidea dakarkielako Euskaraldiak, erabileraren bidez areagotzen baita gaitasuna. Hala ere, susmoa daukat ariketaren planteamendua behar bezala ez ulertzeak gehiegizko pisua ere eman diela euskaldun hartzaileei: euskaldunak 'ahobizi' gisa jo dituzte askok, eta ia euskaldunak, 'belarriprest' gisa (izatez, euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko gai ez direnei buruz aritzeko 'belarriprest' kontzeptua erabili ohi da jada). Erabilera handitzeari begira, hala ere, eta ikusita zein diren portzentajeak, euskaldunen multzoan bada oraindik arrantza egiteko tarte handia, eta horien artean ere bultzatu behar da 'belarriprest' figura, gutxienez trantsizioko formula gisa, euskaldun multzo askotan errotua baitago gaztelaniaz egitea, denak hitz egiteko gai izanda ere».*

*«Ekimenak euskal gizartearen onarpen gehiago izateko belarriprest-aren kontzeptua zabaldu egin behar da, nire ustez. Ez du izan behar bakarrik euskaldun hartzaileentzat, baizik baita ere euskaraz ongi moldatzen diren baina ahobizi rola exigenteegi geratzen zaien guztientzat. Euskaraz ongi moldatzen direnen aukera bakarra ahobiziarena izatea (alegia, beti euskaraz, denei) nik uste Euskaraldiaren potentziala nabarmen mugatzea dela».*

## C) Entitateak

Bakarkako ariketa ez ezik, kolektiboa ere egiteko gonbidapena egin zaie 2020ko edizioan entitateei. Horretarako, ariguneen kontzeptua sortu da. Planteamendu berria izan da, eta askok diote norabide egokian doala:

*«Lantokietan, bereziki, erabilera eragiteko aukera berriak sortu behar dira, ariguneen kontzeptua aprobetxatu eta ahozko erabilera zabaltzeko».*

*«Hala ere entitateetan lanketa egiten jarraitzea oso aberasgarria iruditzen zait».*

*«Ariguneak azaltzean, ariketa era kolektiboan egiteko aukera egonik, talde sendotasunean irabazi du. Aurrerapausu nabarmena izan da».*

*«Ariguneena ekarpen baliotsua izan da».*

*«Egoera zaila izanik ere, ariguneek ekarpena egin diote Euskaraldiari, osotasuna eman diote, batzordeentzat motibagarri izan dira, eta abar».*

*«Ariguneen kontzeptua eta lan munduko erakundeetan egin daitekeenak potentzial handia du, nik uste, baina oraindik ikusteke dago horrek zenbateko indarra hartuko duen».*

*«Oraingoan Ariguneak sortu dira eta lan arlora asko zabaldu da euskara. Balorazio positiboa egiten dut nik neuk arlo horri dagokionez».*

*«Ariguneen kontzeptuak ibilbide luzea du egiteke».*

*«Ariguneen lanketaren bidez, han eta hemen euskaraz egin ahal izateko uneak eta guneak identifikatzen lagundu digu».*

Dena den, ariguneen kontzeptua azkarregi sartu dela dioenik ere badago:

*«Orain atzera begiratuta, ariguneen kontzeptua arinegi sartu zen sentrazioa dut. Rolak ezarri barik zeuden, eta beste kontzeptu konplexuagoa txertatu zen».*

*«Agian, jarraitu beharko genuke lehenengo Euskaraldiaren planteamendaurekin, ariguneena apurka-apurka eta sektoreka zabaldu... Agian, astiroago eta zentratuago».*

Eta kontzeptuak potentzialitate handia badu ere, gaiak azterketa sakonagoa eskatzen duela:

*«Bai, lantokietan ariguneak sortzea izan da berrikuntza nagusia eta esango nuke, potentzialitate handiko kontzeptua dela gainera. Dena dela, ariguneek sortzen dituzten aukerak eta indarguneak gehiago garatu behar dira, eta horrezaz gain, ariguneek epe edo arnas luzeagoko neurriak hartzeko aukerak sortzen dituztenez, planifikatzea eskatzen du».*

## **D) Euskaraldiaren eragina**

Euskararen ezagutzak gora egin du azken hamarkadatan, eta erabilerarekin segida emateko unea dela iritzita sortu zen Euskaraldia, igarobide horretan laguntzeko. Zentzu horretan bidea zuzena da, baina batek dio ez dela iraultzarik gertatuko:

*«Iruditzen zait oraindik ez dituela eman eman beharreko frutuak, baina horretarako denbora behar da. Bide zuzenean goaz».*

*«Bai. Ondorio praktikoak ekarri ditu eta milaka hiztunek urratsak eman dituzte erabilerara praktikoari begira. Praktika linguistiko berriak sozializatu ditu: lehen hitza, euskaldunei euskaraz, elkarrizketa elebidunak...».*

*«Bai, aurrerapausoak egon dira, pertsona batzuk abiarazi ditu eta harresi mental batzuk apurtu ditu. Baina arnas luzeko lana da, eta etengabe eutsi beharrekoa. Euskarak beti izango ditu inertzia globalak aurka».*

*«Lehen edizioko ikerketak adierazi zuen baietz, emaitzak izan zirela. Herritarrek hizkuntza inertziak astindu eta urratsak eman zituzten, eta arau sozial berriak gizartean hedatzen hasi ziren. Jakinik, arnas luzeko lana dela hau».*

*«Bai, aurrerapausoak eragin ditu. Baina ez da gairadimentsionatu behar: honek ez du iraultzarik ekarriko. Erabileraren ehunekoei garrantzia handiegia ematen diegula uste dut. Parte-hartzaileen pertzepzioetan eragin duela uste dut, hor du indargune garrantzitsu bat».*

«Arnas luzeko» lana dela aipatu dute askok, eta proposamenak ere egin dituzte, bide horretan jarraitzeko:

*«Euskararen gezur soziala desenmaskaratzeko neurriak hartu. Koherentzia eskaera erdigunean jartzen jarraitu. Eraldaketa kasuak, 'praktika onak' dibulgatu. Pedagogia soziolinguistikoa egiten jarraitu. Ekimenean egon daitezkeen kontraesanak antzeman eta kudeatu».*



«Ariketa sozializatzen eta kualifikatzen jarraitu, lankidetzak indartu, rolak berrikusi eta ulertarazi behar ditugu aurrerantzean ere, besteak beste. Baita herritar berriak aktibatzen ere».

«Agian erakunde publikoetako euskararen plan eraginkorrak sortzea eta betearaztea».

«Gauza asko. Bi bakarrik aipatzen:

1) Urtetan zabaldu den mezu edo logika bat hausteko lan egin: lehenengo hizkuntza ikasi (urtetan, eta C1 eskuratu arte), eta ondoren hasi erabiltzen. Ikuspegi hori asko bultzatu da, nahiko errotuta dago, eta oso kaltegarria da erabilerarako. Kurioski, ikuspegi hori praktikan bultzatzen duen jende askok, gero ez du berdina egiten beste hizkuntza batzuekin.

2) Milaka eta milaka euskaldun daude euskaraz erraztasun mugatua dutenak, eta erabilera aukera gutxi. Sozialki halakoek euskara erabiltzeko aukera erreala sortzeko mila ekimen egin litezke. Eta premia gero eta handiagoa da horretarako».

«Nire ustez, Euskaraldiak ahalduzko pertsonalari arreta gehiago jarri beharko lioke. Uste dut belarriprestaren rola itzelezko azertua izan dela, bai. Baina ahobiziak (benetako ahobiziak) dira zaindu eta elikatu beharrekoak: hizkuntza ohituren didaktizazioan, kontsumo eta bestelakoek duten garrantzian, hizkuntza eskubideen gaineko informazioan, eta abarretan».

«Uste dut oraindik ezagutza arloak bide luzea duela egiteko. Agian ezagutza arloan eragin beharko luke Euskaraldiak. Horretaz gain, uste dut erabilera areagotzeko orduan koherentzia bermatu behar dela. Eta koherentziaren ariketa egunero egin/bultzatu behar da».

«Kontua da erabilera bultzatu nahi bada, euskara erabiltzeko aukerak ugaritu behar direla, euskararen mundua elikatu, eta horretan zeresana dute instituzioek».

Zer egin daitekeen baino, zer ez den egin behar aipatu dute, baita ere:

«Zer egin behar den baino gehiago zer ez den egin behar: ez da figura gehiago sortu behar, arigune, ahobiziren erabilera egokia eta belarriprest sendotu behar dira, euskal gizartean errotu arte sendotu».

«Zer gehiago egin daitekeen? Ba nire ustez, Euskaraldiaren beraren oinarri teorikoen lanketa bat egin beharko litzateke, zehatza eta eremu guztietara helduko dena. Eta, agian, horrenbeste "merchandising" egin beharrean, ondo zehaztuko nituzke erabili beharreko material eta euskarriak, azkenean, euskararen aldeko kanpaina huts bihurtu ez dadin. Nire ustez, 2020an euskarri gehiegi egon dira, eta udalerrri bakoitzean nahi izan diren guztiak egin dira, nolabait, ariketaren helburua "distorsionatuz"».

Hizkuntza-ohituren gaia aipatu du batek, euskararen ezagutzaren eta erabileraren diferentziaz aritzerakoan:

*«Herritar batzuen jardunean eragin duela esango nuke, eta hala erakutsi zuen lehen Euskaraldiko azterketak. Hala ere, kontziente izan behar dugu ezin zaiola gure gaitz guztien sendabidea Euskaraldiari eskatu: hizkuntza ohiturek zeresan handia dute ezagutzaren eta erabileraren arteko diferentzia horretan, baina ez da dena horien araberakoa. Oraindik jarraitu behar da hizkuntza plangintzako gainerako arloetan ere eragiten, dena hizkuntza ohituretara eraman gabe».*

Hizkuntza-ohiturekin jarraituz, beste batek dio gaia kalera ateratzea eragin duela Euskaraldiak:

*«Nik uste dut gaia kalera atera dela, oraindik gehiago atera daitekeela baina ohitura honek ate asko irekitzen dizkiola hizkuntzari eta hiztunei. Erabileran aurrerapausoak eman diren baloratzen ez dakit baina hizkuntza ohituren gainean hitz egiteko aukera eman du, familian, lagunartea, lantokian...orain arte emantzat jotzen zen gaia zen eta esplizitatzeko behar hori ezinbestekoa zen aurrerapausoak emateko.*

Hain justu, hizkuntza-ohitura horiek aldatzea da Euskaraldiaren jomuga, baina herritar batzuk diote aldaketa baino hausnarketa bultzatu duela, praktikan. Euskaraldiak bietatik behar duela diote batzuk, hausnarketatik eta praktikatik, hausnarketa ezinbestekoa baita, praktikara saltoa emateko. Hausnarketarik gabeko saltoa egin dutenak ere aipatu dituzte.

*«Bai, arrunt ados nago baieztapen horrekin. Gainera, nire iritziz, joera hori are nabarmenagoa izan da bigarren Euskaraldian. Hots, hizkuntza aldaketa iraunkorrak bultzatzeko baino gehiago, hizkuntza ohituren gaia zabaldu eta kontzientzia pizten hasteko balio izan du Euskaraldiak».*

*«Bai, bi aldetatik: batetik, agendan jarri du euskararen erabileraren gaia, eta modu proposatzaile eta positiboan (ez eraso baten salaketa moduan, edo euskararen gainbeheraren ohartarazpen moduan); bestetik, bide praktikoa bat jarri du urteotako "ezagutza gora, baina erabilera behera" eskema hausteko. Ikusarazi du maila pertsonal eta kolektiboan egin daitezkeela urratsak ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte gero eta handiago hori txikitzeko».*

*«Uste dut biak bultzatzen dituela. Hausnarketa ezinbestekoa da praktikara saltoa emateko. Salto hori emateko ausardia baino babes soziala behar dela iruditzen zait eta hori egiteko babes nahikoa ez duela senti dezakete partaide askok. Nongoa zaren, zein ingurutan mugitzen zaren, zein baldintzetan egiten duzun lan...faktoreak askotarikoak dira. Beldur edo lotsa horri aurre egiteko energia norberaren baitan geratzen da*

*gehienetan eta Euskaraldiak babes sozial-kolektibo hori ematen badu ere, gero norbanako bakoitzak egin behar du keinu bakoitza. Sozialki ahalduntzeko mezu eta euskal hiztunok gure buruekiko sinesgarritasun gehiago sentitzeko lan gehiago egin beharko genukeela uste dut».*

*«Bai, baina biak daudela lotuta uste dut. Hizkuntza-ohitura aldaketa bat egon baino lehen, hausnarketa beharrezkoa da. Nire iritziz, pertsonaren arabera da baina orokorrean, astiro doan prozesua da. Hau da, egongo dira, lehen edizioa egin zenerako hausnarketa eginda zuten pertsonak eta hizkuntza-ohiturak aldatzen hasi zirenak zuzenean. Baina badaude beste batzuk, lehen edizioak hausnartu zutenak eta bigarreanean aldaketa egin dutenak, edo bigarreanean hausnarketa egin dutenak lehenengoan parte hartu ez zutelako, edo bai lehen zein bigarreanean hausnarketarekin soilik geratu direnak. Niretzako, bi edizioetan egin dut hausnarketa eta bakoitzean gauza ezberdinak atera ditut. Urte bakoitzean, nire ohiturak aldatzeko pausuak eman ditut baina ez dira ez berdinak ez esparru berdinetan izan».*

*«Nahi nuke hala balitz, baina hori ere ez ziur aski, gehiengoaren kasuan. Euskaraldia ongi profitatu dutenen kasuan berriz, biak ziur aski, gainera, elkarren eskutik behar lukete eta hausnarketak eta ohituren aldaketak. Eta horrela ez bada, bi norabideko sekuentzia zerk eragozten duen aztertu beharko genukeela esango nuke. Ez nuke dikotomia bat eraikiko hor, biak behar ditugunez».*

*«Nire inguruan alderantziz ikusi dut: hausnarketa baino, hizkuntza-ohiturak gehiegi pentsatu gabe aldatzeko aukera. Batzuetan hausnarketarako baino, ekiteko premia eta gogoia ikusten dut».*

Norberaren abiapuntua edo helburuak baldintzatu duela ere aipatu da.

*«Ez. Nire ustez, kontua da zein den herritar bakoitzaren abiapuntua.  
- Euskaltzale aktiboek ariketa egiteko beharra / gogoia izan dezakete zuzenean, eta hala jokatu.  
- Baina beste herritar batzuentzat beharrezkoa da lehenik gogoeta hori egitea, gero praktikorako urratsak emateko. Ezinbesteko pausu logikoa da edozein aldaketatan. Euskaraldiak hori probokatzea, beraz, ona da.  
Kontua da hausnarketa horretatik harago, ariketa praktikoa dela gogoratu eta kide horiek urratsak ematera aktibatu beharra daukagula».*

*«Bai eta ez. Ariketa ondo ulertu duten askoren artean bai, hausnarketa bultzatu du, eta baita ohitura aldaketa ere. Gainerako, asko dira euskara erabiltzeko muga "ulertzean" dagoela, eta ez hitz egitean.  
Bestalde, ariketa ulertu ez eta "euskararen alde daudenek" hausnarketa gutxi egin dutela uste dut».*

## E) Euskaraldia tokian toki antolatzea

Euskaraldia antolatzerakoan, erabateko indarra dute herri-batzordeek. Hasiera-hasieratik Euskaraldiaren koordinazio orokorrak bi planotan proposatu zuen ariketa soziala: Euskal Herri mailakoa eta tokian tokikoa. Hau da, oinarriak Euskal Herri mailakoak dira, eta herri-batzordeen lana da Euskaraldia herrietara/eskualdeetara egokitzea, haien ezaugarri propioetara. Planteamenduarekin, oro har, informatzaile guztiak daude ados. Areago, askok Euskaraldiaren arrakastarekin lotzen dute zuzen-zuzenean.

*«Bai. Gure erralitate ikaragarri anitz honetan, irizpide orokorrek ariketaren oinarrizko baldintzak ezartzen dituzte, baina tokian tokiko errealitateetara egokitzeko aukera eskaintzen da. Modu honetan, aktibazio sozialerako eta parte hartzeko aukerak zabaldu eta ugaltu egiten dira».*

*«Bai, gauzak zaildu egiten ditu baina aldi berean sendotu. Goitik beherako ekimenen aldean, indartsuagoa da Euskaraldia».*

*«Bai, modua ematen duelako antolaketa bera herrietara eramateko, ez dadin izan "goitik behera" antolatutako ekintza. Horrekin lotuta, eremu batzuetan behintzat, interesgarria izan daiteke tarteko bidea ere: maila nazionalaren eta herrikoaren artean, eskualdeak ere aintzat hartzea».*

*«Herritarrak aktibatze gertuko harremanek eragin oso handia daukate, aurrez aurreko komunikazio eta kontaktak. Hori herri batzordeek egin dezakete, ez koordinazio orokorrak. Aktibaziorako gakoa da. Bestalde, tokian toki kudeatzeak tokiko errealitateetara egokitzeko aukera ematen du, ekimenaren moldagarritasuna baliatuta. Euskaraldiak, gainera, tokiko euskalgintza eta euskaltzaleak saretu eta aktibatze bane helburua ere badauka, herri batzordeen bidez».*

*«Orokorrean bai. Halako ekimen sozial zabal batek behar du koordinazio orokor bat, data, irudi, mezu... mailan erraz identifikatu ahal izateko. Baina, aldi berean, tokian toki gizartean arrakasta izango badu, herrietako batzordeek protagonismo bat izatea eta ekimena bere modura zabaldu eta sustatzeko aukera izatea oso lagungarri ikusten dut».*

*«Ezinbestean horrela izan behar da. Egoerak oso desberdinak dira alde batetik bestera, herri batzorde bakoitzak ezagutzen duu ondoen bere errealitatea. Gainera, beste modu batean eginez gero, ariketaren iraupena hutsaren hurrengo litzateke».*

*«Bai. Gauzak egiteko modu posibleetako bat da, eta berez, ez da ez txarra ez ona. Ingurumariak baldintzatutako erabakia dela esango nuke, eta beraz, hobebeharrez hartutako erabakia dela ulertzen dut. Euskararen biziberritzea, halaber, behetik gorako prozesua ere badelako, eta botere euskaltzale eraginkor baten faltan, egoera iraultzeko beste modurik ezagutzen ez dugulako».*

Planteamendua egokia dela esatearekin batera, hutsuneak ere aipatu dituzte batzuk:

*«Baina badira beste batzorde batzuk kontuan ez direnak hartu eta askoz eraginkorragoak izan zitezkeenak helburu hau lortzeko. Topaguneak antolatu beharrean beste erakunde batek antolatu izan balu, arkitektura bera erabiliko zen? 2. urte honetan herri batzordeak nahiko nekatuta, gogo gabe, izatez ere indar gabe sumatu ditugu, agian pandemiagatik, baina zaila da irudikatzea Euskaraldiaren zabalkudea eta lana herri eta auzoetan herri batzordeekin egingo dela hurrengo 10 urtetan».*

*«Horrela egin behar dela uste badut ere, prestakuntza/jarraipen zehatzagoa egitea falta dela uste dut, ez dela soilik udalerrietako batzordeen bakarrik utzi: prestakuntza, jarraipena... Badakit horrek baliabide asko eskatzen dituela, baina ariketa ondo egingo bada, beharrezkoak direla iruditzen zait. Batez ere, atzetik dagoen metodologiari hori zor diogulako».*

*«Planteamendua egokia da, baina ez du beti funtzionatu. Agian, landu behar direnak tarteko eragileak dira. Hau da, Jaurlaritza-Topagunea alde batetik, eta tokiko eragileak bestetik: hala izan da funtzionamendua. Aldundiak, eskualdeak, udalerrri handiak... erdi-galduta ibili dira organigrama horren barruan. Leku egoki bat topatu behar litzaieke».*

Herri-batzordeen planteamenduan sakontzeko, antolaketaren indarguneei zein ahulguneei buruz galdetu zaie espreski. Indargune askok bat egiten dute planteamenduaren egokitasunean erantzundakoarekin, hain zuzen, errealitate bakoitzera egokitzeko eskaintzen duen aukerarekin, betiere ahaztu gabe ariketa nazionala izateak duen indarra:

*«Bakoitzak bere errealitatera egokitzeko aukera duela. Tokiko ezaugarriak txertatu daitezkeela Euskaraldiaren ariketaren baitan. Izen berdinarekin baitan ariketa berdina egiten den arren, entitate edo herri bakoitzak bere erritmo eta errealitateari egokitzeko aukera ematen duela».*

*«Lekuan lekuko errealitatera hobeto egokitzeko aukera ematen du. Toki bakoitzean euskalgintza autoeratu berrantolatzeke balio dezake. Askotariko hiztunak elkar ezagutzeko, eta lankidetzan zein berdintasunean aritzeko aukera zabaltzen du. Tokian tokiko komunitate, talde, elkarte etabarri euskararen gaia agendan kokatzen laguntzen du, gertuko erreferente autoeratuak laguntza eta konplizitatearekin. Euskara, elkarbizitzarako hizkuntza moduan kokatzen laguntzen du».*

*«Nazionala eta tokikoa uztartzea, antolaketaren gertutasuna eta maila nazionalak ekartzen duen itzala batzea, herrietako boluntarioak eta izaera nazionalako entitateak biltzea...»*

*«Egokitzeko gaitasuna, inklusibitatea, tokiko aliantzak eta lankidetzaren indartzea, herritarrak aktibatzearen gertutasuna, ikuspegi anitzak proposamen osatuagoak egiteko, eragile asko lanean, EH osoan Euskaraldia antolatzea...»*

*«Elementu komun identifikagarri batzuk toki guztietan zabaltzea, baina aldiberean tokian tokiko aukerak baliatu edo forma ematea»*

Beste indargune batzuk ere aipatzen dituzte, baita ere: ariketa irekia dela, moldagarria; sinergiak aprobetxatzeko aukera ematen duela; edota orain arte euskara kontuetan inplikatu ez diren eragileak erakarri dituela.

*«Bakoitzak bere moduan irakurtzen duela ekimena, eta bere modura gorpuzten duela. Irekia dela transmititzen da. [...] Ekimen zabal horren aterkipean sortzen diren ekimen paraleloak ikusita. Euskaraldiaren datetara iritsi ahala, elkarte, talde, lantokietan zerbait egin nahia sortzen da, lekuan lekura egokitutako proposamenak eginez. Ate aurrean argazki masibo bat, egun horietan zerbait antolatzea».*

*«Ariketaren helburua berdina da guztiontzat. Sinergiak aprobetxatzen dira: euskarriak, formazio bideak, arguditegiak»*

*«Indargune nagusiak, tokiko eragileen ezagutzari esker, egoera jakinei erantzungo dien egitasmoa diseinatzeko aukera; beste indargune bat, herriko hainbat eragile, orain arte euskara kontuetan ibili gabekoak, aktibatze eta antolatzeko eskaintzen dituen aukerak»*

Horrez gain, informatzaile batzuk ahulguneen inguruan ere hausnartu dute. Batzuk eremuen arteko aldeetan jarri dute fokua, baita herri-batzordeen osieran eta koordinazioan ere:

*«Herri batzuetan herri batzordeak existitu ere ez dira egiten, ikustea besterik ez dago Euskaraldiko webgunearen mapa (koordinatzaile gisa Topaguneko jendea ageri da, ez herritarrak). Beharrezkoa da udalekiko koordinazioa sarritan Euskaraldia bezalako makroproiektuak aurrera ateratzeko. Euskalgintzaren sektore batek erakundeekiko duen errezeloak zaildu egiten du elkarlana sarritan. Herri batzordeen osiera hobeto adierazi beharra. Herri batzordeak bi hankez osatua egon beharko lirateke eta lankidetzaren ekonomikoaz gain, elkarlana hainbat herritan motz geratu da»*

*«Herri batzuetatik besteetarako aldeak (herri txikiak / handiak, mugimendu handia duten herriak / "herri hilak", udalaren eta eragile sozialen lankidetzaren dagoen herriak / harreman txarreko herriak...»*

*«Bietako batek huts egiten duenean Euskaraldia hankamotz gelditzen da. Adibidez, eskualde batean herri batzordea ahula bada, zer? Edo Koordinazio Orokorrak ez badu irismenik?»*

*«Koordinazio eta kudeaketa konplikatua, antolatzaileek proposamenak (mezua bera) egoki ulertzeko lan gehigarria, toki batzuetako lankidetzazailtasunak, batzorde desorekatuak kasu batzuetan (hanka soziala falta)»*

*«Lurralde batzuetan ez dagoela nahikoa baliabide Euskaraldiak eskatzen duen dinamika abian jartzeko. Euskara ulertzen ez duten lurralde zein entitateetan hutsuneak nabarmentzen direla eta horietarako mezu eta argudio sendoak falta direla oraindik. Nahiz eta ariketa ulertzen dutenentzako izan, jendarteak oraindik hau ez duela oso ondo ulertzen uste dut, ez inklusibo moduan hartu daiteke hainbat tokitan»*

*«Baliabide ekonomiko asko koordinazio orokorrak eramaten du (eta hala izan behar du). Batzuetan joera egoten da koordinazio orokorrak agindu, eta besteok aginduak bete»*

*«Nolanahi ere, gai jakin batzuetan irizpide orokor baten falta sumatu nuen bi edizioetan. Errate baterako, zenbait lekutan hirugarren rol bat sortu zuten (Bihozgoxo, Iribizi) eta horrek Euskaraldiaren ariketa izaera distortsionatu zuela iruditzen zait, baita hirugarren rolik ez zegoen tokietan ere»*

Beste batzuek adierazi dute ahulguneak baino arriskuak egon daitezkeela:

*«Erakunde publiko eta pribatu nagusiek euren burua salbuesteko arriskua, dagokien ardurari ez heltzekoa, alegia»*

*«Arriskua da barne barneko esentzia galtzea, eta horrenbeste zabaltzerakoan ahaztea garrantzitsuena, kasu honetan, hizkuntza ohiturak aldatzea zela, eta hori berriz ere esango dut zaila dela. Errazagoa da, adibidez, lantoki aurrean argazki masibo batean Euskaraldiaren alde agertzea»*

*«Ohar modura esango nuke ekidin beharko liratekeela instituzioen eta herri mugimenduen arteko gatazkak eta koordinazio ona lortu beharko litzatekeela»*

Herri batzordeen bidez, herritar norbanakoak zuzenean inplikatzeko dira Euskaraldiaren tokian tokiko antolakuntzan eta ariketaren sozializazioan. Inplikazio hori oso onuragarritzat jotzen dute, eta askok lotzen dute Euskaraldiaren arrakastarekin:

*«Onurak, guztiak eta bat gehiago»*

*«Herritarren inplikaziorik gabe Euskaraldiak nekez egingo luke aurrera. Ezinbestekoak izan dira sortu diren batzordeak hori aurrera eramateko»*

*«Jendea, oro har, zerbaiten parte egiten duzunean, proiektu edo ekimen horren parte sentitzen da eta horrek, ondorioz, inplikazio maila handiagoa ekartzen du»*

Euskaraldian herritarrak inplikatzeko eragin biderkatzailea du, izan ere:

*«Mezua zuzenagoa da. Jende gehiagorengana iritsiko da. Jendearen inplikazioa handiagoa da, prozesuaren parte denez, eragile gisa»*

*«Herritarrak aktibatzen du herritarra. Ekimenean sinisten duen eta ilusioa duen talde batek bultzatzen du Euskaraldia, hori kutsakorra izan daiteke»*

*«Herritarra ahaldundu egiten da, bere hizkuntza-praktikaren hautua bistarazi egiten da, sozializazioa ardatz duten helburu zehatz batzuk jartzen zaizkio»*

*«Ezinbestekoa da. Herritarrek beren hizkuntza ohiturak aldatuko badituzte, gaiaren inguruan motibatu egin behar dira, informatu eta horrela inplikatu ahal izango dira praktika sozial berri hauetan. Konplizitate eta masibotasuna guztiz lagungarriak dira norbanakoek hizkuntza ohiturak alda ditzaten eta iraunkor bihurtzeko»*

Eta gainera, euskararen normalizazio-prozesuan erakundeek ez ezik, herritarrek ere parte hartu behar dutela sinestarazteko balio du:

*«Herritarrak funtsezko motorra dira edozein ekimenetan, eta, beraz, baita Euskaraldian ere. Hizkuntzaren biziberritzea ezin dugu erakundeen esku bakarrik utzi. Gainera, eremu euskaldunetan, herritarrak gisa honetako egitasmo batean inplikatzeko anitz laguntzen du dena egina dagoelako ideia gainditzen»*

*«Herritarrak Euskaraldian inplikatzeko badira komunitate baten kide direla sentituko dute. Hori garrantzitsua da, izan ere horrela euskararen normalizazioaren parte aktibo sentituko dira eta bakarrik ez daudela ere. Herritarrek egiten duten lana, txikia bada ere, ikusarazi beharko litzateke»*



*«Euskararen aldeko mugimenduetan murgiltzea eta aktibatzea. Honen, euskarari berari lagungarria zaio»*

*«Edozein hizkuntza bizirauteko eta biziberritzeko gako nagusia erabilera bada, nekez lortuko ditugu hizkuntzarekiko atxikimendua handitzea eta erabilera esparruak zabaltzea herritarrek inplikatu gabe eta bere egiteko modura sentitu gabe»*

*«Bestelako hizkuntza helburu eta dinamikak sustatzeko borondatezko taldea sortzeko aukera ematen du Euskaraldiko batzordeak»*

*«Onura handiak ditu, bai erabileran pausoak emateari begira, bai herritarrek euskara indarberritzeko prozesuan eragile bihurtzeari begira»*

Inplikazioa lortzea bera, baina, zailtasun bilaka daiteke:

*«Herritarrek inplikazioa izateari ez diot inolako zailtasunik ikusten, zailtasuna da inplikazio hori lortzea»*

*«Zailtasuna da herritarren aktibazioa ez dela hain erraza, beti ez da lortzen»*

*«Besteak beste, askotariko euskaldunengana iritsi behar delako, eta ohiko konfort eremuetatik ateratzea eskatzen duelako horrek»*

Zailtasun horretatik abiatuta, arriskua da oraingoan ere «betikoak» inplikatzeko:

*«Komunitate bateko pertsonen arteko aurreiritziak, aurre-juzkuak... 'Hori badago, ni ez noa' bezalakoak. Betikoek, betikoen artean, betiko moldeetan egiteak, jende berria erakartzea eragotzi dezake»*

*«Kasu askotan gertatzen da, mugitzen diren herritarrek beti berdinak direla eta azkenean nekatzen direla. Honek, jarraikortasun bat eramateko zailtasunak suposatzen ditu»*

Horiez gain, beste hainbat zailtasun ere aipatu dira, bereziki herritarrek inplikazio horretan hezitzeari dagokionez:

*«Inplikazio hori, ordea, aztertu beharko litzateke zein intentsitate eta zenbat denboran luzatuko litzatekeen nekea eta erredura ez sortzeko, azken batean lan dezente delako.*

*Ardura guztia herritarren gain uzteak arriskuak izan ditzake, batetik, babes instituzionalik gabe zaila delako denboran irautea eta, bestetik, herri mugimenduetan mugimendu handia dagoelako eta trantsizio horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da memoria, egiteko moduak eta dinamikaren oinarriak transmititu nahi badira, behintzat»*

*«Tokian tokiko lana beharrezkoa den bezala, herritar hezi behar dira eta horretarako baliabideak eta denbora behar da. Makroproiektu honetan herritarrak mugiarazteak energia asko behar du»*

*«Inplikazioa oso neurri ezberdinetan ulertu du, ezinbestean, parte hartu duen orok. Ariketa masiboen ajea da hori. Herritar guztiok ez dugu oinarri soziolinguistiko bat; denok ez goaz Euskaraldira hausnarketa sakon bat egin ondoren. Agian, malguagoak izan behar genuke»*

*«Zailtasuna dago nola inplikatu sozializazioan: ariketa ondo azaldu, barneratu....egin behar da, eta egoera horretara ez gara oraindik heldu»*

## **F) Eragile sozial eta erakunde publikoen arteko elkarlana**

Eragile sozialen eta erakunde publikoen arteko elkarlanaren emaitza da Euskaraldia, eta proposatzen dute herri-batzordeetan ere bi hankak, instituzionala zein soziala, integratzea. «Eskaera historiko» bati erantzun dio eta erakutsi du elkarlan hori beharrezkoa eta posible dela.

*«Eskaera historiko bati erantzuten dio: lankidetzarena»*

*«Azken urteetako aldarrikapena zen elkarlan hau eta badirudi Euskaraldia izan dela horren lehen adibide garbiena, edota laborategia»*

*«Erabileraren aktibaziorako denon beharra dago, euskalgintza sozial zein instituzionalarena»*

*«Gizartearen ekimena + erakundearen ahalmena = herri garapena. Lankidetzaren publiko-soziala da daukagun energia iturri ahaltsuena, baita euskara biziberritzeko ere»*

*«Ez dut uste lankidetzaren hau gabe posible izango zenik Euskaraldia dagoen lekuan egotea»*

*«Esango nuke elkarlan hau dela Euskaraldiaren aktibo nagusietako bat; euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten sustapenean oso balio handikoa da halako elkarlan bat antolatzeke gai izatea»*

Era berean, eredu berri bati bide emateko balio izan du:

*«Markoa aldatzen du erabat. Elkarlana posiblea dela erakusten du. Eta gauza ona dela. Agerian uzten du elkarlanak ez duela esan nahi denek gauza bera esan behar dutenik, eta denak gauza bera egin behar izatea. Lanen banaketa egin daitekeela erakusten du.*

*Erakunde publikoekin elkarlanak marjinalitatek ateratzea dakar. Beti azpian eta*

*albo batean egotetik, zentroan eta duin agertzera salto handia da hori. Zentralitatea eta ikusgarritasuna nahi dugu. Garrantzitsua da hori. Euskarak gaztetxeetan egon behar du eta moketa eta protokoloz betetako saioetan ere»*

*«Elkarbizitza, elkar ulertzea, elkarrenganako aitortza irudikatzen du, gobernantza eredu berrien bidetik. Erakunde publikoen ardura eta konpromisoaren erakusgarri ere bada, neurri batean. Eremu publikoan, herri administrazioek gizarte mugimenduenganako begirunezko tratua bermatzen duten une bakanetako bat da»*

*«Alde positiboak dira ez garela zertan guztian ados egon behar baina horrek ez duela kentzen badaudela hainbat puntu elkarrekin egin ditzakegunak. Uste dut lan egiteko beste modu baterako bideak ireki dituela Euskaraldiak. Zoru komuna zein den identifikatu da eta horretan zentratu da, jakinda desberdintasunak badirela»*

*«Alde positibo moduan, komunikazio zuzena aipatuko nuke. Honelako lanetan, herritarrek, erakunde publikoekin zuzenean erlazioa egiteko eta komunikatzeko aukera handia daukate»*

Indar metaketa horri esker, gainera, Euskaraldiaren mezua ere indartsuagoa izan da eta «urrunago» iritsi da, aktibazioaren ikuspegitik, baita baliabide aldetik ere:

*«Elkarlan horrek indarra ematen dio ekimenari, eta, nire ustez, karrikako bultzada, euskalgintzarena, sekula ailegatu gabeko tokietara ailegatu da»*

*«Tokian tokiko euskalgintzaren lana Administrazioaren kontaktu eta baliabideekin uztartzea (batek iritsi ezin duen tokira besteak ailegatzeko aukera izatea), diskurtso sendo bat sortzeko abagunea eta aspaldiko errezeloak alde batera uzteko aukera»*

*«Indar metaketak, gizarte osora modu indartsuan iristeko aukerak eskaintzen ditu: baliabideak, masibotasuna, adostasun soziala irudikatzen da... Ilusioa sortzen du gizartean eta pertsona eta sektore gehiago hurbiltzen da ariketara. Erakundeen inplikazioari esker euskalgintza iristen ez den esparruetara iritsi gara, eta eragile sozialen bidez, bestela aktibatuko ez litzatekeen hainbat herritar eta eragile batu da ariketara. Oreka honetan asmatzea dago arrakastaren giltzetako bat»*

*«Bai alde batetik edo bestearekiko kritikoagoak direnak erakartzen dituzula, euskararen mesedetan. Alderdi biak elkartuta, publiko gehiagora heltzen da Euskaraldia. Gainera, ikuspegi ezberdinak batuz, emaitza interesgarriagoa eta egingarriagoa izaten da»*

*«Indar metaketaren ondoriozko eragin handiagoa gizartean: baliabide gehiago herritarrek aktibatuz. Eragile bakoitzak gizarteko zati bat mugiarazteko gaitasuna dauka, baita horretarako baliabideak ere. Eragile sozialek lortu ezin dutena lortzen dute erakunde publikoek, eta alderantziz. Ekimen beraren baitan lortzen da indar biderkatzaile hau. Euskararen sustapenerako ezagutza metatzen da norabide berean*

*aritzeko. Gizarteari mezu berritzaile eta baikorra heltzen zaio. Herritar askorentzat motibagarria da hau ikustea, elkarlana dagoela, adostasuna, lehiarik gabe. Bakoitzak bere funtziotik eta ahalmenetik eragiten du, azken finean»*

*«Baliabideen batzeak onura handia ekarri dio dinamikari, bakoitza bere aldetik joan beharrean indarrak eta bitartekoak batuta askoz ere eraginkorragoa delako transmititu eta lortu nahi dena»*

Bi eragileen arteko lankidetzak modu desorekatuan garatzea da eredu berri honek izan dezakeen arrisku bat, edo behintzat, modu orekatuan garatzea zaila izan daiteke:

*«Lankidetzak desorekatua eta menpekotasunezkoa izatea. Hori ekiditeko, elkarri funtzioak aitortu eta berauek zehaztu behar dira»*

*«Erakunde publikoek duten baliabide indarragatik, desorekak sortzea eta instituzionaleria izatea. Lankidetzak baino, zerbitzu harremana bihurtzeko arriskua dago. Diruari erreparatuta, gizarte eragileen menpekotasuna erakunde publikoekiko. Kasu batzuetan erakundeek erabakitzen dute, alde bakarretik, noiz jarri martxan ekimena bultzatzeko baliabideak (dinamizatzailearentzako eta ekintzak antolatzen aurrekontua, esaterako). Erakunde publikoetan aldaketak egotea eta orain artekoa arriskuan jartzea. Agerraldietan eta komunikazio euskarrietan instituzioek pisu eta leku handiagoa (handiegia) hartzeko arriskua»*

*«Ez ote dute erakunde publikoek erabakietan botere gehiegi? Herri dinamika bat bere osotasunean kontrolatu nahi izateak kalteak ekarri diezazkioke ekimenari»*

*«Alde negatiboetan aipatuko nuke halako elkarlan bat modu orekatuan edo sanoan garatzearen zailtasuna. Exigentea da bi aldeentzat. Herri ekimenaren aldetik, eskatzen du eraginkortasuna, antolatzen gaitasun handia eta tokian toki inplikazioak zaindu eta antolatzen gaitasuna. Erakunde publikoen aldetik, berriz, eskatzen du errespetua eta aitortza erreala (ez hitzekoa soilik) herri ekimen bidez antolatutakoari»*

*«Nork bere soka tenkatzeko nahia, aspaldiko errezeloetan erortzeko inertzia eta ariketa gizarteratzeko hanka bien erritmo ezberdinek sor ditzaketen desadostasunak»*

*«Elkarlana aipatzen da baina erakundeetara iristen dena itxita iristen den proposamena da, bai zer den egitekoa, bai noiz egingo den bai nola egingo den. Elkarlana izatekotan lehenengoko urratsak ere eman beharko lirateke. Ulertzekoa da honelako ekimenak bere gabeziak ere badirela hartzaile ugariengana eta lurralde ezberdinetan garatzen dela, baina saiatu beharko litzateke»*

Euskaraldia babesten duten zenbait erakunde publikoen «praktika inkoherenteak» ere aipatu dituzte, beste hainbatek:

*«Arrisku bat da, Euskaraldia babesten duten erakunde batzuek, praktika inkoherenteak erakustea, eta gizarteak (euskaltzaleek, batez ere), propaganda gisa erabiltzen dela ulertzea»*

*«Erakunde publikoen, eta hauen buruetan dauden arduradun politikoen inkoherentziak salatzeke eta ebidentziatzeko aukera anulatzen die gizarte mugimenduei. Eskularru zuriko zentsura molde bat da, isiltasuna erosten ariko balira bezala»*

*«Beti du arriskua: batez ere eragile publikoen aldetik, nolabait, "erabiltzea". Lehenago esandakoa, inkoherentzia nabarmenak ikusi ditugu (Euskaraldiarekin bat egin, baina egunerokoak hizkuntza urraketa asko ematea)»*

*«Erakunde publikoen aldetik eredugarritasuna edo koherentzia ere eskatzen du, ekimenak sinesgarritasunik izango badu»*

*«Hala eta guztiz ere, iruditzen zait zenbait erakundek eta ordezkari publikok ez dutela behar bertzeke seriotasunarekin hartu ariketa, ezta haren ondorioak ere. Are gehiago, agintari batzuen jarrerak ariketaren funtsa desitxuratzen lagundu du».*

Erakunde publikoek protagonismo «handiegia» hartzea aipatu dute batzuk, baina batek dio Nafarroaren ikuspegitik horrek eragin positiboa ekar lezakeela:

*«Erakunde publikoek protagonismo handiegia har dezakete. Eta hein handi batean haien aurpegi zuriketarako instrumentalizatzea. Hala ere, herrialde osoa hartu behar da kontutan eta abiada eta egoera ezberdinak hartu behar dira kontutan. Nafarroako ikuspegitik erakunde publikoek euskararen aldeko kanpaina batean protagonismoa hartzea edo zuriketarako baliatzera iritsiko balira (eta ez dut uste hori gertatzen ari denik), oso seinale ona litzateke»*

## G) Euskaraldiaren izaeraz eta etorkizunaz

Elkarlan desorekatu batetik, badago Euskaraldia instituzionalizatu egia dagoela dioenik. Iritzi hori bera badute parte-hartzaile batzuk ere. Dena den, informatzaileen artean ez da orokortua:

*«Ez nuke erranen, oro har, egitasmoa instituzional egia dagoenik, baina egia da Euskaraldia euskalgintzak azken urteetan izandako bilakaeraren ispilu dela: euskalgintza instituzionalizatuz eta profesionalizatuz (elkarteetako liberatuak, dinamizatzaileak...) joan den heinean, euskalgintzarekin loturiko egitasmoek izaera herrikoa galdu dute, neurri batean»*

*«Aitzitik, ez dagoela nahikoa instituzionalizatua esango nuke, instituzioei oso modu axalekoan / epidermikoan / profilaktikoan eragiten dielako. Erakunde nagusiek ez dute zehar-lerro bezala barneratzen, kanpaina bat gehiago bezala kudeatzen dute. Eta gainera, erakundeena den ardura zatia ere herritarren bizkar uzteko profitatzen dute»*

*«Badakit Euskaraldia instituzionalizatu egia ikusten dutenak egon daitezkeela, baina ni ez nago guztiz ados horrekin. Bai, egia da instituzioek parte hartzen dutela, baina baliabide asko ere jartzen dituzte. Eta, nire ustez, elkarlan sendoa dago atzetik, eta merezi du elkarlan horrek jarraitzea; batez ere, euskararen mesedetan izango delako»*

*«Ez nago ados ikuspegi horrekin. Uste dut arazoa beste bat dela, uste dut arazoa datzala erakunde batzuk ari direlako erabiltzen (edo erabili nahian) Euskaraldia urtean zehar egiten (ez) dutena zurrizko. Baina horrek ez du zerikusirik instituzionalizatu egia egotearekin»*

*«Batzuek hori uste dute, baina beste batzuek errazago parte hartzen dute horri esker. Denetarik dago. Nik uste dut bi aldeak indartu behar direla, bien arteko elkarlana goraiatu. Euskarak denon inplikazioa behar du eta Euskaraldiak bide ematen du horretarako»*

Batzuk ordezkari instituzionalen presentzia nabarmenagoarekin lotu dute ikusmolde hori, eta hainbatek diote pandemia garaian areagotu egin dela pertzepzio hori:

*«Eremu batzuetan izan daiteke arrisku hori, bai: Euskaraldia berotzeko aurreko egunetan, adibidez, eguna joan eta eguna etorri ikusten ditugu hedabideetan arduradun politikoak argazkietan, bideoetan, adierazpenetan... Horrek eman dezake goitik beherako itxura bat: agintariak, herritarrei esaten zer egin behar duten hizkuntzaren erabilerari dagokionez. Eremu batzuetan horrek ekar dezake atzera egite moduko bat, edo aurkakotasun jarrera bat elikatu»*

«Azken Euskaraldi horri kutsu hori hartu diot. Telebistan, komunikabideetan eragile publiko asko agertu izan dira bat egiten, gehiegi agian. Horrek ekar dezakeen ikuspegia da, "ale, beste kanpaina bat" edo "horiek txapa jarri bai, baina gero...". Koherentzia falta, askotan»

«Pandemia garaian, ordezkari instituzionalen presentzia nabarmenagoa izan da, hainbat kasutan. Horrek ekar dezake, sektore euskaltzale jakin batzuetan irudi instituzionalegia eranstea Euskaraldiari, eta batzuk atzera egitea. Zaindu beharreko kontua da»

«Bigarren edizioan agian lar instituzionala izan da. Pandemiaren eraginagatik ia ez gara kalean egon, eta kalean neurri handi batean eragile sozialak egoten gara. Horretaz gain, uste dut instituzio batzuen aldetik joera egoten dela lehen lerroan agertzeko, eta horren desitxuratzen du edozein ekimen. Ez dut uste eragin handirik duenik, baina bada zaindu beharreko kontua, inor kanpoan ez uzteko»

«Aurten COVID-19aren ondorioz gizarte eragileen ohiko dinamika batzuk ezin izan dira egin (herritarrek plazan batzea, esaterako), eta egin ahal izan direnetan presentzia gehiago hartu dute erakunde publikoek. Honek herritar batzuen desmotibazioa edo mesfidantza eragin ditzake, eta hala adierazi dute zenbait iritzi artikulua eta sare sozialetako komentarioetan. Ekimenerako arriskutsua da, beraz, Euskaraldiaren indargune bat itzalean geratzen delako. Hurrengo edizioan orekak berriz lortzea bilatu behar dugu. Antolaketa eta norabidea zehaztean ez dut uste instituzionalizatu egi dagoenik, baina herritarrek kanpotik ikusten dutenak pisu handia du, azken finean»

Ikuspuntu hori eragileen arteko mesfidantzarekin edo inertziekin lotzen dutenak ere badaude:

«Baita kaletartuegi dagoela uste dutenak ere, baina galdera hori ez da sartu galdetegian. Lehen aipatu bezala, euskalgintza sozialaren parte baten errezeloak beti egon dira hor eta beti egongo dira, baina euskararen erabilera gizarteratze bidean horrelako ikusmoldeak pixkanaka atzean utzi behar ditugu. Ala sektore horrek erakarriko ditu El Corte Inglés eta BBVA euskararen erabilerara? Ikusmolde horrek noski eragina duela, baina egon badaude elkarlana begi onez hartu dutenak. Gainera, ez dezagun ahaztu azken edizioa pandemia betearen eman dela, eta horrek politikarien ikusgarritasuna handitu eta herritarrena txikitu duela, baina lehenengo edizioan ez zen horrelakorik izan»

«Aurreko puntuan aipatzen nuen hori, baina uste dut mesfidantza horrekin duela zerikusia. Ez bada antolakuntzan eta komunikazioan asmatzen parte-hartzea jaitziko litzateke»

«Oraindik badaude tentsioak eta tentazioak, gure lankidetzazko kultura hastapenetan dagoelako. Baina Euskaraldia ondo bideratuta dago, eta norabideari eutsi egin behar zaio»

*«Uste dut ikuspegi murrizta dela hori. Ulertzen dut beldur bat egon daitekeela instituzionalizatzeko, finean herri mugimenduetatik sortu diren hainbat ekimen eta mugimendu "kontrolatu" eta instituzionalizatu direlako erakunde publikoen partetik. Horrez gain, uste dut, herri mugimendu eta herri ekimenekiko aitortza handia falta da instituzioen partetik eta horrek eragina du ikusmolde hori dutenengan»*

Horrez gain, oraindik ere bada Euskaraldia kanpaina moduan ikusten duen parte-hartzailerik. Urteetako inertziari egozten diote hori informatzaile gehienek, eta diote ikuspegi hori aldatzea dela datozen urteetako erronketako bat. Batzuk diote komunikazioari heldu behar zaiola ikusmolde hori aldatzeko; beste batzuren ustez, aldiz, Euskaraldiak jarraipena behar du:

*«Arrisku hori hasieratik dago, eta neurri batean hori gertatzen da orain arteko euskararen aldeko gure kanpainak horrelakoak izan direlako, normala da jendeari txipa aldaketa kostatzea. Aurrera begira ere egon badago arrisku hori, baina komunikazio eraginkorrako baten bidez irauli behar da eta irauli daiteke. Euskaraldiaren komunikazio adarrak asko du hobetzeko»*

*«Ikuspegi hau aldaraztea oso garrantzitsua da. Asko insistitu behar da honetan, Euskal Herrian, guztiz ohituta gaudelako euskararen aldeko kanpainetara. Euskaraldia formatu berritzailea eta masiboa da eta kosta egingo da hainbat inertzia sozial aldaraztea, baina ezinbestekoa da, ariketa sozial gisa bere emaitzak izan ditzan»*

*«Normala da, neurri batean, horrela ikustea: horrelako dinamika eta ekintzetara ohituago gaude, aktibazio ariketa praktikoetara baino. Burua horretara joatea ulergarria da. Pedagogia egiten jarraitu beharko dugu Euskaraldia zer den eta zer ez den adierazi eta herritarrek barnera dezaten. Horretarako, baina, arduradun eta eragile publikoek (erakunde publikoetakoa, enpresetakoak, bestelako pertsona erreferenteak, kazetariak neurri batean...) barneratu behar dute lehenik, herritarrak ez nahasteko. Kasu batzuetan ez dugu lortu oraindik (ez diot hala denik beti)»*

*«Ariketaren oinarriak ondo azaldu behar dira, udalerrietako herri-batzorde guztiek modu egokian uler ditzaten. Baita erakundeetan ere: ikastetxe, lantoki, administrazio...»*

*«Bai, nik uste dut mamu handi bat dugula hori eta oso kaltegarria Euskaraldiaren helburuak lortzeko. Hasiara eta bukaera duen ekimen edo kanpaina bat izatea nahi ez badugu, askoz gehiago landu behar ditugu edizio batetik bestera jarraipena emateko mekanismoak, nahiz eta intentsitatea eta egiteko moduak aldatu»*

*«Berez ariketa da, baina nahi gabe kanpaina bihurtzen da, euskararekin egiten den gauza oro bezala. Nik ez dut gaizki ikusten kanpaina ere izatea, nolobait. Ariketa epe jakin batean denez, normala da kanpaina bihurtzea, propaganda, zabalpena, marketina eta abar egiten delako denbora jakin horretarako»*



Euskaraldiaren bi edizioak testuinguru ezberdin bezain berezietan burutu dira: lehenak nobedade-kutsua izan zuen, berritasunarena; eta bigarrena, aldiz, COVID-19aren pandemiak zuzen-zuzenean kolpatu du. 2020ko edizioa lehen edizioarekin alderatzean, testuinguru bata edo bestea nabarmentzen dute gehienek:

*«Batetik, Euskaraldiaz kanpoko faktoreek eragin dute nabarmen: pandemia erdian egin da ariketa, kaleko jarduna mugatuta zegoela, harreman sozialak oso murriztuta zeudela, eta horrek, nahitaez, aldaketa handia ekarri du lehen aldiaren aldean. Bestetik, Euskaraldiak berak ere izan du aldaketa: ez du izan lehen aldiaren berritasuna, nobedadeak dakarren distira, nahiz eta lortu duen hedapena, batik bat garai zailetan motibazioko ariketa bat izan delako»*

*«Pandemiak eragin dituenak batez ere: ikusgarritasuna eta presentzia soziala galdu egin dira, ezin izan da pedagogia soziala behar bezala egin, Herri Batzordeen lana ahuldu egin da, ariguneen inguruko lanketa asko zaildu da eta ezin izan da ez behar bezala azaldu, ez behar bezalako irismena lortu...»*

*«Covid19a, nagusiki. Zaila da neurtzen pandemia gabe zein aldaketa izango ziren lehen ediziotik bigarrenera, susmoekin ari gara ebidentziekin baino gehiago [...]. Baina euskaraz bizitzeko eta urratsak emateko herri gogoia dagoela agerian utzi dute milaka herritarrek, baldintza zailetan ere eman baitute izena»*

*«Alderatzea tranpa egitea da. Gizartea egoera ezohiko batean egon da, bizitza soziala goitik behera astindu duen zerbait gertatu da. 2018an eta 2020an ez dugu abiapuntu bera izan, bi mundu ezberdinetatik abiatzea bezala izan da»*

*«2018ko Euskarladiak ilusio handia piztu zuen. Bigarrenak, ez (ez dut uste COVIDa bakarrik izan zenik)»*

*«Bai, oraingoan gehiago kostatu dela uste dut. Lehen edizioan berritzailea zen, oraingoan ezagutzen zen eta egon badira batzuk ez dutenak parte hartu nahi izan ez dutelako. Gainera, osasun egoerak ez du lagundu, euskaraldiaren oinarrietako bat partekatzea da eta herri askotan, ezin izan dira ekintza edo espazioak antolatu hau aurrera eramanez ahal izateko»*

2020ko edizioa egitea bera arrakastatzat hartu dute batzuk, baina ez zela egin behar ere esan dute:

*«Ez dira konparagarriak. 2020ko edizioa egin izana 2018ko baino garrantzitsuagoa izan da. Ez emaitzetan edo eraginetan, baizik eta irudi kolektiboan egin dela transmititzea eta hurrengo bat egingo dela transmititzea.  
3 edizio behar dira zerbait finkatzeko. Eta hor hasi behar dira aldaketak. Euskaraldiak 3 edizio bat behar du, berdin. Ezaugarri berberekin. Eta orduan atera konklusioak, orain ez dugu konparatzerik...  
Baina bi edizioek badute ezaugarri komun bat: egin, egin zirela. Hori garaipen handia da. Batez ere 2020ko edizioan. Korrika ezin izan da egin aurten...zergatik? ezin zen egokitu? beste modu batera ezin zen planteatu? Euskaraldia egin izana aurrera pausu itzela izan zen, eta adibide moduan, azterketa hau ari gara egiten etorkizuneko Euskaraldia diseinatzeke. Badugu nondik heldu, zeri begiratu. Aurrerapauso itzela da hori»*

*«Pandemia. Ezin da konparaziorik egin, nire ustez bertan behera geratu balitz askoz hobeto.  
Presaka doan ekimena da eta ez dakit noren errua den, hiztunona behintzat ez, laborategi batean gaudela onartuta, urratsak lasaiago egitea dagokigula uste dut, 2018ko ekimenak bere horretan jarraitu behar zuen beste tarte batez, ariguneetan sartu baino lehenago, aldaketak arian-arian egin behar ditugu eta aukerarik ez badago, 2020an gertatu den moduan, bertan behera utzi, doitu edo dena delakoa, baina beldurrik ez eduki atzera egiteko, bestela EUSKARALDIA bere erreko da»*

Euskaraldiaren etorkizunaz galdetuta, baikortasuna da nagusi: ariketak ibilbide oparoa du. Dena den, aldaketa handiak ez egiteko eta eritimoa lasaitzeko eskatzen dute askok.

*«Ibilbide oparoa du aurretik, baina funtsezkoa da denbora ematea, azeleragailua tenkatzeko tentazioak alde batera utzita. Euskaltzaleen abiadura ez doa herritar guztien eritimo berean eta hau baloratu egin behar da»*

*«3. edizioarekin finkatzea tokatzen da.  
Pandemiatik aterako garen urtean izanen da. Beraz disfruta dezagun. 3 Euskaraldik eta 6 urteko lanak emango digute nahiko perspektiba ondorio batzuk ateratzeko. Ez nukeela aldaketa handirik egingo. Finkatu egin dena: udazkena, bi rolak, ariguneak. 2022 (22 egunekoa), 2024 (24 egunekoa) eta 2026 (hilabete osoa), eta urte horiek hurrengo saltoa prestatzen joateko baliatu. 2026tik aurrera, udaberrian ere?»*

*«Euskaraldia oraindik indartsu ikusten dut, eta eragiteko aukera askorekin. Baina, ez nituzke aldaera/aldaketa berriak sartuko. 2020ko ahobizi, belarriprest eta, agian, ariguneekin errepikatuko nuke; baina, metodologiaren berri emanez. Hau da, Euskal Herriko txoko guztietan ondo uler dadin ariketa»*

*«Uste dut oinarrira itzuli beharko litzatekeela, baina ez duela egingo (eta ez dakit hori arrazoitzen)»*

*«Ba guk (sustatzaile, antolatzaile, laguntzaile...) nahi dugun ibilbidea izango du. Nire ustez bigarren euskaraldia kontu "pilotu" moduan hartu behar da. Pandemiak asko baldintzatu du, eta zalantza asko ditut bi aldiz egin eta gero ondorio garbiak atera daitezkeenik.*

*Ekimen batek denbora behar du ulertzeko finkatzeko, are gehiago Euskaraldiaren tankerako ekimen batek»*

*«Hiru kontzeptu atera dira (ahobizi, belarriprest eta arigune) eta horiek indartu behar dira. Agian, sektorekako kanpaina bereziak egin behar dira, indarrak fragmentatu. Alegia, Euskal Herri osorako ariketa proposatu, baina indar berezia jarri alor edo sektore batean»*

Ariketaren osasuna jarraikortasunarekin lotzen dute batzuk, Euskaraldien arteko jarduerarekin:

*«Ekimena osasuntsu mantentzeko behar diren osagai ugariak jartzen jarraitzen bada, nik uste errotu daitekeela euskal gizartean, 2 urtez behingo ekimen gisa. Hala ere, hizkuntzaren erabilera aldetik pisuzko eraginik izatekotan, garrantzia hartu behar du Euskaraldi batetik besterako tartea. Hau da, hamar egun horiek, egun berezi batzuk, balio behar dute gauzak aktibatzeke, zalantzan jartzeko, gonbitea egiteko, lehen proba egiteko..., baina baloreen jarri behar dena gero da Euskaraldi baten harira abiatu eta gero jarraitu duten prozesuak. Halakoei egin behar zaie segida eta ikusgarritasun soziala eman. Bai maila pertsonalean eta are gehiago lan munduan: bi urtez behingoa bultzada berri bat, baina balioko duena pauso berriak martxan jartzeko, eta neurtzeko 2 urte lehenagokotik erabileran zertan eta zenbat egin den aurrera (egin bada), zer izan den horretan lagungarri, nolako errefortzuak behar diren, zein lorpen diren besteei zabaldu beharrekoak eta abar»*

*«Baina Euskaraldiak beharko ditu bestelako ekimenak ere, tarteko garaietan praktika linguistiko berriak indartzen eta hedatzen jarraitzeko»*

*«Hizkuntza-ohituren aldaketa modu praktikoan gauzatu ahal izateko aukera masibo eta mugatu izaten jarraitu behar du, baina aldaketa horiek iraunarazteko mekanismoak finkatzeko estrategia berriak garatu behar ditu, bai norbanakoan mailan (bestelako ariketa konketuagoak proposatuz eta mezua beste jarduera eta ekintza batzuetara zabalduz), eta baita erakunde eta eragileen mailan (plangintza orokorrak sustatuz edo ariketa plangintzetan txertatuz)»*

Berrikuntzarako edo erronka berrietarako tartea ere izan behar dela esan dute:

*«Jorratu nahi duen lan ildo ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere, erabilerak aurrera egin dezan eragin beharreko arlo nagusietako bat baita hizkuntza ohiturena. Aldi berean, eragiten zailenetakoa ere bai. Alde horretatik, euskararen indarberritzeak badu Euskaraldiaren premia, eta uste dut datozen urteetan ere izango direla Euskaraldiak. Besterik da zer berrikuntza txertatu beharko diren aldian-aldian, ez dezan bi urtean behingo kanpaina baten itxura hartu»*

*«Ireki eta berriztu beharko da. Espazio berriak sortu beharko dira, baina ulertzen errazagoak. Umeei lekua egin behar diegu, ez erdigunean jarritz baina bai leku bat guzti honetan»*

*«Bide luzea aurreikusten diot. Beti ere, unean uneko testuingurura egokitzen asmatzen badu, eta ausardiaz jokatzeko badu, segurtasuna transmititu bitartean (ez dira erronka errazak, badakit)»*

*«Euskaraldia osasuntsu ikusten dut eta epe luzerako proiektzioa ikusten diot. Nik espero dut edizioz edizio erronka berriak izatea eta ekimena erreferente garrantzitsu bat izatea gure hizkuntzaren berreskurapenean»*

Era berean, batek ohartarazi du herri-batzordeak bereziki zaindu behar direla, batik bat, lan-boluntarioan oinarritzen direlako eta horrek ere baduelako eragina Euskaraldiaren etorkizunean:

*«Hasi berritan dagoen ekimena da, ilusioa piztu duena, zaila aurrera eramaten, eta zaila kudeatzen, arriskua dago ekimena erretzea hastapenetan, parte hartzaile askoren ahalegina, isila gehienetan, ezinbestekoa delako, askoren lan boluntarioan ezinbestez oinarritzen delako. Horregatik, Euskaraldia urtez urte egiteko ekimena ez da, errutina batean amai dezakeelako eta kanpaina bihurtu. Zaindu herrietan, auzoetan Herri batzordeetan modu boluntarioan aritzen direnak, erakundeetan kudeaketan aritzen diren euskara teknikariak, hauek gabe zail izango da eta Euskaraldiak arrakasta izatea eta 20 urte barru udaberrian edo Euskararen egunean praktika soziala egiteko aukera izatea»*

Euskaraldiaren mesedetan, informatzaileei galdetu zaie ea zer eskatuko lieketen sustatzaile nagusiei: Euskaltzaleen Topaguneari zein Eusko Jaurlaritzari edo Nafarroako Gobernuari. Elkarlanari eusteko eskatzen diete, bereziki, bi eragileei:

«Herritarrak<>Erakundeak elkarlanarekin jarraitzea eta saiakerak egitea periferian gelditzen diren eskualdeetara iristeko. Momentua baliatzea euskararen aldeko jarreretan adostasunak bilatzeko eta aurrerapausoak emateko legedian, politiketan, ilusioan...»

«Guztioi eskaera: koherentzia, apaltasun ariketa, bakoitzak bere jardunaren ardura hartzea, apaltasun ariketa eginda, berdintasunaren etika erdigunean jarrita jardutea eta elkarrenganako zaintza»

«Laburtuta, lankidetzan jarraitzea (elkar kontuan hartzen jarraituta eta aitortuta) eta bakoitzak ere funtzio eta erantzukizunen arabera jokatzea»

«Elkarrekiko mesfidantzarik, lidergo-borrokarik edo konfrontazio interesaturik baldin badago, mesedez, alde batera uztea. Ez dute ezertarako balio, eta inork ez du onurarik ateratzen»

«Proiektuarekin ilusioz aurrera jarraitzeko, lehenik. Bestetik, herri ekimenaren eta erakunde publikoen arteko orekari eustea, bakoitzari dagokion kontuetan. Azkenik, eskatuko nieke sozialki ekimen hau euskararengandik gertuen dagoen jendetik haratago eramateko bide berriak urratzeko»

«Ez dezatela zatia osotasun gisa hartu. Euskaraldiak ekarri du ilusio berria, lan egiteko molde berria, aurrera egiteko bide berria, baina ez ditu euskararen indarberritze prozesuaren lan ildo guztiak estali behar»

«Pentsatzeko hitzunenengan, pentsatzeko herri batzordeetan dabilen jendearengan, ez Euskaraldiaren arrakastan, ez edukitzeko presarik, doitzeko egitekoak. Hizkuntza ohiturak aldatzeko modu pertsonalean eskatzen ari gara alde batetik baina bestetik, Komunitate moduan funtzionatzeko, herri gisa...»

Euskaltzaleen Topaguneari ere egin dizkiete eskaerak. Horiek bi norabidetan doaz, bereziki: herritarren aktibazioari eta elkarlanari loturikoak batzuk; eta rolen ingurukoak, besteak.

«Topaguneari, Herri Batzordeen dinamizazioari eustea eta Euskaraldirik gabeko urteetan ere, aktibazio sozialerako aukerak eskaintzea»

«Topaguneari: herrietako antolamendu arin eta eraginkorra sustatu dezala, Euskaraldirik Euskaraldira etenik egon ez dadin»

«Topaguneari dagokionez, euskalgintzako eragile denez, jarraitu behar du akuilu lana egiten, bai beste eragile nazionalekin elkarlanean bai euskara elkarleen sarearen bidez, euskara sustatzeko politikak bultzatzen eta herritarrak aktibatzen»

*«Topaguneari: Gizarteratzen jarraitzeko, herriz herri euskaldunak antolatzea, zaila dela, baina estrategikoa dela. Horrek gero emaitzak eta fruituak ematen dituelako»*

*«Topaguneari, bada, ez pentsatzea sortzen den herri batzorde bakoitzetik euskara elkarte bat sortuko dela»*

*«Topaguneari hiru kontu: batetik, erritmoa jaitsi dezala AB, BP eta arigune figurak egonkortu arte; bigarrenik, sektore uzkurak bere alde lerratu ditzala, badu horretarako potentzialik eta; hirugarrenik, komunikazioan badu hobetzekorik, batik bat rola gizarteratzeko estrategiei begira»*

*«Euskaltzaleen Topaguneari eskatu nahi nioke rolen inguruko gogoeta abiatu dezan, ariketaren izaera praktikoa berreskuratzeko»*

Era berean, erakunde publikoei, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari baliabideak bideratzen eta euskara sustatzen jarraitzeko eskatu diete, baita Euskaraldiarekiko konpromisoari eusteko eta eredugarri izateko ere.

*«EJ, Nafarroako Gobernua, Elkargoa eta EEPri: bestelako sailekin aliantzak indartzea euskararen eta Euskaraldiaren sustapena zehar-lerrokoagoa izan dadin; bestelako erakunde publikoen eredu eta lider izan daitezela Euskaraldiaren sustapenean eta lankidetzan eremuan; baliabideei eustea lan jarraia egin ahal izateko»*

*«Erakundeei laguntzen jarraitzeko. Kontziente izateko abiada eta erritmo ezberdina daudela eta horrekin jolastu behar dugula. Ez baita berdina Arrasate edo Tutera baina biak ala biak zaindu behar ditugu»*

*«Gobernuei eskatuko nieke: baliabideak jartzeko, uzteko egiten, eta koherenteak izatea»*

*«Gobernuei dagokienez, herritarrei hizkuntza ohiturak astintzeko eskatzearekin batera, bideak jarri behar dituzte eskubideak bermatzeko eta sustapena neurri eraginkorren bidez egiteko»*

*«Gobernuei: apustuari eutsi diezaiotela, baliabideak handituz, konpromiso instituzionala hedatuz eta tentazioetan erori gabe»*

*«Administrazioei laguntzen jarraitzea ekimen hau zein euskara sustatzeko bestelako ekimenak. Eta Nafarroako kasuan, bada, oraindik laguntza gehiago ematea euskararen arlo guztiei»*

*«Jaurlaritzari: goi-karguen eredugarritasuna hobeto lantzea, AB eta BP figurak ondo gizarteratu daitezen»*

*«Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari, Euskaraldiaren dimentsioa ulertaraztea administrazioko atal guztietan kanpaina bihur ez dadin, baliabideei eustea, Euskaraldirik gabeko urtean ere lanketarekin jarraitzeko baliabideak esleitzea eta Euskaraldiaren esperientzia nazioartean ezagutaraztea»*

*«Gobernu horietako ordezkariet, berriz, egitasmoarekiko egiazko konpromisoa eskatuko nieke. Jendearen eredu diren neurrian, euskararen alde inplikatu behar dute praktikan, eta ez diskurtsoetan bakarrik»*



# 7.

## Ondorioak



## 7.1. NORBANAKOAK

### A) PARTE-HARTZEA.

- **2018an baino parte-hartzaile gutxiago.** Euskal Herri osoan, denera, 178.184 norbanakok parte hartu dute Euskaraldiaren bigarren edizioan; 2018an baino ia 47.000 gutxiago. Nafarroan jaitsi da gutxien izen-emate kopurua; Iparraldean, aldiz, gehien. Rolaren arabera, ahobizien % 16,1 gutxiago izan dira, eta belarripresten herena gutxiago. Dena den, erakartzen ere jakin du: bostetik batek lehen aldiz eman du izena Euskaraldian EAEn eta Nafarroan; belarripresten artean, lehen aldiz izena eman dutenak gehiago izan dira.
- **Ahobiziak belarriprestek baino gehiago.** Ahobizien nagusitasuna berretsi bakarrik ez, handitu ere egin da bigarren edizioan. Proporzioan gehiago izan dira lurralde guztietan, baina bereziki Gipuzkoan, ariketak indar handiena duen probintzian. Gipuzkoa da ahobizi gehien ematen dituen lurraldea; Arabak eta Bizkaiak ekarpen handiagoa egiten diote belarriprestei.
- **30-44 urteko emakumea, profil nagusia.** 30 eta 44 urte bitarteko emakumezkoak dira profil nagusia Euskaraldian – 2020koan, baina 2018koan, indar handiagoarekin –. Hala ere, gazteagoen pisua esanguratsua da, bereziki, adin horietan hizkuntza-gaitasuna altuagoa den lekuetan: Iparraldeko, Nafarroako eta Arabako hainbat eskualdetan, hain zuzen. Oro har, emakumezkoen eta gizonezkoen aldeak txikiagoak dira 60 urtetik gora. Bestalde, Nafarroan nabarmena da gazteenen artean emakumezkoak bikoitza direla.
- **Gipuzkoan eta Nafarroan, arrakasta gehien.** Unibertso potentzialarekiko kalkulatuta, Gipuzkoa eta Nafarroa dira izena eman dezaketen euskaldun eta ia euskaldunen artean arrakasta-maila handiena dutenak – izena eman zezaketenen ehunekoa bertan izan da altuena –, eta Euskal Herriko datuen ginetik daudenak, generoaren arabera eta adin-tarteka – Nafarroak 65 urtetik gorakoen datu orokorra ez du gainditzen -. Gipuzkoako herri euskaldunek, eta Nafarroan, Iruñerriak eragin handia dutela ondoriozta daiteke.
- **Inguru euskaldunenetan, ahobizi gehiago.** Gero eta euskaldunagoa, orduan eta ahobiziagoa da norbanakoa. Ez bakarrik lurralde ikuspegitik, gune soziolinguistikoari dagokionez ere bai: zenbat eta herri euskaldunagoa, orduan eta altuagoa da ahobizien proportzioa. Baita adinari dagokionean ere: adinean gora egin ahala, gaitasuna jaitsi egiten da, eta belarripresten proportzioa ere gora doa; edo beste modu batera esanda, gero eta gazteagoa, euskaldunagoa eta beraz, ahobiziagoa.
- **Belarriprestek, bereziki, hiriguneetatik.** Bitarteko hiriguneetatik, eta bereziki, Gipuzkoako herrietatik edaten du, batez ere, ahobizien kopuru osoak. Belarripresten kopuruari, aldiz, hiriguneak eta Arabak eta Bizkaiak egiten diote ekarpen handiena. Hain zuzen, 2018arekin alderatuta, horietan aktibatu dira gutxiago 2020an: hiriburuan eta Araban.

- **Euskararen erabilera handitzea, helburu.** Hamar parte-hartzailetik bederatzik diote euskararen erabilera handitzea dela izena emateko arrazoi nagusia, eta ildo horretatik, gehien bultzatzen ditu kalean euskara gehiago entzun eta euskaraz bizi nahi izateak. Belarripresten kasuan, euren erabilera mugatuagoa dagoelako, seguraski, euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzeak eta inguruko euskaldunak zein diren jakiteak pisu handia dute: euskara norekin eta zein tokitan hitz egin dezaketen jakin nahi dute.

## B) ROLAK HAUTATZEA.

- **Hizkuntza-gaitasuna, oraindik presente.** Rolak hizkuntza-jokabideekin lotzeko saiakera berezia egin da 2020ko Euskaraldian, baina askok oraindik presente dute hizkuntza-gaitasunarena. EAEn eta Nafarroan, ahobizi rola hautatu dutenen ia % 99ek ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute euskaraz. Belarripresten kasuan, aldiz, ehunekoak asko jaisten dira: EAEn bi herenek ongi edo nahiko ongi hitz egiten du, eta Nafarroan, aldiz, erdiek baino gutxiagok.

Gainera, ahobizi rola hautatzeko joera handiagoa dute euskal elebidunek eta lehen hizkuntza euskara dutenek, eta gaztelania dute lehen hizkuntza belarripresten gehiengoak – EAEn bi heren dira, eta Nafarroan hiru laurdenetik gertuago daude -. Hortaz, joera oraindik ere hor dago: euskaraz ongi moldatzen denak ahobizi rola hartzen du; eta zailtasun gehiago duena, aldiz, belarriprest da.

Dena den, badirudi hainbat tokitan hizkuntza-jokabidea ere oso presente egon dela rola hautatzerakoan: Araban zein Nafarroan ahobizien herenak baino gehiagok errazago egiten du erdaraz euskaraz baino; eta EAEko 4. gune soziolinguistikoa, belarripresten % 40ek errazago egiten dute euskaraz.

- **Ahobizi izandako belarriprestak, bigarren edizioan.** Belarriprest euskaldun osoen gorakada txikia antzematen da. 2020an belarriprest rola hartu duten bostetik batek dio 2018ko edizioarekin alderatuta rola aldatu duela, beraz, ahobizi izateatik belarriprest izatera igaro dela.
- **Belarriprest rola, gutxietsia.** Parte-hartzaileen herenak dio ahobizi izatea zailagoa dela belarriprest izatea baino. Nagusitasuna, aldiz, ahobizi rola dauka. Horren aurrean, beste irakurketa bat ere azaleratu dute batzuk: rolaren hautaketa rol bakoitzak transmititzen duen irudiarekin edo ideiarekin lotu dute, eta diote belarriprest txapa daramana ez dela guttiz euskalduna. Txapa, beraz, komunitate bateko kide sentiarazteko modua da batzuentzat, euskalduna zarela erakusteko: "Zu gutarra zara!".

## C) JARDUNA

- **Ahobiziak izan dira txapa gehiago jantzi dutenak, rol bakoitzari ezarritako konpromisoen betetze-maila altuagoa dutenak eta ondorioz, euskara gehiago egin edota entzun dutenak.** Ahobiziek gehiago erabili dute txapa belarriprestek baino, eta konpromisoen betetze-maila ere ildo beretik doa, baita euskararen erabilera ere. Hortaz, badirudi lotuta doala: txapa gehiago eramateak konpromisoak betetzea dakar, eta euskara gehiago egin eta entzutera. Hiru faktoreak baxuagoak dira Nafarroan EAEn baino, eta belarriprestetan ahobizietan baino.
- **Txaparen eragina, ukazina. Ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko erabiltzen du gehiengoak txapa bi erkidegoetan.** Nafarroan altuagoa da portzentajea, eta adierazi dezake identifikatzeko behar handiagoa dagoela bertan, euskal komunitatea sortzearena. Ildo horretatik, nahiz eta askok onartu ez dutela behar beste erabili, oso eragin potentea aitortzen diote: besteek euskaraz egin zaitzaten balio du, bereziki. Dena den, aurreko edizioan baino indar gutxiago izan du.
- **Lehen hitza, gutxienez, euskaraz, eta ahal denean, elkarrizketa osoa ere bai.** Euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egiteko jokabidea da Euskaraldian zehar gehien zabaldu dena, eta lehen hitza euskaraz egiteko ohitura ere askok hartu dute; hain zuzen, horiek biak izan dira parte-hartzaileentzat errazena. Rolak ezarritako jokabideei jarraituz, ahobiziak bereziki animatu dira elkarrizketa elebidunak izatera, baina belarriprestek, aldiz, gutxiago eskatu dute euskaraz egin diezaieten. Dena den, zailena izan da lehen erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea.
- **Gutxi izan dira ikusi dituztenak, eta are gutxiago parte-hartu dutenak.** Parte-hartzaileen herenak besterik ez ditu ariguneak ikusi Euskaraldian zehar. Dena den, euskara gehiago entzun omen dute haietan, beraz, zenbait tokitan aurrerapausoa, behintzat, ekarri dute. Ikusi bai, baina norbanakoengana gutxi iritsi da ariguneen ariketa, eta iritsi bazaio, lantokiagatik izan da. Nafarroan ariguneetan lortutako aldaketak iraunkorragoa dirudi EAEn lortutakoa baino.

## D) ERAGINA

- **Euskaraldian zehar euskararen erabilerak gora egiten du, eta behera ondoren.** Dena den, 2020an ohitura batzuk aldatzea lortu dute batzuk, baina 2018an eragina handiagoa izan omen zen: "txip" aldaketa bat ekarri omen zuen lehen edizioak. Oro har, Gipuzkoan izan da aldaketarik handiena, gune euskaldunenetan eta belarriprestetan; Bizkaiko belarriprestek aldaketa handiagoa sumatu dute.
- **Rola erraz bete dutenekin euskararen erabilera egonkortu dute belarriprestek; errazago egin dute atzera ahobiziek.** Parte-hartzaileentzat errazagoa da seme-alabekin rolaren konpromisoak betetzea. Ahobizietan erraztasun horrek berdin balio du atzera egiteko: askorentzat zaila izan da gertukoenekin aldaketari eustea. Belarripresten kasuan, aldiz, aldaketa txikia da, baina egonkorra. Ezezagunekin edota zerbitzu pribatuetan da ariketa zailagoa bi roletzat; bertan izan da aurrerapausorik handiena, baita egonkorrena ere: lehen pausoa ematea lortu da, eta tinkoago eutsi zaio.

## E) BALORAZIOA

- **Urteroko ariketa, hamabost egunekoa.** Euskaraldiak urteroko ariketa beharko lukeela uste du gehiengoak, 2020koa bezala, hamabost egunekoa. Jarraipena, gaineraz, bermatuta luke ariketa sozialak: hiru laurdunek baino gehiagok zalantzarik gabe emango luke izena hirugarren edizio batean, bereziki ahobiziek eta nafarrek.
- **COVID-19ak eragina, bereziki, giroan.** Pandemiak izan duen eragina begien bistakoa da, eta hala berretsi dute parte-hartzaileek ere. Giroan eragin du gehien, sozializazioan; askoren ustez, sozializaziorik gabe, ez baitago ariketa sozialik.

## 7.2. ENTITATEAK

### A) PARTE-HARTZEA.

- **Gipuzkoako herri euskaldunetako eta nahiko euskaldunetako zerbitzu establezimendu txikietan lortu du Euskaraldiak hedadurarik handiena.** Horiek erakartzeko, tokian tokiko herri batzordeen lana garrantzi handikoa izan da. Entitate horiek kanpo ariguneak sortu dituzte, batez ere, eta ondo ulertu dute ariketak planteatutakoa. Nolanahi ere, euskararen aldeko konpromisoa adieraztea izan da, haientzat, arrazoi edo motibaziorik handiena.
- **Zenbat eta euskaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa eduki du zerbitzu txikien parte hartzeak.** Aldiz, zenbat eta erdaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa hartu dute hezkuntza arloko egoitzek —Araban edo Nafarroako eremu misto eta ez euskaldunean, edo Lapurdin, adibidez—. Nafarroako inguru euskaldunenetan eta Zuberotan, aldiz, administrazio publikoaren —udal txikien— pisua oso altua da.
- **Ipar Euskal Herrian Euskaraldiaren hedadura mugatua izan da entitateetan.** Parte-hartze handiena Behe Nafarroan eman da, zerbitzu-establezimenduen pisu esanguratsu batekin, kontuan hartuta landa-eremuko lurraldea dela, hein handi batean.
- **Herri batzordeen irismen-maila altua izan da, izena eman duten entitate gehienek izan baitute harremana tokian tokiko herri batzordearekin.** Batez ere, entitate txikiekiko izan dute harremanik estuena. Entitate handien parte-hartzea lortzeko, ordea, funtsezkoa izan da koordinazio orokorraren lana —nolanahi ere, Euskara planak martxan dituzten enpresen eta kooperatiben pisua handia, horien artean—. Entitateetako euskara batzordeen eta zuzendaritzen lana garrantzitsua izan da, batez ere, gune erdaldunetan. Denek ala denek azpimarratu duten zerbait da, bestalde, hedabideetan Euskaraldiak izan duen oihartzuna handia eta lagungarria izan dela.
- **Ariguneetako hainbat partaidek ez dute norbanako gisa izenik eman.** Batzuek ezjakintasunagatik, beste batzuek lan-arloko ariketa gisa ulertu dutelako bakarrik, edo ez dutelako euren bizitzako gainerako esparruetan halako konpromisorik hartu nahi izan. “Behartuta” edo “bultzatuta” izena eman duenik ere bada. Halaber, arigune bateko partaide izateak norberaren ardura murriztea ekarri duela aipatu dute kasu batzuetan — administrazioan eta hezkuntzan, batez ere—, erlaxazioan eta arinkerian erortzea eraginez.

## B) ARIGUNEAK SORTZEA.

- **Entitatearen jarduna inguru baino erabakigarriagoa izan da, sortutako arigune-motari dagokionez.** Barne ariguneak industrian, hezkuntzan edo elkarteetan sortu dira batez ere; kanpo ariguneak zerbitzuetan —zer arigune mota sortu duten ez dakitenean pisua ere altua da zerbitzuetan. Herri batzordeen “presioa”ren eraginez izena eman izana egon daiteke horren atzean—. Bi arigune motak sortu dituztenean pisua administrazio publikoan nabarmentzen da, eta inguruaren ezaugarriei erreparatuz, gune euskaldunetan.
- **Kanpo arigunea sortzea errazagoa iruditu zaie, oro har, konpromiso txikiagokoa.** Kasu horretan garrantzi handia eman diote espazio fisikoari, ikusgarritasunari. Barne arigunea sortu duten entitateetan hausnarketa eta kontzientziatze lan handiagoa egin dutela antzematen da. Zailagoa izan da ariketa ulertzea, ahalegin handiagoa eskatu du, eta, gainera, ikusgarritasun txikiagoa lortu dute barne arigunek.
- **Euskararen aldeko konpromisoa adierazteak pisu handia eduki du ariguneak sortzeko arrazoen artean, erabilera handitzeak baino gehiago.** Konpromisoa adierazteak gune euskaldunetan hartu du garrantzi handiagoa; aldiz, erabilera handitzeak erdaldunetan. Entitate-motaren arabera, erabilera areagotzeak industrian izan du garrantzi handiagoa.
- **Barne ariguneak bakarrik sortzeko joera inguru nahiko erdaldunetako industrian eta hezkuntzan nabarmendu da.** Entitate handiak dira, koordinazio orokorarekin harremana izan dutenak. Barne harremanetan erabilera areagotzeko helburua izan dute, ezagutza aldetik horretarako baldintzak badituzte ere, gaztelaniaz egiteko joera handia baitute. Nafarroan inguru erdalduneko gizarte eragileak nabarmentzen dira, ezagutza aldetik muga handiak dituzte, eta gaztelaniaz egin ohi dute.
- **Kanpo ariguneak bakarrik sortzeko joera inguru nahiko erdaldunetako zerbitzu-establezimenduetan nagusitu da.** Entitate txikiak dira, tokian tokiko herri batzordeekin harremana izan dutenak. Kanpo-harremanetan erabilera areagotu nahi izan dute, entitate barnean ezagutza aldetik muga handiak dituzte eta gaztelania erabiltzen dute nagusiki. Baina, nolabait, herritarrei euskaraz egin diezaieten eskatu nahi izan dute —edo euskararen aldeko jarrera bat adierazi, gutxienez—. Nafarroan, eta antzeko arrazoi direla medio, inguru erdalduneko administrazio publikoa nabarmentzen da, kanpo ariguneak bakarrik sortzeko joerari dagokionez.
- **Bi arigune motak sortzeko joera handiena inguru euskalduneko tamaina ertain-txikiko administrazioan eta gizarte eragileetan antzeman da.** Herri batzordeekin eta koordinazio orokorarekin, biek in izan dute harremana. Gehienek euskaraz dakite, gehiena euskaraz egiten dute eta, hortaz, euskararen aldeko konpromisoa adierazteak pisu handiagoa eduki du haientzat, erabileran eragin esanguratsu bat bilatzeak baino gehiago.

## C) JARDUNA.

- **Ariketaren ulermen-mailan gehiago eragin du hautatutako arigune-motak entitatearen izaerak berak baino.** Kanpo ariguneak bakarrik sortu dituzten entitateetan ariketa hobeto ulertu da, barne ariguneak edo bi arigune motak sortu dituztenetan baino. Finean, barne arigunearen ariketaren planteamendua, edo eman diren azalpenak, konplexuagoak iruditu zaizkie.
- **Ariketa aurrera eramaterako orduan hautemandako erraztasun edo zailtasun-mailan, aldiz, entitate-motak ere eragina izan du.** Barne arigunearen ariketa errazagoa iruditu zaie hezkuntzan, industrian eta elkarteetan—euren jardunean kanpo-harremanak ez du pisu handirik—. Administrazioan, aldiz, errazagoa iruditu zaie kanpo arigunearen ariketa — beharbada barneratuago dute herritarrekiko arretan euskara erabiltzea, euren lan-harremanetan baino—.
- **Inguruak ere eragiten du ariketa gauzaterako orduan.** Inguru euskaldunetan barne arigunearen ariketa errazago egin dute —barne baldintza egokiagoak dituzte, oro har, inguru erdaldunetan baino—; kanpo arigunearena, aldiz, erdaldunetan —Euskaldunen aurrean belarriprest rola jokatzeko errazagoa izan daiteke, erdarazko erabilera-ohiturak dituen entitatean hizkuntza-dinamikak aldatzea baino—. Esanguratsua da elkarrizketa elebidunak edukitzea errazagoa iruditu zaiela gune erdaldunetan euskaldunetan baino.
- **Ariguneen ariketak denbora gehiago behar du.** Batez ere barne ariguneak sortu dituzten hainbat entitateetan adierazi dute aurreko edizioan bezala jokatu dutela, hobizi eta belarriprest roletan oinarrituz Euskaraldiko jarduna; rolek lortu dutela erreferentzialtasun bat, arigunearen figurak oraindik lortu ez duena.

## D) ERAGINA

- **Orokorrean, Euskaraldian eragin bat lortzen da, baina Euskaraldiaren ondoren lehengo ohituretara itzultzeko joera ere handia da.** Nolanahi ere, ondorengo egoera Euskaraldiaren aurrekoa baino hobexeagoa izan ohi da. Hondar bat geratzen da, beraz.
- **Euskaraldia ariketak herri nahiko euskaldunetako administrazioan eta zerbitzuetan izan du inpakturik handiena eta iraunkorra** —Bizkaiko 3.gune soziolinguistikoan eta Nafarroako 2.ean, batez ere—. Euskararen aldeko konpromisoa adierazteaz harago, erabilera areagotzeko helburua eduki dute eta ahalegin bat egin dute, gainera, zentzu horretan. Euskararen ezagutza- eta erabilera-maila handia edo nahiko handia dute, barne arigunearen ariketa erraz egin dute, eta zailagoa iruditu zaie kanpo arigunearen ariketa. Eragina, beraz, kanpo-harremanekikoa izan da, batez ere.
- **EAEko industriako entitateetan eta Nafarroako enpresa pribatuetan Euskaraldian zehar antzeman da eragina, baina atzera bueltatzeko joera handia izan da ondoren.** Entitate horietan ariguneetako partaideen artean lortu da inpaktua, haien arteko harreman informaletan, batez ere — batzuek azpimarratu dute gai informalez erosoago aritu direla, baina teknikoagoak direnak jorratzeko zailtasun handiagoak izan dituztela euskaraz—. Aldiz, ariguneen kanpo-eragina, entitateko gainerako kideekikoa, mugatuagoa da. Entitate horietako askotan kide gutxi batzuk dira euskaldunak, gaztelaniaz egiteko joera handia dute, eta Euskaraldian ahalegina egin duten arren, onartzen dute ez dela behar bestekoa izan.
- **Bestela ere euskara nagusi delako Euskaraldiaren eraginik nabaritu ez duten entitateak inguru euskaldunetako gizarte mugimenduak eta ikastetxeak dira, batez ere.** Bi arigune motak sortu dituzte, edo barne ariguneak, bestela. Koordinazio orokorarekin harremana izan dute. Aldeko konpromisoa adierazteko arrazoiak izan du pisurik handiena, haientzat. Ahalegin txikia egin badute ere, oso erraza iruditu zaie ariketa.
- **2018ko edizioaren eragina azpimarratu dute bi edizioetan parte hartu dutenetako batzuek.** Orduan izan zela aldaketarik handiena, eta neurri batean eutsi egiten diotela oraindik. Hori horrela, 2020ko edizioaren inpaktua mugatuagoa izan dela.



## E) BALORAZIOA.

- **Entitateen erdietan uste dute Euskaraldiak sortutako hizkuntza-dinamikak mantendu egingo dituztela etorkizunean.** Zerbitzu-establezimenduak dira baikorrenak, alde horretatik. Gutxiago dira, Euskaraldiaren eraginez euren egoeraz jabetuta, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartuko dituztenak: hamarretik bi pasatxo.
- **Entitateen erdietan baieztatu dute Covid-19 pandemiaren eta osasun egoerarekin lotutako neurrien eragina handia izan dela.** Batez ere, kideen parte-hartzean eta ariguneak sortzeko prozesuan eragina izan duela diote. Hala ere, batzuek iradoki dute pandemiaren eragina aitzakia gisa ere erabili izan dela.
- **Nafarroan, aurrera begira, Euskaraldiak lurraldearen ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu behar lituzkeela adierazi dute.** Ezaugarri horien arabera ekimena egokitu beharra azpimarratu dute, Gipuzkoa-Bizkaiko ikuspegitik lantzen dela.

## 7.3. HERRI-BATZORDEAK

### A) OSAERA

- **Jarraipenak izan dira 2020ko herri-batzorde gehienak, 2018ko edizioan sortutako taldearenak, batez ere**—nahiz eta kasu askotan aldaketak izan diren—, eta horietako batzuk, dagoeneko sortuta zeuden euskara talde edo batzordeetatik bideratuak.
- **Batzordeetako batzuk aurrerapen handiarekin hasi dira lanean**, kasu batzuetan ia etenik egin gabe, edo 2019ko udazkenean, urtebeteko aurrerapenarekin. Aurrera begira ere, euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko talde egonkorra izan daitekeela uste dute batzuek.
- **Batzorde gehienak txikiak izan dira, 10 kidefik beherakoak** —Nafarroan EAEn baino are txikiagoak izan dira taldeak— Horrekin lotuta, oso gutxi izan dira azpitaldeak sortu dituztenak. 2018ko edizioan baino jende gutxiago aritu da, oro har, herri-batzordeetan. Kopuruaz harago, orduan baino eskasago ibili dira motibazioz eta ilusioz ere.

### B) INIZIATIBA, ORDEZKARITZA ETA ELKARLANA

- **Iniziatiba instituzionala eta soziala eduki dutenen arteko banaketa orekatua izan da.** Nafarroan EAEn baino altuagoa da herritar euskaltzaleen ekimenez sortu diren herri-batzordeen pisua.
- **Udal ordezkariak eduki dute batzorde gehienek, herritar euskaltzaleekin eta euskalgintzako eragileekin batera.** Alabaina, euskalgintzakoak ez diren eragile sozialen ordezkariak txikia izan da. Gazteen, gizonezkoen, euskaldun hartzaileek, Euskal Herrikanpokoaren eta enpresa-ekimen pribatuetako ordezkarien parte-hartze handiago bat faltan sumatu dute.
- **Dinamizatzaile liberatuen eta euskara elkarte edo taldeetako langileen presentzia nabarmenagoa da EAEko herri-batzordeetan** Nafarroakoetan baino. Nolanahi ere, herritar boluntarioen lana funtsezkoa izan da gehien-gehienetan.
- **Elkarlanaren inguruko balorazioa positiboa da, oro har.** Nolanahi ere, EAEn positiboagoa izan da Nafarroan baino. Elkarlanaz eta lan-dedikazioaz, gainera, ez zaie iruditzen 2018ko edizioan baino okerrago aritu direnik.

## C) FINANTZIAZIOA ETA BALIABIDEAK

- **Batzorde gehienek tokian tokiko erakunde publikoetatik jaso dute finantziazioa** — Nafarroan are nabarmenago, EAEn baino—, eta udal azpegiturak erabili dituzte, bilerak egiteko edo bulego-lanetarako. Toki administrazioek bideratu dituzten baliabideekiko onespenez-maila altua da.
- **Aurrekontuak ekintzak antolatzen bideratu dituzte, baliabide personal eta teknikoetara baino gehiago** —auzo eta herri txikietan, eta herri txikiez osatutako eskualdeetan, batez ere—. Finantziazio-maila baino gehiago, aurrekontuen exekuzioan eragin du COVID-19aren pandemiak, ekintzak antolatzerakoan osasun-neurriek ezarritako mugen ondorioz.

## D) IRISMENA

- **Harreman zuzenarekin lotutako komunikazio-kanalak izan dira eraginkorrenak:** elkarrizketa pertsonalak eta informazio-puntuak eta mahaiak. Euskaraldia ekimen orokorra herrira ekartzeko funtzioari dagokionez, txapak banatzeko puntua jarri izanarekin lotzen dute gehienek. Asko dira, halaber, euskarri orokorrak herrira egokitu eta merchandising-a eta banderatzokak saldu dituztenak.
- **Tokian tokiko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetara iritsi dira gehien,** industriara eta enpresa handietara baino gehiago. Nafarroan bereziki altua da erakunde publikoen mendeko elkarte eta sozietateetan lortu den irismen-maila.
- **Herri Batzorde gehienek izen-emate kopuruarekin lotu dute egindako lanaren eragina:** izen-emateak igo edo mantendu badira, lanak isla izan duela ondorioztatzen dute, eta alderantziz.

## 7.4. EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALAZ

- **Euskaraldiak euskarari asko eman dio:** euskararen erabilerari bultzada eta prestigioa, baita euskal hiztunengan ilusioa piztu ere. Horrez gain, euskara agendan jarri du eta elkarlanerako atea ireki ditu.
- **Ariketa nazionala eta praktikoa da, baina komunikazioa hobetu behar du.** Euskal Herri osora zabaldu da, ariketa erraza eta praktikoa da eta elkarlanean antolatzen da. Hala ere, baditu hobetu beharrekoak, bereziki ariketa beraren eta rolen komunikazioari eta ulermenari loturikoak.
- **Euskaraz aritzeko babesgune.** Norbanakoei hizkuntza-ohiturak aldatzeko babes eskaini die, bereziki, belarriprest rola hartu duten euskaldun hartzaileei. Horiek erakartzeko, baina, eremu berrietara jo beharko luke Euskaraldiak. Belarriprest rola prestigioatzeko beharra ere antzeman da.
- **Ariketa kolektiborako saltoa, bide egokian.** Ariguneeen kontzeptua batzuentzat azkarregi sartu bada ere, bide egokian doa eta horretan sakontzen jarraitu behar da.
- **Hizkuntza-ohiturak aldatzeak denbora behar du.** Arnas luzeko bidea da Euskaraldia, denbora behar du aldaketak ikus daitezen, eta beraz, erritmoa ere mantsotu beharra dago.
- **Tokian tokiko lanketa, Euskaraldiaren bereizgarrietako bat.** Ariketa soziala Euskal Herri mailakoa bada ere, herri-batzordeen bidez tokian toki antolatzeko aukera da askorentzat Euskaraldiaren arrakastaren gakoetako bat. Nazionala izateak indarra ematen dio mezuari, baina tokian toki moldagarria dena, bertako ikuspegia txertatzeko. Horrek, baina, eremuen arteko aldeak dakartza, baita koordinatzeko arazoak ere. Era berean, herritarren inplikazioa lortzen du zuzen-zuzenean. Aurrera begira bereziki zaindu behar dira herri-batzordeak.
- **Elkarlanerako eredu berria sortu du.** Lankidetzaren publiko-sozialaren emaitza da Euskaraldia. Aspaldiko eskaerari erantzun dio eta horrek indarra eman dio ariketari, urrutiago heldu da lankidetzari esker. Dena den, arriskuak ere baditu: indarrak orekatuta ez egotea, praktika inkoherenteak, etab. Hain zuzen, elkarlan horri eustea da, bereziki, Euskaltzaleen Topaguneari zein Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaiena.
- **Elkarren arteko mesfidantzak, oraindik presente.** Erakunde publikoen eta euskalgintzaren arteko mesfidantzak norbanako batzuk Euskaraldia instituzionala ikustearekin zerikusia izan dute askotan, baina baita ordezkari instituzionalen presentziak ere, bereziki, COVID-19aren garaian protagonismo gehiago izan dutelako herritarrek baino. Irudi hori aldatzea da datozen urteetako erronketako bat.

- **COVID-19ak erabat baldintzatu du.** 2020ko edizioa 2018koarekin ezin dela alderatu nabarmendu dute batzuek, eta COVID-19aren pandemiak erabat baldintzatu dituela Euskaraldiarekin loturiko zeregin ezberdinak: ariketa antolatzea, aurrera eramatea, arguneen lanketa...